

eman ta zabal zazu



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

## **PSIKOLOGIA FAKULTATEA**

**Nortasuna, Balioespena eta Psikologia Tratamendu Saila**

### **DOKTORETZA TESIA**

**BULLYING LGTB-FOBIKOA EUSKAL HERRIKO NERABEETAN:  
PREBALENTZIA, ALDAGAI PSIKOLOGIKOEKIKO LOTURA ETA  
ERAGINA OSASUN MENTALEAN**

**ENARA LARRAIN MARIÑO**

**ZUZENDARIA: MAITE GARAIGORDOBIL LANDAZABAL**

DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

2019



## ESKER ONAK

Lehenik eta behin, doktorego tesi honetako zuzendariari eskerrak adierazi nahi nizkioke, lehenengo egunetik lan honen zuzendari izateko prestasuna adierazteagatik, profesionaltasunaren esanahia egunero erakutsi didan pertsona izateagatik eta arlo akademikoa ez den beste arloetako momentu oroetan ere ulertua sentitu naizelako. Eskerrik asko zure ondoan ikasteko aukera emateagatik, irakaskuntza eta ikerkuntzarengatik duzun bokazioa transmititzeagatik. Harro sentitzen naiz lan hau miresten dudan pertsona baten ondoan egin ahal izan dudalako.

Ama eta aitari, zuei esker naizen pertsona naiz. Eskerrak niregan sinisten duzuelako beti, bizitzan hartu ditudan erabaki guztietan amaiera arte babestua sentitu naizelako. Gehien behar dudanean indarra emateagatik eta nire motorra izateagatik. Eskerrak nire ispilua izateagatik, egunero pertsona hobeagoa egin nauzuelako. Zuek gabe ezingo nintzateke honaino iritsi. Eman dudan pauso bakoitzean nire ondoan egoteagatik, betirako esker onekoa izango naiz. Niregatik sentitzen duzuen harrotasuna adierazten duzuelako egunero, dena ematen nauzuelako ezere truke. Tesi hau zuena da ere.

Iratiri, ahizpa eta lagun minari. Hau ez litzateke posible izango zu gabe. Izan eta izango zara nire bizitzako pilare garrantzitsuenetako bat, nire bizitzako erreferentea. Ahizpa bat, betirako nire alboan laguntzeko prest egongo den laguna. Eskerrak proiektu honetan hastea erabaki nuenez gero, sostengua emateagatik. Eskerrak zure aholku eta fidagarritasunarengatik. Lorpen hau posible zela sentiarazteagatik. Momentu hau iritsiko zela sentiarazteagatik. Lan hau zu gabe ez litzateke posible izango.

Iratxe, laguna, bizitzako bidelagun. Ez daukat hitzik nire bizitzan duzun esanahia adierazteko, ezta hain denbora gutxian nirekin lortu duzun guztia adierazteko ere. Proiektu honen zati bat zure ondoan egin ahal izateak nirekin eramango dut beti. Jarraitzaile leiala zara, beti izan zara, lehenengo egunetik. Eskerrak dena emateagatik, nirekin husteagatik, niregan sinesteagatik. Eskerrak aurrera jarraitu ezingo nuela pentsatu nuen bakoitzean, beharrezko indarra eman nuazulako. Eskerrak hasieratik ulertu duzulako zein garrantzitsua den hau niretzat, lan hau egiteak ekartzen duen guztiarekin ere, nire ondoan jarraitu nahi izan duzulako. Nire bizitza hankaz gora jarri zenuelako, gaur egun inoiz baina zentzu gehiago izan dezan. Hau ere zuregatik da, guregatik.

Amona, bide hau egiten ari nintzela utzi gintuzulako, baina egunero nirekin sentitzen zaitudalako. Izeba Piliri, dena delako. Erreferente bat, baldintzarik gabeko sostengua, bizitzako pertsona garrantzitsuenetako bat. Eta osaba, eta ia anai-arreba diren Endika eta Udaneri. Eskerrak beti mirespenez begiratzen nauzuelako eta hori betirako eramango dut nirekin.

Elena eta Pexki, laguntasun hitza zuekin motz geratzen da. Baldintzarik gabeko lagunak zaretela erakutsi nauzue, hartzen dudan erabaki bakoitzean lagundu eta nirekin batera joango zaretela adieraziz. Nire bizitzan zaudetelako eta beti nire bizitzan egongo zaretelako harro sentitzen naiz.

Esther, Iraia eta Irantzuri, iraganean bizi genuenak elkarrekin hazi eta heldu gintuelako. Zuei esker ulertu nuen benetan bizitzaren esanahia, familia aukeratu daitekeela eta hau ez litzatekeela posible izango zuen energiarik gabe. Berdin du non gauden, iparraldean, hegoaldean, mila kilometrotara. Abentura horrek elkartu zuena betirako egongo da nire oroimenean eta bihotzean.

Eskerrik asko Juanillo eta Amaia, zuekin ulertu dut ez duela garrantzirik noiz, baizik eta nola eta zenbat. Lehengo egunetik proiektu honetan amaiera arte nirekin egongo zinetela adierazi zenidaten, eta hemen zaudete. Eskerrik asko igandetan egindako familiarteko bazkari bakoitzarengatik, amaigabeak diren elkarriketengatik, dena errazagoa egiteagatik, benetan garrantzitsua denari garrantzia emateagatik.

Lagun eta kideei, bereziki Juan Pablo, Manu eta Ainizeri. Zuri, Juan Pablo, kotxean egindako bidai luzeengatik, beti laguntzeko prest zaudelako irribarre batekin. Zuri Manu, eskerrik asko zure aholkuengatik eta oparitutako minutu bakoitzarengatik. Eta azkenik, Ainize, azken txanpa askoz errazago izatea lortu duzulako. Eta ez ditut ahaztu nahi sailean eta fakultatean lan egin eta noizbait elkartasun hitzen bat eduki duten edo laguntzeko prest adierazi diren langileak.

Eskerrik asko, azkenik, parte hartu duten zentroetako langile, guraso eta ikasle guztiei. Zuekin edukitako topaketa bakoitzean ikasi ahal izan dut. Zuen partehartzerik gabe lan hau ez litzateke posible izango.

**AURKIBIDEA**

<b>LABURPENA .....</b>	<b>19</b>
<b>SARRERA .....</b>	<b>29</b>
<b>1. KAPITULUA. IKERKETAREN HELBURU DIREN ALDAGAIEN DEFINIZIOA.....</b>	<b>33</b>
1.1 ALDAGAI NAGUSIEN DEFINIZIOA: BULLYING ETA CYBERBULLYINGA .....	33
1.2 ANIZTASUN SEXUALAREN INGURUKO ALDAGAIEN DEFINIZIOA .....	37
1.2.1 Sexua eta generoa .....	37
1.2.1.1 Teoria feministak.....	38
1.2.1.2 Teoria antropologikoak eta soziologikoak .....	39
1.2.1.3 Teoria psikoanalitikoak.....	40
1.2.2 Genero eta sexu identitatea.....	41
1.2.3 Orientazio sexuala .....	42
1.2.4 LGTBfobia: kontzeptualizazioa eta sailkapena .....	47
1.2.4.1 Homofobia kognitiboa .....	48
1.2.4.2 Homofobia afektiboa .....	49
1.2.4.3 Jokabidezko homofobia .....	50
1.2.4.4 Homofobia klasikoa eta liberala .....	50
1.2.4.5 Barneratutako homofobia.....	51
1.2.4.6 Homofobia instituzionala .....	52
1.2.5 LGTBfobia eskola testuinguruan.....	54
1.2.6 Bullying LGTB-fobikoa .....	55
1.2.7 Bullying LGTB-fobikoaren ondorioak .....	57
<b>2. KAPITULUA. BULLYING LGTB-FOBIKOAREN PREBALENTZIA ETA ANIZTASUN SEXUALAREKIKO JARRERAK ESKOLA TESTUINGURUAN: ERREBISIO BAT .....</b>	<b>61</b>
<b>3. KAPITULUA. OSASUN MENTALA ETA NORTASUN EZAUGARRIAK LGTB PERTSONETAN: ERREBISIO BAT .....</b>	<b>83</b>
3.1. Osasun mentala LGTB pertsonetan: errebisio bat .....	83
3.2 Nortasun ezaugarriak LGTB pertsonetan: errebisio bat .....	104
<b>4. KAPITULUA. IKERKETAREN HELBURU ETA HIPOTESIAK .....</b>	<b>115</b>
<b>5. KAPITULUA. PARTAIDEAK.....</b>	<b>121</b>
5.1 LAGINAREN DESKRIBAPENA.....	121
5.1.1 Laginaren banaketa partaideen sexuaren, mailaren eta adinaren arabera.....	121
5.1.2 Laginaren banaketa aniztasun sexualaren arabera .....	124
5.1.2.1 Partaideen orientazio sexuala.....	124

5.1.2.2 Partaideen identitate sexuala.....	126
5.1.3 Laginaren banaketa jaiotze lekuaren eta erlijioaren arabera .....	128
5.1.4 Ikastetxeen ezaugarriak.....	129
5.1.5 Partaideen senideen ezaugarriak .....	132
5.1.6 Laguntza psikologikoa eta diagnostikoa .....	137
5.2. LAGINAREN AUKERAKETARAKO PROZEDURA.....	138
<b>6. KAPITULUA. METODOLOGIA ETA EBALUAZIORAKO TRESNAK.....</b>	<b>141</b>
6.1. IKERGAI DIREN ALDAGAIK .....	141
6.2. EBALUAZIO TRESNEN DESKRIBAPENA .....	141
6.2.1 Cyberbullying: Berdinen arteko jazarpenaren Screeninga (Garaigordobil, 2013) .....	144
6.2.2 Bullying homofobia neurtzeko eskala, LGTBIQ populazioari zuzenduta dagoena (Caballo, Arias, Calderero, Salazar eta Iruña, 2011 egokitzapena Caminos eta Quentrequo, 2015).....	147
6.2.3 Nerabezaroaren eta aniztasun sexualaren inguruko inkesta (Pichardo, Molinuelo, Rodríguez, Martín eta Romero, 2007).....	150
6.2.4 Beck-en Depresioaren Inbentarioa II (Beck, Steer eta Brown, 1996; egokitzapena Sanz, García-Vera, Espinosa, Fortún eta Vázquez, 2005).....	152
6.2.5 Nerabeen Estutasun Sozialaren Eskala (SAS-A) (La Greca eta Stone, 1993; espanierazko egokitzapena Olivares et al., 2005) .....	154
6.2.6 SCL-90-R. Berrikusitako 90 sintomen galdetegia (Derogatis, 2002).....	156
6.2.7 Bem-en Sexu Rolaren Inbentarioa (Bem, 1981; espanierazko egokitzapena Fernández eta Páez, 2004).....	158
6.2.8 Oxford-eko Zoriontasunaren Eskala (Hills eta Argyle, 2002; espanierazko egokitzapena Garaigordobil, 2015a).....	160
6.2.9 TMMS-24. Trait Meta-Mood Scale. Metaezagutza-ezaugarrien eskala (Salovey, Mayer, Goldman, Turvei eta Palfai, 1995; espanierazko egokitzapena Fernández-Berrocal, Extremera eta Ramos, 2004) .....	162
6.2.10 Enpatia Kognitiboaren eta Afektiboaren Testa (EKAT) (López-Pérez, Fernández- Pinto eta Abad, 2008) (nerabeentzat egokitzapena Gorostiaga, Balluerka eta Soroa, 2014).....	163
<b>7. KAPITULUA. DISEINUA ETA PROZUDURA .....</b>	<b>169</b>
<b>8. KAPITULUA. EMAITZAK.....</b>	<b>173</b>
8.1 BULLYING: PREBALENTZIA.....	173
8.1.1 Bullying: biktima, erasotzaile eta biktima-erasotzaileen prebalentzia.....	174
8.1.1.1 Bullying: Prebalentzia globala eta larria .....	174
8.1.1.2 Bullying: Portaera fisiko, ahozko, sozial eta psikologikoen prebalentzia .....	176
8.1.2 Bullying: Prebalentzia sexuaren arabera .....	179
8.1.2.1. Bullying: Neska eta mutilen ehunekoak, biktima, erasotzaile eta biktima-erasotzaileak ....	179

8.1.2.2 Bullying: Mutil eta neskek pairatu eta burututako jokaera erasokorren kopurua .....	184
8.1.3 Bullying: Prebalentzia orientazio sexualaren arabera .....	185
8.1.3.1. Bullying: heterosexualen eta ez-heterosexualen ehunekoak, biktima, erasotzaile eta biktima-erasotzaileak .....	185
8.1.3.2 Bullying: heterosexualek eta ez-heterosexualek pairatu eta burututako jokaera erasokorren kopurua.....	190
8.1.3.3 Biktimak, erasotzaileak eta biktima-erasotzaileak: heterosexualen, gayen, lesbianen, bisexualen eta orientazio sexuala argi ez duten pertsonen ehunekoak.....	192
8.1.3.4 Bullying: Heterosexualek, gayek, lesbianek, bisexualak eta orientazio sexuala argi ez dutenek pairatu eta burututako jokaera erasokorren kopurua .....	194
8.1.4 Bullying: Prebalentzia identitate sexualaren arabera .....	196
8.1.4.1 Zisgeneroen eta ez-zisgeneroen ehunekoak, biktima, erasotzaile eta biktima-erasotzaileak .....	196
8.1.4.2 Bullying: Pertsona zisgeneroek eta ez-zisgeneroek sufritutako eta burututako jokaera erasokorren kopurua .....	201
8.2 CYBERBULLYING: PREBALENTZIA .....	202
8.2.1 Cyberbullying: Ziberbiktima, zibererasotzaile eta ziberbiktima-erasotzaileen prebalentzia .....	203
8.2.1.1 Cyberbullying: Prebalentzia globala eta larria .....	203
8.2.1.2 Ziberbiktima eta zibererasotzaileen prebalentzia cyberbullyingeko erasoetan.....	205
8.2.2 Cyberbullying: Prebalentzia sexuaren arabera .....	220
8.2.2.1 Cyberbullying: Neska eta mutilen ehunekoak, ziberbiktima, zibererasotzaile eta ziberbiktima-erasotzaileak .....	220
8.2.2.2 Cyberbullying: Mutil eta neskek pairatu eta burututako jokaera erasokorren kopurua .....	225
8.2.3 Cyberbullying: Prebalentzia orientazio sexualaren arabera .....	226
8.2.3.1. Cyberbullying: heterosexualen eta ez-heterosexualen ehunekoak, biktima, erasotzaile eta biktima-erasotzaileak.....	226
8.2.3.2 Cyberbullying: heterosexualek eta ez-heterosexualek pairatu eta burututako jokaera erasokorren kopurua .....	231
8.2.3.3 Ziberbiktima, zibererasotzaile eta ziberbiktima-erasotzaileak: heterosexualen, gayen, lesbianen, bisexualen eta orientazio sexuala argi ez duten pertsonen ehunekoak.....	232
8.2.3.4 Cyberbullying: Heterosexualek, gayek, lesbianek, bisexualak eta orientazio sexuala argi ez dutenek pairatu eta burututako jokaera erasokorren kopurua .....	235
8.2.4. Cyberbullying: Prebalentzia identitate sexualaren arabera .....	237
8.2.4.1 Zisgeneroen eta ez-zisgeneroen ehunekoak, ziberbiktima, zibererasotzaile eta ziberbiktima-erasotzaileak .....	237
8.2.4.2 Cyberbullying: Pertsona zisgeneroek eta ez-zisgeneroek sufritutako eta burututako jokaera erasokorren kopurua .....	241

8.3 BULLYING LGTB-FOBIKOA: PREBALENTZIA PERTSONA HETEROSEXUAL ETA EZ-HETEROSEXUALETAN .....	242
8.4 NERABEEN JARRERAK ANIZTASUN SEXUALAREN AURREAN .....	245
8.4.1 Nerabeek LGTB pertsonen inguruan duten ezagutza .....	246
8.4.2 Nerabeen jokaera erasokorrek aniztasun sexualaren aurrean .....	246
8.4.2.1 Aniztasun sexualaren aurreko jarrera erasokorrek: Sexuaren araberako aldeak .....	250
8.4.3 Nerabeek aniztasun sexualaren aurrean dituzten jarrera orokorrak .....	252
8.4.3.1 LGB pertsonen pairatzen duten tratua inguruko iritzia .....	253
8.4.3.2 Nerabeen jarrera LGTB den irakaslearen aurrean .....	253
8.4.3.3 Nerabeek bikote homosexualaren aurrean duten jarrera .....	255
8.4.3.4 Nerabeen jarrera LGTB den kide baten aurrean .....	258
8.4.4 Nerabeen hautematea gizarteak aniztasun sexualaren aurrean dituen jarreraren inguruan .....	263
8.4.4.1 LGTB pertsonen pairatzen duten tratua familia, eskola eta gizartean .....	263
8.4.4.2 Senideen, lagunen, irakasleen eta kideen erreakzioa partaideak LGTB izango balira .....	264
8.5 BULLYING/CYBERBULLYING LGTB-FOBIKOA ETA OSASUN MENTALA .....	265
8.5.1 Bullying/Cyberbullying LGTB-fobikoa: sintoma psikopatologiko bereizgarriak biktima eta erasotzaile heterosexual eta ez-heterosexualetan .....	266
8.6 BULLYING/CYBERBULLYING LGTB-FOBIKOA ETA NORTASUN EZAUGARRIAK .....	278
8.6.1 Bullying/Cyberbullying LGTB-fobikoa: Nortasun ezaugarri bereizgarriak biktima eta erasotzaile heterosexual eta ez-heterosexualetan .....	278
8.7 EMAITZEN LABURPENA .....	292
<b>9. KAPITULUA. ONDORIOAK ETA EZTABAIDA .....</b>	<b>313</b>
9.1 HELBURUAK ETA EZTABAIDA .....	313
9.2 EKARPEN ETA MUGAK .....	333
9.3 ETORKIZUNEKO IKERKETA LERROAK .....	335
<b>ERREFERENTZIAK .....</b>	<b>339</b>
<b>I. ERANSKINA: GALDETEGIAK .....</b>	<b>363</b>
<b>II. ERANSKINA: BAIMEN INFORMATZAILEAK .....</b>	<b>393</b>



## TAULEN, GRAFIKOEN ETA KOADROEN AURKIBIDEA

<b>1. KAPITULUA. IKERKETAREN HELBURU DIREN ALDAGAIEN DEFINIZIOA .....</b>	<b>33</b>
1. Koadroa. Homofobiaren definizioa eta sailkapena.....	54
2. Koadroa. Bullying LGTB-fobikoaren ezaugarriak.....	56
<b>2. KAPITULUA. BULLYING LGTB-FOBIKOAREN PREBALENTZIA ETA ANIZTASUN SEXUALAREN AURREAN GERTATZEN DIREN JARRERAK ESKOLAKO TESTUINGURUAN: ERREBISIO BAT..</b>	<b>61</b>
1. Koadroa. Bullying LGTB-fobikoaren prebalentzia eta aniztasun sexualarekiko jarrerak eskola testuinguruan .....	63
<b>3. KAPITULUA. OSASUN MENTALA ETA NORTASUN EZAUGARRIAK LGTB PERTSONETAN: ERREBISIO BAT.....</b>	<b>83</b>
1. Koadroa. Bullying LGTB-fobikoa eta osasun mentala .....	84
2. Koadroa. Osasun mentala LGTB pertsonetan.....	95
3. Koadroa. Nortasun ezaugarriak eta LGTB: errebisio bat.....	105
<b>5. KAPITULUA. PARTAIDEAK.....</b>	<b>121</b>
1. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak sexuaren arabera.....	121
1. Grafikoa. Partaideen ehunekoak sexuaren arabera .....	121
2. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak adinaren arabera.....	122
2. Grafikoa. Partaideen ehunekoak adinaren arabera .....	122
3. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak ikasturtearen arabera.....	123
3. Grafikoa. Partaideen ehunekoak ikasturtearen arabera .....	123
4. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak ikasturte eta adinaren arabera .....	123
5. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak sexu eta ikasturtearen arabera .....	124
6. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak orientazio sexualaren arabera.....	124
4. Grafikoa. Partaideen ehunekoak orientazio sexualaren arabera .....	125
7. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak orientazio sexualaren eta sexuaren arabera .....	125
8. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak orientazio sexualaren eta ikasturtearen arabera .....	126
9. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak identitate sexualaren arabera.....	126
5. Grafikoa. Partaideen ehunekoak identitate sexualaren arabera .....	127
10. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak identitate sexualaren eta sexuaren arabera .....	127
11. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak identitate sexualaren eta ikasturtearen arabera.....	128
6. Grafikoa. Partaideen ehunekoak jaiotze lekuaren arabera .....	128
12. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak erlijioaren arabera.....	129
7. Grafikoa. Partaideen ehunekoak erlijioaren arabera.....	129

13. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak ikastetxearen probintziaren arabera.....	130
8. Grafikoa. Partaideen ehunekoak ikastetxearen probintziaren arabera .....	130
14. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak ikastetxearen arabera .....	130
15. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak ikastetxeen sarearen arabera .....	131
9. Grafikoa. Partaideen ehunekoak ikastetxeen sarearen arabera .....	131
16. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak ikastetxearen sare mota eta probintziaren arabera .....	131
17. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak ikastetxeen ingurunearen arabera .....	132
10. Grafikoa. Partaideen ehunekoak ikastetxearen ingurunearen arabera .....	132
18. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak familia motaren arabera .....	133
11. Grafikoa. Partaideen ehunekoak familia motaren arabera.....	133
19. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak aitaren lanbidearen arabera .....	134
20. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak amaren lanbidearen arabera.....	135
21. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak aitaren hezkuntza mailaren arabera.....	136
12. Grafikoa. Partaideen ehunekoak aitaren hezkuntza mailaren arabera .....	136
22. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak amaren hezkuntza mailaren arabera .....	136
13. Grafikoa. Partaideen ehunekoak aitaren hezkuntza mailaren arabera .....	137
23. Taula. Laguntza psikologikoaren maiztasunak eta ehunekoak.....	137
14. Grafikoa. Laguntza psikologikoaren ehunekoak .....	137
24. Taula. Laguntza psikologikoaren arrazoen maiztasunak eta ehunekoak.....	138
<b>6. KAPITULUA. METODOLOGIA ETA EBALUAZIORAKO TRESNAK .....</b>	<b>141</b>
1. Koadroa. Ebaluazio tresnak.....	141
2. Koadroa. Bullying homofoboaren eskalaren bidez ebaluatutako aldagaiak, itemak eta puntuazio minimo eta maximoak .....	149
3. Koadroa: Bullying homofoboa: biktima, erasotzailea eta behatzailea .....	149
4. Koadroa. BDI-ren tarteak eta eta puntuazio totalak .....	153
5. Koadroa. SAS-A eskalaren azpieskalak, itemak eta puntuazio minimoak eta maximoak .....	155
6. Koadroa. SCL-90 R-ren dimentsioak, itemak eta puntuazio minimo eta maximoak .....	158
7. Koadroa. BSRI eskalaren puntuazioen interpretazioa .....	160
8. Koadroa. TMMS-24 eskalaren faktore eta baremoak eta sexuaren araberako interpretazioa .....	162
9. Koadroa. EKAT eskalaren azpieskalak, itemak eta puntuazio minimo eta maximoak .....	165
<b>8. KAPITULUA. EMAITZAK .....</b>	<b>173</b>
1. Grafikoa. Bullying globalaren biktimen, erasotzaileen eta biktima-erasotzaileen ehunekoak .....	175
2. Grafikoa. Laginaren banaketa biktima huts, erasotzaileetan huts eta biktima-erasotzaileetan .....	175
3. Grafikoa. Biktima eta erasotzaile larrien eta noizbehinkakoen ehunekoak laginaren gainean.....	176

1. Taula. Biktima eta erasotzaileak: parte-hartzaileen maiztasun eta ehunekoak eraso motaren arabera.....	177
4. Grafikoa. Bullying globalaren portaeren biktima eta erasotzaileen ehunekoak (“batzuetan”, “sarritan” eta “beti”).....	177
5. Grafikoa. Aurrez aurreko portaeren biktimen ehunekoak (globala eta larria).....	178
6. Grafikoa. Aurrez aurreko portaeren erasotzaileen ehunekoak (globala eta larria).....	178
7. Grafikoa. Bullying globala: Neska eta mutil biktimen eta erasotzaileen ehunekoak (sexu bakoitzaren laginaren gainean) .....	181
8. Grafikoa. Bullying globala: Neska eta mutil biktima huts, erasotzaile huts eta biktima-erasotzaileen ehunekoak (sexu bakoitzaren laginaren gainean).....	181
9. Grafikoa. Bullying: Neska eta mutil biktima larrien, noizbehinkako biktimen eta ez-biktimen ehunekoak.....	183
10. Grafikoa. Bullying: Neska eta mutil erasotzaile larrien, noizbehinkako erasotzaileen eta ez-erasotzaileen ehunekoak .....	183
2. Taula. Bullying adierazleen batz bestekoak, desbideratze tipikoak, bariantza analisia eta eraginaren tamaina (Cohenen <i>d</i> ) neska eta mutiletan.....	184
11. Grafikoa. Bullying adierazleen batz besteko puntuazioak sexuaren arabera.....	184
12. Grafikoa. Bullying Globala: Biktima eta erasotzaile heterosexualen eta ez-heterosexualen ehunekoak (orientazio sexualaren talde bakoitzeko laginarean).....	187
13. Grafikoa. Bullying Globala: Biktima huts, erasotzaile huts eta biktima-erasotzaile heterosexualen eta ez-heterosexualen ehunekoak (orientazio sexualaren talde bakoitzeko laginaren gainean).....	187
14. Grafikoa. Bullying: biktima larrien, noizbehinkako biktimen eta ez-biktimen ehunekoak heterosexueletan eta ez-heterosexualetan .....	189
15. Grafikoa. Bullying: Erasotzaile larrien, noizbehinkako erasotzaileen eta ez-erasotzaileen ehunekoak heterosexualetan eta ez-heterosexualetan .....	190
3. Taula. Bullyingaren adierazleen batz bestekoak, desbideratze tipikoa, bariantza analisia eta eraginaren tamaina (Cohenen <i>d</i> ) heterosexueletan eta ez-heterosexueletan.....	191
16. Grafikoa. Bullying adierazleen batz besteko puntuazioak orientazio sexualaren arabera.....	191
17. Grafikoa. Bullying Globala: Biktimen, erasotzaileen eta biktima-erasotzaileen ehunekoak orientazio sexualaren arabera .....	193
4. Taula. Bullyingaren adierazleen batz bestekoak, desbideratze tipikoa, bariantza analisia, eraginaren tamaina (Eta karratua) eta post-Hoc kontrastea orientazio sexualaren arabera .....	195
18. Grafikoa. Bullying adierazleen batz besteko puntuazioak orientazio sexualaren arabera.....	195
19. Grafikoa. Bullying Globala: Biktima eta erasotzaile zisgenero eta ez-zisgeneroen ehunekoak (identitate sexual bakoitzeko laginaren gainean) .....	198
20. Grafikoa. Bullying Globala: Biktima huts, erasotzaile huts eta biktima-erasotzaile zisgeneroen eta ez-zisgeneroen ehunekoak (identitate sexual bakoitzeko laginaren gainean).....	198

21. Grafikoa. Bullying: Biktima larrien, noizbehinkako biktimen eta ez-biktimen ehunekoak zisgeneroetan eta ez-zisgeneroetan.....	200
22. Grafikoa. Bullying: Erasotzaile larrien, noizbehinkako erasotzaileen eta ez-erasotzaileen ehunekoak zisgeneroetan eta ez-zisgeneroetan .....	200
5. Taula. Bullying adierazleen batz bestekoak, desbideratze tipikoak, bariantza analisiak eta eraginaren tamaina (Cohenen <i>d</i> ) identitate sexualaren arabera .....	201
23. Grafikoa. Bullying adierazleen batz besteko puntuazioak identitate sexualaren arabera.....	202
24. Grafikoa. Ziberbiktima, zibererasotzaile eta ziberbiktima-erasotzaileen ehunekoak.....	204
25. Grafikoa. Cyberbullying: Laginaren banaketa ziberbiktima hutsetan, zibererasotzaile hutsetan eta ziberbiktima-erasotzaileetan.....	204
26. Grafikoa. Cyberbullying: Ziberbiktima eta zibererasotzaile larrien eta noizbehinkoen ehunekoak laginaren gainean.....	205
6. Taula. Ziberbiktimen maiztasun eta ehunekoak.....	206
27. Grafikoa. Cyberbullying portaera globalen ziberbiktimen ehunekoak .....	207
28. Grafikoa. Cyberbullying portaera larrien ziberbiktimen ehunekoak.....	209
7. Taula. Zibererasotzaileeen maiztasun eta ehunekoak.....	211
29. Grafikoa. Cyberbullying portaera globalen zibererasotzaileen ehunekoak .....	212
30. Grafikoa. Cyberbullying portaera larrien zibererasotzaileen ehunekoak.....	214
8. Taula. Prebalentzia globalaren ehunekoak ziberbiktimetan eta zibererasotzaileetan .....	216
31. Grafikoa. Cyberbullying globalaren prebalentzia ziberbiktimetan eta zibererasotzaileetan.....	217
32. Grafikoa. Cyberbullying larriaren ehunekoak ziberbiktima eta zibererasotzaileetan .....	219
33. Grafikoa. Cyberbullying Globala: Neska eta mutil ziberbiktimen eta zibererasotzaileen ehunekoak (sexu bakoitzaren laginaren gainean) .....	222
34. Grafikoa. Cyberbullying Globala: Neska eta mutil ziberbiktima huts, zibererasotzaile huts eta ziberbiktima-erasotzaileen ehunekoak (sexu bakoitzaren laginaren gainean) .....	222
35. Grafikoa. Cyberbullying: Neska eta mutil ziberbiktima larrien, noizbehinkako ziberbiktimen eta ez-ziberbiktimen ehunekoak.....	224
36. Grafikoa. Cyberbullying: Neska eta mutil zibererasotzaile larrien, noizbehinkako zibererasotzaileen eta ez-zibererasotzaileen ehunekoak.....	224
9. Taula. Cyberbullying adierazleen batz bestekoak, desbideratze tipikoak, bariantza analisis eta eraginaren tamaina (Cohenen <i>d</i> ) neska eta mutiletan.....	225
37. Grafikoa. Cyberbullying adierazleen batz besteko puntuazioak sexuaren arabera.....	225
38. Grafikoa. Cyberbullying Globala: Ziberbiktima eta zibererasotzaile heterosexualen eta ez-heterosexualen ehunekoak (orientazio sexualaren talde bakoitzeko laginaren ganean)....	228
39. Grafikoa. Cyberbullying Globala: Ziberbiktima huts, zibererasotzaile huts eta ziberbiktima-erasotzaile heterosexualen eta ez-heterosexualen ehunekoak (orientazio sexualaren talde bakoitzeko laginaren gainean) .....	228

40. Grafikoa. Cyberbullying: ziberbiktima larrien, noizbehinkako ziberbiktimen eta ez-ziberbiktimen ehunekoak heterosexualetan eta ez-heterosexualetan .....	230
41. Grafikoa. Cyberbullying: ziberbiktima larrien, noizbehinkako ziberbiktimen eta ez-ziberbiktimen ehunekoak heterosexualetan eta ez-heterosexualetan .....	230
10. Taula. Cyberbullying adierazleen batz bestekoak, desbideratze tipikoak, bariantza analisia eta eraginaren tamaina (Cohenen <i>d</i> ) heterosexualetan eta ez-heterosexualetan .....	231
42. Grafikoa. Cyberbullying adierazleen batz besteko puntuazioak orientazio sexualaren arabera ..	232
43. Grafikoa. Cyberbullying Globala: Ziberbiktimen, zibererasotzaileen eta ziberbiktima-erasotzaileen ehunekoak orientazio sexualaren arabera .....	234
11. Taula. Cyberbullying adierazleen batz bestekoak, desbideratze tipikoa, bariantza analisia, eraginaren tamaina (Eta karratua) eta post-Hoc kontrastea orientazio sexualaren arabera.....	236
44. Grafikoa. Cyberbullying: adierazleen batz besteko puntuazioak orientazio sexualaren arabera .	236
45. Grafikoa. Cyberbullying Globala: Ziberbiktima eta zibererasotzaile zisgenero eta ez-zisgeneroen ehunekoak (identitate sexual bakoitzeko laginaren gainean) .....	238
46. Grafikoa. Cyberbullying Globala: Ziberbiktima huts, zibererasotzaile huts eta ziberbiktima-ererasotzaile zisgenero eta ez-zisgeneroen ehunekoak (identitate sexual bakoitzeko laginaren gainean) .....	239
47. Grafikoa. Cyberbullying: Ziberbiktima larrien, noizbehinkako ziberbiktimen eta ez-biktimen ehunekoak zisgeneroetan eta ez-zisgeneroetan .....	240
48. Grafikoa. Cyberbullying: Zibererasotzaile larrien, noizbehinkako zibererasotzaileen eta ez-zibererasotzaileen ehunekoak zisgeneroetan eta ez-zisgeneroetan .....	241
12. Taula. Cyberbullying adierazleen batz bestekoak, desbideratze tipikoak, bariantza analisia eta eraginaren tamaina (Cohenen <i>d</i> ) identitate sexualaren arabera .....	242
49. Grafikoa. Adierazleen batz besteko puntuazioak identitate sexualaren arabera.....	242
50. Grafikoa. Bullying LGTB-fobiko Globala: Biktima, erasotzaile eta behatzaileen ehunekoak heterosexualetan eta ez-heterosexualetan .....	244
51. Grafikoa. Bullying LGTB-fobiko Larria: Biktima, erasotzaile eta behatzaileen ehunekoak heterosexualetan eta ez-heterosexualetan .....	245
52. Grafikoa. LGTB pertsonak ezagutzen dituzten partaideen ehunekoak .....	246
13. Taula. Partaideek aniztasun sexualaren aurrean dituzten jokaera erasokorren maiztasun eta ehunekoak.....	247
53. Grafikoa. Aniztasun sexualaren aurreko jarrerak: biktimen, erasotzaileen eta behatzaileen ehunekoak.....	248
14. Taula. Aniztasun sexualaren aurreko jarrera erasokorrek: biktimen maiztasun eta ehunekoak sexuaren arabera .....	250
54. Grafikoa. Aniztasun sexualaren aurreko jarrera erasokorrek: biktimen ehunekoak sexuaren arabera.....	251
15. Taula. Aniztasun sexualaren aurreko jarrera erasokorrek: erasotzaileen maiztasun eta ehunekoak sexuaren arabera .....	251

55. Grafikoa. Aniztasun sexualaren aurreko jarrera erasokorrek: erasotzaileek ehunekoak sexuaren arabera.....	252
56. Grafikoa. LGTB pertsonenganako mespretxuzko jarrera.....	253
57. Grafikoa. Nerabeen jarrera LGTB den irakaslearen aurrean .....	253
16. Taula. Nerabeen jarreta LGTB den irakaslearen aurrean: maiztasun eta ehunekoak sexuaren arabera.....	254
58. Grafikoa. Nerabeen jarrera LGTB den irakaslearen aurrean sexuaren arabera .....	255
59. Grafikoa. Nerabeen jarrera bi gizonek osatutako bikoteak sentimenduak publikoan adieraztean .	256
60. Grafikoa. Nerabeen jarrera bi emakumeek osatutako bikoteak sentimenduak publikoan adieraztean .....	256
17. Taula. Jarrerak bi gizonek osatutako bikote baten aurrean: maiztasun eta ehunekoak sexuaren arabera.....	257
61. Grafikoa. Sexuaren arabera jarrerak bi gizonek osatutako bikote baten aurrean .....	257
18. Taula. Jarrerak bi emakumeek osatutako bikotearen aurrean: maiztasun eta ehunekoak sexuaren arabera.....	257
62. Grafikoa. Sexuaren arabera jarrerak bi emakumeek osatutako bikote baten aurrean .....	258
19. Taula. Jarrerak LGTB kide baten aurrean: maiztasun eta ehunekoak.....	259
63. Grafikoa Nerabeen jarrerak LGTB kide baten aurrean .....	259
20. Taula. Jarrera LGTB den kidearen aurrean: maiztasun eta ehunekoak sexuaren arabera.....	260
64. Grafikoa. Sexuaren arabera jarrerak gaya den kidearen aurrean .....	261
65. Grafikoa. Sexuaren arabera jarrerak lesbiana den kidearen aurrean .....	261
66. Grafikoa. Sexuaren arabera jarrerak bisexuala den kidearen aurrean.....	262
67. Grafikoa. Sexuaren arabera jarrerak transexuala den kidearen aurrean .....	262
68. Grafikoa. Nerabeen hautematea LGTB pertsonak pairatzen duten tratua inguruan.....	263
21. Taula. Inguru sozialen erreakzioak partaideak LGTB izango balira: nerabeen hautematearen maiztasun eta ehunekoak .....	264
69. Grafikoa. Inguru sozialen erreakzioak partaideak LGTB izango balira: nerabeen hautematea .....	265
22. Taula. Batz bestekoak, desbideratze tipikoak, bariantza analisiak eta eraginaren tamaina (Cohenen <i>d</i> ) bullyingaren biktima eta erasotzaileen sintoma psikopatologikoetan orientazio sexualaren arabera.....	267
70. Grafikoa. Sintoma psikopatologikoen batz besteko puntuazioak bullyingaren biktimetan orientazio sexualaren arabera .....	268
71. Grafikoa. Sintoma psikopatologikoen batz besteko puntuazioak bullyingaren erasotzaileetan orientazio sexualaren arabera.....	269
23. Taula. Batz bestekoak, desbideratze tipikoak, bariantza analisiak eta eraginaren tamaina (Cohenen <i>d</i> ) cyberbullyingaren biktima eta erasotzaileen sintoma psikopatologikoetan orientazio sexualaren arabera .....	271

72. Grafikoa. Sintoma psikopatologikoen batz besteko puntuazioak cyberbullyingaren biktimetan orientazio sexualaren arabera.....	272
73. Grafikoa. Sintoma psikopatologikoen batz besteko puntuazioak cyberbullyingaren erasotzaileetan orientazio sexualaren arabera.....	273
24. Taula. Batz bestekoak, desbideratze tipikoak, bariantza analisiak eta eraginaren tamaina (Cohenen <i>d</i> ) bullying/cyberbullying LGTB-fobikoaren biktima eta erasotzaileen sintoma psikopatologikoetan orientazio sexualaren arabera.....	275
74. Grafikoa. Sintoma psikopatologikoen batz besteko puntuazioak bullying/cyberbullying LGTB-fobikoaren biktimetan orientazio sexualaren arabera.....	276
75. Grafikoa. Sintoma psikopatologikoen batz besteko puntuazioak bullying/cyberbullying LGTB-fobikoaren erasotzaileetan orientazio sexualaren arabera.....	277
25. Taula. Batz bestekoak, desbideratze tipikoak, bariantza analisiak eta eraginaren tamaina (Cohenen <i>d</i> ) bullyingaren biktima eta erasotzaileen nortasun ezaugarrietan orientazio sexualaren arabera.....	280
76. Grafikoa. Nortasun ezaugarrien batz besteko puntuazioak bullyingaren biktimetan orientazio sexualaren arabera.....	281
77. Grafikoa. Nortasun ezaugarrien batz besteko puntuazioak bullyingaren biktimetan orientazio sexualaren arabera.....	282
26. Taula. Batz bestekoak, desbideratze tipikoak, bariantza analisiak eta eraginaren tamaina (Cohenen <i>d</i> ) cyberbullyingaren biktima eta erasotzaileen nortasun ezaugarrietan orientazio sexualaren arabera.....	284
78. Grafikoa. Nortasun ezaugarrien batz besteko puntuazioak cyberbullyingaren biktimetan orientazio sexualaren arabera.....	285
79. Grafikoa. Nortasun ezaugarrien batz besteko puntuazioak cyberbullyingaren erasotzaileetan orientazio sexualaren arabera.....	286
27. Taula. Batz bestekoak, desbideratze tipikoak, bariantza analisiak eta eraginaren tamaina (Cohenen <i>d</i> ) bullying/cyberbullying LGTB-fobikoaren biktima eta erasotzaileen nortasun ezaugarrietan orientazio sexualaren arabera.....	288
80. Grafikoa. Nortasun ezaugarrien batz besteko puntuazioak bullying/cyberbullying LGTB-fobikoaren biktimetan orientazio sexualaren arabera.....	289
81. Grafikoa. Nortasun ezaugarrien batz besteko puntuazioak bullying/cyberbullying LGTB-fobikoaren erasotzaileetan orientazio sexualaren arabera.....	290
1. Koadroa. Emaizen laburpena: Bullying eta Cyberbullyingaren prebalentzia.....	292
2. Koadroa. Emaizen laburpena: Bullying LGTB-fobikoaren prebalentzia eta pertsona heterosexual eta ez-heterosexualen arteko desberdintasunak.....	302
3. Koadroa. Emaizen laburpena: Nerabeen jarrerak aniztasun sexualaren aurrean.....	303
4. Koadroa. Emaizen laburpena: Sintoma psikopatologikoetan eta nortasun ezaugarrietan desberdintasunak bullying/cyberbullying orokorra eta LGTB-fobikoa sufritu edota burutu duten pertsona heterosexual eta ez-heterosexualen artean.....	308





---

**LABURPENA**

---



## LABURPENA

Azken hamarkadan, bullyinga bere modalitate guztietan (presentziala eta elektronikoa), komunitate zientifikokoan interes handia piztu duen fenomeno da. Jokaera hauen eragina suntsizaitzailea izan daiteke bai biktimetan eta baita erasotzaile eta behatzaileetan ere. Adin tarte desberdinetan fenomeno honen prebalentzia eta ondorioak ikertzea helburutzat duten ikerketek ahazten dute, jokaera hauek sufritzeko kalteberatasun handiago duten kolektiboak existitzen direla. Ez-normatiboa den orientazio edota identitate sexuala duten pertsonak, adibidez, biktima erraza izaten dira erasotzaileentzat eta maiztasun handiagoarekin sufritzen dute bai bullyinga eta baita cyberbullyinga eta jokaera LGTBfobikoak ere. Hezkuntzak testuinguru honetan duen erantzukizuna kontuan hartuta, beharrezkoa da nerabeek aniztasun sexualaren aurrean hartzen dituzten jarrerak ebaluatzea eta desberdina den pertsonarekiko tolerantzia eta errespetua indartzen duten jarduerak inplementatzeko beharra nabarmentzea. Halaber, eremu honetako ebidentzia eskasak berretsi du orientazio edota identitate sexual ez-normatiboa duten pertsonen osasun mental txarragoa eta nortasun ezaugarri desberdinak dituztela pertsona heterosexualekin eta zisgeneroekin alderatuz.

Ikerketa honen helburu nagusia, 13-17 urte bitarteko nerabeek bizitzan zehar, sufritu edota burutu duten bullying eta cyberbullying LGTB-fobikoaren prebalentzia aztertzea izan zen, bullying eta cyberbullying orokorraren prebalentziaren testuinguruaren barruan. Era osagarrian, nerabeek eskolan aniztasun sexualaren aurrean dituzten jarrerak ebaluatu nahi izan ziren. Bigarren eta azken helburua, bullying/cyberbullying orokorra nahiz LGTB-fobikoa burutu eta sufritu duten pertsona heterosexualen eta ez-heterosexualen artean, nortasun ezaugarriak (adimen emozionala, enpatia, zorientasuna eta genero rola) eta osasun mentala (depresioa, estatusun soziala, sentikortasun interpersonala, somatizazioa...) alderatzea izan zen.

Ikerketaren lagina Bigarren Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailako 1.748 nerabeek osatu zuten, hauek zorizko laginketa baten bidez aukeratuak izan zirelarik eta Euskal Herriko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloko lagin adierazgarria osatzen dutelarik. Partaideen adina 13-17 urte bitartekoa izan zen, % 52,6 neskek eta % 47,4 mutilak. Laginaren % 60,2k Bigarren Hezkuntzako 3.mailan ikasten zuen eta % 39,8k 4. mailan. % 44,7 zentro publikoetako ikasleak ziren eta % 55,3 zentro pribatuetakoak. Orientazio sexualari dagokionez, laginaren % 87,5 heterosexualak ziren, % 0,7 gayak, % 0,2 lesbianak, % 5,7

bisexualak eta % 5,9 ez zeuden ziur bere orientazio sexualaz. Hots, % 87,5 heterosexualak eta % 47,1 ez-heterosexualak. Laginaren % 47 mutila sentitzen ziren mutilak ziren, % 51,4 neska sentitzen ziren neskak, % 0,1 mutila sentitzen ziren neskak eta % 1,4 ez zegoen ziur bere identitate sexualaz (% 98,5 zisgeneroak eta % 1,5 ez-zisgeneroak).

Partaideek bi orduko ebaluazio saio batean erantzun zituzten, ordu erdiko atsedena dia zutelarik, ondoren aurkeztuko diren eta fidagarritasun eta baliostasun-berme psikometrikoak dituzten galdetegiak: *Cyberbullying: berdinen arteko jazarpenaren Screeninga* (Garaigordobil, 2013), *Bullying Homofoboaren neurketa eskala* (Caminos eta Quentrequero, 2015), *Nerabezaroaren eta aniztasun sexualaren inguruko galdetegia* (Pichardo, Molinuelo, Rodríguez, Martín eta Romero, 2007), *Beck-en Depresioaren Inbentarioa II* (Beck et al., 1996; egokitzapena Sanz, García-Vera, Espinosa, Fortún eta Vázquez, 2005), *Nerabeen Estutasun Sozialaren eskala (SAS-A)* (La Greca eta Stone, 1993; egokitzapena Olivares et al., 2005), *SCL-90-R. Berrikusitako 90 sintomen Galdetegia* (Derogatis, 2002), *Bem-en Sexu Rolaren Inbentarioa* (Bem, 1981; egokitzapena Fernández eta Páez, 2004), *Oxford-eko Zorientasunaren Galdetegia* (Hills eta Argyle, 2002; egokitzapena Garaigordobil, 2015a), *Trait Meta-Mood Scale-24* (Salovey et al., 1995; egokitzapena Fernández-Berrocál et al., 2004) eta *Enpatia Kognitiboaren eta Afektiboaren Testa* (López-Pérez et al., 2008, egokitzapena Gorostiaga et al., 2014). Honez gain, hurrengo aldagaiak neurtzeko galdetegi soziodemokratiko bat osatu zuten partaideek: adina, kurtsua, sexua, bere eta gurasoen jaiotze lekua, familia mota, gurasoen lanbidea eta hezkuntza maila, erlijioa, orientazio sexuala, identitate sexuala, laguntza psikologikoaren beharra eta honen zergatia.

Ikerketa honetan, metodologia deskribatzailea erabili zen bullying eta cyberbullying orokorraren eta LGTB-fobikoaren prebalentzia nahiz nerabeen eta bere inguru sozialaren jarrera LGTBfobikoak neurtzeko. Gainera, konparaziozko metodologia erabili zen sexuaren eta orientazio eta identitate sexualaren arabera desberdintasunak dauden aztertzeko biktimizazio, eraso eta biktimizazio-erasokorrean eta pertsona heterosexualen eta ez-heterosexualen artean bullying/cyberbullying LGTB-fobikoaren biktima, erasotzaile eta behatzaile prebalentzian desberdintasunak ebaluatzeko. Halaber, konparaketak lagungarri izan ziren aniztasun sexualaren aurrean edukitako jarreretan sexuaren araberako aldeak behatzeko. Azkenik, bullying/cyberbullying orokorra eta LGTB-fobikoa sufritu edota burutu zuten heterosexualen eta

ez-heterosexualen artean desberdintasunak ebaluatu ziren bai osasun mentalean eta baita nortasun ezaugarrietan ere.

Prozedurari dagokionez, Etika Batzordearen aldeko txostena lortu ondoren (M10\_2017\_094), zoriz aukeratutako ikastetxeei posta elektronikoaren bidez proiektua azaltzen zuen gutuna bidali zitzaien. Parte hartu nahi zutela adierazi zuten ikastetxeei, baimen informatzaileak bidali zitzaizkien, bai ikastetxeek eta baita guraso eta ikasleek sinatu behar zituztenak ere. Ikasleek galdetegiak saio bakar batean bete zituzten ikastetxeetako ikasgeletan.

Burututako analisi estatistikoek (maiztasunak, ehunekoak, Pearsonen khi karratua, bariantza analisiak, post-hok analisiak...) ondoren aurkeztuko diren emaitzak nabarmendu zituzten. Bullying/cyberbullying globalaren kontzeptuak behin edo gehiagotan sufritu edo burututako jokaerei egiten dio erreferentzia, eta bullying/cyberbullying larriak berriz, oso maiz gertatzen diren jokaerei egiten die aipamen, hau da, bullying eta cyberbullyinga zehazki esanda.

#### **Aurrez aurreko bullyinga, emaitzak:**

- ✓ Bullying globalaren prebalentzia: % 41,6 biktima (% 18,9 hutsak), % 28,5 erasotzailea (% 5,8 hutsak) eta % 22,8 biktima-erasotzailea.
- ✓ Bullying larriaren prebalentzia: % 11 biktima eta % 2,7 erasotzailea.
- ✓ Biktimen informazioaren arabera sarrien gertatzen ziren erasoak hauek dira: ahozkoak, sozialak, psikologikoak eta fisikoak.
- ✓ Desberdintasunak *sexuaren* arabera. Bullying globala: biktimen ehunekoa handiagoa nesketan. Pairatu eta burutako jokaera erasokorren kopuruan, neskek biktimizazio maila handiagoa eta eraso maila txikiagoa erakutsi zuten.
- ✓ Desberdintasunak *ez-heterosexualen eta heterosexualen* artean: Bullying globala: biktima, erasotzaile eta biktima-erasotzaileen ehuneko handiagoak pertsona ez-heterosexualetan. Bullying larria: biktimen ehuneko handiagoak ez-heterosexualetan. Ez zen desberdintasunik aurkitu erasotzaile larrietan orientazio sexualaren arabera. Pertsona ez-heterosexualek sufritutako eta burututako jokaera erasotzaile kopuru handiagoa erakutsi zuten heterosexualekin alderatuz.
- ✓ Desberdintasunak *Orientazio Sexualaren* arabera: Gayek biktimen ehuneko handiagoa erakutsi zuten, bisexualen, orientazio sexuala argi ez zuten pertsonen, heterosexualen eta lesbianen aurretik. Lesbianek erasotzaileen ehuneko handiagoa azaldu zuten,

bisexualen, gayen, ziur ez zeuden pertsonen eta heterosexualen aurretik. Pertsona bisexualek jarrera erasokor gehiago sufritu zuten heterosexualekin eta orientazio sexuala argi ez zuten pertsonekin alderatuta. Lesbianek jarrera erasokor gehiago burutu zuten pertsona bisexualekin, ziur ez zeuden pertsonekin eta heterosexualekin alderatuta.

- ✓ Desberdintasunak *Identitate Sexualaren* arabera: Bullying globala: biktima, erasotzaile eta biktima-erasotzaileen ehuneko handiagoak pertsona ez-zisgeneroetan pertsona zisgeneroekin alderatuz. Bullying larria: biktimetan bakarrik aurkitu ziren desberdintasun esanguratsuak, pertsona ez-zisgeneroek ehuneko handiagoak adieraziz.

#### **Cyberbullying, emaitzak:**

- ✓ Cyberbullying globalaren prebalentzia: % 36,3 ziberbiktima (% 21,8 hutsak), % 18,1 zibererasotzailea (% 3,6 hutsak) y % 14,5 ziberbiktima-erasotzailea.
- ✓ Cyberbullying larriaren prebalentzia: % 7,2 ziberbiktima eta 1,6 % zibererasotzaile.
- ✓ Maiztasun handinez errepikatzen ziren cyberbullying-jokaerak aztertuz gero, biktima eta erasotzaileen arabera, honako jokaera hauek errepikatzen ziren sarritan: mezu iraingarri eta erasotzaileak, ikaratzeko eta beldurra sorrarazteko deiak, difamazioa, interneten gezurrak esanez edota zurrumurruek zabalduz, deien edo internetaren bitartez mehatxu edo xantaia egin, dei mingarri edo iraingarriak mugikorraren edo internetaren bitartez.
- ✓ Desberdintasunak *sexualaren* arabera: Cyberbullying globala eta larria: biktimen ehuneko handiagoak nesketan eta erasotzaileen ehuneko handiagoak mutiletan. Sufritutako jokaera erasokorren kopuruan, neskek ziberbiktimizazio maila handiagoak erakutsi zituzten.
- ✓ Desberdintasunak *ez-heterosexualen eta heterosexualen* artean: Cyberbullying globala eta larria: ziberbiktimen ehuneko handiagoak ez-heterosexualetan. Pertsona ez-heterosexualek sufritutako jokaera erasotzaile eta biktimizazio-erasokor kopuru handiagoa erakutsi zuten heterosexualekin alderatuz.
- ✓ Desberdintasunak *Orientazio Sexualaren* arabera: pertsona bisexualek ziberbiktimen ehuneko handiagoa erakutsi zuten, orientazio sexuala argi ez zuten pertsonen, gayen, heterosexualen eta lesbianen aurretik. Lesbianek jokaera erasokorrek maiztasun handiagoarekin burutu zituzten bisexualen, gayen, heterosexualen eta ziur ez zeuden pertsonen aurretik. Pertsona bisexualek jarrera erasokor kopuru handiagoa sufritu zuten

heterosexualekin eta orientazio sexuala argi ez duten pertsonekin alderatuz eta jarrera erasotzaile kopuru handiagoa burutzen zuten pertsona heterosexualekin alderatuta.

- ✓ Desberdintasunak *Identitate Sexualaren* arabera: Cyberbullying globala: ez ziren desberdintasun esanguratsuak aurkitu. Cyberbullying larria: ziberbiktimitan bakarrik aurkitu ziren desberdintasun esanguratsuak, pertsona ez-zisgeneroek ehuneko handiagoa adieraziz.

#### **Bullying/cyberbullying LGTBfóbikoa, emaitzak:**

- ✓ Bullying/cyberbullyig LGTB-fobiko globalaren prebalentzia: % 60 biktima, % 6,6 erasotzaile eta % 73,4% behatzaile.
- ✓ Bullying/cyberbullyig LGTB-fobiko larriaren prebalentzia: % 13,3 biktima, % 1 erasotzaile eta % 49,8 behatzaile.
- ✓ Desberdintasunak ez-heterosexualekin eta heterosexualekin artean: biktimen ehuneko handiagoa pertsona ez-heterosexualekin.

#### **Nerabeen jarrerak aniztasun sexualaren aurrean, emaitzak:**

- ✓ LGTB pertsonen inguruko ezagutza: gayek ikusgarritasun handiagoa duten pertsonak dira, ondoren lesbianak, bisexualak eta azkenik, transexualak.
- ✓ Aniztasun sexualarekiko jokaera erasokor sarrienak: gaizki hitz egin, komentario negatiboak eta zurrumurruak; burla, imitazio eta keinuak; irain LGTBfobikoak eta hitz egiteari utzi, baztertu, parte hartzen ez utzi eta isolatu.
- ✓ Aniztasun sexualarekiko jokaera erasokorrak, *sexuaren* arabera: mutilek maiztasun handiagoarekin sufritu eta burutzen dituzte irain LGTBfobikoak, mehatxuak, eraso fisikoak (bultza, kolpeak eman, gauzak bota), burla, imitazio eta keinuak, hitz egiteari utzi, baztertu, parte hartzen ez utzi, isolatu.
- ✓ % 99,7k adierazi zuen pertsona LGBak ez direla mespretxuz tratatu behar.
- ✓ Irakasle bat LGTB izango balitz laginaren % 0,7k senideei esango lieke kexa bat jartzeko eta % 0,5ek burla egingo lieke.
- ✓ Jarrerak publikoan sentimenduak adierazten dituzten bi mutilez osatutako bikote baten aurrean: % 4,6k publikoan egin beharko ez luketela uste du, % 1,9k nazka sentituko luke eta % 0,2ri gaizki irudituko litzaioke. Jarrerak publikoan sentimenduak adierazten dituzten

bi neskez osatutako bikote baten aurrean: % 4,6k publikoan egin beharko ez luketela pentsatzen du, % 1ek nazka sentituko luke eta % 0,1eri gaizki irudituko litzaioke.

- ✓ Jarrerak LGTB den kide baten aurrean: pertsona transexualek gutxiespen gehiago sufrituko lukete, gayen, bisexualen eta lesbianen aurretik.
- ✓ Jarrerak aniztasun sexualaren aurrea, *sexuaren* araberako aldeak: neskek jarrera positiboagoak adierazi zituzten.
- ✓ Partaideen inguru sozialen jarrerak aniztasun sexualaren aurrea: LGTB pertsonak sostengu gehiena familietan edukiko lukete, bai kanpoko pertsona bat izango balitz eta baita partaideak berak LGTB izango balira ere. Gizartea eta ikastetxeak dira arbuio-jarrera gehiago azaltzen diren inguru sozialak.

**Sintoma psikopatologikoetan** dauden desberdintasunak bullying/cyberbullying orokorra eta LGTB-fobikoa sufritu eta burutu duten pertsona ez-heterosexualek eta heterosexualek artean:

- ✓ Bullyinga. Biktima eta erasotzaileak: ez-heterosexualek puntuazio altuagoak dituzte sintoma psikopatologiko anitzetan (somatizazioa, obsesio konpulsioa, sentikortasun interpersonala, depresioa, estutasuna, etsaitasuna, estutasun fobikoa, ideia gintza paranoidea eta psikotizismoa), psikopatologia globalean, sahieste eta ondoeza sozialean (ezagunekin eta egoera berrietan ezezagunekin) eta estutasun sozial globalean.
- ✓ Cyberbullying. Ziberbiktimak: ez-heterosexualek puntuazio altuagoak dituzte sintoma psikopatologiko anitzetan (somatizazioa, sentikortasun interpersonala, depresioa, estutasuna, estutasun fobikoa, ideia gintza paranoidea eta psikotizismoa), psikopatologia globalean, eta baita ezagunekin edukitako sahieste eta ondoezan ere. Zibererasotzaileak: ez-heterosexualek puntuazio altuagoak dituzte sintoma psikopatologiko anitzetan (obsesio konpulsioa, depresioa, estutasuna, etsaitasuna, estutasun fobikoa, ideia gintza paranoidea eta psikotizismoa), psikopatologia globalean eta baita ezagunekin edukitako sahieste eta ondoeza sozialean ere.
- ✓ Bullying/cyberbullying LGTB-fobikoa. Biktimak: ez-heterosexualek puntuazio altuagoak dituzte sintoma anitzetan (somatizazioa, obsesio konpulsioa, sentikortasun interpersonala, depresioa, estutasuna, etsaitasuna, estutasun fobikoa, ideia gintza paranoidea, psikotizismoa), psikopatologia globalean, eta baita ebaluazio negatiboari



beldurrean, ezagunekin edukitako saiheste eta ondoeza sozialean eta estatusun sozial globalean ere. Erasotzaileak: ez-heterosexualek puntuazio altuagoak dituzte sintoma psikopatologiko anitzetan (obsesio konpulsioa, depresioa, estatusuna, psikotizismoa) eta psikopatologia globalean.

**Nortasun ezaugarrietan** dauden desberdintasunak bullying/cyberbullying orokorra eta LGTB-fobikoa sufritu eta burutu duten pertsona ez-heterosexualen eta heterosexualen artean:

- ✓ **Bullying.** Biktimak: ez-heterosexualek puntuazio altuagoak dituzte ikuspegi-hartzean eta baxuagoak ulermen emozionalean, erregulazio emozionalean, adimen emozional intrapertsonalean, zorientasunean eta norberaren feminitate-irudian. Erasotzaileak: ez-heterosexualek puntuazio altuagoak dituzte ikuspegi-hartzean eta enpatia globalean eta puntuazioa baxuagoak ulermen emozionalean, erregulazio emozionalean, adimen emozional intrapertsonalean, zorientasunean eta norberaren feminitate-irudian.
- ✓ **Cyberbullying.** Ziberbiktimak: ez-heterosexualek puntuazio altuagoak dituzte ikuspegi-hartzean, estres emozionalean eta enpatia globalean (adimen emozional interpersonala) eta baxuagoak ulermen emozionalean, erregulazio emozionalean, adimen emozional intrapertsonalean eta zorientasunean. Zibererasotzaileak: ez-heterosexualek puntuazio altuagoak dituzte ikuspegi-hartzean, ulermen emozional enpatikoan, alaitasun enpatikoan eta enpatia globalean eta baxuagoak ulermen emozionalean, erregulazio emozionalean, adimen emozional intrapertsonalean eta zorientasunean.
- ✓ **Bullying/cyberbullying LGTB-fobikoa.** Biktimak: ez-heterosexualek puntuazio altuagoak dituzte ikuspegi-hartzean eta enpatia globalean (adimen emozional interpersonala) eta baxuagoak ulermen emozionalean, erregulazio emozionalean, adimen emozional intrapertsonalean, zorientasunean eta norberaren feminitate-irudian. Ez ziren desberdintasun esanguratsuak aurkitu erasotzaileetan.

Emitza hauek berretsi dute batetik, bullying eta cyberbullyinga eguneroko errealitatea dela, eta, bestetik, desberdinak diren pertsonen, orientazio edota identitate sexual ez-normatiboa dutelako kasu honetan, mota honetako jarrera erasokorrek pairatzeko kalteberatasun handiagoa dutela. Nahiz eta aniztasun sexualarekiko gutxiespena ukatzen duten politikak existitzen diren, ikerketa honen emaitzek frogatu dute oraindik ere hezkuntzan aldaketak burutu behar direla. Izan ere, sexualitatea askatasunez adierazten duten pertsonen aurrean tolerantzia eta errespetua

adieraztea helburutzat duen hezkuntzaren hutsegitea nabaritu da. Horregatik, azpimarratu nahi da oraindik hausnartu beharra dagoela eta gaur egun, nagusi den hezkuntza heterosexista aldatzeko ekintzak sortu behar direla. Gainera, orientazio sexualaren arabera dauden desberdintasunek, bai sintoma psikopatologiko eta baita nortasun ezaugarrietan ere, baieztatu dute LGTB kolektiboa, batez ere nerabezaroan, egunero erronka handiei aurre egin behar dion eta sufrimendu handia pairatzen duen kolektiboa dela. Honenbestez, ekarpen teoriko batez gain, datu hauek kontuan eduki beharko lirateke etorkizuneko esku-hartzeetan. Azkenik, emaitza hauek erabilgarriak izan daitezke prebentzio eta esku-hartze programak edota aniztasun sexualaren inguruko ekintzak sortzeko, azken hauek gaur egun existitzen diren bullyingaren aurkako programetan sartuz.

---

**SARRERA**

---



## SARRERA

Burututako lana “*Ebaluazio psikologikoa: Tresnen diseinua, Esku-hartze programen ebaluazioa eta Aplikazio epidemiologikoa*” izena duen talde sendotuaren ikerketa lerroan kokatzen da: “Bullying LGTB-fobikoa: Prebalentzia, aldagai psikologikoezko lotura eta eragina osasun mentalean” (CEISH-UPV/EHU: M10\_2017\_094). Ikerketa talde hau Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Aholkularitzaren (GIC15/155; IT963-16; PPG17/31) barruan sartzeko, ikerketa lerro honen ikertzaile nagusia Maite Garaigordobil irakaslea delarik. Lan honek “*Cyberbullyinga: Prebalentzia, aldagai pertsonal eta familiarrekiko loturak, eta prebentzio eta esku-hartze programak*” (MINECO. PSI2012-30956) ikerketa proiektuari jarraipena eman dio eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak finantziatu du (PRE\_2017\_1\_0017) doktoreak ez diren ikertzaileak prestatzeko doktoratu aurreko programako deialdian.

Azken urteetan, bullying eta cyberbullyingaren inguruko interesa eta kezka handitzen joan da. Horrela, zenbait autoreek jarrera hauek modu zehatzago batean ikertu dituzte, bullying LGTB-fobikoa bereiztuz. Bullying LGTB-fobikoari buruz hitz egiten dugunean, LGTB kolektiboak eragiten duen fobiaren ondorioz gertatzen den jazarpenaz ari gara, heteronormatibitatearen eta sexismoaren baloreak ardatz gisa dituelarik. Balore hauek oinarri, biktimak modu errepikatuan, eskusioa, isolamendua, mehatxuak, irainak eta erasoak sufrituko ditu (Platero-Méndez, 2008). Fenomeno honek ez die eragiten orientazio eta identitate sexual ez-normatiboa duten pertsonen bakarrik, baizik eta baita estereotipo maskulino/femeninoengandik urruntzen diren pertsona heterosexual eta zisgeneroei ere. Zentzu honetan, biktima, erasotzaile eta behatzaile prebalentziak ebaluatu dituzten ikerketek kontuan eduki beharreko datuak berretsi dituzte, bai LGTB diren pertsonetan eta baita normatiboa den orientazio eta identitate sexuala duten pertsonetan ere.

Ebidentzia zientifikoak baieztatu du berdinen arteko jazarpenak, bere modalitate guztietan (aurrez-aurrekoa eta elektronikoa), inplikatu guztien osasun mentalean ondorio suntsitzaileak dituela. Izan ere, biktimetan bereziki, depresioa, estatusuna eta suizidio bezalako ondorioak eragiten ditu. Gainera, LGTB pertsonetan bereizgarri diren aldagai psikologikoa neurtu nahi izan dituzten ikerketek erakutsi dute kolektibo hau kalteberatasun handiko taldea dela. Lan hauek agerian utzi dute orientazio eta identitate sexual ez-normatiboa duten pertsonen

puntuazio altuagoak dituztela depresioan, estatusunean eta sintoma psikopatologikoetan eta puntuazio baxuagoak dituztela zorientasunean, bizitzarekiko asebetetzean eta ongizate psikologikoan batik bat.

Datu hauek kontuan hartuta, ikerketa honen helburu nagusia 13-17 urte bitarteko nerabeek bizitzan zehar, sufritu edota burututako bullying eta cyberbullying LGTB-fobikoaren prebalentzia aztertzea izan zen, bullying eta cyberbullying orokorraren prebalentziaren testuinguruaren barruan. Era osagarrian, nerabeek eskolan aniztasun sexualaren aurrean dituzten jarrerak ebaluatu nahi izan ziren. Bigarren eta azken helburua honako hau izan zen: bullying/cyberbullying orokorra nahiz LGTB-fobikoa burutu eta sufritu duten pertsona heterosexualek eta ez-heterosexualek artean, nortasun ezaugarriak (adimen emozionala, enpatia, zorientasuna eta genero rola) eta osasun mentala (depresioa, estatusun soziala, sentsibilitate interpersonala, somatizazioa...) alderatzea.

Lan honen aurkezpena bi ataletan banatzen da. Lehenengo atalean, oinarri teorikoa aurkeztuko da, bullying eta cyberbullyinga testuinguru orokorrean deskribatuz. Ondoren, aniztasun sexualaren inguruan nagusi diren kontzeptuak, LGTBfobia eta bullying LGTB-fobikoa eta bere ondorioak azalduko dira. Ikerlan honen aldagai nagusiak deskribatu ondoren, gauzatutako errebisio desberdinen bitartez erdietsitako emaitzak aurkeztuko dira. Alde batetik, bullying LGTB-fobikoa eta aniztasun sexualaren aurrean edukitako jarreraren inguruko errebisioan lortutako emaitzak erakutsiko dira. Bestalde, bullying/cyberbullying LGTB-fobikoa eta LGTB pertsonak eta ikerketa lerro honetan osasun mentala (depresioa, ideia gintza suizida, estatusun soziala eta sintoma psikopatologikoak) eta nortasun ezaugarriak (adimen emozionala, enpatia, rol sexuala eta zorientasuna) aztertu dituzten ikerketen errebisioan lortutako emaitzak erakutsiko dira.

Tesiaren bigarren atalean ikerketa enpirikoa deskribatuko da, bertan honako puntu hauek azalduz: helburu eta hipotesiak, prozedura eta ikerketaren diseinua, lagina, helburu diren aldagaiak neurtzeko erabilitako tresnak eta aurkitutako emaitzak, hauek eztabaida eta ondorioen atalean eztabaidatuko direlarik. Azkenik, erreferentzia bibliografikoak eta ikastetxeetara bidalitako baimen informatzaileak, gutunak eta partaideei entregatu zitzaizkien ebaluazio tresnak azaltzen dituzten eranskinak aurkeztuko dira.

---

**1. KAPITULUA**  
**IKERKETAREN HELBURU DIREN ALDAGAIEN**  
**DEFINIZIOA**

---





## **1. KAPITULUA. IKERKETAREN HELBURU DIREN ALDAGAIEN DEFINIZIOA**

### **1.1 ALDAGAI NAGUSIEN DEFINIZIOA: BULLYING ETA CYBERBULLYINGA**

Bullyngak honako sinonimo hauek ditu: eskola jazarpena, berdinen arteko tratu txarrak, berdinen arteko indarkeria, etab. Olweus (1999) autoreak burutu zuen onarpen handiena duen eta gehien erabili den fenomeno honen definizioa. Ikerlari honen ustez, ikasle bat jazarpena jasaten ari da beste ikasle edo ikasle talde batek gauza desatsegin edo zekenak esan, berataz barre egin edo min eman edo desatseginak diren hitzak biktima identifikatzeko erabiltzen dituztenean. Guztiz alde batera utzi, lagun taldetik isolatu edo ekintzetan parte hartzen ez utzi. Kolpeak eman, ostikoak jo, bultzatu edo mehatxu egin. Bere buruaz gezurrak esan edo gezurra diren zurrumurrak zabaldu, mintzen duten oharrak bidali eta besteak konbentzitu berekin harremanik ez edukitzeko. Jarrera hauek maiz gertatzen dira eta oso zaila izango da biktimarentzat bere kabuz defendatzea. Ikasle bat maiz modu negatibo eta mingarrian eragozten dutenean bullyinga kontsideratzen da ere. Baina ezin diogu bullyinga deitu lagunen artean edo joko baten moduan pertsona bat beste bat zirikatzen duenean, edo indar berdina duten bi ikasle eztabaidatu edo borrokatzen direnean.

Fenomeno honen ikerketetan aintzindari den Olweus-ek (1973) egindako lehenengo definiziotik, ikertzaile askok (Cerezo, 1998; OMS, 2002; Olweus, 1999; Piñuel eta Oñate, 2005, 2006; Sanmartín, 2005), bere kontzeptualizazioan xehetasunak finkatu dituzte. Definizio hauen errebisioei esker (ikusi Garaigordobil eta Oñederra, 2010; Garaigordobil, 2011b, 2018), berdinen arteko eskola jazarpen edo bullyingaren honako oinarritzko ezaugarriak nabarmendu dira: (1) Biktima defendaezin bat jazarpena pairatzen ari da erasotzaile baten edo gehiagoren eskutik, hauek min emateko intenzioa dutelarik eta min ematen ari direla kontziente direlarik; (2) Biktima ahularen eta indar fisiko, psikologiko eta soziala duen erasotzaile edo erasotzaileen artean botere-desparekotasuna dago; botere desparekotasuna existitu beharra dago, indartsu eta ahulenaren artean indarraren desoreka egongo da; defendatua izateko aukeran ez dago orekarik, ez fisikoki, eta ez sozialki edo psikologikoki ere; babesgabetasuna; egoera honetan ikusgai izango da biktimaren aldetik desparekotasuna eta babesgabetasuna; (3) Biktimaren aurka burututako indarkeria maiz gertatuko da, menpeko-otzan arteko harremana denboran iraunkorra izango da; erasoek eragindako mina ez da soilik momentukoa izango, baizik eta

iraunkorra izango da, biktimak etorkizunean ere erasotua izango dela sentituko duelarik; eta (4) erasoaren helburua ikasle bakar bat izan ohi da, baina batzuetan ikasle gehiago izan daitezke, nahiz eta hau gutxiagotan gertatzen den; eraso pertsona bakar batek burutu dezake edo talde batek, baina pertsona zehatzak izango dira biktimak.

Fenomeno hau aztertu duten ikerketen errebisioek bullyinga (B) burutzeko lau modu desberdinu dituzte: (1) Fisikoa: pertsonaren gorputzari egindako eraso erasokorrak (jo, bultza egin...) edo pertsona baten objektu pertsonalei zuzendutako jarrera erasokorrak (lapurtu, hautsi, zikindu, objektuak gorde...); (2) Ahozkoa: ahozko jarrera negatiboak (irainak, izengoitiak, pertsonari buruz gaizki hitz egin, gezurrak...); (3) Soziala: pertsona taldeetik isolatzeko egindako jarrerak (ekintza batean parte hartzen ez utzi, isolatu, bakartu, ez ikusiarena egin...); eta (4) Psikologikoa: autoestimua mintzen duten jazarpen motak, babesgabetasuna eta beldurra eraginez (biktimaz barre egin, balorea kendu, umiliatu, defendatu ezin denaren sentimenduak sortzeko eta beldurtzeko eraso egin...). Hala ere, kontuan eduki behar da bullying mota guztiek alderdi psikologikoa dutela (Garaigordobil eta Oñederra, 2010; Garaigordobil, 2013).

Garaigordobilek (2011b, 2013, 2018) egindako errebisio desberdinetan azpimarratu duen bezala, azken hamarkadan bullying-modalitate berrien bat-bateko sorrera eta erabilera ikusi dugu, hauetako bat cyberbullyinga (CB) delarik (ziberjazarpena, berdinen arteko jazarpen zibernetikoa, elektronikoa, digitala...). Fenomeno hau askoz berriagoa eta ezezagunagoa da, eta horregatik, berdinen arteko indarkeria berri honetan sakontzea baimentzen duten zenbait definizio eta sailkapen aurkeztuko dira orain. Smith et al. (2008) autoreen arabera, CB modu errepikatuan burutzen den nahita egindako jarrera agresiboa da eta hau burutzeko, pertsona batek edo talde batek gailu elektronikoak erabiltzen ditu bere kabuz erraz defendatu ezin den biktima erasotzeko. Willard-ek (2005) CB Interneta edo beste komunikazio bideen bitartez, testu edo irudi mingarriak bidaltzeko edo zintzilikatzeko (sending eta posting) egiten den ekintza dela baieztatu du. Balsey (2005) autoreak berriz, CB mintzea helburutzat duen IKTen (Informazio eta Komunikazio Teknologia) erabilera dela esan zuen: korreo elektronikoa erabiliz, mugikorraren bitartez bidalitako mezuak, bat-bateko mezuak, inguru pertsonalak... edota pertsona edo talde batek min emateko asmoz modu errepikatuan eta etsaitasunez, difamaziozko portaera pertsonala edukitzea (Garaigordobil, 2011b, 2013, 2018).

Nerabezaroan IKTen erabilera egokia bermatzen duten ohiturak aztertu dituen eta Komunikazio Teknologien Istitutu Nazionalak (INTECO, 2009) argitaratu zuen ikerketaren arabera, cyberbullyinga IKTen testuinguruan, berdinen artean gertatzen den jazarpen jarrera da, eta honetan, zenbait pertonek beste pertsoneri egindako mehatxu, burla eta irainak sartuko lirateke. Cyberbullyinga difamatzeko edo mintzetzeko helburuarekin egiten den informazioaren hedapena da, komunikabideen bitartez formatu elektronikoan egiten dena: korreo elektronikoa, bat-bateko mezuak, sare sozialak, mugikorren bitartez bidalitako mezuak edo bideoak eta plataforma elektronikoetan argazkiak publikatzea. Erasoaren bi alderdietan adin txikiko pertsonak egon behar dira cyberbullyinga kontsideratzeko: pertsona helduren bat egonez gero ez da cyberbullyinga kontsideratuko. Horrez gain, ez litzateke cyberbullyinga izango pertsona helduek adin txikiko pertsonak engainatzen dituztenean saretik kanpo elkar ikusteko edo bere irudi sexualak azaltzeko (grooming).

Cyberbullyingak nahita eta desioz beste pertsona mintzea inplikatzeko du. Gainera, erasotzailea izan dena momentu batean, beste momentu batean biktima bihurtu daiteke. Ume eta nerabeek rola aldatzen dituzte askotan, biktimak erasotzaile bilakatuz edo alderantziz. Cyberbullyinga gertatzen denean erasotzaileak eta biktimak eguneroko bizitzan harreman fisikoak dituzten eta ikastetxeko kideak diren umeak edo nerabeak izan ohi dira. Aftab-ek (2010) jazarpen zuzena eta ez-zuzena derberdintzen ditu. Jazarpen zuzenari biktimari mezuak bidaltzeari deitzen dio. Jazarpen ez-zuzena berriz, jazarpen zibernetikoa beste pertsona baten bidez burutzen denean gertatzen da, konplizea kontziente izan edo ez izan. Jazarpen ez-zuzena arriskutsuagoa izan daiteke, pertsona helduak inplikatuko egon baitaitezke. Gehienetan, konplize hauek ez dute ezaguerarik egoera honen inguruan eta zibererasotzailearengatik erabiliak izaten ari dira. Adibidez, zibererasotzaileak beraien biktimari tranpak jartzen dizkio modu erasokorrean erantzun dezan eta ondoren, erasotzaileak online kontua salatzen du konplizeak itxi dezan. Jazarpen ez-zuzena ere kontsideratzen da pertsona batek biktimaren kontua pirateatu eta kontaktu zerrendan agertzen diren lagun eta senideei mezu erasotzaileak eta lotsagarriak bidaltzen dizkienean.

Garaigordobilek (2011b, 2013, 2018) jaso duen bezala, Kowalski, Limber eta Agatston (2010) autoreek cyberbullyinga modu zabalean definitu zuten, definizio honetan, honako tresna hauen erabilera sartu zutelarik: korreo elektronikoa, bat-bateko mezuak, mugikorraren bitartez bidalitako mezu edo irudi digitalak, web orrialdeak, bitakoras web (blogak), txat aretoak edo

online solasaldiak eta komunikazio digitalarekin zerikusia duten bestelako teknologiak, hau da, online sare sozialak, Interneteko jokoak... Bere ikuspuntutik, cyberbullyinga, ohiko bullyinga bezala, larritasunaren baitan mailakatzen da. Larritasun gutxiago duen alderdian, jazarpena identifikatzen zaila izan daiteke, eta beste alderdian, batzuetan hilketa edo suizidioa eragin dezake. Gainera, ikerketa hauek 8 jazarpen zibernetiko desberdin aurkitu dituzte:

**1. Irain elektronikoa:** Teknologia berrien bitartez haserretutako bi pertsonen edo gehiagoren arteko hitz-trukaketa laburra. Trukaketa hauek honakoak izan daitezke: pribatuak diren posta elektronikoen trukaketa, txatak bezalako testuinguru publikoetan egindako trukaketa... Elkarrenganako irainen trukaketa ematen da inplikatuaren artean.

**2. Zirikatzea:** Aukeratua izan den pertsonari modu errepikatuan bidaltzen zaizkion mezu mingarriak: posta elektronikoen bitartez, txatak eta solasaldi aretoak bezalako foru publikoen bidez; aukeratua izan den pertsonari ehunka edo milaka mezu bidaltzea mugikorraren bitartez. Zirikatzea denbora luzeagoan gertatzen da irainekin alderatuz eta modu unilateralean egiten da (erasotzaile bakarra edo erasotzaile talde bat izan daiteke biktima bakar baten aurka).

**3. Ohorea zikindu:** Pertsona bati buruz mespretxuzko eta gezurrezko informazioa web orrialde batean igo edo zabaldu posta elektronikoen, bat-bateko mezuen,... bitartez. Adibidez, era digitalean argazkiak eraldatzea biktimari kalte egiteko, batez ere argazkiek jarrera sexualak isladatzen dituztenean (nerabe bat haurdun dagoela azaltzen duen eraldatutako argazkia, "iritzi koaderno" online batean idatzitako iruzkin maltzurak nerabe bat sexualki promiskuo dela adieraziz).

**4. Identitatea faltsutzea:** Erasotzaileak biktimaren identitatea faltsutu, gehienetan biktimaren pasahitza erabiliz bere kontu onlinetan sartzeko, eta ondoren, beste pertsoneri mezu negatiboak, agresiboak edo krudelak bidaliz, biktima berak egingo balu bezala eginez.

**5. Informazioa atara eta hedatu:** biktimaren informazio konprometitua azaltzea inplikatu du, biktimak informazio hau modu espontaneoan baina pribatuan bidali duelarik edo biktimari atara ondoren beste pertsoneri zabaldu zaielarik.

**6. Baztertzeta:** Sare sozial zehatz batean parte hartzen ez utzi.

**7. Ziberpertsekuzioa:** Komunikazio elektronikoko zirikatzaileak edo mehatxatzaileak modu errepikatuan bidaltzea.

**8. Jipoi zoriontsua (*happy slapping*):** Pertsona bati eraso egiten zaio fisikoki, hau mugikorrarekin grabatzeko eta sarera igotzeko milaka pertsonen ikusi dezaten.

Laburbilduz, cyberbullyinga berdinen artean jazarpen psikologikoa egin ahal izateko IKTen (posta elektronikoa, bat-bateko mezuak edo txatak, web orrialdeak edo blogak, online diren bideo-jokoak...) eta batzuetan, mugikorren erabileran oinarritzen da. Cyberbullyinga burutzeko bideak hainbat izan daitezke: testu mezuak (SMS), jazarpen telefonikoa (dei anonimoak mugikorrera...), eraso fisikoen grabaketa mugikorraren edo Internetaren bitartez ondoren, zabaltzeko, argazkien edo bideon bidezko jazarpena, hauek mugikorraren bitartez zabalduz edo You Tubera igoz, posta elektronikoak, bat-bateko mezuak, txat sesioetan, sare sozialetan (facebook, tuenti, twiter...), web orrialdeetan (blogak, fotolog...) (Garaigordobil, 2013).

## 1.2 ANIZTASUN SEXUALAREN INGURUKO ALDAGAIEN DEFINIZIOA

### 1.2.1 Sexua eta generoa

Sexuari dagokionez, Gómez-Gil eta Esteva (2006) ikertzaileek hurrengo kontzeptuak azpimarratu zituzten sexu maskulinoa eta femeninoa bereizi ahal izateko: organo-sexualak, genetika eta kromosomak, hormonak eta ugaltze sistema. Modu honetan, sexuaz hitz egiten ari garenean gizonen eta emakumeen ezaugarri fisiologiko eta biologikoez ari gara. Generoari dagokionez, Gómez-Colomer (2007) bi generoak (maskulino eta femeninoa) bereizteko kulturalki eraiki den esanahi sozialean oinarritzen da. Autore honek azpimarratu zuen gizonak eta emakumeak bizi diren kulturaren arabera jarrera, portaera eta sentimenduen garrantzia. Zentzu honetan, Rubin (2009) autoreak azaldu zuen gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak eraikuntza kultural baten arabera sortu direla, honen oinarria bakoitzaren organo-sexualak direlarik. Honenbestez, sexua biologiarekin lotuta dago (hormonak, genetika, nerbio-sistema eta morfología) eta generoa berriz, kulturarekin (psikologia, soziologia). Horrela, sexua biologiarekin baitan finkatuta dagoela eta generoa sozialki eraikita dagoela esan dezakegu (Tosso, 2012).

Bi kontzeptu hauen definizioa eta bereizketa zailtasun handikoa da, eta era berean, garrantzi handia dauka giza sexualitatea ulertu ahal izateko. Konplexutasun hau ulertzeko asmoz, teoria desberdinek egindako analisi eta definizioak kontuan hartu dira. Jarraian, sexu eta

generoaren eraikuntzan paper garrantzitsua izan duten teoria bakoitzaren errebisioari ekingo zaio.

### 1.2.1.1 Teoria feministak

Teoria hauen arabera, gizonak eta emakumeak zenbait baldintza eta funtzio finkatuak dituzte eta hau, sexu-genero sistemaren ondorioa da. Sistema honek aipu egiten die emakumeak eta gizonak harremanak mantentzeko dituzten modu desberdinei, hauek gizartean finkatuak izan direlarik. Gaur egun, gizarte okzidentala sexu-genero sistema batean oinarritzen da eta bi sexuen arteko harremanetan botere desparekotasuna ikusgarria da (Rubin, 2009).

1988an generoaren ikerketari hasiera eman zion liburua argitaratu zen, hots, Beauvoir (1998) autorearen "*Bigarren sexua*". Autore honek sexu eta generoen arteko desberdintasunaz hitz egiten du eta baieztatzen du pertsona bat ez dela emakume jaiotzen, baizik eta izatera heltzen dela. Simone de Beauvoir teoria feministen artean eragin handien eduki duen pertsona da. Autore honek emakumearen egoera soziala aldarrikatu zuen eta emakumea gizonen eskutan eratu den objektu izatera kondenatua dagoela baieztatu zuen. Laburbilduz, gizonak gizabanako bakarra izango dira gizartean eta emakumeak berriz, objektu bakarra. Horrela, Simone de Beauvoir-ek garrantzi handia du teoria feministetan, mugimendu feministan eragile nagusia izanik. Lehen eta bigarren mundu gerran, mugimendu hau zapaldua izan zen Europan, gizabanakoaren askatasuna lortzeko borrokatu zuten beste hainbat mugimenduak bezala, eta arrazoi honengatik, bere garapena Ameriketara jarraitu zen, Estatu Batuetan batez ere (Borrillo, 2001).

Millet (1995) autoreak eremu sozialez gain harreman pertsonalak aztertu zituen (sexualak barne) eta horregatik, mugimendu honen beste eragile garrantzitsuenetakoa izan zen. Autore honek aditzera eman zuen emakume eta gizonen arteko botere desparekotasuna harreman pertsonaletan ikusgai dela. Modu honetan, gizarte patriarkalak emakumei oprimituen ezaugarriak egokitzen dizkio. Rubin-ek (2009) baieztatzen du, gizartean nagusia den sistema patriarkatua izanez gero, eta honek balio unibertsala hartuz gero, borroka feministak zentzua galduko lukeela. Izan ere, feminismoak ezingo luke balio unibertsal baten aurka irabazi eta ez litzateke bere helburura iritsiko. Horregatik, autore honek patriarkatu kontzeptua baztertu zuen, sexu-genero sistema erabiliz. Aldaketa honen arrazoia izan zen sexu-genero sistemaren aurka

borrokatu daitekeela, hau giza harremanen ondorio baita. Laburbilduz, teoria hauei esker emakume askok ulertu zuten ez zirela gizonak baino gutxiago, baizik eta desparekotasun hau kultura beraren ondorioa besterik ez dela (Tosso, 2012).

Femenismoan jatorria duten beste autore batzuek sexua biologian bakarrik eta generoa kulturen bakarrik oinarritzen direla uko egiten dute. Autore hauek ez dute sexu- genero sistema binarioan sinisten, hau da, autore hauek planteatzen dute ez direla bi sexu eta bi genero bakarrik existitzen (Tosso, 2012). Hori dela eta, Osborne eta Molina Petit (2008) autoreek baieztatzen dute gizabanako bakoitzaren prozesu psikologikoen ere sexu eta generoaren bereizketan eragiten dutela. Beraz, sexuaren eta generoaren esanahia pertsona bakoitzarentzat desberdina izango litzateke.

### **1.2.1.2 Teoria antropologikoak eta soziologikoak**

Teoria antropologiko eta soziologikoen gizonak emakumeengandik desberdintzen dituzten alderdi sozialak aztertzen dituzte (Pichardo, 2009). Teoria hauetako eragile nagusietako bat Lévi-Strauss (1995) izan da. Honek azpimarratu zuen emakumeek paper pasiboa dutela gizartean eta trukaketa-objektu gisa kontsideratuak daudela. Kultura bakoitzak zenbait sexualitate onartu eta beste hainbat baztertzen ditu, eta onartutako sexualitateak pertsonengatik baneratuak izaten dira diskurtso desberdinen bidez (Tosso, 2012). Foucault-ek (1975) agerian utzi zuen arlo honetan aldaketak lortzea zaila dela, organo politikoak eta autoritateak baitira baztertzen dituztenak gizarteak finkatu dituen estereotipoetatik urruntzen diren pertsonak. Hiritarrek modu inkontzientean, genero maskulinoak eta femeninoak behatzen dituzte eta normatiboak kontsideratzen ez diren sexualitateak arbuatzen dituzte.

Arlo honetako beste zientzialari garrantzitsu bat Bourdieu (1991) da. Autore frantziar honek emakumeak nagusiki besteen begiradarentzat existitzen direla baieztatu zuen. Emakumeak femeninoak izan beharko liriteke (irribarretsuak, atseginak, adeitsuak, otzanak, diskretuak, etab.) eta aldi berean, feminitatea, gizonak beraien espektatibak asetzeko eraiki duten kontzeptua da. Bourdieu-k (1991) era berean, "habitus" deitutako egitura kognitiboen garrantzia azpimarratu zuen. Hauek inkontziente diren eskema kognitiboak dira, haurtzarotik prozesu sozialen bitartez txertatuak eta naturalizatuak izan direnak. Horregatik, nahiz eta genero

identitatea eraikuntza kultural eta soziala izan, honek ez du esan nahi kontzientea denik eta kontrolatu daitekeenik.

Azkenik, Derrida-k (1998) "desegiteaz" hitz egiten du sozialki finkatu dena aldatu ahal izateko. Autore honen arabera, genero rolak ezabatu baino gehiago, aldatu egin behar dira. Prozesu honetan garrantzi handia izango du hizkuntzak. Bai generoa eta baita sexua ere sinboloak dira eta beraien esanahiak testuinguruaren arabera aldatzen dira. Hizkuntza bera da errealitatea aldatzen duena. Horregatik, genero eta sexuaren esanahia aldatu ahal izateko, hizkuntza bera aldatzea beharrezkoa da.

### **1.2.1.3 Teoria psikoanalitikoak**

Teoria psikoanalitikoak ezaugarri psikologikoetan oinarritzen dira emakumeak eta gizonak bereiztu ahal izateko. Freud psikoanaliaren eragile izanik, aditzera eman zuen garun femeninoaren ezaugarriak ez zirela arlo zientifikoan ikertu. Beste lan batean, feminitatearen ezaugarriak identifikatzea oso zaila dela kontsideratu zuen. Autore honek azaldu zuen psikoanaliak ez duela emakumea deskribatu nahi, baizik eta emakumea izatera nola iristen den aztertu. Honen harira, psikoanalista anitzek azaldu nahi izan dute bisexuala den pertsonatik nola garatzen den emakumea (Brennan, 2002). Lacan-ek berretsi zuen emakumeen eta gizonen psikoanali tratamenduak duen erronkarik handiena emakumea izatea suposatzen duen enigma zela. Autore honek agerian utzi zuen emakumeak bere buruari buruz hitz egiteko zailtasunak dituela eta honek sexualitate femeninoa ezagutzea zailtzen duela (Moi, 2004).

Orokorrean, teoria psikoanalitikoaren arabera, desberdintasun sexuala gorputzean eta inkontzientean oinarritzen da. Honek esan nahi du gizona eta emakumea eraikitzen diren konstruktuek direla, eta, nahiz eta ezaugarri psikiko desberdinak eduki, ezin direla desberdintasun hauek izendatu, inkontzientearen eremuan kokatzen baitira (Tosso, 2012).

Amaitzeko, hiru teoriak erlazionatuz, alde batetik, azken teoria honek teoria soziologiko eta antropologikoek emandako azalpenekin bat egiten du. Teoria hauek sinisten dute kultura-hizkuntza mekanismoek pertsonak gizonetan eta emakumeetan bereizten dituztela, beraien gorputzak maskulinoetan eta femeninoetan bihurtuz, eta beraien existentzia guztia konturatu gabe baldintzatuz. Bestalde, teoria feministak antropologikoekin eta sozialekin alderatuz, lehenengoenak sexua eta generoa kulturaren eraikuntza direla kontsideratzen dute, eta bigarren



teoriek hizkuntza eta kulturak transmititutako eraikuntza sinbolikoaz hitz egiten dute. Beraz, nahiz eta teoria bakoitzak sexua eta generoa desberdintzeko modu desberdinetan sinisten duen, guztiak bata bestearekin aberasten direla pentsa daiteke eta guztiak beharrezkoak dira hain konplexuak diren bi kontzeptu hauek ulertzeko.

### 1.2.2 Genero eta sexu identitatea

Genero identitatea gizabanako bakoitzak emakume edo gizon sentitzeko hautemate sujetiboa da, hots, pertsona batek genero batekoa edo bestekoa izateko sentimendua, sexu “psikologikoa” edo “psikikoa” kontsideratzen delarik. Arlo honetan, kontuan eduki beharra dago pertsonen duten identifikazioa jokabide maskulino edo femeninoaren inguruko kultura-arauekin. Identitate sexualari dagokionez, pertsonen bere sexu organoekin duten identifikazioa da. Hau da, pertsonen jaiotzen direnetik dituzten organo sexualak onar ditzakete, edo errefusa sentitu eta aldatzeko nahiaren sentimendua eduki (Frias, 2005). Bi fenomeno hauek ez daude beti erlazionatuak, zenbait pertsonen genero identitateari uko egiten diote baina aldi berean. Identitate sexuala onartzen dute (Tosso, 2012). Zentzu honetan, aurkako generoko janzkerekin eroso sentitu baina organo sexualak onartzen dituzten emakume eta gizonak existitzen dira.

Ikuspuspegi psikologiko eta mediketik hitz eginez gero, DMS (Diagnostic Statistical Manual) eta CIE (Clasificación Internacional de las Enfermedades) eskuliburuak kontuan hartuta, genero eta sexu identitatea zerbait kontzientea da. Hau da, pertsona bat ezin da egun batean emakume sentitu eta beste batean gizon, egun batetik bestera genero baten edo bestearen portaera aldatzeko adieraziz. Izan ere hau horrela izango balitz, buru-nahasmena kontsideratuko litzateke, gatazka honek pertsonengan sufrimendua eragiten baitu eta ondorioz, konponbidea bilatu beharko litzaioke (Butler, 2001).

*Queer* teoria defendatzen duten zenbait autoreek, hau da, gizartean nagusi den genero eta sexu identitatearen binarismoan sinisten ez duten autoreek, adierazten dute gizarteak inposatzen duela gizabanako oro sexu femenino edo maskulinoarekin identifikatu behar dela. Honek giza aniztasuna mugatzen du eta pertsonak behartzen ditu errealitatean identifikatzen ez diren edo identifikatu behar ez liratekeen kategoria itxietan posizio bat edo beste hartzea (Butler, 2001; Frias, 2005; Platero eta Gómez-Ceto, 2007).

### 1.2.3 Orientazio sexuala

Platero eta Gómez-Ceto (2007) autoreak orientazio sexuala pertsona batek beste pertsonengan sentitzen duen desira bezala definitzen dute, beste pertsonen sexua edozein dela eta. Hau da, bai arlo erromantikokoan eta baita emozio-afektibo eta sexualean ere sentitzen den erakarpena da. Rodríguez (2010) autoreak argitu zuen, kontzeptu honek desira objektuari erreferentzia egiten diola eta ez ekintza sexualari berari.

Horren harira, kriterio honen arabera, pertsonak homosexualetan, bisexualetan eta heterosexualetan bereizten dira, eta nahiz eta zenbait autoreek baieztatzen duten erabaki hau pertsonala dela, literatura gehienak dio orientazio sexuala jaiotzatik finkatuta dagoela (Agustín, 2009). Dena den, kontraesan asko daude orientazio sexualaren finkapen unearen inguruan, eta honek konstruktua honen konplexutasuna frogatzen du (Platero eta Gómez-Ceto, 2007).

Agustín (2009) autoreak defendatzen du orientazio sexuala honako lau maila hauetan sailkatzen dela: (1) Praktikak: bizitzan zehar mantentzen ditugun jarrera erotikoak, hau da, pertsona batek praktika heterosexualak, homosexualak edo biak eduki ditzake; (2) Desirak: pertsona batek egin nahi duena, eta desira hauek praktikan jarri daitezke edo ez; (3) Fantasiak: pertsona batek gustuko dituen praktikak imajinatzea; eta (4) Ametsak: kontrolatu ezin baitaitezke ere, garrantzitsuak dira nahasmena eragin dezaketelako. Gainera, autore honek aditzera ematen du erakarpena zeharka bostgarren mailan sartuko litzatekeela. Horrela, pertsona batek beste pertsona edo pertsonetako duen inpultsuari egingo lioke aipamen bostgarren mailak.

Beste autore askok pertsonen orientazio sexuala noiz eta nola finkatzen den aztertzen lan egin dute eta erdietsitako emaitzek fenomeno honen konplexutasuna frogatu dute. Finkatzen den garaia dagokionez, ikerketen emaitzek kontraesan asko erakutsi dituzte. Autore batzuek haurtzaroan definitzen dela iradokitzen dute eta beste askok berriz, orientazio sexuala nerabezaroan definitzen dela esaten dute (Sanchez-Sáinz, 2010). Hala ere, Platero eta Gómez-Ceto (2007) ikerlariak defendatzen dute pertsona bakoitzaren orientazio sexuala urte batetik bestera aldatu daitekeela, hau da, ez dute fenomeno konstantea bezala definitzen.

XIX. mendearen amaieran, orientazio sexual bat edo beste partekatzen zuten pertsonak identifikatzen hasi ziren, gayen, lesbianen, bisexualen eta transexualen kolektiboen sorkuntza eraginez (Agustín, 2009). Kontuan eduki behar da gayen, lesbianen eta bisexualen kolektiboak orientazio sexualarekin zerikusia dutela, eta transexualen kolektiboa berriz, ez da orientazio

sexual zehatz batean oinarritzen, baizik eta genero identitate eta identitate sexual desberdinen arabera (Frias, 2005; Generelo eta Pichardo, 2005; Platero eta Gómez-Ceto, 2007; Sánchez-Sáinz, 2010). Sailkapen honen arabera, izendatutako kolektibo bakoitzaren deskribapena egingo da eta denboran zehar edukitako bilakaeraren analisi laburra azalduko da.

### **Gay kolektiboa**

Gay hitza gaztelaniazko itzulpenean “alai”, “koloretsu”, “distiratsu”, edo “zoragarri” esan nahi du eta pertsona homosexualak hitz horrekin identifikatuak izan ziren garaia baino lehenago erabilia izan zen. Hitz honen lehenengo agerpena 1300 urtean izan zen, garai horretan “eder” edo “bikain” esanahia edukiko zuelarik (Rodríguez-López, 2008).

Baina orduan, nola pasa zen esanahi hau edukitzetik mutil homosexuali izendatzeko irabiltzera? Galdera hau erantzun ahal izateko, Frantzia kokatu behar gara, Erdi Aroan hain zuzen ere. Garai horretan, antzokietan emakume-jarrera zuten pertsonai finduei “gai” hitzarekin izendatu zitzairen eta hauek gizonen interpretatzen zituzten, emakumeek debekatuta baitzuten antzerkietan parte hartzea. Ingalaterran, Frantzia gertatu zen bezala, gay hitza antzerkietako pertsona promiskuo eta lotsagabeei izendatzeko erabiltzen hasi zen, eta hauek ere gizonen interpretatzen zituzten. Beraz, kontzeptu hau konnotazio positiboak edukitzetik esanahi negatiboagoa edukitzera pasa zen. Azkenik, XX. mendearen hasieran mutil homosexualak izendatzeko erabiltzen hasi ziren, eta mende honen erdialdean mundu guztiak zabaltzen hasi zen esanahi hori. Horrela, hitz honek lehenago eduki zuen edozein esanahi alde batera geratu zen (Rodríguez-López, 2008).

Gaur egun, gayen kolektiboak duen egoerari dagokionez, kontuan eduki behar da ikusgarritasun gehiena duen kolektiboa dela, lesbianekin, bisexualekin eta transexualekin alderatuz. Edozein modutan ere, gizon homosexualak, historian zehar, muga askorekin aurkitu dira gizartean aditzera eman ahal izateko. Maskulinoak menderatzen duen gizarte batean bizi gara eta gizon homosexualak maskulinitatearen etsai zuzenena dira (Borrillo, 2001). Zentzu honetan, jairo garenetik nola jokatu behar dugun inposatzen saiatzen dira, hau da, gizarteak dituen espektatibek bultzatzen dute mutilak diren umeek hausardia eta indarraren bidez maskulinitatea erakustea, eta ahultasun fisikoa eta emozionala ezkatzea. Maskulinitate-

frogatze behar honek mutilek bizitzan zehar presio handia sentitzea eragiten du, eta presio hau askoz handiagoa izango da gizon homosexualen artean (Tosso, 2012).

Kolektibo honen estigmatizazio prozesuan garrantzi gehien duen fenomenoa IHESA izan zen. Izan ere, gaixotasun hau gizon homosexualekin erlazionatu zen eta hau, homofobiaren arma bezala erabilia izan da urte askotan. IHESA “peste arroxak” edo “gay minbizia” bezala ezagutua izan zen, eta mutilen arteko sexu harremanekin bakarrik erlazionatzen zen (Tosso, 2012). Ondorioz, nahiz eta gayen kolektiboak gure gizartean ikusgarritasun handiagoa eduki, estigmatizazio eta presio sozial handia sufritzen duen biztanleria da, honek dakartzan ondorioekin.

### **Lesbianen kolektiboa**

Lesbiana hitzak emakume homosexuali egiten die aipamen eta Greziako Lesbos irlan du jatorria, Safo poetak K.a VII. mendean eta VI. mendearen hasieran, maitasun homosexualaren inguruan hitz egiten zuten poesiak idazten zituen unean. XIX mendean izan zen hitz hau emakume homosexualak izendatzeko erabiltzen hasi zenean. Garai hartan, emakume hauek kartzeleratu egiten zituzten “ez-naturalak ziren krimenak” egiteagatik eta seme-alaben hazkuntza eta ohitura onak alde batera uzteagatik (Platero eta Gómez-Ceto, 2007).

Gaur egun, emakume hauek estereotipo anitzak sufritzen dituzte. Alde batetik, eta estereotiporik ohikoena honako hau da: emakume lesbianak maskulinoak direla eta mutilen portaera eta itxura imitatzen dutela eta gainera, emakume femerinoak bilatzen dituztela bikote gisa edukitzeko. Bestalde, gizarteak uste du sexualki asetuak ez dauden emakumeak direla, ez baitute gizon batekin eduki daitekeen benetako plazerraz gozatu (Tosso, 2012). Beraz, bi estereotipoak ikuspegi maskulino eta heterosexual batean oinarrituta daude (Borrillo, 2001).

Kolektibo honek ikusgarritasun gutxiago sufritzen du (komunikabideetan, adibidez) gayekin konparatuz, eta, horregatik, LGTB kolektiboak eta emakume homosexualak egunero aldarrikatzen dute gizartean ikusgarriagoak izateko desioa (Platero, 2005). Borrillo (2010) autoreak ikusgarritasun-eza zerbait negatiboa bezala ikusten du, axolagaetasuna kolektibo honenganako mespretxuaren froga hutsa baita. Emakumearen sexualitatea gizonen desio-objektu bezala ikusia izan da beti, eta gizartea ez dago prest bi emakumeen arteko erlazio erotikoa edo afektiboaren inguruan pentsatzeko.

## **Bisexualen kolektiboa**

Bisexualitatea homosexualitatearen eta heterosexualitatearen artean kokatzen den orientazio sexuala bezala definitua dago, hots, pertsona bisexualek bi sexuengan sentituko dute erakarpena, bai fisikoa eta baita erromantikoa, afektiboa eta sexuala ere. Zenbait autoreek baieztatu dute ume guztiak jaiotzen direnean, orientazio sexual hau dutela. Beste autore batzuek iradokitzen dute pertsona batzuek bizitzako denboraldi batean (inguru-faktoreengatik edo faktore fisiologikoengatik) orientazio sexual hau hartzen duten eta ondoren, alde batera uzten duten bitartean, beste hainbat pertsonak bisexualitatea bizitzan zehar mantentzen dutela (Borrillo, 2001).

Bisexualak homosexualen eta heterosexualen artean kokatzen direnez, baztertuak izan ohi dira bai talde baten aldetik eta baita bestearen aldetik ere, kolektibo honek sufritzen duen arazo handienetako bat izanik. Gutxiespen mota honi "bifobia" deitzen zaio eta heterosexual/homosexual binarismoa hausten duen orientazio sexuala delako gertatzen da. Hari beretik, generoaren sailkapenean gertatzen denaren antzeko zerbait gertatzen da, hau da, sailkapen binarioak dira (mutil/emakume) eta hauek ez diote aniztasunari aukera ematen. Orientazio sexualaren kasuan, sistema honek derrigortzen du heterosexuala izatea homosexuala ez izatea dela (Borrillo, 2001). Ondorioz, pertsonak mugatuak egondo dira bi aukera bakarren aurrean aurkituz (Butler, 2001).

Pertsona bisexualak, beraz, presio sozial jarraitua pairatzen dute orientazio sexual batekin edo bestearekin identifikatu daitezten, eta bisexualak diren pertsonen identitatea zalantzan jartzen da. Gainera, gizartean sinismen bat existitzen da baieztatzen duena pertsona bisexualak biziosoak direla eta orientazio sexuala argi ez dutela. Hori dela eta, bisexualitatea ez da orientazio sexual bat bezala ulertzen, baizik eta homosexualitatean edo heterosexualitatean amaitzen den transizioa bezala (Tosso, 2012).

Gizarteak bisexualaren inguruko sinesmen hauek dituenek, LGT kolektiboak bisexualitatea hauteman du mehatxu edo LGTB kolektiboaren aldarrikapenei indarra kentzen dion ahultasun politikoa bezala (Tosso, 2012). Pertsona bisexualen kolektiboak ibilaldi luze eta borroka handia egiten ari da bisexualitatea beste aukera sexual bat bezala hartu dezaten eta ulertarazi nahi da, nahiz eta gizarte honek edozein aniztasun mota sailkatu nahi duen, bisexualitatea jarraitu daitekeen beste bide bat dela.

## **Transexualen kolektiboa**

Transexualitatea sexu biologikoak generoarekin bat egiten ez duenean gertatzen den gatazka da. Hau da, sexu psikologikoaren eta sexu biologikoaren arteko adostasun eza da. Beraz, pertsona transexualak jaiotzatik duten sexu biologikoarekin identifikatzen ez diren pertsonak dira eta tratamendu hormonalekin eta zirujiarekin aldatzeko desioa sentitzen dute. Tratamendu hauek zuzenduta daude, alde batetik, bigarren mailako ezaugarri sexualak aldatzeko tratamendu hormonalen bidez, eta bestetik, tratamendu kirurgikoaren bidez ezaugarri nagusiak aldatzeko, genitalak, bularra edo sudurra eta zintzur-korapiloa barne (Sánchez-Sáinz, 2010).

1930an obarioak eta sexu organo femeninoak transplantatzen saiatu zen lehen aldiz, Einar Wegener deitutako margolari daniar bati. Ebakuntza hau ez zen guztiz gogobetekoa izan, Lili Elbe (daniar margolariaren emakume izena) zirujia egin eta handik urte batera hil egin baitzen gorputzak organoak errefusatu baitzituen (Tosso, 2012).

Hasiera batean, sintoma multzo bat zuten eta gaixo zeuden pertsonak zirela uste zen. Transexualitatearen ikuspegi hau transexualek indartsu babestu zuten hasiera batean, baina ikuspegi hau aldatzen joan zen, borroka handia egin baita transexualitatea gaixotasun bezala ez deskribatzeko (Tosso, 2012). Zentzu honetan, 2017an Osasunaren Mundu Erakundeak transexualitatea Gaixotasunen Sailkapen Internazioletik ezabatu zuen eta 2018 egindako eguneratzean, transexualitatea "osasun sexualarekin zerikusia duten kondizioen" sailkapenean sartu dute eta "genero inkongruentzia" deitzera pasa da.

80ko hamarkadan kolektibo honek diskriminazio handia pairatu zuen pertsona homosexualen kolektiboengandik. Emakume lesbianak, adibidez, ez zituzten emakume transexualak onartzen beraien kolektiboetan, mugimendu feminista ezin baitzen osatua egon genitale maskulinoak dituzten pertsonekin. Gizon transexualen kasuan, homosexualitatea askatasunez bizi ezin zuten pertsonak bezala kontsideratzen ziren eta horregatik pentsatzen zen emakume bihurtu nahi zirela (Becerra-Fernández, 2003).

Kolektibo honek sufritzen duen beste estereotipo bat da pertsona transexualak gauaren, espektakuluaren eta prostituzioaren munduarekin erlazionatzen direla. Egia esanda, nahiz eta estereotipo honek biztanleri transexual guztia islatzen ez duen, kontuan eduki behar da lanbide hauetan lan egitea behartzen dituzten egoerak sufritzen dituzten pertsonak osatzen dutela

kolektibo hau. Izan ere, pertsona hauek batzuetan ez dute formazio akademiko altua edukitzen, askotan pairatzen duten eskola jazarpen eta diskriminazio sozialaren eraginez (Tosso, 2012).

#### **1.2.4 LGTBfobia: kontzeptualizazioa eta sailkapena**

Atal honetan, homofobia hitza erabiliko dugu LGTBfobiaz hitz egiiteko. Pichardo, Molinuelo, Rodríguez, Martín eta Romerok (2007) homofobia era honetan definitzen dute: “Homosexuala den orientazio sexuala behe mailako, aurkako edo ez-normala den orientazioa dela sinisten duen etsaitasun jarrera da. Sinesmen honek orientazio sexual hau praktikan jartzen duten pertsonak bekadari, gaixo, maltzur, gaizkile, kriminal edo oreka gabeko pertsonak bezala kontsideratuko ditu, batzuetan gizakiak direla zalantzan jarritz”. Beraz, kontzeptu honek pertsona homosexualen edo ustez direnen aurrean edukitako gutxiespen jarrerak definitzen ditu. Testuinguru honetan, LGTB diren pertsonak homofobiaren barne kokatuko lirateke, kontzeptu hau “normala” den bakarria heterosexuala den guztia izango den gizartean sortu baita (Borrillo, 2001).

Homofobia heterosexismo, homosexofobia, homonegabitae edo homo-aurreiritzi bezalako hitzekin definitua izan da. Hauen artean, bere agerpenetik indar gehien hartu duena heterosexismoa izan da. Izan ere, kontzeptu honek orientazio edo identitate sexual ez-heteronormatiboa duten pertsonen aurrean egindako edozein gutxiespen mota barneratzen du, bai pertsona homosexualen, bisexualen edo transexualen aurrean egindakoak eta baita sexuak finkatzen dituen genero rolak hausten dituzten pertsonen aurrean burututako jokaerak ere (Borrillo, 2001).

Nahiz eta gure gizartean aniztasun sexualaren inguruan aurrerapenak lortu diren, gizartea modu indartsu eta jarraitzailean heterosexista izaten jarraitzen du. Hau da, gure gizartean, naturala edo normala den bakarria heterosexuala izatea sinistarazten da. Heterosexualitatea derrigortzen duen erregimen hau, “naturala antzematea” helburutzat duen edozein eraikuntza idologikoaren emaitza soila da (Borrillo, 2001). Zentzu honetan, heteronormatibitatearen teoriarin oinarrituko gara. Hau Chambers (2005) autoreak definitu zuen, heterosexualitatea orientazio sexual normal, natural eta onartu bakar bezala duen erregimen kultural eta soziala zela baieztatuz. Ondorioz, heterosexualitatearen estereotipoan kokatzen ez den pertsona oro pertsona desbideratua bezala kontsideratuko da. Honek eragiten du

heterosexualitatea inposatzen duen gizarte batean bizitzea, hots, onartzen den orientazio sexual bakarra heterosexuala izatea den gizarte batean bizitzea (Tosso, 2012).

Kontuan eduki behar da homofobiak barne hartzen duela genero rolen hausturaren aurrean sortzen den gutxiespena (Borrillo, 2001). Horrela, alde batetik, Borrillo (2001) autoreak homofobiari aipu egiten dio sexismoaren modu zehatz bat bezala eta beraz, sexu biologikoarekin identifikatzen ez diren pertsonen ere sufrutuko dute. Bestalde, Pichardok (2009) iradokitzen du homofobia ere sufritzen dutela lesbiana, gay edo transexualen itxura duten pertsonen, maskulino/femenino estereotipoetatik urruntzen direlako.

Ikusi den bezala, homofobia oso fenomeno konplexua da. Horregatik, orain arte autore desberdinek deskribatu dituzten homofobia mota guztiak azaltzea nahitaezkoa da (Borrillo, 2001; Platero eta Gómez-Ceto, 2007; Sánchez-Sáinz, 2010; Generelo eta Pichardo, 2005). Atal honetan, homofobia mota desberdinen sailkapena eta definizioa burutuko da.

#### **1.2.4.1 Homofobia kognitiboa**

Homofobia mota hau modu desberdinetan erabilia izan da lan ezberdinetan. Hala eta guztiz ere, autore anitzek iradokitzen dute homofobia kognitiboa aniztasun afektibo-sexualak eragiten dituen pentsamendu negatiboen multzoa dela (Agustin, 2009; Borrillo, 2001; Generelo eta Pichardo, 2005; Pichardo, 2009). Generelo eta Pichardo (2005) autoreen arabera, homofobia mota hau sufritzen duten pertsonen sexu bera duten pertsonen arteko erlazio erotiko eta erromantikoak "ez-naturalak", "patologikoak" edo "biziozoak" direla uste dute. Pertsona hauek ez dituzte legitimotzat hartzen LGTB pertsonen desioa eta praktikak eta diskurtso hori barneratuta dute (Tosso, 2012).

Homofobia honen beste ezagarrietako bat ondorengoa da: nahiz eta homofobia hau sufritzen duten pertsonak LGTB diren pertsonak normalak direla onartzen duten, adopzioa edo sexu bereko bi pertsonen arteko ezkontza bezalako gaiak planteatzen direnean, beraien gaitzespena erakusten dute (Borrillo, 2001). Gaitzespen mota hau zenbait argudioetan oinarritzen da, esate baterako, ume baten garapenerako derrigorrezkoa dela bai irudi femeninoa eta baita maskulinoa ere, eta bikote hauek ezin dutela hau eskeini.

Homofobia hau estereotipo eta aurreiritzi askotan oinarritzen da. Alde batetik, mutil homosexualak emakume-itxura duten pertsona kritikatzailerik, marmarti, promiskuo, pederasta,



perbertitu eta zeloso bezala hautemango dira. Bestalde, emakume lesbianeiei dagokienez, emakume hauek pertsona maskulino bezala deskribatuak izango dira, feminista direnak eta gizonak gorroto dituztenak. Pertsona bisexualei dagokienez, homofobia kognitiboak pertsona nahasi, drogazale eta biziosoak bezala kontsideratuko ditu (Agustin, 2009). Eta, azkenik, pertsona transexualei dagokienez, pertsona gaixo, drogazale eta biziosoak bezala hautemango dira (Tosso, 2012).

Estereotipo hauek ez dira bakarrik pertsona homofoboetan barneratuak izango, baizik eta homofoboak ez diren pertsonetan ere. Gainera, batzuetan gerta daiteke sinismen hauek LGB pertsonen barneratuak edukitzea, eta horregatik, identitatearen hasieran, ez dute nahi izango pertsona homosexual bezala identifikatuak izatea (Soriano, 1999).

#### **1.2.4.2 Homofobia afektiboa**

Homofobia afektiboak aipamen egiten die homosexualen aurrean edukitako sentimendu negatiboak, nahiz LGTB pertsonekin kontaktua edukitzean edo kontaktua edukitzeko aukeraren aurrean arbuio eta deserosotasunari (Agustín, 2009; Borrillo, 2001; Generelo eta Pichardo, 2005). Beste autore batzuek sozializazioan modu inplizituan ikasten den homofobia dela sinisten dute. Hau da, gizarteak haurtzarotik gure sexuaren ezaugarri kontsideratzen diren portaerak hartzea bultzatzen ditu pertsonak, ohikoa denarengandik urruntzen diren jarrerak zigortuz. Ikasketa prozesu honek heteronormatiboarentzat mehatxu diren jarreraren aurrean emozio negatiboak eta askotan, kontrolaezinak gertatzea eragingo luke (Tosso, 2012). Era berean, Agustin (2009) autoreak uste du LGTB pertsonen ikusgarritasunak eta ezagutzak homofobia mota hau ezabatu dezakela. Azalpen honengatik LGTB kolektiboko pertsona askok pentsatzen dute pertsona hauen ikusgarritasunak garrantzi handia duela, gutxinaka sexu bereko bi pertsonen publikoan beraien sentimenduak adierazten dutenean sortzen den errefus honen aurka borrokatu ahal izateko (Tosso, 2012).

### **1.2.4.3 Jokabidezko homofobia**

Anistasun sexualari, LGTB pertsoneri eta haien aldarrikapeneri zuzendutako portaera eta jarrera negatiboak egiten diren aipamen homofobia mota honek (Agustín, 2009; Borrillo, 2001; Hernáinz Landaez eta Márquez Santander, 2011; Generelo eta Pichardo, 2005).

Jokabidezko homofobia errezagoa da antzematen, bere adierazpenak zehatzagoak baitira eta ikusgarriagoak direlako. Autore anitzek LGTB pertsoneri egindako ahozko erasoak portaera eta jarrera hauen barne hartzen dituzte (Generelo eta Pichardo, 2005). Hala ere, batzuetan ez da hain erraza izaten bere detekzioa, homofobia honen barne gutxiespena adierazten duten begirada eta keinuak sartzen baitira, hauek ikusten zailak direlarik. Beraz, homofobia mota honen adierazpena arina (ahozko eraso bidez) edo larria (eraso fisikoen bidez) izan daiteke (Tosso, 2012).

Garrantzitsua da azpimarratzea orain arte definitutako hiru homofobiak pertsona bakar batean ikus daitezkeela. Hau da, jarrera homofoboak adierazten ez dituen pertsona batek gaitzespena sentitu dezake sexu bereko bi pertsonak leku publikoetan afektibitatea erakusten duten egoeraren aurrean (homofobia afektiboa) eta aldi berean, pentsa dezake sexu bereko pertsonak ezin dituztela seme-alabak eduki (homofobia kognitiboa).

### **1.2.4.4 Homofobia klasikoa eta liberala**

Azken 50 urteetan, gizarte aitzindari guztietan sexualitateari buruzko diskurtsuek bilakaera ikusgarria pairatu dute. Hala eta guztiz ere, zenbait autoreek baieztatu dute aniztasun sexualarekiko tolerantzia eta errespetu adierazpen horiek itxura besterik ez direla, oraindik pauso asko eman behar baitira gizarte guztiak benetako iritzi aldaketa bat lortu dezan (Tosso, 2012). Borrillo (2001) autoreak baieztapen honekin bat egiten duela adierazi du eta aditzera eman du gaur egungo gizarteak homofobia gutxiago erakusten duela politikoki zuzena dena garrantzitsua den gizarte batean bizi garelako, pertsonak benetakoa ez den tolerantzia azalduz.

Hari honetara, bi homofobia mota sortu dira (Borrillo, 2001). Alde batetik, homofobia klasikoa, edozein adierazpen homosexualari uko egiten dion homofobiarik kontserbadoreena. Gaur egun, homofobia mota hau ez da hain ohikoa gure gizartean. Bestalde, homofobia liberala, pertsona homosexualak onartzen direnaren itxura hutsa. Kasu honetan, homofobia hau

pairatzen duten pertsonak homosexualitatea onartuko dute beti ere leku publikoetan adierazten ez bada. Zentzu honetan, Castillo, Rodríguez, Torres, Pérez eta Martel (2003) autoreek bi homofobia mota bereizten dituzte: homofobia inplizitua, homofobia liberalaren antzeko izango dena, eta homofobia esplizitua, homofobia klasikoaren antzeko izango dena.

Homofobia liberala pairatzen duen pertsonak LGTB pertsonak onartzen dituztela adieraziko dute, LGTB pertsonak ezagutzen dituztela esanez, baina baieztapen honen ondoren, adieraziko dute LGTB diren pertsonak leku publikoetan sentimenduak adieraztea gizartearentzat probokazioa den bitartean, pertsona heterosexualek berdina egiten duten egoerak normalak direla. Gainera, LGTB diren pertsonak orientazio sexualari edo praktika sexualei buruz hitz egiten entzutea ere probokazio moduan hartuko dute (Tosso, 2012).

Borrillo (2001) autorearen esanetan, homofobia klasikoa ohikoagoa da homosexualitatea ilegala zen testuinguruetan bizi izan diren adineko pertsonetan. Horregatik, homofobia mota honek barne hartzen ditu pertsona homosexuali egindako ahozko eta fisikoak diren erasoak. Homofobia liberalari dagokionez, ohikoagoa izaten da aniztasun sexualarekiko tolerantzia adierazten den inguru sozialetan hezi diren pertsona gazteagoetan, baina hala ere, ingurune hauetan oraindik ere heterosexulitatea homosexualitatearen gainean finkatzen da.

Ondorioz, nahiz eta azken 50 urteetan gizarte aitzindarietan aniztasun sexualarekiko tolerantzian aurrerapenak egon diren, ez dago zalantzarik homofobia oraindik existitzen dela. Hau da, adierazpen homofoboetan aldaketa bat gertatu da, baina ez da homofobiaren murrizketarik gertatu (Borrillo, 2001).

#### **1.2.4.5 Barneratutako homofobia**

Azken urteetan, estigmak eta aurreiritziek sufritzen dituzten pertsonetan gertatu daitezken ondorioen inguruko ikerketak areagotu egin dira. Badirudi estigmatizazioa pairatzen duten pertsonak defentsa mekanismoak izaten dituztela eta mekanismo hauek kezka obsesibo eta exageratu batean islatzen dira. Honen beste ezaugarri bat norbere-estigmatizazio eta aurreiritzien barneratzea izaten da. Hau da, LGTB diren pertsonak sinismen hauek barneratzen dituzte modu inkontzientean edo kontzientean, estereotipo, mito eta aurreiritzi guztiak sinistuz eta honek barne gatazkak, norberaren buruaren onarpen txiroa eta identitatearen inguruko sentimendu negatiboak eragintzen ditu (Agustin, 2009).

Era honetan, homofobia mota honen eraginez, LGTB pertsonak sexualitateari buruzko irudi eta mezu negatiboak bere egiten dituzte. Mezu eta irudi hauek senide, komunikabide edo ikastetxeengandik jasoak izan daitezke. Homofobia mota hau sufritzen duten pertsonak modu arruntan eta saihetsezinean bizitzen dute LGTB izateagatik pairatzen duten indarkeria (Borrillo, 2001). Gainera, pertsona hauek ez dira LGTB kolektiboaren parte sentitzen eta gay, lesbiana, bisexuala eta transexuala hitzak baztertzin dituzte beraien burua identifikatzeko orduan (Soriano, 1999).

Barneratutako homofobia eta Estres Postraumatiko Sindromearen arteko lotura aztertu duten ikerketak existitzen dira, eraso homofoboak sufritu dituzten LGTB pertsonak homofobia mota honen maila handiagoak adierazi baitzituzten. Aldi berean, harreman sozialak mantentzeko zailtasunarekin lotu da ere, biktimetan depresio sintoma larriak eragiten dituelarik. Azkenik, barneratutako homofobia estres sintomekin eta suizidioarekin erlazionatua izan da (Tosso, 2012).

#### **1.2.4.6 Homofobia instituzionala**

Homofobia mota hau LGTB pertsonenganako diskriminazio burokratiko eta legislatiboa bezala definitu da. Arlo honetan, arau burokratiko eta legislatiboen bidez ezarritako desparekotasunak sartuko lirateke homofobia mota honetan, arau hauek LGTB pertsonak diskriminatzen baitituzte pertsona heterosexualek ondoan (Tosso, 2012). Homofobia hau komunikabideen, errekonozimendu instituzional ezaren eta indarkeriaren bidez gizarteak adierazitako mezu negatiboengatik sortu da (COGAM, 2005).

Kontuan eduki behar da pertsona askok LGTB pertsonen inguruko ezagutzak komunikabideetatik jasotzen dituztela. Zentzu honetan, gai honetan adituak diren pertsonak baieztatu dute LGTB kolektiboaren inguruko estereotipoen errudunak komunikabideak direla, pertsona hauek pertsonai komikoak bezala adierazten baitituzte eta haietaz barre egitea zilezkoa dela erakusten dutelarik (Tosso, 2012).

Errekonozimendu instituzionalari dagokionez, zenbait autoreek azpimarratu dute LGTB kolektiboaren ikusgarritasun eza maila burokratikoan. Formulario askok ez dute aniztasun sexuala eta familiarra erakusten eta, beraz, pertsonak ezin dute pentsatu bizimodu hori

aukeratzearen inguruan, aukerarik ematen ez bada, existitzen ez den aukera bilakatzen baita (Tosso, 2012).

Homofobia instituzionalaren inguruko beste arlo garrantzitsu bat LGTB pertsonen eskubideenganako indarkeria da. Egia da, nahiz eta LGTB pertsonen berdintasuna lortzea helburutzat duten legeek aurrerapenak pairatu dituzten, hutsune burokratikoak existitzen jarraitzen dira eta hauek agerian uzten dute, gaur egun, oraindik ez dela berdintasun instituzionala lortu kolektibo honentzako (Platero y Gómez-Ceto, 2007).

Modu honetan, baieztatu dezakegu homofobia oso konplexua den kontzeptua dela eta jokabide-aderdiak nahiz afektibo eta kognitiboak inplikatutak daudela. Aldi berean, modu klasikoan edo liberalean adierazi daiteke, eta honek konplexutasun hau areagotzen du. Gainera, ikerketa anitzek frogatu dute homofobia ez dutela bakarrik pertsona heterosexualek pairatzen, baizik eta LGTB pertsonak ere homofoboak izan daitezkeela, ondorio larriak eraginez. 1. Koadroan deskribatu diren homofobia mota desberdinen laburpen bat azaltzen da.

### 1. Koadroa. Homofobiaren definizioa eta sailkapena

Homofobia mota	Definizioa
<b>Homofobia Kognitiboa</b>	Aniztasun sexualarekiko pentsamendu negatiboen multzoa (Sánchez-Sáinz, 2010), homofobia hau sufritzen duten pertsonetan sexu bereko pertsonen harremanak modu “ez-natural”, “patologiko” edo “biziosan” ikustea eraginez (Borrillo, 2001; Generelo eta Pichardo, 2005; Pichardo, 2009).
<b>Homofobia Afektiboa</b>	Homosexualitatearen inguruko sentimendu negatiboen adierazpena. LGTB pertsonekin kontuaktua edukitzean edo kontaktua edukitzeko aukeraren aurrean gertatzen den deserosotasun sentimendua. Sentimendu hauek pertsona hauek ikustean edo LGTB pertsonen artean afektibitate adierazpenak ikustean ager daitezke (Agustín, 2009; Borrillo, 2001; Generelo eta Pichardo, 2005).
<b>Jokabidezko homofobia</b>	Aniztasun sexuala, LGTB pertsonen eta beraien adierazpenen aurrean portaera negatiboak (Agustín, 2009; Borrillo, 2001; Generelo eta Pichardo, 2005). Jarrera hauen banean ahozko erasoak eta detektatzen zailak diren errefus begirada eta keinuak sartzen direlarik (Generelo eta Pichardo, 2005).
<b>Homofobia Klasikoa</b>	Homofobia kontserbadoreena da. Homosexualitatearen edozein adierazpen arbuatzen du. Gizartean geroz eta ez-ohikoagoa da (Borrillo, 2001).
<b>Homofobia Liberala</b>	Pertsona homosexualenganako itxurazko onarpena. Kasu honetan, homofobia hau sufritzen duten pertsonen homosexualitatea onartuko dute publikoan adierazten ez den bitartean (Borrillo, 2001).
<b>Barneratutako Homofobia</b>	Agustínek (2009) horrela definitzen du: “Pertsona homosexualek egiten duten gizartearen jarrera negatiboen barneratzea, beraien buruaren devaluazioa dakartzana eta barne gatazka eta auto-onarpen txiroa eragiten duena” (Agustín, 2009: 65). Sozializazio momentuan bere egiten duten LGTB pertsonen inguruko irudi eta mezu negatiboen ondorioa da, sufritzen dituzten ahozko eta fisiko diren erasoak modu arruntan eta saihetsezinean ikusiz (Borrillo, 2001).
<b>Homofobia Instituzionala</b>	Pertsona LGTBak diskriminatzen dituzten arau burokratikoaren eta legislatiboen bitartez inposatutako desparekotasuna, pertsona heterosexualekin alderatuz (Tosso, 2012).

#### 1.2.5 LGTBfobia eskola testuinguruan

Espainiak LGTB pertsonen aurrean errespetua eta tolerantzia sustatzen duten diskriminazioaren aurkako legeak ditu. Hala ere, heteronormatibitatearen baloreetan oinarritzen den gizartean bizi gara, eta honek eragiten du aniztasun sexualaren aurrean jarrera

diskriminatzaileen testigu izatea. Zentzu honetan, ikastetxeak dira jokaera LGTBfobiko gehien gertatzen diren testuingurua. Gainera, jarrera erasokor hauek askotan oharkabean gertatzen dira eta ez diegu merezi duten arreta jartzen.

Gaur egun, ikasgelak modu inkontzientean edo kontzientean mezu heterosexistak transmititzen diren espazioak dira. Hau da, ideia heterosexualak modu positiboago batean adierazten dira beste orientazio sexualekin alderatuz, eta honek eragiten du, ikasle, irakasle eta senideek homofobiaren ondorioak sufritzea (Generelo eta Pichardo, 2005). Horrez gain, sinismen sozial bat nagusitu da, aniztasun sexualaren aurrean edukitako zenbait jarrera negatibo arruntak direlasinestarazten duena, esate baterako, irain LGTBfobikoak. Hauek ohikoak eta garapenaren zenbait garaietan sahietsezinak kontsideratzen dira. Nerabeen artean gertatzen diren irain homofoboengatik inguruko hautematea aztertu zen ikerketa batean, Thurlow (2001) autoreak ondorioztatu zuen nerabeek irain LGTBfobikoei ez zieten hainbesteko garrantzia ematen arrazakeria adierazten zuten irainekin alderatuz adibidez.

Normalean, eskola da sexualitatearen eta generoaren arauak ikasi eta barneratzen diren testuingurua. Ikasleek kontuan edukiko dituzte arau hauek begirale sozialaren papera hartzeko eta gizartean nagusi diren maskulino/femenino estereotipoetatik urruntzen diren pertsonak edozein motatako jazarpena erabiliz tratatuko dituzte. Ekintza mota hauen eraginez, biktimei zenbait estigma eta etiketa egokituko zaizkie eta honek, aldi berean, nor bere buruaz duen ikuspegiaren barneratze negatiboa eragingo du (Platero-Méndez, 2010).

Ondorioz, eskola testuinguruan gertatzen den homofobiak pertsonetan eragin larriak sortu ditzake. Izan ere, Pichardo (2009) autoreak baieztatzen duen bezala, nahiz eta homofobia testuinguru gehienetan adierazten den, ikastetxeetan modu indartsuagoan adierazi eta zabaltzen da. Ondorengo atalean bullying LGTB-fobikoaren definizioa, sailkapena eta ondorioak aztertzen saiatuko da.

### **1.2.6 Bullying LGTB-fobikoa**

Bullying LGTB-fobikoaz hitz egiten dugunean LGTB pertsonenganako fobiak eragiten duen jazarpenari buruz ari gara, sexismoa eta heteronormatibitatearen baloreak oinarritzat dituelarik. Balore hauek euskarritzat hartuz, biktimek baztertuak, bakartuak, mehatxatuak, irainduak edota erasotuak izaten dira (Platero-Méndez, 2008). Horrela, Agustinek (2009)

biktimaren edo bere senideen edo lagunaren benetako edo iruditutako orientazio sexualarengatik egiten diren eraso bezala definitu zuen fenomeno hau, eraso hauen barruan ahozko erasoak, fisikoak eta sozialak sartzen direlarik. Hauek beste arrazoi batengatik burutu daitezke (talde baten barruan estatusa hobetzeko, adibidez) baina biktimaren orientazio sexuala izango da eraso hauen aitzaki nagusia. Beraz, fenomeno honen bi ezaugarri honako hauek dira: alde batetik, behin baino gehiagotan egiten da psikologikoki edo fisikoki mintzeko intentzioarekin, eta bestetik, erasotzaile eta biktimaren artean botere desparekotasuna egongo da, biktima egoera honetatik ihes egin ezin duelarik (Agustín, 2009).

Kontuan eduki beharra dago bullying mota honen biktimak maskulino/femenino estereotipoetatik urruntzen diren eta LGTB bezala hautematen diren pertsonak izan daitezkeela (Borrillo, 2001; Pichardo, 2009). Bullying mota honek ondorengo ezaugarri nagusiak ditu: biktimen ikusgarritasun eza, sostengu eza eta erasoaren normalizazioa (Pichardo, 2009; Generelo eta Pichardo, 2005). Ezaugarri hauek hurrengo koadroan azaltzen dira (2. Koadroa).

## 2. Koadroa. Bullying LGTB-fobikoaren ezaugarriak

Ezaugarriak	Azalpena
<b>Ikusgarritasun eza</b>	Ikastetxeetan bullying homofobia adierazten duen jarrera bat gertatzen denean, ez zaio alde homofoboari arreta jartzen, eta horregatik, bullying orokorrarekin zerikusia duten beste arlo batzuei zuzentzen zaio arreta guztia (Pichardo, 2009). Gainera, LGTB pertsonak beste pertsonen aurrean beldur izaten dira diren bezalakoak azaltzeko eta nahiago izaten dute ikusezinak izatea hezkuntza arloan. Horregatik, bizitza paralelo bat garatzen dute foru eta sare sozialen bitartez nagusiki, aske sentitu ahal izateko (Tosso, 2012).
<b>Sostengu eza</b>	LGBTB pertsonak laguntza eskatzearen beldur izaten dira momentu horretan beraien orientazio edo identitate sexuala onartu behar dutelako. Gainera, bullying homofobia gertatzen denean, testigu diren pertsonak ez dituzte biktimak defendatzen ez daitezkeen biktima izaten ari den eta erasoaren arrazoi diren ezaugarri berdinekin identifikatuak izan (Generelo eta Pichardo, 2005; Pichardo, 2009). Sostengua ez izateak pertsonak homofobia barneratzea errazten du eta jazarpen errepikatuaren eta biktimak sufritzen duen isolatzearen ondorioz erasotzailea indartsuagoa sentitzen da, eta biktima berriz, gutxiago sentituko da, desparekotasun harremana gertatuz (Tosso, 2012).
<b>Normalizazioa</b>	Jazarpen mota hau indarkeri onargarria dela eta horregatik, honen aurka ekintzarik egin behar ez dela baieztatzen duen sinismena da (Generelo eta Pichardo, 2005; Pichardo, 2009). Izan ere, autore anitzek iradokitzen dute normalizazio hau eguneroko bitzitan ikus daitekeela. Adibide gisa dugu, LGTB pertsonen egindako erasoak ez direla kontuan hartzen beste irain edo eraso mota desberdinak bezala (Pichardo, 2009).



### 1.2.7 Bullying LGTB-fobikoaren ondorioak

Nahiz eta zenbait autoreek baieztatu duten 10 urteko haurretan orientazio sexuala finkaturik ez dagoela, zenbait ikerketek agerian urtzi dute garai hau dela ikasleek ikastetxeetan bullying homofobo gehien sufritzen duten garaia (Rivers, 2004). Eraso hauek 5 urteko iraupena izan ohi dute eta ondorio oso larriak izaten dituzte bai biktiketan eta baita erasotzaile eta behatzaileetan ere. Horregatik, osasun publikoaren arazo bat kontsideratzen da (Duong eta Bradshaw, 2014; Garaigordobil, 2018).

Homofobia kognitiboa, jokabidezkoa eta afektiboa eskolako garai gehienetan azaltzen dira. Hala eta guztiz ere, esan beharra dago garaiaren arabera eraso motak aldatu egiten direla. Zentzu honetan, Haur Hezkuntzan (HH) eta Lehen Hezkuntzan (LH) burlen, diskriminazioaren eta erasoen helburua genero ereduetatik (jokuetan adibidez) urruntzen diren pertsonak izaten dira, eta jazarpen hau nagusitu egiten da Derrigorrezko Biharren Hezkuntzan (DBH) (Tosso, 2012). Mutilen kasuan, esparru honetan egindako ikerketek baieztatu dute “maritxu” eta “marikoi” bezalako irainak 5-6 urte bitarteko umeetan agertzen direla, hau da, Lehen Hezkuntzako lehenengo urteetan. Garai honetan, maskulinitatearen oinarriak finkatzen hasten dira eta Lehen Hezkuntzako azken urteetan izaten da irain hauek orientazio sexualarekin erlazionatzen diren garaia. Hala ere, nerabezaroa da femenoak diren ezaugarriak adierazten dituen ikaslea baztertzen den unea, indarkeria erabiliz maskulinitatea guztiaren gainetik dagoela aditzera emateko (de Estefano, 2017).

Hortaz, heteronormatibitatean oinarritzen diren ekintzen areagotzea Bigarren Hezkuntzan aurkituko dugu, hurrengo datu esanguratsuak aurkitu direlarik: 10 nerabeetatik 8k orientazio sexualarekin erlazionatutako burla eta irainak ikusi dituzte, nerabe horien % 46,6 eraso sozialaren testigu izan da eta % 37,6k kideak ikusi ditu mehatxuak egiten edo gorroto adierazpenak esaten arrazoi berdinegatik (de Estefano, 2017).

Bullying homofoboa itzaletan eramaten da, hau da, erasoak zainketa gutxien dagoen testuinguruetan gertatzen dira, jolastokian, komunetan edo aldageletan adibidez, eta erasotzaileak normalean kideez osatutako taldeak izan ohi dira (Tosso, 2012). Faktore honek lehen aipatutako ikusgarritasun ezari eragiten dio. Guzti honi gehitu behar zaio irakasle askok uste dutela homofobia nerabezaroako fenomeno naturala dela eta, horregatik, “marikoi” bezalako irain homofoboak normalak direla (Generelo eta Pichardo, 2005).

Bullying honen ondorioen artean, ikerketa batzuek ondorioztatu dute biktimek erritmo akademikoa gutxitzen dutela, ikastetxea uzteko desioa sentituz. Gainera, zenbait arazo mental ere sufritu dezakete (Tosso, 2012). Homofobian oinarritutako jazarpenaren biktimak beraien burua gutxiesten dute, homofobia barneratzen dute eta orientazio sexuala aldatzeko desioa edukitzen dute, beste LGTB pertsonak onartu ezinik (Martxueta, 2014).

Ondorio larrietako bat suizidio nahia edo saiakera da. Zentzu honetan, Generelok (2012) estatu mailan egindako ikerketa batean azaldu zuen Espainian LGB ikasle nerabeen % 43k suizidio ideiak eduki zituela eta % 40 suizidioa nola burutu planifikatzera iritsi zela. Azkenik, % 18 suizidatzen saiatu zen behin baino gehiagotan eta ikasleen % 22k behin bakarrik egin zuen saiakera. Gainera, lehen hezkuntzan “marikoi” eta “tortillera” bezalako irain homofoen biktima eta entzule diren ikasleak, oraindik orientazio sexuala garatua ez dagoen garaia denez, beraien orientazioa garatzeko eta adierazteko zailtasunak edukiko dituzte (Rivers, 2004).

Zentzu honetan, Platero (2010) autoreak egoera hauetan nerabeek hartu ditzaketen bost estrategia deskribatu zituen. Alde batetik, ikusgarri ez izaten saiatu, hau da, atentziorik ez deitu ikasgelan, edo kontrako egoeran, eraso hauen aurrean era berdinean erantzutea, hau da, modu agresiboan. Bestalde, maskulino/femenino estereotipoaren arabera jokatu erasotua ez izateko edo erritmo akademikoa areagotu kalifikazio hobereenak lortuz eta horrela, biktima izateko arrazoi diren ezaugarrietatik arreta desbideratuz. Azkenik, bullying homofoboa sufritzen duten ikasle batzuek teknologia berrien bitartez sostengu soziala lortzen saiatzen dira (Platero, 2010).

Informazio honen arabera, jakin dezakegu bullying LGTB-fobikoa arazo larria dela gure gizartean. Hala ere, oraindik hutsune handi bat dago fenomeno hau aztertzen duten ikerketei dagokienez. Autore anitzek azpimarratu dute bisexualen eta transexualen inuguruan gehiago ikertu behar dela ikerketa gehienek pertsona homosexuali ematen baitiete garrantzia (Tosso, 2012). Testuinguru honetan, kontuan eduki behar da LGTB kolektiboa oraindik ere ikusgarritasun gutxi duela eta isolaturik dagoela pertsona askoren begiradaren aurrean.

---

## **2. KAPITULUA**

**BULLYING LGTB-FOBIKOAREN PREBALENTZIA  
ETA ANIZTASUN SEXUALAREKIKO JARRERAK  
ESKOLA TESTUINGURUAN: ERREBISIO BAT**

---



## **2. KAPITULUA. BULLYING LGTB-FOBIKOAREN PREBALENTZIA ETA ANIZTASUN SEXUALAREKIKO JARRERAK ESKOLA TESTUINGURUAN: ERREBISIO BAT**

Nahiz eta lan hau bullying/cyberbullying LGTB-fobikoan oinarritu, kontuan eduki behar da ikerketa honen ardatz nagusia bullying/cyberbullying orokorra dela. Horregatik, azterlan hau berdinaren arteko jazarpenaren testuinguruan kokatzeko helburuarekin, Euskal Herriko Bigarren Hezkuntzako nerabeen artean gertatzen den bullying/cyberbullyingaren prebalentzia aurkeztuko da modu laburtuan (Garaigordobil, 2013; Garaigordobil, 2015bc; Garaigordobil, 2018; Garaigordobil eta Aliri, 2013; Garaigordobil eta Martínez-Valderrey, 2018; Garaigordobil, Martínez-Valderrey, Páez eta Cardozo, 2015).

Bullying globalari (behin edo gehiagotan) dagokionez, % 39,2ko prebalentzia aurkitu zen biktimetan, % 38,4koa erasotzailetan eta baieztatu da nerabeen 2/3 biktima-erasotzaileak izan zirela. Bullyingaren jarreraren artean, maizago gertatzen diren jokaerak ahozko erasoak dira (% 34,4), ondoren, sozialak (% 10,6), fisikoak (% 9,5) eta azkenik, psikologikoak (% 9,1). Emaiza hauek nabarmendu zuten biktimen ehunekoak antzekoak izan zirela emakume eta gizonen artean, baina, erasotzaileen ehuneko handiagoa aurkitu zen gizonen artean. Cyberbullying globalari dagokionez (behin edo gehiagotan), ziberbiktimen artean % 30,2ko prebalentzia aurkitu zen, zibererasotzaileetan % 15,5ekoa eta nerabeen 1/3 ziberbiktima-zibererasotzaileak izan zirela agerian utzi zen. Kasu honetan, nahiz eta erasotzaileen ehunekoak antzekoak izan ziren bi sexuetan, ziberbiktimen ehuneko handiagoa aurkitu zen emakumeetan.

Jarraian, ikerketa honen gai nagusiaren inguruan informazio zehatzagoa erakusteko asmoz, errebisio bat aurkeztuko da bullying/cyberbullying LGTB-fobikoaren prebalentzia eta eskola testuinguruan aniztasun sexualarekiko jarrerak aztertu dituzten ikerketak kontuan hartuz (1. Koadroa). Horretarako, atzera begirako behaketa diseinua erabili da, eta honetan, azken 14 urteetan (2005-2019) argitaratu diren artikulua aukeratu dira, honako datu base hauetan eskuragarri zeudelarik: Web of Science, Scopus eta ERIC. Bilaketa burutzeko erabilitako hitz-gakoak hauek izan dira: bullying homofobia, bullying LGTB-fobikoa, LGTBfobia, eskola homofobia, nerabezaroa, prebalentzia, jarrera LGTBfobikoak, jarrera homofoboak. Guztira, 36 artikulua aztertu ziren: 9 ikerketek bullying LGTB-fobikoaren prebalentzia zehatza erakusten dute eta 25 artikuluk bullying LGTB-fobikoarekin erlazioatutako aldagaien eta aniztasun sexualarekiko jarreraren inguruko datuak erakusten dituzte. Erdietsitako informazioarekin koadro

bat osatu da (1.Koadroa) eta azterlan bakoitzari buruz honako arlo hauek erakusten dira: autoreak, argitalpen urtea, helburuak, aztertutako aldagaiak eta ebaluazio trenak eta emaitzen laburpena. Ikerketen eta emaitzen aurkezpenaren ondoren, gaur egungo egoeraren inguruko laburpena egin da.

1. Koadroa. Bullying LGTB-fobikoaren prebalentzia eta aniztasun sexualarekiko jarrerak eskola testuinguruan

Autoreak eta urtea	Ikerketaren helburua	Lagina (adina, maila)	Aldagaiak eta ebaluazio tresnak	Emaitzak
Poteat eta Espelage (2005)	Irain homofoboak aztertu Bigarren Hezkuntzako ikasleetan.	N = 191 (8. maila) Illinois (AEB)	<b>Irain homofoboak:</b> <i>Homophobic Content Agent Target Scale</i> (Poteat eta Espelage, 2005). <b>Biktimizazio eta rasoak:</b> Ad-hoc. <b>Delituzko jarrerak:</b> Ad-hoc.	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Mutiek irain homofobo gehiago burutzen dituzte.</li> <li>✓ Homosexual bezala hautematen diren mutiek irain hauek sufritzeko joera handiagoa dute.</li> <li>✓ Irain homofoboak pairatzen dituzten ikasleek bullying orokor gehiago sufritzen dute.</li> <li>✓ Irain homofoboak burutzearen eta eraso sozial eta fisikoaren artean lotura indartsua dago.</li> </ul>
Pichardo, Molinuelo, Rodriguez, Martin eta Romero (2007)	Nerabeek aniztasun sexualari buruz duten ikuspegia aztertu. LGTB pertsonen eskoletan duten egoera aztertu.	N = 4.636 (11-19 urte) Espainia	<b>Nerabeek aniztasun sexualaren aurrean edukitako jarrerak eta datu soziodemografikoak</b> Ad-Hoc.	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Zenbat eta LGTB pertsona gehiago ezagutu orduan eta jokoera LGTBfobiko gutxiago eduki.</li> <li>✓ Homofobia maila txikiagoak nesketan.</li> <li>✓ Mutien % 13,2k batezatu du neska batek lesbiana edo bisexuala dela esanez gero, berekin ligatzen saiatuko zela.</li> <li>✓ Transexualek gutxiespen jarraera gehiago pairatzen dituzte LGB pertsonekin alderatuz.</li> <li>✓ Parteideek eskolak dituzte LGB pertsonentzat arriskuak diren lekuak bezala hautematen.</li> <li>✓ % 50ek uste du familiak ez liokeela sostengua emango LGTB izango baltiz.</li> <li>✓ % 30ek onartu du ekintza homofoboak burutu dituela.</li> <li>✓ Biktima, erasozaila eta behatzaileen arabera hauek dira maizago gertatzen diren erasoak: irainak, gaizki hitz egin, buriak eta hitz egiteari utzi.</li> <li>✓ Ikasle heterosexualek nahiz LGTB pertsonen ekinza homofoboak sufritzen dituzte.</li> <li>✓ LGTB pertsonen jarraera LGTBfobiko gehiago sufritzen dituzte.</li> </ul>

Bullying LGTB-fobikoa Euskal Herriko nerabeetan

Autoreak eta urtea	Ikerketaren helburua	Lagina (adina, maila)	Aldagaiak eta ebaluazio tresnak	Emaitzak
Mayock, Bryan, Carr eta Kirching (2009)	Eskeletan gertatzen diren jarrera LGTBfobikoak aztertu.	N = 1.110 (14-73 urte) eta 40 LGTB (16-62 urte) Irlanda	<b>Eskolaren parte izatearen sentimendua, biktimizazio eta jazarpena, ahozko eraso, eraso fisikoak eta lanean edukitako bizipenak:</b> Ad-hoc. <b>LGBT pertsonen bizipenak:</b> Ad-hoc.	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ LGTB pertsonen % 80ek ahozko erasoak sufritu zituen eta % 25ek eraso fisikoak pairatu zituen.</li> <li>✓ Partaideen 2/5ek eraso fisikoak sufritu zituen LGTB izateagatik edo besteekin usteetan LGTB itxura edukitzeagatik.</li> <li>✓ Partaideen % 58k bullying homofobia bizi izan zuen eskolan.</li> <li>✓ Lagin orokorraren % 40k irainak sufritu zituen LGTB izateagatik edo LGTB itxura edukitzeagatik eta horietatik % 4k eskolako langileengandik sufritu zituen irain hauek.</li> </ul>
Birkett (2010)	Nerabeen artean irain homofoboak nola sortzen diren aztertu.	N = 493 nerabe (5-8. maila). Midwestern (AEB)	<b>Biktimizazio eta eraso homofoboak:</b> <i>The Homophobic Content Agent Target Scale</i> (Potat eta Espelage, 2005). <b>Bullying y biktimizazio orokorra:</b> <i>The University Illinois Aggression Scales</i> (Espelage eta Holt, 2001). <b>Lagunak:</b> Lagunak izendatuz..	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Neskek irain homofobo guxiago burutu eta sufritzen dituzte.</li> <li>✓ Neskek maskulinitate tradizionala islatzen duten jarrera guxiago erakusten dituzte.</li> <li>✓ 7. eta 8. mailan bullying gehiago burutzen da.</li> <li>✓ Irain homofoboak sufritzen dituzten ikasleek, gerora irain horiek burutzeko joera dute.</li> <li>✓ Irain homofoboak beste irain motekin erlazionaturik daude mutilen artean.</li> <li>✓ Irain homofoboak burutzearen kopurua aldatu egiten da ikasleak parte diren berdinaren taldearen baitan.</li> </ul>
Generelo, Garchitoren, Montero eta Hidalgo (2012)	Jazarpen homofoboa aztertu LGTB nerabe eta gazteetan.	N = 653 LGTB (12-25 urte) Espainia	<b>Online Ad-hoc galdetegia. Elkarrizketa egituratuak.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ % 51 jazarpen homofoboaren biktima da edo izan da noizbait; % 30 oso maiz eta % 19 egunero.</li> <li>✓ Jazarpenaren iraupena urte bete baino gehiagokoa izan zen kasuen % 61ean.</li> <li>✓ Mutilen artean erasoizaille gehiago eta nesken artean sostengu gehiago.</li> <li>✓ % 28k bakarrik jakinarazi zuten eskeletan sufritzen ari zena.</li> <li>✓ Biktimen % 72k sostengua jaso zuen; % 18i ez zioten jaramonik egin; % 9 baztertua izan zen.</li> </ul>



2. Kapitulua. Bullying LGTB-fobikoaren prebalentzia

Autoreak eta urtea	Ikerketaren helburua	Lagina (adina, maila)	Aldagaiak eta ebaluazio tresnak	Emaitzak
Prati (2012a)	Teoria kognitibo-sozial baten arabera portaera-erasokor homofobia aztertu.	N = 863 (15-22 urte) Italia	<b>Hizkera homofobia:</b> <i>The Homophobic Content Agent Target Scale</i> (Poteat eta Espelage, 2005). <b>Bullying Homofobia:</b> <i>The Homophobic Bullying Scale</i> (Prati, 2012b). <b>Kideen jarrera homofobia:</b> <i>Italian Scale of Homophobia</i> (Falanga, Parisi eta Di Chiaccio, 2006).	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Mutil homosexualek sufrizten dituzten eraso homofobia ikustea, jarrera homofobia burutzearekin erlazionaturik dago.</li> <li>✓ Kideen arteko jarrera homofobia ikustea erlazionaturik dago mutil homosexualei egindako eraso LGTBfobikoak burutzearekin eta hizkera homofobiaarekin.</li> <li>✓ Neska lesbianei egindako jarrera homofobia ikustea erlazionaturik dago eraso mota horiek burutzearekin eta hizkera homofobiaarekin.</li> </ul>
Shields, Whitaker, Glassman, Franks eta Howard (2012)	Orientazio sexualaren eta biktimizazioaren arteko erlazioa ikertu.	N= jarrera arriskutsuak dituzten 2.154 gazte (9.-12. maila) Kalifornia (AEB)	<b>Biktimizazioa:</b> Ad-Hoc.	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ LGB pertsonen biktimizazio maila handiagoak azaldu dituzte.</li> </ul>
Collier, Bos eta Sandfort (2013)	Ahozko biktimizazio homofobia aztertu partaideren beraren orientazio sexuala eta genero-adostasuna kontuan hartuta.	N = 513 (11-17 urte) Amsterdam	<b>Irain homofobia:</b> <i>The Homophobic Content Target (HCA7)</i> (Poteat eta Espelage, 2005).	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Mutilek biktimizazio maila handiagoak erakusten dituzte.</li> <li>✓ Ez-heterosexuala den orientazio sexuala adierazten duten pertsonen eta maskulino/femenino estereotipoetatik urrunen direnek irain homofobiaok sufrizteko kalteberatasun handiagoa dute.</li> </ul>

Bullying LGTB-fobikoa Euskal Herriko nerabeetan

Autoreak eta urtea	Ikerketaren helburua	Lagina (adina, maila)	Aldagaiak eta ebaluazio tresnak	Emaitzak
Pichardo, De Estéfano, Sánchez-Sáinz, Puche, Molinueva eta Moreno (2013)	Espainiako ikastetxeetan ikasleek aniztasun sexualaren aurrean dituzten jarreraren egoera zein den aztertu.	N = 3.236 (12-21 urte), 222 (3-6 urte) eta 720 (6-12 urte) eta 250 irakasle (22-60 urte) Espainia	<b>Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan ikasleek genero, aniztasun orokorra eta aniztasun sexual eta familiararen inguruan dituzten erreakzioak:</b> behaketa tailerrak. <b>Eskola jazarpena eta jarrera LGTBfobikoak:</b> Ad-Hoc.	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Haurrek agerian utzi dute aniztasun sexualaren eta familiararen inguruan duten ezagutza komunikabideetatik jaso dutela (Telebista).</li> <li>✓ Irain homofoboak gehiago normalizatzen dira Haur Hezkuntzan Lehen Hezkuntzarekin alderatuz.</li> <li>✓ 10 ikasleatik 8k burula edo irain LGTBfobikoak entzun dituzte noizbait.</li> <li>✓ 5 ikasleatik 2k adierazi dute irain LGTBfobikoak entzun dituztela aidi oro.</li> <li>✓ 5 ikasleatik 1 eraso fisiko LGTBfobikoaren testigu izan zen.</li> <li>✓ % 46,6k eraso soziala ikusi zuen.</li> <li>✓ % 37,6k mehatxak edo gorroto adierazpenak ikusi zituen orientazio edo identitate sexualarekin zerikusia zutenak.</li> <li>✓ Pertsona homosexualen % 15ek irain homofoboak sufritu ditu aldi oro.</li> <li>✓ Mutli heterosexualen % 4,7k eta neska heterosexualen % 2,1ek bullyinga sufritu du LGTB pertsonen itxura izateagatik.</li> <li>✓ Bisexualen % 42,8k eta homosexualen % 51,27k eskola jazarpena sufritu zuen.</li> <li>✓ Mutlien % 49,60k eta nesken % 24,30ek ez dio inori esan eskola jazarpena sufrizten ari dela edo sufritu duela.</li> </ul>
Martxueta eta Etxeberria (2014)	LGB pertsonen artean bullyingaren prebalentzia aztertu.	119 LGB (17-57 urte) (M=37.9) Espainia	<b>Bullying homofoboa:</b> Olweus Bully/Victim Questionnaire (Rivers, 2000) galdetegiaren egokizapena. <b>Genero identitateak:</b> <i>Bern Sex-Role Inventory</i> (Bern, 1981).	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Laginaren % 51,2k bullyinga sufritu zuen.</li> <li>✓ Erasotutako pertsonen % 57,38k orientazio sexualarekin lotutako jazarpena sufritu zuen.</li> <li>✓ Jazarpen mota: partaideen % 55,74k irainak sufritu zituen; % 34,43k zurrumurruak; % 29,52k beste motako eraso psikologikoak (bakartzea, imitazioak, pintadak, etab.) eta % 1,6k adierazi zuen eraso fisikoaren biktima izan zela.</li> </ul>
Poteat, Scheer, DiGiovanni eta Merreish (2014)	Bullying homofoboaren prebalentzia aztertu sexuaren arabera.	572 ikasle (% 55 emakume, batzbesteko adina 15,8 urte) Ingalaterra	<b>Bullying homofoboa:</b> Ad-Hoc.	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Bullying homofoboaren biktimizazio-maila handiagoa mutlien artean.</li> </ul>

2. Kapituluua. Bullying LGTB-fobikoaren prebalentzia

Autoreak eta urtea	Ikerketaren helburua	Lagina (adina, maila)	Aldagaiak eta ebaluazio tresnak	Emaitzak
Birkett eta Espelage (2015)	Nerabeetan irain homofoboan sorkuntza aztertu.	N = 493 (5-8. maila) Midwestern (AEB)	<b>Irain homofoboak:</b> <i>The Homophobic Content Target (HCA7) Scale</i> (Potrat eta Espelage, 2005). <b>Bullying eta biktimizazio orokorra:</b> <i>University of Illinois Bully Scale (UIBS)</i> (Espelage eta Holt, 2001).	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Berdinen taldeek irain homofoboan sorkuntzan garrantzia handia hartzen dute</li> <li>✓ Irain hauen biktimak diren ikasleek gehiagotan burutzen dituzte irain hauek.</li> <li>✓ Bullying orokorra burutzen duten eta mutilak diren ikasleek irain homofoboak burutzeko joera handiagoa dute.</li> </ul>
Birkett, Newcomb eta Mustanski (2015)	Jazarpen homofoboaren prebalentzia aztertu sexuaren eta talde etniko kulturalaren arabera.	N= 231 LGTB (16-20 urte) Chicago (AEB)	<b>Biktimizazioa:</b> <i>Gay Harassment Scale</i> (D'Augelli, Hershberger eta Pilkington, 1998) eskalaren egokitzapena.	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Partaideen artean, mutilak, gutxiengo etniko eta kulturalak eta pertsona transexualak dira jazarpen homofobo gehiago jasaten duten taldeak. Orientazio eta identitate sexualarengatik jasaten den biktimizazioa urteak igaro ahala murriztu egiten da.</li> </ul>
Caminos eta Quentrequo (2015)	Bullying homofoboa aztertu generoaren ikuspuntutik.	N = LGTB diren 220 heldu (18-23 urte) Argentina	<b>Bullying Homofoboa:</b> Caminos eta Quentrequo (2015) autoreek egokitutako galdetgia.	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ LGTB pertsonak sufritzen duten biktimizazioa behatzaile aktiboarekin positiboki korrelazionatzen du.</li> </ul>
Franco-Morales, Correa-Colina, Venet eta Perez-Bedoya (2015)	Etorkizuneko irakasleek aniztasun sexualaren aurrean dituzten jarreraren eta gaiaren inguruan duten ezagutzaren arteko erlazioa aztertu.	N = 114 (bataz besteko adina 24 urte) Kolonbia	<b>Aniztasun sexualaren inguruko ezagutza:</b> Ad-Hoc. <b>LGB pertsonen aurrean edukitako jarrerak:</b> Ad-hoc.	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Partaideek aniztasun sexualaren ezagutza maila baxua erakutsi dute.</li> <li>✓ Korrelazio positiboa dago aniztasun sexualaren ezagutzaren eta aniztasun sexualarekiko jarrera positiboen artean.</li> </ul>

Bullying LGTB-fobikoa Euskal Herriko nerabeetan

Autoreak eta urtea	Ikerketaren helburua	Lagina (adina, maila)	Aldagaiak eta ebaluazio tresnak	Emaitzak
Reisner, Greytak, Parsons eta Ybarra (2015)	Bullyngean dauden desberdintasunak aztertu genero identitate ez-normatiboan duten pertsonen eta pertsona zisgeneroen artean.	N = 5.542 (13-18 urte) (guztietatik 442 transexualak edo transgeneroak dira) AEB	<b>Gutxiengo genero identitateak:</b> Ad-Hoc. <b>Bullying:</b> Ad-Hoc.	✓ Biktimizazio gehiago pertsona transexualietan eta transgeneroetan zisgeneroekin alderatuz.
Bouris, Everett, Heath, Eisesser eta Neilands (2016)	Bullying homofoboaren desberdintasunak aztertu LGTB pertsonen eta pertsona heterosexualek artean.	N = jarrera arriskutsuak dituzten 1.907 gazte Chicago. (AEB)	<b>Biktimizazioa:</b> Ad-Hoc.	✓ Bullying eta cyberbullying LGTB-fobiko gehiago LGTB pertsonetan normatiboan den orientazio sexuala duten pertsonekin alderatuz. ✓ Abusu sexual gehiago LGTB pertsonetan pertsona heterosexualekin alderatuz.
COGAM (2016)	Cyberbullying homofoboak ikasleetan zein eragin dituen ezagutu eta cyberbullying mota honen ezaugarriak Bigarren Hezkuntzan aztertu.	N = 2.678 ikasle (1. DBH-Batziler), 30 irakasle eta autoritate desberdinetako 10 pertsona. Espainia	<b>Bizipen pertsonala:</b> Ad-Hoc.	✓ LGTB diren ikasleek % 70 cyberbullyinga sufritzen ari ziren edo sufritu zuten orientazio sexualarengatik edo genero identitatearengatik. ✓ % 54,66k cyberbullying LGTB-fobikoa ikusi zuten. ✓ Ikasurteak gora egiten duen heinean, cyberbullying LGTB-fobikoaren testigu izan diren pertsonen ehunekoak gora egiten du. ✓ Heterosexualek % 24,42k eta LGTB pertsonen % 32,69k gutxienez pertsona bat ezagutzen du jazarpen mota hau sufritzen ari dela. ✓ Biktimen ehuneko handiagoak Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan. ✓ Jazarpen mota hau sufritzen duten mutilen ehuneko handiagoa da neskekin alderatuz. ✓ Ikasle heterosexualek % 57k cyberbullying LGTB-fobikoa sufritzen ari ziren edo sufritu zuten. ✓ Mutil heterosexualek biktimizazio ehuneko handienak erakusten dituzte. ✓ Mutilek erasotzaile izateko joera handiagoa erakusten dute. ✓ Neskek defendatzaile izateko joera handiagoa erakusten dute.

2. Kapituluua. Bullying LGTB-fobikoaren prebalentzia

Autoreak eta urtea	Ikerketaren helburua	Lagina (adina, maila)	Aldagaiak eta ebaluazio tresnak	Emaitzak
Farrelly, O'Higgins Norman eta O'Leary (2016)	Irlandako Lehen Hezkuntzako eskoletako zuzendariek bullying homofoboaren inguruan duten kontzientzia aztertu.	N= Lehen Hezkuntzako 238 arduradun desberdin Irlanda	<b>Bullying homofoboaren jatorria eta maiztasuna:</b> online inkesta.	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Partaideen % 11k bullying homofoboarekin erlazionatutako gertakariak artatu zituen astero edo hilabetero.</li> <li>✓ Partaideen % 16k bullying homofoboarekin erlazionatutako kasuak artatu zituen azken urte akademikoan.</li> <li>✓ Partaideen % 8k cyberbullying homofoboarekin erlazionatutako kasuak artatu zituen.</li> </ul>
Kosciw, Greytak, Giga, Vilenas eta Danischewski (2016)	LGTBQ pertsonen eskolan dituzten bizipenak aztertu.	N = 10.528 (13-21 urte) Columbia (AEB)	<b>LGTBQ pertsonen bizipenak:</b> Eskola klimaren inkesta nazionala.	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ LGTBQ ikasleen % 56,6 ez da babestua sentitzen eskoletan beraien orientazio sexualarengatik eta % 43,3 genero adierazpenarengatik.</li> <li>✓ LGTBQ pertsonen % 31,8 azken urtean ez zen noizbait klaserara joan babesik gabe sentitzen baitzen.</li> <li>✓ % 27k orientazio sexualarengatik eraso fisikoak sufritu zituen eta % 20,3k genero adierazpenarengatik.</li> <li>✓ LGTBQ pertsonen % 48,6k cyberbullyinga sufritu zuen.</li> <li>✓ Erasoak sufritu zituen LGTBQ pertsonen % 57,6k ez zien eskolako langileei kontatu gertatzen ari zitzaiola.</li> <li>✓ Ikasleen % 63,5 - % 98,1ek arrazoi desberdinak zirela eta hizkera homofoboa entzun zuten noizbait eskolan.</li> </ul>
Marx eta Kettrey (2016)	Ikastetxeeko homosexualei zuzendutako elkarrean eragina aztertu biktimizazio homofoboan.	N = 15 ikerketa	<b>Errebisio sistematikoa eta metaanalisia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Pertsona homosexualei laguntza ematen dieten elkarrean presentziak eskoletan biktimizazio homofoboa, babes-ezarengatik beldurra eta irain homofoboak murrizten ditu.</li> </ul>
O'Donoghue eta Guerin (2016)	Bullying homofoboarekin eta transfoboarekin erlazionatutako oztopo eta sostenguarien inguruko irakasleen hautematea aztertu.	N = eskola desberdinetako 15 langile Irlanda	<b>Bullying homofobo eta transfoboarekiko hautematea:</b> elkarriketa semiegituratuak.	<p>Bullying LGTB-fobikoak dituen oztopoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Hezkuntza sailaren sostengu eza.</li> <li>✓ Senideen jarrera negatiboak.</li> <li>✓ Ikasleen jarrera negatiboak.</li> <li>✓ Irakasleei zaila egiten zaie jarrera homofobo/transfoboak identifikatzen.</li> </ul>

Bullying LGTB-fobikoa Euskal Herriko nerabeetan

Autoreak eta urtea	Ikerketaren helburua	Lagina (adina, maila)	Aldagaiak eta ebaluazio tresnak	Emaitzak
Poteat eta Vecho (2016)	Bullying homofoboaren aurrean behatzaile aktibo diren pertsonen ezaugarriak aztertu.	N = 722 (14-19 urte). Inglatera	<b>Lidergoa, ausardia eta altruismoa:</b> Egokitzapena: <i>International Personality Item Pool</i> (Goldberg et al., 2006). <b>Jarrera homofoboaren presentzia:</b> Ad-Hoc. <b>Jarrera homofoboaren aurrean defendatzaile rola</b> <i>The Participant Role Questionnaire</i> (Salmivalli, 1998).	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Adagai hauek era positiboan korrelazionatzen dute bullying homofoboa gertatzen den egoeratan behatzaile aktiboaren papera hartzeko joerarekin: emakume izatea, lidergoa, ausardia, altruismoa, justiziarekiko sentikortasuna eta LGTB lagunen zenbatekoa.</li> </ul>
Rinehart eta Espelage (2016)	Eskoletako langileek eskola klimaren, ikasleek informatutako irain homofoboaren eta eraso sexualen inguruan duten hautematea aztertu.	N = eskoletako 1,447 langile eta 3.616 ikasle (6. maila) Midwest (AEB)	<b>Ad-hoc eskalak.</b> <b>Irain Homofoboak:</b> <i>Homophobic Content Agent Target Scale.</i> <b>Eraso sexualak:</b> <i>Sexual Harassment Survey</i> (Espelage, Basile eta Hamburger, 2012).	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Zenbat eta konpromezu gehiago eduki bullyingaren prebentzioarekin, orduan eta irain homofobo eta eraso sexualen biktimizazio gutxiago.</li> <li>✓ Langileen eta ikasleen arteko harreman onek bullying eta eraso sexualak murrizten dituzte.</li> <li>✓ Generoen arteko berdintasunak irain homofoboaren biktimizazioa eta irain homofoboak eta eraso sexualak buruzeko joera murrizten du.</li> <li>✓ Eskoletan gertatzen den eraso sexualerikiko tolerantzia-erak irain homofobo eta eraso sexualen burutze joera eta irain homofoboaren biktimizazioa murrizten du.</li> </ul>
Rodrigues, Grave, Oliveira eta Nogueira (2016)	Bullying homofoboaren patrioiak aztertu.	N = 351 (bataz besteko adina 24,9 urte) Portugal	<b>Bullying homofoboa:</b> Ad-hoc.	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Jazarpen egoeratan sostengua aurkitzea faktore babeslea da.</li> <li>✓ Mutilek egoera hauek lehenago bizi izan zituzten (5-14 urte); irakasle eta lagunei kontatu zieten eta jazarpen motarik ohikoena psikologikoa izan zen.</li> <li>✓ Neskek egoera hauek berandoago bizi izan zituzten (14 urte gutxi gora behera) eta lagunei bakarrik kontatu zieten.</li> <li>✓ Erasotzaileak normalean mutilak ziren.</li> <li>✓ Biktimek ez diete sendidei gertatutakoa kontatzen beldurra sentitzen dutelako.</li> </ul>

2. Kapituluua. Bullying LGTB-fobikoaren prebalentzia

Autoreak eta urtea	Ikerketaren helburua	Lagina (adina, maila)	Aldagaiak eta ebaluazio tresnak	Emaitzak
Toomey eta Russel (2016)	LGB pertsonen eta heterosexuaren artean eskola jazarpenaren biktimizazio maila konparatu.	N = 18 ikerketa	<b>Metanaalisia.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ LGB pertsonen eskola jazarpen maila handiagoa sufrizten dute pertsona heterosexualekin alderatuz.</li> </ul>
Abreu eta Kennym (2017)	Cyberbullying LGTB-fobikoaren errebisio zorrotza egitea, honetan prebalentzia, korrelazioak eta prebentzio eta esku-hartze aholkuak aztertuz.	N = 27 ikerketa	<b>Errebisio sistematikoa.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Biktimizazio prebalentzia handiagoa ez-normatiboa den orientazio sexuala eta genero identitateak duten pertsonetan.</li> <li>✓ % 10,5 eta % 71,3 bitarteko biktimizazioa LGTBQ pertsonen artean.</li> <li>✓ 2006-2007 urteen artean cyberbullying LGTB-fobikoa % 3 gutxitu da.</li> <li>✓ LGB pertsonetan bullying baino cyberbullying gehiago ikusi da.</li> <li>✓ LGB pertsonen % 41 genero adierazpen edo identitatearengatik biktima izan dira.</li> <li>✓ Neska bisexualek cyberbullying maila handiagoa erakusten dute neska lesbienekin alderatuz.</li> <li>✓ Homosexualek diren mutiliek biktimizazio maila handiagoa erakusten dute mutil bisexualekin alderatuz.</li> <li>✓ Gazte heterosexualek biktimizatuak izaten ari direla gurasoei esateko joera gehiago dute ez-heterosexualekin alderatuz (% 37/% 18).</li> <li>✓ LGTB eta kolorekoak diren gazteen % 14k beraien etniako pertsonengatik burututako biktimizazioa erakutsi du.</li> </ul>
Carrera-Fernández, Cid-Fernández, Almeida, González-Fernández eta Lameiras-Fernández (2017)	Sexismoaren eragina (kontrakoa eta onbera), mutil homosexualekiko eta lesbianekiko homofobia eta jarraera xenofobo eta arrazistak eta bullyingarekiko deslotura morala aztertuz.		<p><b>Sexismo ambibalentzia:</b> Ambivalent Sexism Inventory (Rodríguez, Lameiras eta Carrerarengatik, 2009) egokitua.</p> <p><b>Homofobia: Modern Homophobia Scale</b> (Rodríguez-Castro, Lameiras, Carrera eta Vallejo, 2013).</p> <p><b>Bullyingarekiko deslotura morala: Moral Disengagement in School Bullying Scale</b> (Almeid).</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Mutilen aniztasun sexualaren aurrean jarraera negatiboagoak erakusten dituzte.</li> <li>✓ Mutilen bullyingarekiko deslotura moral gehiago erakusten dute.</li> <li>✓ Aurkako sexismoak, mutil homosexualekiko homofobiak, bullyingarekiko deslotura morala eta sexismo onberak aniztasun sexualarekiko jarraera negatiboekin positiboki korrelazionatzen dute.</li> </ul>

Bullying LGTB-fobikoa Euskal Herriko nerabeetan

Autoreak eta urtea	Ikerketaren helburua	Lagina (adina, maila)	Aldagaiak eta ebaluazio tresnak	Emaitzak
Elise, De la Ojiva Muñoz eta Del Rey (2017)	Bullying eta cyberbullying homofobia aztertu.	N = 533 (12-20 urte) Espainia	<p><b>Bullying: European Bullying Intervention Project Questionnaire (EBIPQ)</b> (Brighi et al., 2012).</p> <p><b>Cyberbullying: European Cyberbullying Intervention Project Questionnaire (ECIPQ)</b> (Del Rey et al., 2015).</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Ez-heterosexualizat hautematen diren pertaideek bullying eta cyberbullyingaren biktimizazio maila handiagoak erakusten dituzte.</li> <li>✓ Orientazio sexuala arrisku faktorea da eskola jazarpena suitzitzeko.</li> </ul>
Espelage et al. (2017)	Bullyinga, jazarpen sexuala, maskulinitate tradizionala eta jazarpen sexualarekiko axolagabetasuna aztertu irain homofoben prediktore gisa.	N = 1.655 (5.-8. maila) Midwest (AEB)	<p><b>Irain homofoboak: Homophobic Content Agent Target Scale</b> (Poteat eta Espelage, 2005).</p> <p><b>Bullying: University of Illinois Bullying Scale (UIBS)</b> (Espelage eta Holt, 2001).</p> <p><b>Jazarpen sexuala: The American Association of University Women Sexual Harassment Survey</b> (AAUW, 2001).</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Irain homofoben erabileraren prebalentziak denborarekin gora egiten du, baina azken urteetan igoera hori geldituz doa.</li> <li>✓ Bullyingak positiboki korrelazionatzen du irain homofoboekin.</li> <li>✓ Jazarpen sexualak positiboki korrelazionatzen du irain homofoboekin.</li> </ul>



2. Kapituluua. Bullying LGTB-fobikoaren prebalentzia

Autoreak eta urtea	Ikerketaren helburua	Lagina (adina, maila)	Aldagaiak eta ebaluazio tresnak	Emaitzak
Gegenfurtner eta Gebhardt (2017)	Ebidentzian oinarritzen diren erantzunak eman ondorengo arloei: orientazio sexualaren oinarri biologikoa, heteronormatibitatea eta eskoletan gertatzen den bullyinga eta irakasleen papera arlo honetan.	Scopus, ERIC y PubMed datu baseetako ikerketak.	<b>Errebisio sistematikoa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Genero estereotipoetatik urruntzen diren ikasleek bullying LGTB-fobikoaren biktimizazio maila handiagoa erakusten dute.</li> <li>✓ LGTB ikasleek cyberbullyingaren biktimizazio, abusu emozional, abandonu, armekin lapurreta eta abusu emozionala, fisiko eta sexual maila handiagoak erakusten dituzte pertsona heterosexualekin konparatuz.</li> <li>✓ Aniztasun sexuala oinarritzat duen hezkuntzak LGTB ikasleak babestuago sentitzen diren eskola kliman eragiten du eta biktimizazioa murrizten du.</li> <li>✓ Aniztasun sexuala oinarritzat duen hezkuntzak ez ditu ikasleak inzititzen homosexualak, bisexualak edo transexualak izaten.</li> </ul>
Baiocco, Pistella, Salvati, Ioverno eta Lucidi (2018)	Kirola arloan bullying homofoboaren prebalentzia aztertu.	N = 88 gay eta 120 mutil heterosexual (18-35 urte) Italia	<b>Bullyinga kirolean: Ad-Hoc. Bullying homofoboa kirolean: Ad Hoc.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Mutil homosexualak kirol arloan bullyinga maizago sufritzen dute heterosexualekin alderatuz gero.</li> </ul>
Camodeca, Baiocco eta Posa (2018)	Ez-heterosexualak eta heterosexualak diren pertsonetan bullying eta cyberbullying orokorra eta LGTB-fobikoa aztertu.	N = heterosexualak diren 151 nerabe eta 46 ez-heterosexual (15-18 urte) Italia	<b>Bullying eta bullying homofoboa: The Florence Bullying and Victimization Scales y the Florence Cyberbullying and Victimization Scales (Palladino, Nocentini eta Menesini, 2015).</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Ez-heterosexualak diren nerabeek bullying orokorra eta homofoboa maizago sufritzen dute pertsona heterosexualekin alderatuz.</li> </ul>
Hatchel, Valido, De Pedro, Huang eta Espelage (2018)	Pertsona transgeneroen artean eskola jazarpena aztertu.	N = 4.778 pertsona transgenero (14-71 urte) California (AEB)	<b>Berdinen arteko biktimizazioa: Ad-Hoc.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ 3 pertsona transgenerotik 1 bullyingaren biktima da.</li> </ul>

Bullying LGTB-fobikoa Euskal Herriko nerabeetan

Autoreak eta urtea	Ikerketaren helburua	Lagina (adina, maila)	Aldagaiak eta ebaluazio tresnak	Emaitzak
Orue eta Calvete (2018)	Jarrera homofoboaren eta bullying homofoboaren arteko lotura aztertu.	N = 791 (12-17 urte) Espainia	<b>Bullying homofoboa:</b> <i>The Homophobic Bullying Scale</i> (Prati, 2012b) <b>Jarrera homofoboak:</b> <i>Escala de homofobia moderna</i> (Rodríguez-Castro, Lameiras, Carrera eta Vallejo, 2013). <b>LGTB pertsonekin interakzioak eta hizkera homofoboaren adierazpena etxeetan:</b> Ad-Hoc.	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Bullying homofoboaren eta jarrera homofoboaren erlazioa bi noranzkoko da.</li> <li>✓ Jarrera homofoboek bullying homofoboa aurreikusten dituzte muturretan bakarrik.</li> <li>✓ Bullying homofoboak jarrera homofoboak aurreikusten ditu nesketan bakarrik.</li> <li>✓ Bullyinga ikusteak eta etxeetan hizkera homofoboa entzuteak bullyinga burutzeko joera aurreikusten dute.</li> <li>✓ Etxean hizkera homofoboa entzuteak bullying homofoboa burutzea aurreikusten du nesketan bakarrik.</li> </ul>
Orue, Calvete eta Fernández-González (2018)	"Jazarpen Homofoboaren Eskalaren" propietate psikometrikoak aztertu nerabe espainiarretan.	N = 791 (12-17 urte) Espainia	<b>Jazarpen homofoboa:</b> <i>Escala de acoso homofóbico</i> (Prati, 2012b). <b>Homofobia modernoa:</b> gaztelarazko egokitzapena: <i>Escala de homofobia moderna</i> (Rodríguez-Castro, Lameiras, Carrera eta Vallejo, 2013).	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Multi homosexualek biktimizazio gehiago adierazten dute neska lesbianekin alderatuz gero.</li> </ul>

Errebisioan aurkitutako ikerketen emaitzak aurkeztu ondoren (ikusi 1. Koadroa), ikerketa arlo honetan interesa duten ikerlariak erdietsitako aurkikuntzak laburtuko dira orain. Modu antolatuan egiteko asmoz, lehenik eta behin, bullying LGTB-fobikoaren prebalentziaren inguruko datuak aurkeztu dituzten azterlanak laburtuko dira, eta, ondoren, nerabeek aniztasun sexualaren aurrean dituzten jarreraren eta testuinguru honetan garrantzitsuak izan daitezkeen aldagaien inguruko informazioa agerian utzi duten ikerketak aurkeztuko dira.

### 1) Bullying LGTB-fobikoaren prebalentzia

Lehenko koadroan (1. Koadroa) ikusi ahal izan den moduan, LGTB pertsonak sufritzen duten bullying eta cyberbullying LGTB-fobikoaren biktimizazio-mailek oso datu deigarriak azaldu dituzte. Eskola jazarpenari dagokionez, bullying LGTB-fobikoaren prebalentzia aztertu duten ikerketa desberdinek % 51 eta % 57,38 bitarteko ehunekoak aurkeztu dituzte orientazio sexual ez-normatiboa duten pertsonen artean (Generelo et al., 2012; Martxueta eta Etxeberria, 2014). Sufritutako jazarpen motari dagokionez, % 55,74 eta % 80 artean irainak jasan zituen (Kosciw et al., 2016; Martxueta eta Etxeberria, 2014; Mayock et al., 2009; Pichardo et al., 2007), % 34,43 jazarpen psikologikoaren biktima izan zen (Adibidez: bakartzea, pintadak, beldurrarazi, etab.) (Martxueta eta Etxeberria, 2014) eta % 1,65 eta % 25 artean orientazio edo identitate sexualarengatik jazarpen fisikoa sufritu zuen (Martxueta eta Etxeberria, 2014; Mayock et al., 2009).

Cyberbullyingari dagokionez, % 10,5 eta % 71,35 bitarteko ehunekoak aurkitu dira ez-normatiboa den orientazio eta identitate sexuala duten pertsonak sufritutako biktimizazioan (Abreu eta Kennyim, 2017; COGAM 2016; Kosciw et al., 2016). Prebalentzia hauek kontuan hartuz, ez da arrizekoa LGTBQ ikasleen % 56,6 eskoletan babestua ez sentitzea. Gainera, ikerketa honetan ikusi zen jazarpenaren biktima izan ziren LGTBQ pertsonen % 57,6k ez zuela ikastetxean jakinarazi (Kosciw et al., 2016).

Lehenago aipatu den bezala, fenomeno honek ez die bakarrik kalte egiten ez-normatiboa den orientazio eta identitate sexual edota genero identitate duten pertsonari. Honen harira, ikusi ahal izan da pertsona heterosexualen % 58 bullying LGTB-fobikoa sufritzen ari dela edo sufritu duela (Pichardo et al., 2007) eta % 57k cyberbullyinga pairatu duela besteengatik LGTB pertsonak bezala hautemanak izateagatik (Mayock et al., 2009). Heterosexualek sufritzen

dituzten jazarpen moten artean, ahozko erasoak dira maizago gertatzen direnak % 40ko portzentajearekin (Mayock et al., 2009). Pichardo et al., (2013) autoreek aurkitu zuten pertsona heterosexualen artean, bullying LGTB-fobikoaren biktimizazio ehuneko handiagoak erakusten dituztela mutilek neskekin alderatuz (% 4,7 mutilak, % 2,1 neskek). Eraitza hau baieztatua izan zen Estatu Batuetan egindako ikerketa batean (Poteat eta Espelage, 2005).

Hala ere, autore anitzek ondorioztatu dute LGTB kolektiboak biktimizazioa pairatzeko kalteberatasun handiagoa erakusten duela pertsona heterosexualekin edo zisgeneroekin alderatuz (Abreu eta Kennym, 2017; Baiocco et al., 2018; Birkett et al., 2009; Bouris et al., 2016; Camodeca et al., 2018; Collier et al., 2013; COGAM, 2016; Elipe et al., 2017; Gegenfurtne eta Gebhardt, 2017; Pichardo et al., 2007; Shields et al., 2012, Toomey eta Russel, 2016). Era berean, orientazio afektibo-sexuala argi ez duten pertsonak (Birkett et al., 2009) eta heterosexuak diren baina maskulino/femenino estereotipoetatik urruntzen diren pertsonak (Collier et al., 2013; Elipe et al., 2017; Gegenfurtner eta Gebhardt, 2017; Mayock et al., 2009) biktimizazio maila handiagoak erakusten dituzte berdinekin alderatuz.

Erasotzaile rolari dagokionez, nerabeen % 30ek onartu du ekintza homofoboak burutu dituela noizbait, bai fisikoak eta baita ahozkoak eta sozialak ere (Pichardo et al., 2007). Behatzaile rolaren kasuan, % 63,5 eta % 98,1 bitarteko prebalentzia aurkitu da irain homofoboek testigu izan diren ikasleen artean (Kosciw et al., 2016; Pichardo et al., 2013). Irlandako Lehen Hezkuntzako ikasleekin egindako beste ikerketa batean berretsi zen % 11 bullying homofoboaren kasuen testigu izan zela astero edo hilabetero gutxienez, % 18 azken ikasturtean eta partaideen % 8 cyberbullying homofoboaren kasuak ikusi zituela (Farrelly et al., 2016).

Adin gehiagoko ikasleen kasuan, % 37,6k orientazio sexuala eta genero identitatearengatik mehatxuak eta gorroto adierazpenak ikusi zituen eta % 46,6 eraso sozialen testigu izan zen. Datu zehatzagoak ematearren, 10 partaideetatik 8k burla eta irain LGTB-fobikoak ikusi zituzten noizbait, 5 partaidetatik 2k irain hauek aldi oro ikusi zituzten eta 5 partaidetatik 1ek kolektibo honen aurrean diskriminaziozko eraso fisikoak ikusi zituen (Pichardo et al, 2013).

Cyberbullying LGTB-fobikoari dagokionez, COGAMek (2016) agerian utzi du gizabanakoen % 54,66k fenomeno hau ikusi zuela. Gainera, heterosexuak ziren partaideen % 24,42k eta ez-heterosexuak ziren % 32,69k ziberjazarpen LGTB-fobikoa sufritzen ari zen pertsona bat behintzat ezagutzen zuela onartu zuen.

LGTB kolektiboaren barnean jazarpenaren prebalentzia alderatzeko helburuarekin gauzatu diren hainbat ikerketek baieztatu dute, kalteberatasun gehiago dutenek pertsona transexualak eta transgeneroak direla (Birkett et al., 2015; Hatchel et al., 2018; Pichardo et al., 2007; Reisner et al., 2015). Era berean, eta nahiz eta biktimizazio prebalentzia altuena ez-normatiboa den genero edo sexu identitatea duten pertsonetan aurkitu den, zenbait azterlanen arabera baieztatu da beste kolektiboen biktimizazio mailak oso esanguratsuak direla. Pichardo et al. (2013) autoreek adibidez, pertsona homosexualetan biktimizazio prebalentzia altuagoa aurkitu zuten pertsona bisexualekin alderatuz (% 51,27 homosexualak, % 42,84 bisexualak). Horrez gain, egin berri den ikerketa batean, Orue et al. (2018) autoreek aurkitu dute pertsona homosexulen artean gayak diren mutilek biktimizazio gehiena sufritzen duten pertsonak direla neska lesbianekin konparatuz. Azkenik, konparaketa honetan sakontzeko asmoz, Abreu eta Kennym (2017) autoreek ikusi ahal izan zuten nesken artean, neska bisexualak biktimizazio gehiena erakusten duten bitartean, mutilen artean, kalteberatasun handiena duten pertsonak mutil homosexualak direla. Azken datu hau lehenago ere aurkitu zen COGAMek (2016) egindako ikerketan.

## **2) Bullying LGTB-fobikoa, aniztasun sexualarekiko jarrerak eta beste aldagaiak**

Aurreko ataleko informazioak agerian utzi du, gaur egun, bullying LGTB-fobikoa oharkabean pasa ez den eta ezin den fenomeno dela. Arrazoi honengatik, bullying eta cyberbullying LGTB-fobikoarekin modu positiboan nahiz negatiboan korrelazionatzen duten aldagaien inguruan hitz egitea ezinbestekoa bihurtu da. Horrez gain, garrantzitsua da ere nerabeek aniztasun sexualaren aurrean dituzten jarreraren inguruan ikertzea.

Orue eta Calvete (2018) ikerlariak ondorioztatu dute bullying homofoboaren eta jarrera homofoboaren artean erlazio estua dagoela. Horrela, aniztasun sexualaren aurrean jarrera negatibo gehiago adierazten dituzten mutilek bullying LGTB-fobikoa burutzeko joera handiagoa adierazten dute. Gainera, ikerketa honek errespetuan oinarritutako hezkuntzaren garrantzia agerian utzi du. Testuinguru honetan, senideen artean hizkera homofoboa sarritan entzuten duten nerabeek, bullying LGTB-fobikoa burutzeko joera handiagoa izaten dute.

Aniztasun sexualaren aurreko jarrerak sexuaren arabera aztertu dituzten ikerketek ondorioztatu dute, neskekin alderatuz, mutilek jarrera negatiboagoak dituztela eta jazarpenaren

eraso eta biktimizazio maila handiagoak erakusten dituztela (Birkett, 2010; Birkett eta Espelage, 2015; Carrera-Fernandez et al., 2017; Collier et al., 2013; COGAM, 2016; Generelo et al., 2012; Pichardo et al., 2007; Poteat eta Espelage, 2005; Poteat et al., 2014; Rodrigues et al., 2016). Neskei dagokienez, mutilek LGTB eta maskulino/femenino estereotipotik urruntzen diren pertsonen aurrean jarrera negatiboak edukitzeko joera handiagoa erakusten duten bitartean, neskek egoera horietan biktimak defendatzeko joera izaten dute (Carrera-Fernández et al., 2017; COGAM, 2016; Generelo et al., 2012; Poteat eta Vecho, 2016).

Fenomeno honetan behatzaile aktiboaren rola aztertzeko asmoz, Caminos eta Quentrequeo (2015) ikerlariak agerian utzi zuten jazarpen homofoboa noizbait sufritu zuten pertsonak behatzaile aktibo maila handiagoak erakutsi zituztela. Bestalde, Birkett-ek (2010) aurkitu zuen bullying LGTB-fobikoaren biktima rolaren eta erasotzaile rolaren artean erlazio estua dagoela. Izan ere, irain homofoboaren biktima izan ziren partaideek irain horiek burutzeko joera handiagoa erakutsi zuten.

Autore anitzen artean interesa pizten ari den beste arlo bat bullying LGTB-fobikoaren eta bullying orokorraren arteko lotura da. Badirudi, jazarpen eta ziberjazarpen orokorreko jokaera erasokorrek burutzeko joera duten partaideek bullying LGTB-fobikoa burutzeko joera dutela. Ondorioz, bullying LGTB-fobikoaren eta orokorraren artean erlazio estua dagoela esan daiteke (Birkett y Espelage, 2015; Espelage et al., 2017; Poteat eta Espelage, 2005;). Birkett (2010) autoreak bestalde, erlazio hau mutiletan bakarrik aurkitu zuen. Biktimizazioari dagokionez, ikerketa batzuek baieztatu dute jazarpen/ziberjazarpen orokorraren biktima diren edo izan diren pertsonak aldi berean, jazarpen LGTB-fobikoa jasan dutela (Poteat eta Espelage, 2005).

Beste ikerketa batzuek aniztasun sexualarekiko jarrera negatiboak erlazionatu ditzuzte sexu-jazarpeneko jarrerak edukitzearekin eta sexismoarekin (Carrera-Fernández et al., 2017; Espelage et al., 2017). Testuinguru honetan, neska bisexualak eta lesbianak kalteberatasun handiagoa duten pertsonak dira. Pichardo et al. (2007) autoreek ikusi zuten mutilen % 13,2k adierazi zuela beraien kide den neska batek lesbiana edo bisexuala dela esanez gero, berekin ligatzen saiatuko zela. Zentzu honetan, Bouris et al. (2016) eta Gegenfurtner eta Gebhart (2017) autoreek agerian utzi zuten LGB pertsonen abusu sexual eta emozional gehiago sufrizten dutela heterosexualekin konparatuz.

Honenbestez, aniztasun sexualarekiko jarrera negatiboak murriztuko luketen aldagaiak aztertzea ezinbestekoa da. Ikerketa batzuek adierazi dute heteronormatiboa ez den hezkuntza

sexuala ezinbestekoa dela eskoletan gertatzen den LGTB-fobia eta bullying/cyberbullying LGTB-fobikoa prebenitu ahal izateko (Franco-Morales et al., 2015; Gegenfurtner eta Gebhardt, 2017; Pichardo et al., 2013; Rinehart eta Espelage, 2016). Honen harira, adin desberdinetako ikasleek LGTB pertsonen inguruan ezagutza eskasa dutela adierazi dute (Franco-Morales et al., 2015). Horrez gain, gutxiengo sexualek eskoletan babesgabetasuna sentitzen dute eta hautemate hau ikasleen artean nagusitu egin da (Pichardo et al., 2007). Ondorioz, modu horretan biktimizatuak izaten ari diren ikasleek ez dute laguntza eskatzen baztertuak izateko beldurra dutelako (Generelo et al., 2012; Pichardo et al., 2013). Generelo et al. (2012) autoreen ikerketan biktimen % 28k jakinarazi zuen gertatzen ari zitzaiona eta jakinarazi zuten biktimen % 9 baztertua izan zen. Datu zehatzak emateko asmoz, Pichardo et al. (2013) autoreek agerian utzi zuten biktima izan ziren mutilen erdiak (% 49,6) bakarrik kontatu zuela.

Amaitzeko, O'Donoghue eta Gerin (2016) ikerlariek bullying LGTB-fobikoarekin erlazioatutako oztopoen inguruan ikastetxeetako langileek zuten hautematea aztertu zuten. Langile hauek adierazi zuten Hezkuntza Sailaren sostenguan hutsegite bat nabaritzen zutela, senideek eta ikasleek aniztasun sexualaren aurrean jarrera negatiboak erakusten zituztela eta irakasleentzat jarrera LGTBfobikoak identifikatzea zaila zela. Era berean, Rinehart eta Espelage (2016) autoreek irakasleek ikastetxeetan duten garrantzia azpimarratu dute. Badirudi, eskolak konprometituak daudenean jarrera diskriminatzaile eta sexisten prebentzioarekin eta hau hezitzaileek adierazten dutenean, jazarpen LGTB-fobikoaren prebalentzia murriztu egiten dela.





---

**3. KAPITULUA**

**OSASUN MENTALA ETA NORTASUN**  
**EZAUGARRIAK LGTB PERTSONETAN: ERREBISIO**  
**BAT**

---



### **3. KAPITULUA. OSASUN MENTALA ETA NORTASUN EZAUGARRIAK LGTB PERTSONETAN: ERREBISIO BAT**

Kapitulu honetan, bullying LGTB-fobikoaren eta osasun mentalaren arteko lotura aztertuko da (1. Koadroa). Gainera, bullying LGTB-fobikoa eta osasun mentaleko zenbait aldagaien (depresioa, suizidio ideiegintza, estutasun soziala, sintoma psikopatologikoak...) arteko erlazioa ikertuko da (2. Koadroa). Jarraian, nortasun ezaugarriak (enpatia, adimen emozionala, genero rola, zoriontasuna...) bullying LGTB-fobikoarekin erlazionatu dituzten ikerketak eta LGTB pertsonen nortasun ezaugarriak ikertu dituzten azterlanak aztertuko dira (3. Koadroa). Burutu den errebisio honetan, aurreko errebisioan jarraitu diren irizpideak hartu dira kontuan eta lehenago aurkeztutako koadroaren egitura berdina erabili da (ikusi 2. Kapitulu).

#### **3.1. Osasun mentala LGTB pertsonetan: errebisio bat**

Atal honetan, bullying LGTB-fobikoa osasun mentalarekin erlazionatu duten ikerketak (1. Koadroa), eta LGTB pertsonetan osasun mentala ikertu duten azterlanak aurkeztuko dira (2. Koadroa). Errebisio hau egin ahal izateko, 2. Kapitulan erakutsi den metodología berdina erabili da, hau da, bilaketa psikologia arloan nagusi diren bilatzaileetan burutu da (Web of Science, Scopus y ERIC) eta azken 14 urteetan argitaratutako azterlanak kontuan hartu dira. Bilaketa burutzeko erabilitako hitz-gakoak ondorengoak izan dira: bullying homofobia, bullying LGTB-fobikoa, LGTB eta osasun mentala. Aurkitutako artikuluz guztietatik 26k bullying LGTB-fobikoak osasun mentalean duen eraginaz hitz egiten dute eta 20 azterlanek LGTB kolektiboaren osasun mentalaren inguruko informazioa ematen dute. Identifikatutako azterlanekin, 1. eta 2. Koadroak osatu dira eta hauek ikerlan bakoitzeko ondorengo alorrak erakusten ditu: autoreak, argitaratze urtea, helburuak, ebaluatutako aldagaiak eta ebaluazio tresnak eta emaitzen laburpena.

##### **3.1.1 Bullying LGTB-fobikoa eta osasun mentala**

Bullying LGTB-fobikoaren eta osasun mentalaren inguruko ikerketak 1. Koadroan aurkezten dira.

1. Koadroa. Bullying LGTB-fobikoa eta osasun mentala

Autoreak eta urtea	Ikerketaren helburuak	Lagina (adina eta maila)	Aldagaiak eta ebaluazio tresnak	Emaizak
Poteat eta Espelage (2005)	Bullying homofoboak (irain homofoboek bereziki) osasun mentalean duen eragina aztertu.	N = 207 (8. maila) Illinois (AEB)	<b>Irain homofoboak:</b> <i>Homophobic Content Agent Target Scale</i> (Poteat eta Espelage, 2005). <b>Depresioa eta estutasuna:</b> <i>Self Report Anxious /Depressed subscale</i> de Achenbach (1991). <b>Eskolarekiko lotura sentimendua:</b> egokitzapena: <i>Psychological Sense of School Membership Scale</i> (Goodenow, 1993).	✓ Irain homofoboak sufritzen dituzten ikasleek estutasun eta depresio maila handiagoak eta eskolarekiko lotura sentimendu maila txikiagoa dute irain horiek sufritzen ez dituzten ikasleekin alderatuz.
Poteat eta Espelage (2007)	Bigarren hezkuntzako ikasleetan biktimizazio homofoboak indikatzaile psikologiko eta ongiezia pertsonalean zein neurritan eragiten duen aztertu	N = 143 (13-15 urte) Illinois (AEB)	<b>Biktimizazio homofoboa:</b> <i>Homophobic Content Agent Target Scale</i> (Poteat eta Espelage, 2005). <b>Estutasuna eta depresioa:</b> <i>Self Report Anxious /Depressed subscale</i> (Achenbach, 1991). <b>Eskolarekiko lotura sentimendua:</b> egokitzapena: <i>Psychological Sense of School Membership Scale</i> (Goodenow, 1993). <b>Ongiezia pertsonala:</b> Ad-Hoc.	✓ Biktimizazio homofoboak estutasuna, depresioa, ongiezia pertsonala eta eskolarekiko lotura sentimendu baxua aurreikusten ditu.
Swearer, Turner, Givens eta Pollack (2008)	Irain homofoboek biktimita izatearen eragina aztertu multiletan.	N = 251 (9-11. maila) AEB	<b>Ahozko bullyinga eta fisikoa:</b> <i>Verbal and Physical Bullying Scale</i> (Swearer, 2005). <b>Eraso sintomak:</b> <i>The aggression Questionnaire</i> (Buss y Warren, 2000). <b>Estutasun sintomak:</b> <i>The Multidimensional Anxiety Scale for Children</i> (March, 1997). <b>Depresio sintomak:</b> <i>The childrens Depression Inventory</i> (Kovacs, 1992).	✓ Bullying homofoboa sufritu zuten pertaideek depresio eta estutasun sintoma maila handiagoak erakutsi zituzten arrazoi desberdinengatik bullyinga sufritu zuten pertsonekin alderatuz.

3. Kapituluua. Osasun mentala eta nortasun ezaugarriak

Autoreak eta urtea	Ikerketaren helburuak	Lagina (adina eta maila)	Aldagaiak eta ebaluazio tresnak	Emaitzak
Birkett, Espelage eta Koenig (2009)	Eskolako klima eta jazarpen homofoboaren eragina aztertu orientazio sexual zehatza ez duten eta LGB pertsonen eta heterosexualeen drogen kontsumoan, depresioan, suizidioan eta eskola hutsegitean.	N = 3.552 (7. maila) y 3.824 (8. maila) Midwestern (AEB)	<b>Bullying-biktimizazioa: bullying</b> <i>University of Illinois Bully Scale (UIBS)</i> (Espelage eta Holt, 2001). <b>Jazarpen homofoboa:</b> Ad-hoc. <b>Eskolako klima positiboa:</b> Ad-hoc. <b>Drogen kontsumoa:</b> Ad-hoc. <b>Depresioa eta suizidioa:</b> Ad-hoc. <b>Eskola hutsegitea:</b> Ad-hoc.	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Erlazio sendoa dago biktimizazio LGTB-fobikoaren eta drogen kontsumo, suizidio, depresio eta eskolako hutsegitearen artean.</li> <li>✓ Eskolako klima positiboak eta biktimizazio homofobo ezak orientazio sexualaren eta osasun mentalaren arteko erlazioa murrizten du.</li> </ul>
Mayock, Bryan, Carr eta Kitching (2009)	LGBT pertsonen osasun mentala aztertu.	N = 1.110 (14-73 urte) eta 40 pertsona LGTB (16-62 urte) Irlanda	<b>Ad-hoc elkarrizketak.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ LGTB laginaren % 60ek egoera diskriminatzaileekin erlazionatutako depresio sintomak sufritu zituen.</li> </ul>
Russel, Ryan, Toomey, Diaz eta Sanchez (2011)	Bullying homofoboaren biktimizazioaren eta arrisku jarreraren eta osasun mentalaren arteko erlazioa aztertu.	N = 245 LGBT (21-25 urte) AEB	<b>Bullying homofoboa: California Healthy Kids Survey</b> (Russel, Ryan, Toomey, Diaz eta Sanchez, 2011). <b>Depresioa: Epidemiologic Studies-Depression Scale</b> (Radloff, 1977). <b>Suizidio ideia gintza eta jarrera:</b> Ad-hoc. <b>Heldu gazteen asebetetzea, autoestima eta integrazio soziala:</b> Bizitzarekin asebetetzea neurtzen duten 8 item: Rosenberg (1985) eskala autoestimarentzat eta integrazio sozialaren eskala. <b>Sustantzien kontsumoa:</b> ad-hoc <b>Arrisku sexuala:</b> ad-hoc.	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Erlazio sendoa dago Biktimizazio LGTB-fobikoaren eta osasun mentalaren arazoan artean heldu-gazteetan.</li> <li>✓ Erlazio sendoa dago biktimizazioaren eta IHESA eta transmisio sexuareko gaixotasunak edukitzeko arriskuaren artean.</li> <li>✓ Ez da erlaziorik aurkitu biktimizazioaren eta drogen kontsumoaren eta gehiegizko kontsumoaren artean.</li> </ul>

Bullying LGTB-fobikoa Euskal Herriko nerabeetan

Autoreak eta urtea	Ikerketaren helburuak	Lagina (adina eta maila)	Aldagaiak eta ebaluazio tresnak	Emaitzak
Generelo, Garchitorena, Montero eta Hidalgo (2012)	Jazarpen homofobia eta suizidio arriskua aztertu LGB diren nerabe eta gazteetan.	N= 653 LGB (12-25 urte) Espainia	<b>Online den galdetegia eta elkarrizketa egituratuak.</b>	✓ Bullying LGTB-fobikoa sufritu zuten pertsonen % 43k suizidio ideiak izan zituen; % 40 planifikatzea iritsi zen eta % 28 behin baino gehiagotan saiatu zen bere buruaz beste egiten.
Shields, Whitaker, Glassman, Franks et Howard (2012)	Biktimizazioaren, orientazio sexualaren eta suizidio arriskuarekin erlazionaturako emaitzen arteko erlazioa ikertu.	N= arrisku jarretrak dituzten 2.154 gazte (9-12. maila) Kalifornia (AEB)	<b>Ad-hoc.</b>	✓ Biktimizazioak depresioa eta suizidio saiakerak aurreikusten ditu.
Duong eta Bradshaw (2014)	Bullying/cyberbullying eta portaera agresiboa eta suizidioaren arteko erlazioa aztertu LGB gazteetan. Erlazio honen barruan aztertu eskolan heldu batekiko lotura sentitzeak nola eragiten duten.	N = 951 LGB (9.-12. maila) Nueva York (AEB)	<b>Ad-hoc.</b>	✓ Bi bullying motak sufritu zituzten LGB gazteek portaera agresibo eta suizidio portaera gehiago eduki zituzten. ✓ Eskolan heldu batekiko lotura sentitzeak erlazio hau murrizten du.

3. Kapituluua. Osasun mentala eta nortasun ezaugarriak

Autoreak eta urtea	Ikerketaren helburuak	Lagina (adina eta maila)	Aldagaiak eta ebaluazio tresnak	Emaitzak
Martxueta eta Etxeberria (2014)	Haurtzaroan edota nerabeztaroen LGB pertsonen sufrututako egoera estresagarri batek (orientazio sexualaren inguruko eskola jazarpena pairatzea, adibidez) originate pertsonalean eragin negatiboak dituen aztertu.	N= 119 LGB (17-57 urte) Espainia	<p><b>Bullying homofobia:</b> <i>Olweus Bully/Victim Questionnaire</i> (Rivers, 2000) eskalaren egokizapena.</p> <p><b>Depresio sintomak:</b> Beck <i>Depression Inventory</i> (Beck, Ward, Mendelson, Mock eta Erbaugh, 1961).</p> <p><b>Estutasuna:</b> <i>Inventario de Situaciones de Respuestas de Ansiedad</i> (Miguel-Tobal eta Cano-Vindel, 1986).</p>	<p>✓ Haurtzaroan edota nerabeztaroen bullyinga sufritu zuten LGB pertsonen depresio eta estutasun maila handiagoak erakusten dituzte.</p>
Poteat, Scheer, DiGiovanni eta Mereish (2014)	Pertsona heterosexualen bullying homofoboaren epe laburreko eraginak aztertu depresio sintoma eta estutasunean.	N = 572 ikasle (bataz besteko adina 15,8 urte) Ingalaterra	<p><b>Bullying orokorra:</b> Ad-hoc.</p> <p><b>Bullying homofobia:</b> Ad-hoc.</p> <p><b>Depresio sintomak eta estutasuna:</b> depresio eta estutasunaren azpieskala: <i>the Depression, Anxiety, and StressScale-21</i> (DASS-21; Lovibond eta Lovibond, 1995)</p>	<p>✓ Bullying homofoboaren biktima izateak epe laburrera estutasun sintoma maila handitzen du. Erlazio hau bullying orokorrarekin baino estuagoa da.</p> <p>✓ Bullying homofoboaren biktimizazioaren eta estutasunaren arteko erlazioa indartsuagoa da multiletan.</p> <p>✓ Bullying homofoboaren eragina txikiagoa da depresio sintometan estutasunean baino.</p> <p>✓ Desberdintasun gutxiago dago bullying homofoboaren nahiz orokorraren eta depresioaren arteko erlazioan.</p>
Ybarra, Mitchell, Kosciw eta Korchmaros (2014)	Suizidio ideiatzaren eta bullyingaren arteko erlazioa aztertu LGQ pertsonetan eta heterosexualetan.	N = 5.907 (13-18 urte): 3.380 heterosexual, 1.282 gay, lesbiana eta queer, 655 bisexual eta 225 ez zeuden orientazio sexualaz ziur.	<p><b>Bullyinga eta berdinen arteko erasoak:</b> ad-hoc eskala.</p> <p><b>Ideiatzaren suizida:</b> Ad-hoc.</p>	<p>✓ Suizidio ideiatzaren maila handiagoak bullyinga eta berdinen arteko erasoak jasan zituzten pertsonetan.</p> <p>✓ Bullyingaren eta suizidio ideiatzaren arteko erlazioa gay, lesbiana eta queer pertsonetan indartsuagoa da.</p>

Bullying LGTB-fobikoa Euskal Herriko nerabeetan

Autoreak eta urtea	Ikerketaren helburuak	Lagina (adina eta maila)	Aldagaiak eta ebaluazio tresnak	Emaitzak
Collier (2014)	Biktimizazio LGTB-fobikoarekin erlazionaturako eragin psikosozialen eta osasun ondorioen errebisia egin.	N = 39 ikerketa	<b>Errebisia sistematikoa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Biktimizazio LGTB-fobika oso erlazionatuta dago eskolako eskolarekiko lotura sentimendu maila baxuekin eta depresio sintoma maila altuekin.</li> <li>✓ Biktimizazio mota hau suizidioarekin erlazionatzen duten artikuluek kontraesanak erakusten dituzte.</li> <li>✓ Beste ikerketek erlazioa erakusten dute biktimizazioaren eta droga kontsumo, estres traumatiko eta lorpen akademiko maila baxuaren artean.</li> </ul>
Baams, Grossman eta Russel (2015)	LGB pertsonetan osasun mentala eta norbere egokitzea ikertu, honako bi arlo hauek kontuan hartuz: gutxiengoaren estresaren eredu eta suizidioaren teoria interpersonal-psikologikoa.	N = 876 LGB (15-21 urte) AEB	<p><b>LGB adierazpenarekin erlazionaturako estresa:</b> <i>Gay related stress scale</i> (Rosario, Rotheram-Borus eta Reid, 1996).</p> <p><b>Orientazio sexualarengatik biktimizazioa:</b> Ad-hoc.</p> <p><b>Depresioa:</b> <i>Beck Depression Inventory – Youth</i> (Beck, Beck eta Jolly, 2001).</p> <p><b>Suizidio ideiajintza:</b> <i>Positive and Negative Suicide Inventory</i> (Muehlenkamp et al., 2005) eskalaren suizidioaren ideiajintza negatiboaren azpieskala.</p> <p><b>Hautemandako zama:</b> <i>Interpersonal Needs Questionnaire</i> (Van Orden, Witte, Gordon, Bender eta Joiner, 2008) eskalaren azpieskala.</p> <p><b>Parte izate frustratua:</b> <i>Interpersonal Needs Questionnaire</i> (Van Orden et al., 2008) eskalaren 5 azpieskala.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Biktimizazioaren eta orientazio sexualaren eta ideiajintza sexualaren eta depresioaren arteko erlazioan besteentzako zama bezala hautemateak eragiten du.</li> <li>✓ LGB orientazioa onartzeak eragiten duen estresaren eta depresioa eta suizidio ideiajintzaren arteko erlazioan besteentzako zama bezala hautemateak eragiten du.</li> </ul>



3. Kapituluua. Osasun mentala eta nortasun ezaugarriak

Autoreak eta urtea	Ikerketaren helburuak	Lagina (adina eta maila)	Aldagaiak eta ebaluazio tresnak	Emaitzak
Reisner, Greytak, Parsons eta Ybairra (2015)	Gutxiengo sexuarekin erasoak eta bullyinga aztertu drogen kontsumoaren azalpen-faktore gisa.	N = 5.542 (13-18 urte) (442 transexualak edo transgeneroak direlarik) AEB	<b>Ad-hoc.</b>	✓ Persona ez-zisgeneroetan erlazio estua dago biktimizazioaren eta drogen kontsumoaren artean.
Birkett, Newcomb eta Mustanski (2015)	Denborak aurrerak egiten duen ahala ongieza psikologikoak, biktimizazioak eta LGB gazteen sostenguak hobetzen den aztertu.	N = 231 LGBT (16-20 urte) Chicago (AEB)	<b>Ongieza psikologikoa: The Brief Symptom Inventory (BSI 18: Derogotis, 1992). Victimización: Gay Harassment Scale (D'Augelli, Hershberger eta Pilkington, 1998) eskalaren egokitzapena.</b>	✓ LGTB nerabeen ongieza psikologikoak behera egiten du nerabeztasunaren amaleran eta gaztaro hasieran, biktimizazioak behera egiten duen moduan.
Ferlatte, Dulai, Hottes, Trussler eta Marchand (2015)	Gizon homosexualen eta bisexualetan suizidio ideiegintza eta saiakera aztertu.	N = 5.406 gay eta 2.720 bisexual. Kanada	<b>Ad-hoc.</b>	✓ Eraso sozial, fisiko eta ahokoek positiboki korrelazionatzen dute suizidio ideiegintza eta saiakerekin, tabako eta drogen kontsumoarekin, depresioarekin, estatusarekin eta IHESA eta transmisiozko gaixotasun sexuarekin.
Huebner, Thoma eta Neillands (2015)	Biktimizazioaren eta sustantzien gehiegizko kontsumoaren arteko erlazioa aztertu LGTB nerabeetan.	N = 504 LGBT (14-19 urte) AEB	<b>Ad-hoc.</b>	✓ Biktimizazio LGTB-fobikoaren eta sustantzien gehiegizko kontsumoaren arteko erlazioa baieztatzen da. ✓ Erlazio honetan portaera antisozialak dituzten lagunen edukitzeak eragiten du.

Bullying LGTB-fobikoa Euskal Herriko nerabeetan

Autoreak eta urtea	Ikerketaren helburuak	Lagina (adina eta maila)	Aldagaiak eta ebaluazio tresnak	Emaitzak
Quintanilla, Sánchez-Loyo, Correa-Marquez eta Luna-Flores (2015)	Gizon homosexualetan suizidio jorkaeren arriku faktoreak eta prediktoreak identifikatu.	N = suizidatzen saiatu diren 3 gizon homosexualetan suizidio saiakera gabeko 4 gizon homosexualetan (20- 40 urte) Mexiko	<b>Elkarrizketak.</b>	✓ Homofobiak eta orientazio sexualarengatik serindeen aldeko gutxiespena sufritzea suizidio arriskua areagotzen du mutil homosexualen artean.
Bouris, Everett, Heath, Elsaesser eta Neilands (2016)	Ez-normatiboa den orientazio sexuala duten pertsonetan suizidio arriskuarekin zein biktimizazio mota dagoen lotuagoa aztertu.	N = arrisku jarreko dituzten 1.907 gazte Chicago (AEB)	<b>Ad-hoc.</b>	✓ LGTB pertsonetan suizidioarekin erlazio handiena duten biktimizazio motak hauek dira: mehatxuak jaso edo arma baten bidez zauritua izan eta bullying LGTB-fobikoaren biktima izan.
Tucker, Ewing, Espelage, Green, De la Haye eta Pollard (2016)	Biktimizazio homofoboaren eta ongiezia psikologiko eta alkoholaren kontsumoaren arteko erlazioa aztertu nerabeetan.	N = 1.325 ikasle (8-10. maila) AEB	<b>Ad-hoc.</b> <b>Biktimizazioa:</b> <i>Homophobic Content Agent Target Scale</i> (Poteat eta Espelage, 2005). <b>Azken hilaibeteko distres psikologikoa:</b> <i>The Modified Depression Scale</i> (Dunn, Johnson eta Green, 2012) <b>Bakartze soziala:</b> <i>Vaux's Social Support Appraisals Scale</i> (Vaux et al., 1986).	✓ Lagunek esandako irain homofoboak ongiezia psikologiko eta alkohol kontsumoaren maila handiekin erlazionatuak daude bai LGTB pertsonetan eta baita heterosexualen ere. ✓ Lagunek ez diren pertsonen esandako irain homofoboak ongiezia psikologiko maila handiak eragiten dituzte LGTB ikasleetan eta alkohol kontsumo maila handiak heterosexualen artean.

3. Kapituluua. Osasun mentala eta nortasun ezaugarriak

Autoreak eta urtea	Ikerketaren helburuak	Lagina (adina eta maila)	Aldagaiak eta ebaluazio tresnak	Emaitzak
Gegenfurtner eta Gebhardt (2017)	Ebidentzian oinarritutako erantzunak eman hurrengo hiru arloei: orientazio sexualaren oinarri biologikoa, heteronormatibitatea eta bullyinga eta irakasleen papera egoera hauetan.	Scopus, ERIC eta PubMed datu baseetan aurkitutako ikerketak.	<b>Errebisio sistematikoa</b>	✓ Bullying/cyberbullyingaren biktimek bakartze sozial, eskola hutssegite, drogen kontsumo, depresio, suizidio ideagintza eta transmisiozko gaixotasun sexualak edukitzea arrisku maila handiagoak erakutsi dituzte.
Perez-Brumer, Day, Russel eta Hatzenbuehler (2017)	Suizidio ideagintzaren prebalentzia aztertu pertsona transgeneroetan. Erlazio honetan faktore psikosozialek duten eragina aztertu.	N = 280 ikasle transgenero eta 25.213 ez-trasgenero (batz besteko adina: 15 urte) Kalifornia (AEB)	<b>Ad-hoc.</b>	✓ Transgeneroen artean suizidio ideagintzaren prebalentzia bi aldiz handiago da populazio orokorarekin alderatuz. ✓ Biktimizazioak positiboki korrelazionatzen du suizidio delagintzarekin pertsona transgeneroetan.
Luong, Rew eta Banner (2018)	Suizidio ideagintza eta saiakeraren faktore babesleak eta arrisku faktoreak aztertu beste gizonekin harreman sexualak mantentzen dituzten gizonetan.	N= 14 artikulua	<b>Errebisio sistematikoa</b>	✓ Bullyingaren biktima izatea suizidioaren arriskua areagotzen du mutil homosexualetan.
Hatchel, Vallido, De Pedro, Huang eta Espelage (2018)	Biktimizazioaren eta osasun mentalaren arteko erlazioa ikeru pertsona transgeneroetan.	N = 4.778 pertsona transgenero (14-71 urte) Kalifornia (AEB)	<b>Ad-hoc.</b>	✓ Bullyinga sufritu zuten pertsona transgeneroen % 50ek depresio sintoma maila handiak erakutsi zituzten.

Bullying LGTB-fobikoa Euskal Herriko nerabeetan

Autoreak eta urtea	Ikerketaren helburuak	Lagina (adina eta maila)	Aldagaiak eta ebaluazio tresnak	Emaitzak
Wang et al. (2018)	Depresio eta estatus mailen desberdintasunak aztertu bullying homofoa sufritu duten mutil homosexual eta bisexualetan	N = 500 mutil gay eta bisexualetak (20-25 urte)	<p><b>Bullying:</b> <i>The School Bullying Experience Questionnaire</i> (Yen et al., 2014)</p> <p><b>Cyberbullying:</b> <i>The Cyberbullying Experiences Questionnaire</i> (Yen et al., 2012).</p> <p><b>Depresioa:</b> <i>The Center for Epidemiological Studies-Depression Scale</i> (Chien eta Cheng, 1985).</p> <p><b>Estatusuna:</b> <i>The State-Trait Anxiety Inventory from Y</i> (Chung eta Long, 1984).</p>	<p>✓ Hautzaroan bullying/cyberbullying homofobia sufritu zuten partaideek depresio larriaren eta estatusunaren maila handiagoak erakusten dituzte, biktimak izan ez diren pertsonekin konparatuz.</p>

1. Koadroan aurkeztutako datuek agerian utzi dute biktimizazio LGTB-fobikoa sufritzeak lotura estua duela biktimek epe luzera nahiz motzera osasun mentalean ondorio kaltegarriak edukitzarekin.

Burututako errebisioan, autore anitzek gauzatu dituzten ikerlanak aurkitu dira. Huetan berretsi da bullying LGTB-fobikoaren biktima izatea *depresioarekin* (Birkett et al., 2009; Collier, 2014; Ferlatte et al., 2015; Gegenfurtner eta Gebhardt, 2017; Hatchel et al., 2018; Mayock et al., 2009; Poteat eta Espelage, 2005; Poteat et al., 2014, Shields et al., 2012), *estutasunarekin* (Ferlatte et al., 2015; Poteat eta Espelage, 2005; Poteat et al., 2014), estres traumatikoarekin (Collier, 2014) eta *ondoeza psikologikoarekin* (Birkett, 2015; Tucker et al., 2016) erlazionatua dagoela. Gainera, atzera begirako diseinua duen ikerketa batean, Martxueta eta Etxeberriak (2014) aurkitu zuten haurtzaroen eta nerabezaroen bullyinga sufritu zuten LGB pertsonen orainaldian, depresio eta estutasun maila handiagoak erakutsi zituztela biktima izan ez ziren pertaideekin alderatuz.

Azpinarratzekoa da, jazarpen eta ziberjazarpen LGTB-fobikoaren biktimizazio eskaletan puntuazio altua duten ikasleek eskolarekiko lotura gutxiago sentitzen dutela (Collier, 2014; Poteat eta Espelage, 2005). Arrazoi honen ondorioz, orientazio eta identitate sexuala oinarritzak duen jazarpenaren biktimek eskola-hutsegite gehiago izaten dituzte (Bouris et al., 2016; Espelage eta Koenig, 2009; Gegenfurtner eta Gebhardt, 2017), eta era berean, lorpen akademiko gutxiago azaltzen dute (Collier, 2014).

Ikerketa anitzek bullying LGTB-fobikoa osasunarentzat arriskutsuak diren portaerekin erlazionatu dute. Hari honetara, jazarpen LGTB-fobikoaren biktima izan diren pertsonen alkohol eta sustantzia ilegalen kontsumo maila handiagoak erakusten dituzte biktima izan ez diren pertsonekin alderatuz (Birkett et al., 2009; Collier, 2014; Ferlatte et al., 2015; Gegenfurtner eta Gebhardt, 2017; Huebner et al., 2015; Reisner et al., 2015; Tucker et al., 2016). Erlazio hau zalantzan jarri da Russel et al. (2011) autoreek egindako ikerketan, honetan, ez baitzen erlazio hau aurkitu.

LGBTB izateagatik sufritutako biktimizazioa eta osasunaren inguruko beste portaerei dagokienez, autore batzuek bullying/cyberbullying LGTB-fobikoa sufritzearen eta arriskuzko harreman sexualak mantentzearen arteko erlazioa aztertu dute. Horrela, zenbait emaitzek adierazten dute jazarpen edo ziberjazarpen LGTB-fobikoa sufritzen ari diren edo sufritu duten LGTB pertsonen maizago edukitzen dituztela IHESA edota sexu bidezko transmisio gaixotasunak

(STG) kutsatzeko arriskua areagotzen duten harreman sexualak (Ferlatte et al., 2015; Gegenfurtner eta Gebhardt, 2017; Russel et al., 2011).

Ikusi ahal izan den moduan, fenomeno honen ondorioak oso kezagarriak eta anitzak dira. Baina ezin zaio atal honi amaiera eman ondoriorik larrienaren inguruan hitz egin baino lehen, hots, suizidioaren inguruan. Autore askok ikerketa larro honetan interesa agertu dute, bullying mota honen biktima izatea suizidioarekin zuzenki erlazionaturik dagoela agerian utziz (Bouris et al., 2016; Duong eta Bradshaw, 2014; Ferlatte et al., 2015; Gegenfurtner eta Gebhardt, 2017; Luong et al., 2018; Pérez-Brumer et al., 2017; Shields et al., 2012; Quintanilla et al., 2015; Ybarra et al., 2014). Beste autore batzuek benetan kezagarriak diren datuak aurkeztu dituzte: bullying LGTB-fobikoa sufritu zuten pertsonen % 27,95 eta % 43 bitartek suizidio ideiak izan zituen, % 22,78 eta % 40 artean suizidioa planifikatzea iritsi zen eta % 18 eta % 29,92 artean suizidatzen saiatu zen noizbait (Bouris et al., 2016; Generelo et al., 2012;). Gainera, Ybarra et al. (2014) autoreek baieztatu dute bullyingaren biktima izatea eta suizidioaren arteko erlazioa indartsuagoa dela ez-normatiboa den orientazio sexuala duten pertsonen artean pertsona heterosexualekin alderatuz.

Erlazio honetan eragin ditzaketan aldagaiei dagokienez, alde batetik, Duong eta Brasshaw (2014) autoreek ikusi ahal izan zuten eskoletan pertsona helduago baten sostengua zuten ikasleek, nahiz eta fenomeno honen biktima izan, suizidatzeko arrisku maila txikiagoa erakutsi zutela sostengu berdina ez zuten pertsonekin konparatuz. Bestalde, badirudi ingurukoentzat zama bezala hautematen diren eta jazarpena sufritu duten LGB pertsonen suizidio eta depresio maila handiagoak erakusten dituztela zama bezala hautematen ez diren partaideekin alderatuz (Baams et al., 2015). Azkenik, zenbait lanek berretsi dute orientazio edota identitate sexualarengatik ematen den bullyingaren eta estutasuna eta depresioa izateko arriskuaren arteko erlazioa indartsuagoa dela bullying orokorra sufritzen ari diren edo sufritu duten biktimetan baino (Poteat et al., 2014; Swearer, Turner, Givens, eta Pollack, 2008).

### **3.1.2 Osasun mentala LGTB kolektiboan**

LGBTB kolektiboaren osasun mentala aztertzen duten ikerketak 2. Koadroan aurkezten dira.

2. Koadroa. Osasun mentala LGTB pertsonetan

Autoreak eta urtea	Ikerketaren helburua	Lagina (adina eta maila)	Aldagaiak eta ebaluazio tresnak	Emaitzak
Silenzio, Pena, Duberstein, Cerel eta Knox (2007)	LGB nerabeetan suizidio ideiatzintza eta saiakerak aztertu.	N = 7.207 neska eta 6.535 mutil heterosexuak, 271 neska eta 176 mutil homosexual eta bisexualak (bataz besteko adina 22,3 urte) AEB	<b>Suizidio ideiatzintza eta saiakerak:</b> Ad-hoc. <b>Depresioa:</b> <i>Center for Epidemiologic Studies Depression Scale</i> (Radloff, 1977). <b>Drogen kontsumoa:</b> Ad-hoc.	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ LGB nerabeek suizidio saiakera gehiago eta suizidio ideiatzintza maila handiagoa erakusten dute nerabe heterosexualekin alderatuz.</li> <li>✓ Depresioa eta drogen kontsumoak suizidio saiakerak eta ideiatzintza aiaratzen dute LGB nerabeetan eta heterosexualetan.</li> </ul>
King et al. (2008)	LGB pertsonen osasun mentala aztertzen duten azterlanen errebisioa egin.	N = 25 ikerketa	<b>Errebisio sistematikoa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ LGB pertsonen suizidio saiakera gehiago erakusten dituzte pertsona heterosexualekin alderatuz.</li> <li>✓ Depresio eta estutasun arazoak garatzeko eta alkohol edota beste sustantziak kontsumitzeko arrisku maila handiagoa LGB pertsonetan pertsona heterosexualekin alderatuz.</li> <li>✓ LGB pertsonen artean suizidio arrisku handiagoa dute mutil homosexualak bisexualak baino.</li> <li>✓ Neska bisexualak eta lesbianek drogodependentzia arrisku handiagoa erakusten dute.</li> </ul>
Mayock, Bryan, Carr eta Kitching (2009)	LGBTB pertsonetan suizidio arriskua areagotzen duten bizipenak aztertu. LGTB pertsonetan erresilentzia indartzen duten bizipenak aztertu.	N = 1.110 (14-73 urte) eta 40 LGTB pertsona (16-62 urte) Irlanda	<b>Elkarrizketa kualitatiboa eta online galdetegia.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Suizidio saiakera gehiago LGTB pertsonetan pertsona heterosexualekin alderatuz.</li> </ul>

Bullying LGTB-fobikoa Euskal Herriko nerabeetan

Autoreak eta urtea	Ikerketaren helburua	Lagina (adina eta maila)	Aldagaiak eta ebaluazio tresnak	Emaitzak
Hazzenbuehler, Keyes eta McLaughli (2011)	Testuinguru sozialak LGB pertsonen gaixotasun mentalen garapenean duen eragina aztertu.	N = 577 pertsona LGB eta 34.076 heterosexual (18 urte baino gehiago) Oregon (AEB)	<b>Zoritar ekonomikoa:</b> Ad-hoc. <b>Bakartze soziala:</b> Social Network Index (Grant, et al., 2009). <b>Estatu bakoitzeko bikote homosexualen koputua:</b> estatu bakoitzeko 2000ko erroidak. <b>Osasun mentala:</b> <i>Alcohol Use Disorder and Associated Disabilities Interview Schedule-IV</i> (Grant, Dawson eta Hasin, 2001).	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Bikote homosexual gehiago bizi diren estatuetan bizi diren LGB pertsonen depresio eta estatus maila txikiagoak erakusten dituzte.</li> <li>✓ Bikote homosexual gehiago bizi diren estatuetan, maila ekonomikoa ona eta sostengu soziala osasun mental hobea goarekin erlazionatuta daude.</li> </ul>
Marshal et al. (2011)	LGB pertsonen eta heterosexualen artean depresio eta suizidio mailak konparatzen dituzten azterlanen errebisioa burutu.	N = 32 ikerketa	<b>Meta-analisisa.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Depresio sintoma eta suizidio maila handiagoak LGB pertsonetan pertsona heterosexualekin alderatuz.</li> </ul>
Shields, Whitaker, Glassman, Franks eta Howard (2012)	Biktimizazioa, orientazio sexuala eta suizidio arriskuarekin zerikusia duten emaitzen arteko erlazioa aztertu.	N = arrisku portaera duten 2.154 gazte Kalifornia (AEB)	<b>Ad-hoc.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ LGB pertsonen heterosexual baina sustantzien kontsumo eta suizidio arrisku maila handiagoak erakusten dituzte.</li> </ul>
Auer et al. (2013)	Pertsona transexualen eta zisgeneroen artean profil	N = tratamendu hormonalak jasotzen ari diren 84 transexual eta 356 pertsona	<b>Sintoma psikopatologikoak:</b> <i>SCL-90-R</i> (Derogotis, 2002).	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Pertsona transexualen sintoma psikopatologikoen maila handiagoak erakusten dituzte SCL-90 eskalaren azpieskala guztietan pertsona zisgeneroekin alderatuz.</li> <li>✓ Emakume transexualen depresio maila handiagoak erakusten dituzte gizon transexualekin alderatuz.</li> </ul>



3. Kapituluua. Osasun mentala eta nortasun ezaugarriak

Autoreak eta urtea	Ikerketaren helburua	Lagina (adina eta maila)	Aldagaiak eta ebaluazio tresnak	Emaitzak
	psikopatologikoa alderatu.	zigenero (18 urte baino gehiago) Alemania		
Pineda-Roa (2013)	Barneratutako homofobiaren eta suizidio ideiatza eta saiakeren arteko erlazioa aztertu LGB pertsonetan.	Azken 5 urteetako artikuluak.	<b>Errebisio bibliografikoa.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Barneratutako homofobia suizidio ideiatza eta saiakerekin erlazionatuta dago LGB pertsona helduetan.</li> <li>✓ Ikerketa batzuek erakutsi dute suizidio ideiatza eta saiakera erlazionatuta daudela larritasuna, depresioa eta estutasuna pairatzeko arriskuarekin LGB pertsonetan.</li> </ul>
Lyle, De Luca eta Blosnich (2014)	Depresioan, suizidio ideiatza eta norik bere burua zauritzean desberdintasunak aztertu arraza eta etniaren arabera LGB pertsonetan.	N = 89.199 (18-24 urte) AEB	<b>Ad-hoc.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Arraza eta etnia talde guztietako LGB diren pertsonetan, prebalentzia handiegia dago depresio, suizidio ideiatza/saiakera eta norik bere burua zauritzean</li> </ul>
Reisner, Greytak, Parsons eta Ybarra (2015)	Gutxiengo sexualen eta zigeneroen artean drogen	N = 5.542 (13-18 urte) (442 transexualak edo	<b>Ad-hoc.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Pertsona transgenero eta transexualak marihuana, alkohol eta ilegalak diren drogen kontsumo gehiago erakusten dute pertsona zigeneroekin alderatuz.</li> </ul>

Bullying LGTB-fobikoa Euskal Herriko nerabeetan

Autoreak eta urtea	Ikerketaren helburua	Lagina (adina eta maila)	Aldagaiak eta ebaluazio tresnak	Emaitzak
Bouris, Everett, Heath, Elsaesser eta Neilands (2016)	Suizidio ideagintza, planifikazio eta saiakeraren eta eskola hutsegiteen prebalentzia aztertu ez-normatiboan den orientazio sexualeko pertsonetan.	N = arrisku jarriak dituzten 1.907 gazte Chicago (AEB)	<b>Ad-hoc.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Ideagintza suizidaren (% 27,95), suizidio planifikazioaren (% 22,78) eta suizidio saiakeraren (% 29,9) ehuneko handiagoak ez-normatiboan den orientazio sexuala duten pertsonetan.</li> <li>✓ Eskola hutsegite gehiago pertsona ez-heterosexualetan, heterosexualekin alderatuz gero.</li> </ul>
Dickenson eta Huebner (2016)	Sostengu familiararen arabera, jarduera sexualek depresio sintometan duten eragina aztertu ez-normatiboan den orientazio sexuala duten edo azken urtean sexu bereko pertsonekin harreman sexualak eduki dituzten pertsonetan.	N = 519 nerabe ez-heterosexualek, azken urtean sexu bereko pertsonekin harreman sexualak mantendu zituztelarik (14-19 urte) AEB	<p><b>Sostengu familiarra:</b> <i>Family subscale de Multidimensional Scale of Perceived Social Support</i> (Zimet, Dahlem, Zimet eta Farley, 1988).</p> <p><b>Jarduera sexuala:</b> Ad-hoc.</p> <p><b>Depresioa:</b> <i>Center for Epidemiology Scale for Depression (CES-D)</i> (Radloff, 1977).</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Familiaren sostengua duten eta beste neskekin sexu harreman gehiago izan dituzten neskek depresio maila txikiagoak erakusten dituzte.</li> <li>✓ Familiaren sostengu eta beste mutlekin harreman sexual gehiago dituzten mutlek depresio sintoma gehiago erakusten dituzte (espero ez zen emaitza).</li> </ul>

3. Kapituluua. Osasun mentala eta nortasun ezaugarriak

Autoreak eta urtea	Ikerketaren helburua	Lagina (adina eta maila)	Aldagaiak eta ebaluazio tresnak	Emaitzak
Puckett et al. (2016)	Ongieja psikologikoa eta suizidioa aurreikusi dezaketen aldagai intrapersonalak aztertu LGB gazteetan.	N = 61 LGB (14-23 urte) AEB	<p><b>Ad-hoc.</b>  <b>Tratu txar psikologikoak:</b> <i>The Psychological Maltreatment Scale</i> (Briere eta Runtz, 1988).  <b>Heterosexismo barneratua:</b> <i>Homosexuality Attitudes Inventory</i> (Shidlo, 1994).  <b>Osasun mentala:</b> <i>CES-D y Brief Symptom Inventory</i> (Derogatis, 1975).</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ LGB zirela onartu zutenean, lagunak galdi zituzten gazteek 29 aldiz suizidio saiakera maila handiagoak erakutsi zituzten.</li> <li>✓ Tratu txar psikologikoak adierazi zituzten gazteek 9,5 aldiz suizidio saiakera maila handiagoak erakutsi zituzten.</li> <li>✓ Barneratutako heterosexismoa, erri sentimendua eta tratu txar psikologikoek depresio eta estutasun sintomak aurreikusten dituzte.</li> </ul>
Semlyen, King, Varney eta Hegger (2016)	Identitate eta orientazio sexualaren eta osasun mentalaren arteko erlazioa aztertu.	N = 9.798 pertsona heterosexual, 152 homosexual, 201 bisexual (25-75 urte) Ingalaterra	<p><b>Osasun mentala:</b> <i>General Health Questionnaire-12</i> (Goldberg et al., 1997)</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Gay edo lesbiana bezala identifikatzen diren pertsonen osasun mental maila baxuagoak erakutsi zituzten.</li> <li>✓ Bisexuala izatea osasun mental okerragoarekin erlazionatuta dago heterosexuala izatearekin alderatuz gero.</li> </ul>
Warren, Smalley eta Barefoot (2016)	Ongizate psikologikoa alderatu emakume transgenero, gizon transgenero, queers eta LGB transgeneroen artean.	N = 2.932 ez-zisgenero (bataz-beste adina 28,9 urte) AEB	<p><b>Osasuna:</b> Ad-hoc.  <b>Depresioa eta estutasuna:</b> <i>Depression anxiety stress scale 21</i> (Brown, Chorpta, Korolitsch eta Barlow, 1997).  <b>Sostengu soziala:</b> <i>Multidimensional scale of perceived social support</i> (Zimet, Powell, Farley, Werkman eta Berkoff, 1990).  <b>Autoestima:</b> <i>Rosenberg self-esteem scale</i> (Rosenberg, 1965).</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Ez-zisgeneroek ongieja psikologiko maila handiagoak erakusten dituzte LGB pertsona zisgeneroekin alderatuz.</li> <li>✓ Emakume transgeneroek ongieja psikologiko maila handienak erakusten dituzten pertsonak dira.</li> </ul>

Bullying LGTB-fobikoa Euskal Herriko nerabeetan

Autoreak eta urtea	Ikerketaren helburua	Lagina (adina eta maila)	Aldagaiak eta ebaluazio tresnak	Emaitzak
Perez-Brumer, Day, Russel eta Hatzenbuehler (2017)	Suizidio ideiatzaren prebalentzia aztertu pertsona transgeneroetan. Erlazio honetan faktore psikosozialen eragina aztertu.	N = 280 ikasle transgenero eta 25.213 ez-trasgénero (bataz-beste adina: 15 urte) Kalifornia (AEB)	<b>Ad-hoc.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Gazte transgeneroek suizidio ideiatzaren bi aldiz prebalentzia handiagoa erakusten dute gazte ez-transgeneroekin alderatuz.</li> <li>✓ Depresioak positiboki korrelatzen du suizidio ideiatzarekin.</li> </ul>
Demant, Hides, White eta Kavanagh (2018)	Sustantzien kontsumoaren prebalentzia aztertu LGTB pertsonetan.	N = 31 LGB (14-35 urte) y LGTB komunitatearen 14 pertaide (18 urte baino gehiago) Australia	<b>Online galdetegi eta elkarrizketa kualitatibo bidez.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ LGTB komunitatearen partaideen eta LGB pertsonen haurdarearen arabera sustantzien kontsumoa handiagoa da LGTB pertsonen artean heterosexualekin alderatuz.</li> <li>✓ Sustantziak kontsumitzeko arrisku faktoreak hauek dira: berdinek egindako presio soziala eta sustantzien kontsumoaren agerpen handiagoa LGTB pertsonen artean.</li> <li>✓ Diskriminazioa, osasun mentala eta isolamendua ere arrisku faktoreak dira.</li> </ul>
Luong, Rew eta Banner (2018)	Suizidio saiakeran eta ideiatzaren eragina duten faktore babese eta arrisku faktoreak aztertu beste gizonen sexu harremanak mantentzen dituzten gizonetan.	N= 14 artikulua	<b>Errebisio sistematikoa.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Beste gizonen sexu harremanak dituzten gizonen % 10 - % 71 bitarte suizidio ideiak ditu.</li> <li>✓ Beste gizonen sexu harremanak dituzten gizonen % 4 - % 44,2 suizidatzen saiatu da.</li> <li>✓ Arrisku faktoreak: harreman sexual goiztiarrak, sustantzien kontsumo edota gehiegizko kontsumoa, gurasoengandik abusuak pairatzea, indarkeriari beldurra edukitzea, etxerik ez edukitzea, eskolan matrikulatua ez egotea.</li> <li>✓ Faktore babeseak: LGTB pertsonen estereotipo positiboak, sendeengatik onartuak izatea, berdinen eta eskolaren sostengua, autoestima altua edukitzea eta aurre egiteko mekanismo egokigarriak edukitzea.</li> </ul>

3. Kapituluua. Osasun mentala eta nortasun ezaugarriak

Autoreak eta urtea	Ikerketaren helburua	Lagina (adina eta maila)	Aldagaiak eta ebaluazio tresnak	Emaitzak
McDermott, Hughes eta Rawlings (2018)	Suizidioa eta norik bere burua zauritzean erabakigarriak izan daitezkeen faktore sozialak aztertu LGTB pertsonetan.	N = 789 LGTB (13-25 urte) Ingalaterra	<b>Elkarrizketa kualitatibo eta online galdetegi baten bidez.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Homofobia, bifobia eta transfobia sentitzen duten eta emozioez hitz egiteko zailtasunak dituzten LGTB pertsonen suizidio planifikazio eta saiakera puntuazio altuagoak erakusten dituzte.</li> <li>✓ Pertsona transgeneroek bere burua zauritzeko joera handiagoa eta suizidio planifikazio eta saiakera maila handiagoak erakusten dituzte.</li> </ul>
Platt eta Scheitle, (2018)	Orientazio sexuala, arraza eta generoaren eta ongiezia psikologikoaren arteko interakzioa aztertu.	N = 99.082 partaide (bataz besteko adina 46,8 urte) AEB	<b>Ongiezia psikologikoa: The Kessler Psychological Distress K6 scale (Kessler et al., 2002).</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Ongiezia psikologiko gehiago LGB pertsonen artean.</li> </ul>

Lehenago burutu den atalean, bullying LGTB-fobikoa osasun mentalekin erlazionatu da, honek gizarte osoarentzat oso kaltegarriak izan daitezkeen datuak agerian utziz, ezin baita ahaztu fenomeno honek populazio guztiari eragiten diola. Baina honez gain, eta 2. Koadroan ikusi ahal izan den bezala, kontuan hartu behar da LGTB kolektiboak osasun mentaleko gaixotasunak garatzeko kalteberatasun handiagoa duela.

Orokorrean, Semlyen et al. (2016) autoreek baieztatu dute gay, lesbiana eta bisexuala bezala identifikatzen diren pertsonen osasun mental maila txikiagoak erakusten dituztela pertsonen heterosexualekin alderatuz. Zehazki, ebidentziak frogatu du suizidio saiakeren prebalentzia pertsona heterosexualetan baino altuagoa dela LGTB pertsonetan (Bouris et al., 2016; King et al., 2008; Lytle et al., 2014; Mayock et al., 2009; Marshal et al., 2011; Perez-Brumer et al., 2017; Puckett et al., 2016; Silenzio et al., 2017; Shields et al., 2012), pertsona transgenero eta transexualek suizidio maila handienak azalduz (McDermott et al., 2018; Mayock et al., 2009; Pérez-Brumer, 2017), ondoren, gayak eta bisexualak eongo direlarik (King et al., 2008). Gainera, Lytle et al. (2014) autoreen arabera, datu hauek orokortu egin daitezke, beraien ikerketan aurkitu baitzuten LGB pertsonen etnia eta arraza talde guztietan suizidio ideagintza eta saiakera maila handiagoak erakusten zituztela. Zenbakizko datuak emateko asmoz, zenbait ikerketek erakutsi dute ez-normatiboa den orientazio sexuala duten pertsonen % 4 eta % 44,7 bitartek bere buruaz beste egiteko ideiak eduki dituela (Bouris et al., Luong et al., 2018), % 71 planeatzera iritsi dela (Bouris et al., 2016; Luong et al., 2018) eta % 4 eta % 44,2 artean suizidatzen saiatu dela (Bouris et al., 2016; Luong et al., 2018).

Puckett et al. (2016) autoreek aurkitu zuten, alde batetik, orientazio sexuala onartu zutenean lagunak galdu zituzten gazteek 29 aldiz suizidio saiakera maila handiagoak erakutsi zituztela egoera hori bizi izan ez zuten LGB gazteekin alderatuz. Bestalde, tratu txar psikologikoak pairatu izana aditzera eman zuten LGB partaideek suizidio saiakeren eskalan 9,5 aldiz puntuazio altuagoak eduki zituzten. Errebisio baten bidez egindako ikerketa batean, Pineda-Roa (2013) ikerlariak barneratutako homofobia aipatzen du. Badirudi, barneratutako homofobia, estutasuna, depresioa eta larritasuna sufritzeko kalteberatasuna erakusten duten LGB pertsonen suizidio saiakera eta ideagintza maila handiagoak erakusten dituztela. Azkenik, Luong et al. (2018) autorek errebisio sistematiko batean, suizidio saiakera eta ideagintzan eragina duten faktore babesle eta arrisku faktoreak deskribatu zituzten gizonen harreman sexualak

mantentzen zituzten gizonetan. Errebisatutako artikuluen artean aurkitu zuten kolektibo honetan suizidioaren arriskua murrizteko inguru sozialaren sostengua ezinbestekoa dela.

Beste ikerketa batzuek LGTB kolektiboaren eta osasun mentaleko aldagaien inguruko datuak agertzen dituzte. Hauetan ikusi da LGB pertsonen depresioa pairatzeko (King et al., 2008; Lytle et al., 2014; Marshal et al., 2011), distres psikologikoa izateko (Platt eta Scheitle, 2018), alkohola eta beste sustantzia ilegalak kontsumitzeko (Demant et al., 2018; King et al., 2008) eta estatusun arazoak garatzeko (King et al., 2008) arrisku handiagoa dutela. Era berean, ebidentzia zientifikoak adierazten du depresioak (Pérez-Brumer et al., 2017) eta drogen kontsumoak LGB pertsonen eta suizidioaren arteko erlazioa areagotzen dutela (Silenzio et al., 2007).

Genero/sexu identitate ez-normatiboa duten pertsonen kolektiboari dagokionez, azpimarragarria da lortzen zaila den kolektiboa dela eta horregatik, ikerketa gutxiago existitzen direla. Hala eta guztiz ere, Ybarra (2015) autoreak berretsi du kolektibo honek drogen eta alkoholaren kontsumo maila handiagoak azaltzen dituela pertsona zisgeneroekin alderatuz. Horrez gain, Auer et al. (2013) autoreek populazio honek sintoma psikopatologiko maila handiagoak erakusten dituztela adierazi dute, normatiboa den genero/sexu identitatea duten pertsonekin alderatuz gero. Azkenik, Warren et al. (2016) autoreek agerian utzi dute pertsona transgeneroek ongieza psikologiko maila handiagoak erakusten dituztela normatiboa den genero identitatea duten LGB pertsonekin konparatuz.

Ikerketa lerro honetan, LGTB pertsonen eta osasun mentalaren arteko erlazioa eta erlazio hau murriztu edo areagotu dezaketen aldagaiak aztertu dira. Testuinguru honetan, Puckett et al. (2016) ikerlariek egindako lanean ondorioztatu dute barneratutako heterosexismoa, erru eta lotsa sentimenduak eta tratu txar psikologikoen depresioa eta estatusuna pairatzeko arriskua areagotzen dutela LGB gazteetan. Era berean, inguru sozialaren garrantziari dagokionez, ez-normatiboa den orientazio sexuala duten pertsonen ehuneko handiagoak dauden estatuetan bizi diren LGB pertsonen, estatusun eta depresio eskaletan puntuazio baxuagoak dituztela ikusi da, aniztasun sexualaren ehuneko txikiagoa duten estatuetan bizi diren LGB pertsonekin alderatuz gero (Hatzenbuehler et al., 2011). Gainera, Demant et al. (2018) autoreek aurkitu zuten LGTB pertsonen pairatzen duten presio sozialak eragin handia duela sustantzien kontsumoan.

Amaitzeko, sare-sozialen garrantzia aipatu beharra dago. Hari honetara, sostengu sozialak (Hatzenbuehler et al., 2011), senideen sostenguak eta harreman sexualen zenbatekoak (Dickenson eta Huebner, 2016) osasun mentaleko zenbait gaitz pairatzeko arriskua murrizten

dute, depresioa adibidez. Aurkakoagatik, Dickenson eta Huebner (2016) ikerlariak espero ez zuten emaitza batekin topatu ziren, erlazio hau bakarrik nesketan aurkitu baitzuten. Senideen sostenguan eta harreman sexualen zenbatekoetan puntuazio altuagoak zituzten partaideek depresio maila handiagoak erakutsi zituzten. Azken datu honengatik, ikerketa lerro honetan ikertzen jarraitzeko beharra frogatu egin da.

### **3.2 Nortasun ezaugarriak LGTB pertsonetan: errebisio bat**

Osasun mentalarekin egin den modu berean, atal honetan, bullying LGTB-fobikoaren biktima eta erasotzaile izan diren pertsonen nortasun ezaugarri esanguratsuen inuguruan eta nortasun ezaugarrien eta LGTB kolektiboaren inguruan hitz egiten duten artikulua aurkeztuko dira. Aurkikuntza garrantzitsuen azterlanak modu sistematikoan identifikatzeko eta aztertzeko asmoz, bilaketa honako datu base hauetan burutu da: Scopus, WebOfScience eta ERIC. Errebisio hau hurrengo hitzak erabiliz egin da: LGTB, ongizatea, enpatia, autoestimua, adimen emozionala, asebetetzea eta zoriontasuna tituluan, laburpenean edo hitz gakoan. Modu honetan, 5 artikulua aurkitu dira nortasun ezaugarriak eta bullying LGTB-fobikoa erlazionatzen dutenak eta nortasun ezaugarrien eta LGTB kolektiboaren inguruan hitz egiten duten 8 ikerketa topatu dira. Identifikatutako azterlanen datuekin, ondorengo informazioa erakusten duen 3. Koadroa eratu da: autoreak eta argitalpen urtea, helburuak, ebaluatutako aldagaiak eta ebaluazio tresnak eta emaitzen laburpena.



3. Koadroa. Nortasun ezaugarriak eta LGTB: errebisio bat

Autoreak eta urtea	Ikerketaren helburuak	Lagina (adina eta maila)	Aldagaiak eta ebaluazio tresnak	Emaitzak
<b>Nortasun ezaugarriak eta bullying LGTB-fobikoa</b>				
Poteat eta Espelage (2005)	Irain homofoboaren eta enpatiararen arteko erlazioa aztertu.	N = 207 (8. maila) AEB	<b>Irain homofoboak:</b> <i>Homophobic Content Agent Target Scale</i> (Poteat eta Espelage, 2005). <b>Biktimizazioa eta erasoak:</b> Ad-hoc. <b>Empatia:</b> <i>Perspective taking scale</i> (Davis, 1983) eta <i>Empathic Concern</i> (Davis, 1983).	✓ Enpatia puntuazio altua duten partaideek irain homofobo gutxiago esaten dituzte.
Blais, Gervais eta Hébert (2014)	Autoestimua, barneratutako homofobiaren eta bullying homofoboaren arteko erlazioa aztertu.	N = gutxiengo sexuareko 300 gazte (14-22 urte) Kanada	<b>Bullying homofobo, psikologikoa eta ahozkoa:</b> ikerketa batean oinarritutako galdetegiak (Chamberland, Émond, Julien, Otis eta Ryan, 2011). <b>Autoestimua:</b> <i>Self-Description Questionnaire</i> (Marsh y O'Neill, 1984) galdetegi 4 item. <b>Barneratutako homofobia:</b> <i>the Lesbian, Gay, and Bisexual Identity Scale</i> (Mohr y Fassinger, 2000) eskalako 4 item.	✓ Bullying homofoboak autoestimuan eragiten du eta erlazio honetan barneratutako homofobiak eragiten du.
Martxueta (2014)	Sostengu sozialaren eta nor bere burua onartzearen eta ongizate psikologikoaren arteko erlazioa aztertu LGTB pertsonetan.	N = 119 LGB (17-57 urte) Espainia	<b>Bullying:</b> <i>de Olweus BullyVictim Questionnaire</i> (Rivers, 2000). <b>Orientazio sexualaren inguruko bazterkeriarekiko sentikortasuna:</b> <i>Social Situation Scale</i> (McDonald, 1984) eskalaren egokitzapena. <b>Familiak eta lagunek orientazio sexuala onartzea:</b> Elizur eta Mintzer (2003) autoreek egokitutako eskala. <b>Senideen eta lagunen sostengua:</b> Procidano eta Heller (1983) autoreen PSS-Fa eta PSS-FR.	✓ Bullying homofoboak negatiboki korrelazionatzen du ongizate psikologikoarekin. ✓ Nor bere burua onartzeak eta sostengu sozialak positiboki korrelazionatzen du ongizate psikologikoarekin LGB pertsonetan eta bullying homofoboa sufritu zuten pertsonetan.

Bullying LGTB-fobikoa Euskal Herriko nerabeetan

Autoreak eta urtea	Ikerketaren helburuak	Lagina (adina eta maila)	Aldagaiak eta ebaluazio tresnak	Emaitzak
Martxueta eta Etxeberria (2014)	Haurtzaroan edota nerabezaroan LGTB pertsonen sufritutako egoera estresagarri batek autoestiman eragin negatiboak dituen aztertu.	N = 119 LGTB (17-57 urte) Espainia	<b>Bullying homofobia:</b> Olweus BullyVictim Questionnaire (Rivers, 2000) galdetegiaren bertsio egokitu. <b>Genero identitate:</b> Bem Sex-Role Inventory (Bem, 1974). <b>Autoestimua:</b> Escala de Rosenberg (Rosenberg, 1985).	✓ Nerabezaroan edota haurtzaroan sufritutako bullyinga autoestimu maila txikiekin erlazionatuta dago LGTB pertsonetan.
Caminos eta Quentrequo (2015)	Bullying homofoboak autoestiman duen eragina aztertu genero ikuspegi batetik ez-normatiboa den orientazio eta identitate sexuala duten pertsonetan.	N = 220 LGTB (18-23 urte) Argentina	<b>Autoestimua:</b> Escala de Autoestima de Rosenberg (Rosenberg, 1985) <b>Heteronormatibitatea:</b> Ad-hoc. <b>Bullying Homofobia:</b> Caminos eta Quentrequo (2015) autoreek egokitutako eskala.	✓ Iraganean jasandako jazarpenak eta ziberjazarpenak negatiboki korrelazionatzen du autoestimuekin LGTB pertsonetan.
<b>Nortasun ezaugarriak LGTB pertsonetan</b>				
Riggle, Rostovsky eta Danner (2009)	LGB pertsonen zoriontasunaren faktore prediktoreak aztertu.	N = 3.455 pertsona heterosexual, 47 bisexual eta 50 homosexual (25-74 urte) AEB	<b>Hautemandako diskriminazioa:</b> Ad-hoc. <b>Hautemandako origizatea:</b> Scales of Psychological Well-Being (PWB; Ryff, 1989) eskalaren bertsio murriztua.	✓ LGB pertsonen ongizate maila txikiagoa erakusten dute. ✓ Ongizate maila txikiekin erlazionatutako aldagaiek diskriminatua izatea, emakumea izatea eta hezkuntza maila baxua edukitzea.

3. Kapituluua. Osasun mentala eta nortasun ezaugarriak

Autoreak eta urtea	Ikerketaren helburuak	Lagina (adina eta maila)	Aldagaiak eta ebaluazio tresnak	Emaitzak
Perry, Walder, Hendler eta Shamay-Tsoory (2013)	Lehentasun sexualak enpatian duen eragina aztertu.	N = 52 (22-36 urte) Israel	<b>Neuroirudia.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Enpatia mailak aidatu egiten dira generoaren arabera.</li> <li>✓ Emakume homosexualak heterosexualek baino enpatia maila txikiagoak erakusten dituzte</li> <li>✓ Gizon homosexualak heterosexualek baino enpatia maila handiagoak erakusten dituzte.</li> </ul>
Marxueta (2014)	Sostengu sozialak eta bakoitzak bere orientazio sexuala onartzeko zailtasunak ongiza psikologikoan duten eragina aztertu LGB pertsonetan.	N = 119 LGB (17-57 urte) Espainia	<p><b>Bullying:</b> Olweus Bully/Victim Questionnaire (Rivers, 2000) galdegiaren egokitzapena.</p> <p><b>Orientazio sexualarekiko arbuioaren onarpen maila:</b> <i>Social Situation Scale</i> (McDonald, 1984) eskalaren egokitzapena.</p> <p><b>Senideek eta lagunek orientazio sexualarekiko duten onarpenaren hautematea:</b> Elizur y Mintzerrek, 2003 egokitutako eskala.</p> <p><b>Hautemandako lagun eta senideen sostengua:</b> Procidano eta Hellerren (1983) <i>PSS-Fa</i> eta <i>PSS-FR</i>.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Bikotea duten LGB pertsonak ongizate psikologiko maila handiagoa dute.</li> </ul>
Kleiman, Spanierman eta Smith (2015)	Enpatia mailak eta arrazen aniztasunaren aurreko jarrerak alderatu LGTBQ pertsonen eta heterosexualen artean. Diskriminazio sexistak erlazio honetan duen eragina aztertu.	N = 97 heterosexual (bataz besteko adina 20,28 urte), eta 83 LGTBQ (bataz besteko adina 25,95 urte) Kanada	<p><b>Arrazakeria:</b> <i>Color-Blind Racial Attitudes Scale</i> (CoBRAS; Neville, Lilly, Duran, Leeetay Browne, 2000).</p> <p><b>Erru-txuria:</b> <i>Psychosocial Costs of Racism to Whites scale</i> (PCRW; Spanierman eta Heppner, 2004) azpieskalaren 5 item.</p> <p><b>"Lehentasun txuritari" aurre egiteko borondatea:</b> <i>White Privilege Attitudes Scale</i> (WPAS; Pinterits, Poteat eta Spanierman, 2009).</p> <p><b>Arraza-enpatia:</b> <i>the Scale of Ethnocultural Empathy</i> (SEE; Wang et al., 2003).</p> <p><b>Gutxinengo sexualak dituzten erroinkak:</b> <i>Heterosexist Harassment, Rejection, and Discrimination Scale</i> (HHRDS; Szymanski, 2006, 2009) eta <i>Outness Inventory</i> (Mohr eta Fassinger, 2000)</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ LGTBQ partaideek arraza aniztasunaren aurrean jarrera positiboagoak eta enpatia maila handiagoak erakutsi zituzten pertsona heterosexualekin alderatuz.</li> <li>✓ Jarrera heterosexista maila handiagoak pairatu zituzten pertsonak arraza aniztasunaren aurrean jarrera positiboagoak eta arraza-enpatia maila handiagoak erakutsi zituzten.</li> </ul>

Bullying LGTB-fobikoa Euskal Herriko nerabeetan

Autoreak eta urtea	Ikerketaren helburuak	Lagina (adina eta maila)	Aldagaiak eta ebaluazio tresnak	Emaitzak
Powdthavee eta Wooden (2015)	Bizitzarekiko asebetetzean eragin dezaketen faktoreak aztertu gutxienengo sexuaretan.	N = 12.388 (16 urte baino gehiago). % 16,2 ez-heterosexuak. Australia eta Ingalaterra	<b>Bizitzarekiko asebetetzea:</b> Ad-hoc.	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ LGB pertsonen bizitzarekiko asebetetze maila txikiagoak erakusten dituzte pertsona heterosexualekin konparatuz.</li> <li>✓ Lana, maila ekonomiko ona, sare sozial onak, bikotea, seme-alabak eta hezkuntza maila ona edukitzeak eta hezkonduta egoteak bizitzarekiko asebetetze maila areagotzen du LGB pertsonetan.</li> </ul>
Semlyen, King, Varney eta Hagger (2016)	Identitate eta orientazio sexualaren eta ongizate maila txikiaren arteko erlazioa aztertu.	N = 9.798 heterosexuak, 152 homosexuak, 201 bisexualak (25-75 urte) Ingalaterra	<b>Ongizatea:</b> <i>Warwick-Edinburgh Mental Wellbeing Scale</i> (Tennant et al., 2007).	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ LGB pertsonen heterosexualek baino ongizate maila txikiagoa dute.</li> </ul>
Thomeer eta Reezek (2016)	Zoriontasunaren maila desberdindu LGTB pertsonen eta heterosexuaren artean.	N = 6.433 pertsona heterosexuak, 115 homosexuak eta 132 bisexualak (18 urte baino gehiago) AEB	<b>Ad-hoc.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ LGB izateak negatiboki korrelazionatzen du zoriontasunarekin.</li> </ul>
Barringer eta Gay (2017)	Zoriontasunaren eta erlijioso izatearen arteko erlazioa aztertu LGTB pertsonetan.	N = 1.156 LGTB (20 urte baino gehiago) AEB	<b>Ad-hoc.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Katoliko, agnostiko eta ateo identifikatzen diren LGTB pertsonak edo erlijio zehatz bat ez duten pertsonen zoriontasun maila txikiagoa erakusten dute pertsona protestantekin konparatuz.</li> <li>✓ Diru-sartze kopuru handiena duten LGTB pertsonak zoriontasun maila handiagoak erakusten dituzte.</li> </ul>

Jarraian, egindako errebisioaren bidez aurkitutako emaitzak laburbilduko dira. Horretarako, lehenengo bullying LGTB-fobikoa eta nortasun ezaugarriak erlazionatzen dituzten aurkikuntzak aurkeztuko dira eta azkenik, LGTB kolektiboaren nortasun ezaugarrien inguruan aurkitutako artikuluen emaitzez hitz egingo da.

### **3.2.1 Bullying LGTB-fobikoa eta nortasun ezaugarriak**

Nortasun ezaugarriaren aldagaiari dagokionez, errebisioak ebidentzia zientifikoan hutsegite nabarmen bat dagoela erakutsi du. Enpatiaren kasuan, 8. mailako ikasleen artean irain homofoboak aztertzea helburutzat zuen ikerketa batean, Poteat eta Espelage (2005) autoreek agerian utzi zuten enpatia maila handiagoak erakusten zituzten ikasleek irain homofoboak maiztasun gutxiagorekin erabiltzen zituztela.

Beste autore batzuek bullying LGTB-fobikoak biktimetan duen eragina aztertzean interesatu dira. Atzera begirako ikerketa batean, Martxueta eta Etxeberria (2014) ikerlariak berretsi zuten haurtzaroan edota nerabezaroan bullying LGTB-fobikoa sufritzeak autoestimuan eragin negatiboa duela. Hari honetara, Caminos eta Quentrequeok (2015) ondorio berdinerira iritsi ziren. Autore hauek ikusi zuten iraganean jazarpen mota honen biktima izateak negatiboki eragiten duela autoestimuan. Blais, Gervais eta Hébert (2014) autoreek beraien aldetik, barneratutako homofobiak erlazio honetan eragiten duela baieztatu zuten. Izan ere, bullying LGTB-fobikoa sufritu zuten eta, horrez gain, barneratutako homofobia maila handiak zituzten pertsonen autoestima maila txikiagoak azaldu zituzten, barneratutako homofobian puntuazio baxuagoak zituzten pertsonekin alderatuz.

Azkenik, badirudi jazarpen homofoboak ongizate psikologikoan eragiten duela. Martxuetak (2014) aurkitu zuen bizitzan zehar bullying LGTB-fobikoa sufritu zutela adierazi zuten pertsonen ongizate psikologiko maila txikiagoak erakusten dituztela. Erlazio hau nork bere burua onartzearen arabera eta sostengu emozionalaren arabera aldatzen da, bi faktore hauek ongizate psikologikoan positiboki eragiten dutelarik.

### 3.2.2 Nortasun ezaugarriak LGTB kolektiboan

LGTB pertsonen nortasun ezaugarriei dagokienez, heterosexuaren eta LGTB pertsonen artean alderatu den aldagai bat enpatia izan da. Testuinguru honetan, Kleiman et al. (2015) ikerlariak egindako azterlanean, ez-normatiboa den orientazio afektibo-sexuala duten pertsonen populazio heterosexuala eta zisgeneroa baino enpatikoagoak direla agerian utzi zen. Hala eta guztiz ere, aipagarria da arlo honen emaitzetan kontraesanak aurkitu direla. Izan ere, Perry et al. (2013) autoreek orientazio sexualaren arabera enpatiaren mailak konparatu zituztenean, sexu maskulinoan bakarrik aurkitu zuten emaitza berdina. Ikerketa honetako emaitzek agerian utzi dute emakume homosexualek emakume heterosexualek baino enpatia maila txikiagoak dituztela.

Hari honetara, LGTB kolektiboak arraza aniztasunaren aurrean dituzten jarrerak aztertzea helburutzat zuen ikerketa batean, Kleiman et al. (2015) ikerlariak aurkitu zuten ez-normatiboa den orientazio afektibo-sexuala duten pertsonen jarrera positiboagoak edukitzen dituztela arraza desberdinetako pertsonen aurrean. Horrez gain, ikerketa honek frogatu zuen bizitzan zehar jarrera diskriminatzaile homofoboak sufritu zituzten LGTB pertsonen arraza-enpatia maila handiagoa eta aniztasun kulturalaren aurrean jarrera positiboagoak erakusten zituztela.

Ikertutako beste aldagaiak ongizatea, zorientasuna eta bizitzarekiko asebetetzea izan dira. Alde batetik, ikerketa batzuek adierazten dute LGB pertsonen ongizate maila txikiagoak dituztela pertsona heterosexualekin alderatuz gero (Riggle et al., 2009; Semlyen et al., 2016). Martxuetak (2014) bere ikerketan erlazio honetan sakondu nahi izan zuen eta ikusi ahal izan zuen diskriminatuak izan ziren, emakume ziren eta hezkuntza maila baxuagoa zuten LGB pertsonen ongizate maila txikiak erakusten zituzten pertsonak zirela. Bestalde, badirudi LGB pertsonen bizitzarekiko asebetetze gutxiago dutela (Powthavee eta Wooden, 2015) eta zorientasun gutxiago sentitzeko joera dutela pertsona heterosexualekin konparatuz (Thomeer eta Reezek, 2016).

Azkenik, dirudienez, LGB izatearen eta bizitzarekiko asebetetzea eta zorientasunaren arteko erlazioan beste aldagai batzuk eragiten dute. Lehenik eta behin, Powthavee eta Wooden (2015) autoreek aurkitu zuten lana, maila ekonomiko ona, bikotea, seme-alabak eta hezkuntza maila ona edukitzeak eta ezkontuta egoteak bizitzarekiko asebetetze maila areagotzen dutela

LGB pertsonetan. Bigarrenik, Barringer eta Gay (2017) autoreek ikusi zuten maila ekonomiko altuena eta protestante moduan identifikatzen ziren LGTB pertsonen zorientasunaren eskalan puntuazio altuagoak lortzen zituztela maila ekonomiko okerragoa zuten eta katoliko, agnostiko eta ateo kontsideratzen edo erlijio zehatzik ez zuten pertsonekin alderatuz.





---

## **4. KAPITULUA**

### **IKERKETAREN HELBURU ETA HIPOTESIAK**

---



#### 4. KAPITULUA. IKERKETAREN HELBURU ETA HIPOTESIAK

Aurretik egindako azterlanen emaitzak kontuan hartuz, lan honek 15 hipotesi dituzten bi helburu proposatzen ditu.

**1. HELBURUA:** 13-17 urte bitarteko nerabeek bizitzan zehar, sufritu edota burututako bullying eta cyberbullying LGTB-fobikoaren prebalentzia aztertu, bullying eta cyberbullying orokorraren prebalentziaren testuinguruaren barruan, prebalentzia orokorraren datuak Euskal Herrian lehenago egindako ikerketa batean identifikatu direlarik (Garaigordobil, 2013). Era osagarrian, nerabeek eskoletan aniztasun sexualaren aurrean dituzten jarrerak ebaluatu dira. Burututako errebisioan aurkitutako datuak oinarritzat hartuz (ikus 2. Kapituluua), 13 hipotesi planteatzen dira:

**1. HIPOTESIA:** Aurrez aurre egindako bullying globalari (“batzuetan”, “sarritan”, “beti”) dagokionez, Bigarren Hezkuntzako azken zikloko ikasleen % 30ek jarrera erasokorrak (fisikoak, ahozkoak, sozialak edo psikologikoak) sufritu izan dituela espero da. Azken urteetan hezkuntza testuinguruan bullyingaren aurkako ekintza asko martxan jarri direnez, emaitzetan murrizketa bat espero da aurrez egindako ikerketa epidemiologikoan aurkitutako datuekin alderatuz (Garaigordobil, 2013). Erasotzaileen kasuan, partaideen % 30ek kideei zuzendutako jarrera erasokor bat edo gehiago burutu izan dituela espero da, honetan ere, aurreko ikerketa epidemiologikoan aurkitutako erasotzaileen ehunekoekin alderatuz, murriztapen bat egongo delarik. Amaitzeko, biktima-erasotzaileei dagokienez, biktimen 2/3k jarrera erasokorrak burutu dituela espero da.

**2. HIPOTESIA:** Aurrez aurreko bullying larriari dagokionez (“sarritan” eta “beti”) edo bullyingari dagokionez zehazki esanda, gutxi gorabehera ikasleen % 6 biktima larria izan dela espero da eta % 3 inguruk bullyingaren jarrerak oso maiz burutu dituela.

**3. HIPOTESIA:** Aurrez aurre egindako bullyingaren jarrerei dagokienez, biktimek eta erasotzaileek informatutako jarrera sarrienak ahozkoak izango dira, ondoren, sozialak, fisikoak eta azkenik, psikologikoak.

**4. HIPOTESIA:** Cyberbullying globalari (“batzuetan”, “sarritan”, “beti”) dagokionez, % 25 ziberbiktima eta % 10 zibererasotzaile inguru aurkitzea espero da. Kasu honetan ere, azken urteetan, eskola testuinuguruan cyberbullyingaren aurkako ekintza ugari burutu direnez, Euskal Herrian aurretik egindako ikerketa epidemiologikoan baino ehuneko txikiagoak aurkitzea espero da (Garaigordobil, 2013). Azkenik, 1/3 ziberbiktima-erasotzaile aurkituko direla uste da.

**5. HIPOTESIA:** Cyberbullying larriari (“sarritan” eta “beti”) dagokionez, gutxi gorabehera % 5 ziberbiktima larria izan dela espero da eta % 2 inguruk cyberbullyingaren jarrerak oso maiz burutu dituela.

**6. HIPOTESIA:** Ziberbiktimek eta zibererasotzaileek informatutako cyberbullyingaren jarrera sarrienei dagokionez, honako hauek izango dira: pasahitzaren lapurketa, beldurtzeko dei anonimoak, mezu irangarriak eta mingarriak, difamatu omena kentzeko helburuarekin, identitatea ordezkatu eta dei mingarri eta iraingarriak.

**7. HIPOTESIA:** Orientazio eta identitate sexual ez-normatiboa duten nerabeek, hots, pertsona ez-heterosexualek eta ez-zisgeneroek, heterosexualek eta zisgeneroek baino bullying eta cyberbullying global eta larri gehiago sufrituko dute. Gainera, erasotzaile eta biktima-erasotzaileen ehuneko handiagoak espero dira pertsona ez-heterosexualen eta ez-zisgeneroen artean, pertsona heterosexualekin eta zisgeneroekin alderatuz.

**8. HIPOTESIA:** Pertsona ez-heterosexualen artean, mutil gayek lesbianek baino bullying/cyberbullying biktimizazio prebalentzia handiagoa erakustea espero da. Gainera, pertsona bisexualek lesbianek baino biktimizazio gehiago azalduko dute.

**9. HIPOTESIA:** Bullying eta cyberbullying LGTB-fobiko globalari (“behin”, “batzuetan”) dagokionez, % 60 biktima aurkitzea espero da eta ikasleen % 20k bullying/cyberbullying LGTB-fobikoaren jarrerak burutu izan dituela. Horrez gain, partaideen % 70 beste kideek egindako jarrera LGTB-fobikoen testigu izan dela espero da.

**10. HIPOTESIA:** Pertsona ez-heterosexualen artean jarrera LGTB-fobikoen biktimen ehuneko handiagoak aurkitzea espero da pertsona heterosexualekin alderatuz.

**11. HIPOTESIA:** Biktimek, erasotzaileek eta behatzaileek informatutako jarrera erasokor LGTBfobiko sarrienak honako hauek izango dira: gaizki hitz egin, komentario negatiboak eta zurrumurrak; burlak, imitazioak eta keinuak; irain LGTBfobikoak, eta azkenik, hitz egiteari utzi, baztertu, parte hartzen ez utzi eta isolatu.

**12. HIPOTESIA:** Orokorrean, LGTB pertsonen inguruko ezagutzari dagokionez, pertsona transexualek ikusgarritasun gutxiena azalduko duten pertsonak izango diren bitartean, mutil gayak ikusgarritasun gehiena azalduko dute nerabeen artean. Gainera, ikasleen gehiengoak pentsatuko du orientazio sexual ez-normatiboa duten pertsonak ez direla mespretxuz tratatu behar.

**13. HIPOTESIA:** Aniztasun sexualaren aurreko jarrerei dagokionez, mutilek LGTB pertsonen edota LGTB bezala hautematen diren pertsonen aurrean jarrera erasokorren kopuru handiagoa erakutsiko duten bitartean, neskek jarrera positiboak erakutsiko dituzte aniztasun sexualaren aurrean. Horrez gain, senideak izango dira LGTB pertsonak sarrien lagunduko dituzten pertsonak.

**2. HELBURUA:** Bullying/cyberbullying orokorra nahiz LGTB-fobikoa burutu eta sufritu duten pertsona heterosexualek eta ez-heterosexualek artean, osasun mentalean (depresioa, estatusun soziala, sentikortasun interpersonala, somatizazioa...) eta nortasun ezaugarrietan (adimen emozionala, empatia, zorientasuna eta genero rola) dituzten desberdintasunak aztertu. Gai honen inguruan burututako errebisioa kontuan hartuta (ikusi 3. Kapituluua), bi hipotesi proposatzen dira:

**14. HIPOTESIA:** Orientazio sexual ez-normatiboa duten eta bullying/cyberbullyinga sufritu eta burutu duten nerabeek sintoma psikopatologikoen (depresioa, estatusuna, sentikortasun interpersonala, somatizazioa, estatusun soziala...) maila handiagoak azalduko dituzte normatiboa den orientazio sexuala duten eta biktima eta erasotzaile izan diren nerabeekin alderatuz.

**15. HIPOTESIA:** Orientazio sexual ez-normatiboa duten eta bullying/cyberbullyinga sufritu/burutu duten nerabeek maila handiagoak azalduko dituzte empatian eta adimen emozionalean, eta maila baxuagoak zorientasunean, orientazio sexual normatiboa duten eta biktima eta erasotzaile izan diren nerabeekin alderatuz. Azkenik, ez-heterosexualek diren biktimek norberaren feminitate-irudian puntuazio altuagoak erakutsiko dituzten bitartean, erasotzaileek altuago puntuatuko dute norberaren maskulinitate-irudian (nerabe heterosexualekin alderatuz).



---

**5. KAPITULUA**  
**PARTAIDEAK**

---





## 5. KAPITULUA. PARTAIDEAK

### 5.1 LAGINAREN DESKRIBAPENA

#### 5.1.1 Laginaren banaketa partaideen sexuaren, mailaren eta adinaren arabera


Azterlan hau 1.748 partaideez osatuta dago, % 52,6 neskak ( $n = 920$ ) eta % 47,4 mutilak direlarik ( $n = 828$ ) (ikusi 1. Grafikoa). Ez ziren ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak aurkitu sexuaren arabera (ikusi 1. Taula).

1. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak sexuaren arabera

	$f$	%	$\chi^2$	$p$
Neskak	920	52,6	3,304	.069
Mutilak	828	47,4		

$f$  = maiztasuna, % = ehunekoak,  $\chi^2$  = khii karratua,  $p$  = esangura

1. Grafikoa. Partaideen ehunekoak sexuaren arabera




Lagina 13-17 urte bitarteko adina zuten partaideez osatuta dago eta honako modu honetan banatzen da: partaideen % 1,3k 13 urte zituen ( $n = 23$ ), % 44,7k 14 urte zituen ( $n = 782$ ), % 41,9k 15 urte zituen ( $n = 732$ ), % 10,5ek 16 urte zituen ( $n = 184$ ) eta, azkenik, partaideen % 1,5ek 17 urte zituen ( $n = 27$ ) (ikusi 2. Grafikoa). Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren adinaren arabera, laginaren zatirik handiena 14-15 urte bitartean kokatuz (ikusi 2. Taula).

2. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak adinaren arabera

	<i>f</i>	%	$\chi^2$	<i>p</i>
13 urte	23	1,3	1634,33	.000
14 urte	782	44,7		
15 urte	732	41,9		
16 urte	184	10,5		
17 urte	27	1,5		

*f* = maiztasuna, % = ehunekoak,  $\chi^2$  = khii karratua, *p* = esangura

2. Grafikoa. Partaideen ehunekoak adinaren arabera




Ikasturtearen arabera partaideen banaketari dagokionez, laginaren % 60,2 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila burutzen ari zen ( $n = 1.052$ ) eta % 39,8 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailan zegoen ( $n = 696$ ) (ikusi 3. Grafikoa). Estatistikoki esanguratsuak siren desberditasunak aurkitu ziren ikasturtearen arabera, Bigarren Hezkuntzako 3. Mailan kokatzen ziren ikasleen ehunekoak handiagoak baitziren (ikusi 3. Taula).

3. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak ikasturtearen arabera

	<i>f</i>	%	$\chi^2$	<i>p</i>
3. DBH	1.052	60,2	72,50	.000
4. DBH	696	39,8		

*f* = maiztasuna, % = ehunekoa,  $\chi^2$  = khii karratua, *p* = esangura

3. Grafikoa. Partaideen ehunekoak ikasturtearen arabera



Jarraian, 4. Taulak ikasturtearen araberako adinaren banaketa azaltzen du. Estatistikoki esanguratsu diren desberdintasun hauek laginaren izaeraren emaitza dira. Azkenik, 5. Taulak ikasturtearen araberako sexuaren banaketa azaltzen du. Kasu honetan ez ziren desberdintasun esanguratsuak aurkitu.

4. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak ikasturte eta adinaren arabera

	3. DBH	4. DBH	GUZTIRA	$\chi^2$	<i>p</i>
	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)		
13 urte	23 (100)	0 (0,0)	23 (1,3)	824,25	.000
14 urte	754 (96,4)	28 (3,6)	782 (44,7)		
15 urte	220 (30,1)	512 (69,9)	732 (41,9)		
16 urte	50 (27,2)	134 (72,8)	184 (10,5)		
17 urte	5 (18,5)	22 (91,5)	27 (10,5)		
GUZTIRA	1.052 (60,2)	696 (39,8)	1.748 (100)		

*f* = maiztasuna, % = ehunekoa,  $\chi^2$  = khii karratua, *p* = esangura

5. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak sexu eta ikasturtearen arabera

	3. DBH	4. DBH	GUZTIRA	$\chi^2$	$p$
	$f$ (%)	$f$ (%)	$f$ (%)		
Mutilak	499 (60,3)	329 (39,7)	836 (47,8)	0,004	.947
Neskak	553 (60,1)	367 (39,9)	912 (52,2)		
GUZTIRA	1.052 (60,2)	696 (39,8)	1.748 (100)		

$f$  = maiztasuna, % = ehunekoak,  $\chi^2$  = khii karratua,  $p$  = esangura

### 5.1.2 Laginaren banaketa aniztasun sexualaren arabera

#### 5.1.2.1 Partaideen orientazio sexuala


Aniztasun sexualaren aldagaiei dagokienez, laginaren zatirik handiena heterosexual moduan identifikatu zen % 87,5eko portzentajearekin ( $n = 1.529$ ), partaideen % 0,7 gay moduan identifikatu zen ( $n = 13$ ), % 0,2% lesbiana moduan ( $n = 3$ ), % 5,7 bisexual moduan ( $n = 99$ ) eta % 5,9k adierazi zuen ez zegoela ziur bere orientazio sexualaz ( $n = 104$ ). Estatistikoki esanguratsua diren desberdintasunak aurkitu ziren laginaren jatorriaren eraginez, ez-heterosexual bezala identifikatzen den populazioa gutxiengoa baita (ikusi 6. Taula eta 4. Grafikoa).

6. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak orientazio sexualaren arabera

	$f$	%	$\chi^2$	$p$
Heterosexualak	1.529	87,5	4998,67	.000
Gayak	13	0,7		
Lesbianak	3	0,2		
Bisexualak	99	5,7		
Ez daude ziur	104	5,9		

$f$  = maiztasuna, % = ehunekoak,  $\chi^2$  = khii karratua,  $p$  = esangura

## 4. Grafikoa. Partaideen ehunekoak orientazio sexualaren arabera



Laginarren banaketa sexuaren eta orientazio sexualaren arabera 7. Taulan ikus daiteke. Emaizta hauek neskek bisexualen eta ziur ez daudenen kopuru esanguratsuki handiagoa erakutsi dute mutilekin alderatuz. 8. Taulak partaide bakoitzaren ikasturtearen eta orientazio sexualaren araberako banaketa azaltzen du. Honetan, ikus daiteke denborak aurrera egiten duen ahala orientazio sexuala argi ez duten partaideen ehunekoak behera egiten duela modu esanguratsuan.

## 7. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak orientazio sexualaren eta sexuaren arabera

	Neskak	Mutilak	GUZTIRA	$\chi^2$	<i>p</i>
	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)		
Heterossexualak	753 (49,2)	776 (50,8)	1.529 (87,5)	83,35	.000
Gayak	0 (0,0)	13 (100)	13 (0,7)		
Lesbianak	3 (100)	0 (0,0)	3 (0,2)		
Bisexualak	80 (80,8)	19 (19,2)	99 (5,7)		
Ez daude ziur	84 (80,8)	20 (19,2)	104 (5,9)		
GUZTIRA	920 (52,6)	828 (47,4)	1.748 (100)		

*f* = maiztasuna, % = ehunekoa,  $\chi^2$  = khii karratua, *p* = esangura

## 8. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak orientazio sexualaren eta ikasturtearen arabera

	3. DBH	4.DBH	TOTAL	$\chi^2$	<i>p</i>
	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)		
Heterosexualak	921 (60,2)	608 (39,8)	1.529 (87,5)	1,87	.000
Gayak	6 (46,2)	7 (53,8)	13 (0,7)		
Lesbianak	2 (66,7)	1 (33,3)	3 (0,2)		
Bisexualak	57 (57,6)	42 (42,4)	99 (5,7)		
Ez daude ziur	66 (63,5)	38 (36,5)	104 (5,9)		
GUZTIRA	1.052 (60,2)	696 (39,8)	1.748 (100)		

*f* = maiztasuna, % = ehunekoa,  $\chi^2$  = khii karratua, *p* = esangura

## 5.1.2.2 Partaideen identitate sexuala


Jarraian, 5. Grafikoan, elkarrizketatutako bakoitzaren identitate sexualaren araberako laginaren banaketa ikus daiteke. Horrela, laginaren % 47,1 mutila sentitzen zen mutila zen ( $n = 823$ ), % 51,4 neska sentitzen zen neska ( $n = 898$ ), % 0,1 mutila sentitzen zen neska ( $n = 2$ ) eta, azkenik, % 1,4 ez zegoen ziur bere identitate sexualaz ( $n = 25$ ). Azpimarratu behar da neska sentitzen zen mutilik ez zegoela partaideen artean. Esanguratsu diren desberdintasunak aurkitu ziren, bere sexu biologikoarekin identifikatzen ez den populazioa gutxienengoa baita (ikus 9. Taula).

## 9. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak identitate sexualaren arabera

	<i>f</i>	%	$\chi^2$	<i>p</i>
Mutila sentitzen den mutila	823	47,1	1648,71	.000
Neska sentitzen den neska	898	51,4		
Neska sentitzen den mutila	0	0,0		
Mutila sentitzen den neska	2	0,1		
Ez daude ziur	25	1,4		

*f* = maiztasuna, % = ehunekoa,  $\chi^2$  = khii karratua, *p* = esangura

## 5. Grafikoa. Partaideen ehunekoak identitate sexualaren arabera



Ondorengo tauletan (10. eta 11. Taulak), identitate sexualaren eta sexuaren araberako eta ikasturtearen eta identitate sexualaren araberako laginaren banaketa ikus daiteke. Identitate sexualari eta sexuari dagokionez, esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren bitartean (ikusi 10. Taula), ez ziren desberdintasun estatistikoki esanguratsuak aurkitu identitate sexualaren eta ikasturtearen arabera (ikusi 11. Taula).

## 10. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak identitate sexualaren eta sexuaren arabera

	Neskak	Mutilak	GUZTIRA	$\chi^2$	<i>p</i>
	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)		
Mutila sentitzen den mutila	0 (0,0)	823 (100)	823 (47,1)	1731,96	.000
Neska sentitzen den neska	898 (100)	0 (10,0)	898 (51,4)		
Neska sentitzen den mutila	0 (0,0)	0 (0,0)	0 (0,0)		
Mutila sentitzen den neska	2 (100)	0 (0,0)	2 (0,1)		
Ez daude ziur	20 (80,0)	5 (20,0)	25 (1,4)		
GUZTIRA	920 (52,6)	828 (47,4)	1.748 (100)		

*f* = maiztasuna, % = ehunekoa,  $\chi^2$  = khii karratua, *p* = esangura

## 11. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak identitate sexualaren eta ikasturtearen arabera


	Neskak	Mutilak	GUZTIRA	$\chi^2$	<i>p</i>
	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)		
Mutila sentitzen den mutila	497 (47,2)	326 (46,8)	823 (47,1)	0,29	.963
Neska sentitzen den neska	540 (60,1)	358 (39,9)	898 (51,4)		
Neska sentitzen den mutila	0 (0,0)	0 (0,0)	0 (0,0)		
Mutila sentitzen den neska	1 (50,0)	1 (50,0)	2 (0,1)		
Ez daude ziur	14 (56,0)	11 (44,0)	25(1,4)		
GUZTIRA	1.052 (60,2)	696 (39,8)	1.748 (100)		

*f* = maiztasuna, % = ehunekoa,  $\chi^2$  = khii karratua, *p* = esangura

## 5.1.3 Laginaren banaketa jaiotze lekuaren eta erlijioaren arabera

Ikerketa honetan, leku geografiko desberdinetan jaiotako partaideek hartu zuten parte. Horrela, partaideen % 94,3 Espainian jaio zen ( $n = 1.649$ ) eta laginaren % 5,7k Espainiako estatutik kanpoko herrietan zuen jatorria ( $n = 99$ ) (ikusi 6. Grafikoa).

6. Grafikoa. Partaideen ehunekoak jaiotze lekuaren arabera



Erljiuari dagokionez, laginaren zatirik handienak erlijiorik praktikatzen ez zuela azaldu zuen. Modu honetan, laginaren % 68,2k ( $n = 1.193$ ) erlijiorik jarraitzen ez zuela adierazi zuen, % 29,3 katoliko bezala identifikatu zen ( $n = 513$ ), % 1ek erlijio ebanjelikoaren jarraitzaile zela esan zuen ( $n = 17$ ), % 0,7k beste erlijio baten partaide zela adierazi zuen ( $n = 13$ ), % 0,5 % musulmana zen ( $n = 9$ ), eta, azkenik, partaideen % 0,2k Jehovaharen lekuko zela esan zuen ( $n = 3$ ). Ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak aurkitu ziren laginaren beraren izaera dela medio (ikusi 12. Taula eta 7. Grafikoa).




## 12. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak erlijioaren arabera

	<i>f</i>	%	$\chi^2$	<i>p</i>
Ezta bat	1.193	68,2	1042,5	.000
Katolikoa	513	29,3		
Ebangelikoa	17	1,0		
Musulmana	9	,5		
Jhovaren Lekuko	3	,2		
Beste bat	13	,7		

Oharra *f* = maiztasuna, % = ehunekoa,  $\chi^2$  = khii karratua, *p* = esangura; Ezta bat: erlijio sinesmenik edo praktikarik ez duten partaideak, nahiz eta erlijioaren batean adskribaturik egon.

## 7. Grafikoa. Partaideen ehunekoak erlijioaren arabera



## 5.1.4 Ikastetxeen ezaugarriak


Ikerketa honetan, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko 19 ikastetxek parte hartu zuten. Partaideek ikasten zuten probintziaren arabera laginaren banaketa honakoa da: % 32,6k Gipuzkoako ikastetxeetan ikasten zuten ( $n = 569$ ), laginaren % 18 Arabako ikastetxeetako ikasteak ziren ( $n = 315$ ) eta, azkenik, % 49,4k Bizkaiko ikastetxeetan ikasten zuten ( $n = 864$ ) (ikusi 8. Grafikoa). 13. Taulak ikastetxearen probintziaren arabera maiztasun eta ehunekoak azaltzen ditu. Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren ikastetxe bakoitzaren probintziaren arabera. Izan ere, lagina adierazgarria izan zezan, probintzia bakoitzeko populazioaren proportzioak kontuan hartu ziren.

13. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak ikastetxearen probintziaren arabera

	<i>f</i>	%	$\chi^2$	<i>p</i>
Gipuzkoa	569	32,6	259,12	.000
Araba	315	18		
Bizkaia	864	49,4		

*f* = maiztasuna, % = ehunekoak,  $\chi^2$  = khii karratua, *p* = esangura

8. Grafikoa. Partaideen ehunekoak ikastetxearen probintziaren arabera



Ondorengo taulak (14. Taula) partaideen maiztasun eta ehunekoak erakusten ditu ikastetxearen arabera.

14. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak ikastetxearen arabera

	<i>f</i>	%
Lautada	33	1,9
Armentia	98	5,6
Artxandape	42	2,4
Gernika	28	1,6
Elorrio	11	0,6
Koldo Mitxelena	147	8,4
San Bizente	38	2,2
Kirikino	143	8,2
Lauaxeta	199	11,4
San Nikolas	121	6,9
Karmelo	55	3,1
Luberri	233	13,3
Eskurtze	30	1,7
Sopela	53	3,0
Aixerrota	181	10,4
Ekintza	64	3,7
Bidebieta	55	3,1
Laskorain	138	7,9
Herri Ametsa	79	4,5

*f* = maiztasuna, % = ehunekoak,


Ikastetxe bakoitzaren sarearen aeraberako partaideen ehunekoei dagokienez, laginaren % 44,7 ikastetxe publikoetan kokatzen zen ( $n = 782$ ) eta % 55,3 berriz, sare pribatuetako ikastetxeetan ( $n = 966$ ) (ikusi 9. Grafikoa). Kasu honetan, populazioaren banaketaren ondorio diren desberdintasun estatistikoki esanguratsuak aurkitu ziren (ikusi 15. Taula).

15. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak ikastetxeen sarearen arabera

	<i>f</i>	%	$\chi^2$	<i>p</i>
Sare publikoa	782	44,7	19,37	.000
Sare pribatua	966	55,3		

*f* = maiztasuna, % = ehunekoa,  $\chi^2$  = khii karratua, *p* = esangura

9. Grafikoa. Partaideen ehunekoak ikastetxeen sarearen arabera



Jarraian, 16. Taulak laginaren banaketa azaltzen du ikastetxe bakoitzaren probintzia eta sarearen baitan. Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aukitu ziren, probintzia bakoitzaren populazioaren proportzioa sare motaren arabera kontuan hartu baitzen.

16. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak ikastetxearen sare mota eta probintziaren arabera

	Sare Publikoa	Sare Pribatua	GUZTIRA	$\chi^2$	<i>p</i>
	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)		
Gipuzkoa	288 (50,6)	281(49,4)	569 (32,6)	15,74	.000
Araba	147(46,7)	168 (53,3)	315 (18)		
Bizkaia	347(40,2)	517 (59,8)	864 (49,4)		
GUZTIRA	782 (44,7)	966 (55,3)	1.748 (100)		

*f* = maiztasuna, % = ehunekoa,  $\chi^2$  = khii karratua, *p* = esangura


Ikastetxe bakoitza aurkitzen den ingurune-motaren (landa/urbanoa) arabera partaideen ehunekoei dagokionez, laginaren % 31,1 landa inguruetan kokatutako ikastetxeetan ikasten zuen ( $n = 543$ ) eta laginaren % 68,9 inguru urbanoetako ikastetxeetako ikasleak ziren ( $n = 1.205$ ) (ikusi 17. Taula eta 10. Grafikoa). Desberdintasunak esanguratsuak izan ziren populazioaren zatitik handiena ingurune urbanoetan kokatzen baita.

17. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak ikastetxeen ingurunearen arabera

	<i>f</i>	%	$\chi^2$	<i>p</i>
Urbanoa	1.205	68,9	250,71	.000
Landa ingurua	543	31,1		

*f* = maiztasuna, % = ehunekoak,  $\chi^2$  = khii karratua, *p* = esangura

10. Grafikoa. Partaideen ehunekoak ikastetxearen ingurunearen arabera



### 5.1.5 Partaideen senideen ezaugarriak


Partaide bakoitzaren familia motari dagokionez, laginaren % 94,5 familia tradizionalen (aita bat eta ama bat) parte ziren ( $n = 1.651$ ), % 3,9 familia monoparentalak ziren (aita bat edo ama bat) ( $n = 68$ ), partaideen % 0,5ek familia homoparentala osatzen zuela adierazi zuen (bi ama edo bi aita) ( $n = 8$ ), eta, azkenik, % 1,2k beste familia mota batzuek osatzen zituen (Adibidez: tutoretzan dauden adin txikikoak) ( $n = 21$ ). Familia motarik ohikoena tradizionala denez, estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren (ikusi 18. Taula eta 11. Grafikoa).

18. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak familia motaren arabera

	<i>f</i>	%	$\chi^2$	<i>p</i>
Tradizionala	1.651	94,5	4501,27	.000
Monoparentala	68	3,9		
Homoparentala	8	0,5		
Beste bat	21	1,2		

*f* = maiztasuna, % = ehunekoa,  $\chi^2$  = khii karratua, *p* = esangura

11. Grafikoa. Partaideen ehunekoak familia motaren arabera



19. Taulak aitaren lanbidearen araberako laginaren banaketa erakusten du. Aiten lanbiderik sarriena profesional zientifikoena izan zen (% 26,4), zerbitzuen langileen profesioen (% 14,9), enpresen zuzendaritzaren (% 14,1) eta ez kualifikatutako lanbideen (% 10,8) aurretik.

## 19. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak aitaren lanbidearen arabera

	<i>f</i>	%
Enpresen zuzendaritza	246	14,1
Profesional zientifikoak	462	26,4
Zuzenbidearen profesionalak	28	1,6
Idazleak, pareko artistak	8	0,5
Sostengu teknikari edo profesionalak	65	3,7
Administratzaile moduko langileak	40	2,3
Zerbitzuen langileak	260	14,9
Nekazaritzako eta agrikulturako langile kualifikatuak	38	2,2
Industria, manufaktura, eraikuntza, meatzaritzako artisau eta langileak	77	4,4
Metalurgia, makinen erakuntza, etabarreko langile kualifikatuak	130	7,4
Mugimenduzko makinen gidariak eta operadoreak	91	5,2
Ez kualifikatutako langileak	189	10,8
Indar armatuak	1	0,1
Etxearen zaintzak	8	0,5
Langabetua	43	2,5
Erretiratua	14	0,8
Ez du erantzuten	48	2,7

*f* = maiztasuna, % = ehunekoa

Amaren lanbideari dagokionez, lanbiderik sarriena profesional zientifikoena zen (% 36,2), zerbitzuen langile (% 12,4), enpresen zuzendaritza (% 9,2), ez kualifikatutako langile (% 8,9) eta etxearen zaintzaren (% 8) aurretik (20. Taula).

20. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak amaren lanbidearen arabera

	<i>f</i>	%
Enpresen zuzendaritza	161	9,2
Profesional zientifikoak	632	36,2
Zuzenbidearen profesionalak	28	1,6
Idazleak, pareko artistak	9	0,5
Sostengu teknikari edo profesionalak	143	8,2
Administratzaile moduko langileak	154	8,8
Zerbitzuen langileak	217	12,4
Nekazaritzako eta agrikulturako langile kualifikatuak	2	0,1
Industria, manufaktura, eraikuntza, meatzaritzako artisau eta langileak	12	0,7
Metalurgia, makinen erakuntza, etabarreko langile kualifikatuak	17	1,0
Mugimenduzko makinen gidariak eta operadoreak	8	0,5
Ez kualifikatutako langileak	155	8,9
Indar armatuak	1	0,1
Etxearen zaintzak	139	8,0
Langabetua	60	3,4
Ez du erantzuten	5	0,3

*f* = maiztasuna, % = ehunekoa


Testuinguru honetan, ondorengo taulek (21. eta 22. Taulak) eta ondorengo grafikoek (12. eta 13. Grafikoak) ama eta aitaren hezkuntza mailaren arabera partaideen ehunekoak azaltzen dituzte. Aita eta amaren hezkuntza maila horrela sailkatu zen: ikasketarik gabe, lehen mailako edo oinarrizko ikasketak (12 urte arte), bigarren mailako ikasketak (16 urte arte), bigarren goi mailako ikasketak (Batxiller eta Hezkuntza Profesionala) eta ikasketa unibertsitarioak.

21. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak aitaren hezkuntza mailaren arabera

	<i>f</i>	%
Ikasketarik gabe	12	0,7
12 urte arte (Lehen mailako edo oinarrizko ikasketak)	75	4,3
16 urte arte (Bigarren mailako ikasketak)	310	17,7
Bigarren goi mailako ikasketak (Batxilero edo HP)	515	29,5
Ikasketa unibertsitarioak	797	45,6
Ez du erantzun	39	2,2

*f* = maiztasuna, % = ehunekoa

12. Grafikoa. Partaideen ehunekoak aitaren hezkuntza mailaren arabera




22. Taula. Partaideen maiztasun eta ehunekoak amaren hezkuntza mailaren arabera

	<i>f</i>	%
Ikasketarik gabe	8	0,5
12 urte arte (Lehen mailako edo oinarrizko ikasketak)	41	2,3
16 urte arte (Bigarren mailako ikasketak)	192	11,0
Bigarren goi mailako ikasketak (Batxilero edo HP)	418	23,9
Ikasketa unibertsitarioak	1.087	62,2
Ez du erantzun	2	0,1

*f* = maiztasuna, % = ehunekoa



13. Grafikoa Partaideen ehunekoak aitaren hezkuntza mailaren arabera



### 5.1.6 Laguntza psikologikoa eta diagnostikoa


Partaideek bizitzan zehar behar izan duten laguntza psikologikoari dagokionez, % 25,6k noizbait psikologora joan zela baieztatu zuen ( $n = 447$ ) eta laginaren gehiengoak, % 74,5eko portzentajearekin, laguntza psikologikoa jaso zuela ukatu zuen ( $n = 1.301$ ) (ikusi 14. Grafikoa eta 23. Taula).

23. Taula. Laguntza psikologikoaren maiztasun eta ehunekoak

	$f$	%	$\chi^2$	$p$
Laguntza psikologikoa jaso dut	447	25,6	417,23	.000
Ez dut laguntza psikologikorik jaso	1.301	74,4		

$f$  = maiztasuna, % = ehunekoak,  $\chi^2$  = khii karratua,  $p$  = esangura

14. Grafikoa. Laguntza psikologikoaren ehunekoak



Jarraian, 24. Taulak laguntza psikologikoaren arrazoiaren maiztasun eta ehunekoak azaltzen ditu. Datu hauek erakusten dute laginaren % 7,2 arazo familiarrengatik psikologora joan zela ( $n = 126$ ), partaideen % 4,2 eskola-errendimenduarengatik ( $n = 73$ ), % 4,2 fobia, dolua, etab. bezalako beste arrazoiengatik ( $n = 74$ ), % 3,7 estutasun arazoengatik ( $n = 65$ ), % 3,1 depresio arazoengatik ( $n = 55$ ), % 2,7 indarkeriarekin zerikusia duten arazoengatik ( $n = 47$ ) eta azkenik, laginaren % 0,3k elikatze arazoengatik laguntza jaso zuen ( $n = 5$ ).

24. Taula. Laguntza psikologikoaren arrazoiaren maiztasun eta ehunekoak

	<i>f</i>	%
Estutasun arazoengatik	65	3,7
Depresio arazoengatik	55	3,1
Elikatze arazoengatik	5	0,3
Arazo familiarrengatik	126	7,2
Eskola-errendimendu arazoengatik	73	4,2
Indarkeriarekin erlazionatutako arazoengatik	47	2,7
Beste bat	74	4,2

*f* = maiztasuna, % = ehunekoa

## 5.2. LAGINAREN AUKERAKETARAKO PROZEDURA

Partaideek Euskal Autonomia Erkidegoko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloko (3-4. maila) lagin adierazgarria osatzen dute. Lagina adierazgarria izan dezan, Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza Sailak 2016-2017 ikasturtean aurkeztutako azken inkesta hartu zen kontuan ([www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus)), DBHko bigarren zikloko ikasleen kopurua 37.575ekoa izanik. Ikastetxearen sare motari dagokienez, ikasleen % 45,2 sare publikoetako zentruetan matrikulatuak zeuden eta % 54,8 zentru pribatu-itunduetan. .95eko fidagarritasun maila erabiliz eta % 2,3ko laginketa-errorearekin, lagin adierazgarria 1.732koa da. Laginaren aukeraketa egin ahal izateko, laginketa estratifikatua erabili zen hurrengo parametroak kontuan hartuz: lurralde historikoa (Bizkaia, Gipuzkoa, Araba), sare mota (publiko, pribatu-intundua) eta maila (3.-4.).

---

**6. KAPITULUA**  
**METODOLOGIA ETA EBALUAZIORAKO TRESNAK**

---



## 6. KAPITULUA. METODOLOGIA ETA EBALUAZIORAKO TRESNAK

### 6.1. IKERGAI DIREN ALDAGAIK

Hauek dira azterlan honetan ikergai diren aldagaiak: aldagai soziodemografikoak (sexua, orientazio sexuala, identitate sexuala...), bullying eta cyberbullying orokorra eta LGTB-fobikoa, aniztasun sexualarekiko jarrerak, osasun mentaleko aldagaiak (depresioa, estutasun soziala eta sintoma psikopatologikoak) eta nortasun ezaugarriak (norberaren makulinitate eta feminitate irudia, zorientasuna, adimen emozionala eta enpatia).

### 6.2. EBALUAZIO TRESNEN DESKRIBAPENA

Lehenik eta laginaren deskribapen profila ezartzearen helburuarekin, partaideek zenbait galdera soziodemografiko erantzungo dituzte. Ondoren, 10 ebaluazio tresna beteko dituzte (ikus 1. Koadroan ebaluazio tresnen xehetasunak eta ikergai diren aldagaiak). Jarraian, tresna bakoitzaren deskribapena (proben esanahiak, aplikazio-zuzenketa-interpretaziorako arauak eta ebaluazio tresna bakoitzaren froga psikometrikoak) azaltzen da.

#### 1. Koadroa. Ebaluazio tresnak

Ebaluazio tresna, autoreak eta urtea	Neurtutako aldagaiak	Erreferentzia bibliografikoa
Galdetegi soziodemografikoa (Garaigordobil eta Larrain, 2017)	Datu soziodemografikoak  Ikastetxea, adina, maila, sexua, partaidearen eta gurasoen jaiotze lekua, familia mota, gurasoen lanbidea eta hezkuntza maila, erlijioa, orientazio sexuala, identitate sexuala, laguntza psikologikoaren beharra eta arrazoia.	Garaigordobil, M., eta Larrain, E. (2017). Galdetegi soziodemografikoa. Ad-hoc.
Cyberbullying: berdinen arteko jazarpenaren Screeninga (Garaigordobil, 2013)	Bullyingaren eskala: aurrez aureko 4 eraso mota: fisikoa, ahozkoa, soziala eta psikologikoa. Cyberbullyingaren eskala: 15 portaera (mezu iraingarri eta mingarriak bidali, jipoiak grabatu eta bideoa Youtuben zintzilikatu...) Bi eskalak biktima eta erasotzaile rolaen baitan erantzuten dira.	Garaigordobil, M. (2013). <i>Cyberbullying. Screening de acoso entre iguales. Screening del acoso escolar presencial (bullying) y tecnológico (cyberbullying)</i> . Madrid: TEA.

Ebaluazio tresna, autoreak eta urtea	Neurtutako aldagaiak	Erreferentzia bibliografikoa
<p>Bullying homofoboaren neurketaren eskala (LGBTIQ populazioari zuzenduta) (Caballo, Arias, Calderero, Salazar eta Irurtia, 2011, egokitzapena Caminos eta Quentrequero, 2015)</p>	<p>Jazarpen homofobia: (1) Jazarpen homofoboaren biktima; (2) Jazarpen homofoboaren erasotzailea; (3) Jazarpen homofoboaren behatzailea.</p>	<p>Caminos, M. eta Quentrequero, A. A. (2015). Heteronormatividad, autoestima y bullying homofóbico en Argentina. <i>{PSOCIAL}</i>, 1(2), 17-32. Eskuragarri <a href="http://publicaciones.sociales.uba.ar/index.php/psicologiasocial/article/view/1217/1115">http://publicaciones.sociales.uba.ar/index.php/psicologiasocial/article/view/1217/1115</a></p>
<p>Aniztasun sexualaren eta nerabezeroaren inguruko inkesta (Pichardo, Molinuelo, Rodríguez, Martín eta Romero, 2007)</p>	<p>LGTBfobia Bullying LGTB-fobikoa LGTB pertsonen inguruko ezagutza Nerabeen hautematea gizarteak aniztasun sexualaren aurrean dituen jarreraren inguruan.</p>	<p>Pichardo, J.I., Molinuelo, B., Rodríguez, P.O., Martín, N., eta Romero, M. (2007). Actitudes ante la diversidad sexual de la población adolescente de Coslada (Madrid) y San Bartolomé de Tirajana (Gran Canaria). Madrid: FELGTB. Eskuragarri <a href="http://www.felgtb.org/rs/467/d112d6ad-54ec-438b-93584483f9e98868/c11/filename/adolescentes-ante-la-diversidad-sexual2.pdf">http://www.felgtb.org/rs/467/d112d6ad-54ec-438b-93584483f9e98868/c11/filename/adolescentes-ante-la-diversidad-sexual2.pdf</a></p>
<p>Beck-en Depresioaren Inbentarioa II (Beck et al., 1996; egokitzapena Sanz, García-Vera, Espinosa, Fortún eta Vázquez, 2005)</p>	<p>Depresioa</p>	<p>Beck, A.T., Steer, R.A., eta Brown, G.K. (1996). <i>BDI-II. Beck Depression Inventory-Second Edition manual</i>. San Antonio, TX: The Psychological Corporation.</p> <p>Sanz, J., García-Vera, M. P., Espinosa, R., Fortún, M., eta Vázquez, C. (2005). Adaptación española del Inventario para la Depresión de Beck-II (BDI-II): 3. Propiedades psicométricas en pacientes con trastornos psicológicos. <i>Clinica y salud</i>, 16(2), 121-142.</p>
<p>Nerabeen estatus sozialaren eskala (SAS-A. La Greca eta Stone, 1993; espanierazko egokitzapena Olivares et al., 2005)</p>	<p>Estatus soziala hiru azpieskaletan aztertzen du: (1) Ebaluazio negatiboari beldurra; (2) Ekidite eta onegieza soziala egoera ezezagunetan eta pertsona ezezagunekin; (3) Ekidite eta ongieza soziala ezagunen ondoan.</p>	<p>La Greca, A.M. eta Stone, W.L. (1993). The Social Anxiety Scale for Children-Revised: Factor structure and concurrent validity. <i>Journal of Clinical Child Psychology</i>, 22, 17-27</p> <p>Olivares, J., Ruiz, J., Hidalgo, M. D., García-López, L. J., Rosa, A. I., eta Piqueras, J. A. (2005). Social Anxiety Scale for Adolescents (SAS-A): Psychometric properties in a Spanish-speaking population. <i>International Journal</i></p>

Ebaluazio tresna, autoreak eta urtea	Neurtutako aldagaiak	Erreferentzia bibliografikoa
		of Clinical and Health Psychology, 5(1), 85-97. <a href="http://www.redalyc.org/html/337/33701005/">http://www.redalyc.org/html/337/33701005/</a>
SCL-90-R. 90 sintomen galdetegi errebisatua. (Derogatis, 2002)	Sintoma psikopatologikoak: somatizazioa, obsesio-konpulsioa, sentikortasun interpersonala, depresioa, estutasuna, etsaitasuna, estutasun fobikoa, ideia gintza paranoidea eta psikotizismoa.	Derogatis, L. R. (2002). <i>SCL-90-R. Cuestionario de 90 síntomas revisado</i> . Madrid: TEA.
Bem Sex Role Inventory (Bem, 1981; espanierazko egokitzapena Fernández eta Páez, 2004)	Norberaren Maskulinitate eta Feminitate irudia	Bem, S. L. (1981). <i>Bem Sex-Role Inventory: Professional manual</i> . Palo Alto, CA: Consulting Psychologists Press.  Fernández, I., eta Páez, D. (2004). Bem's Sexual Role Inventory (BSRI). Versión corta adaptada sobre la escala original de Bem. En I. Fernández, D. Páez, S. Ubillos, E. Zubieta, <i>Psicología Social, cultura y Educación</i> (pp. 203-207). España: Pearson Prentice Hall.
The Oxford Happiness Questionnaire (Hills eta Argyle, 2002; espanierazko egokitzapena Garaigordobil, 2015a).	Zoriontasun sentimendua	Hills, P. eta Argyle, M. (2002). The Oxford Happiness Questionnaire: a compact scale for the measurement of psychological well-being. <i>Personality and Individual Differences</i> , 33, 1073-1082.  Garaigordobil, M. (2015a). Predictor variables of happiness and its connection with risk and protective factors for health <i>Frontiers in Psychology</i> , 6, 1176 (pp. 1-10). Eskuragarri <a href="http://journal.frontiersin.org/article/10.3389/fpsyg.2015.01176/abstract">http://journal.frontiersin.org/article/10.3389/fpsyg.2015.01176/abstract</a>
Trait Meta-Mood Scale (TMMS-24) (Salovey, Mayer Goldman, Turvei, eta Palfai, 1995; espanierazko egokitzapena Fernández-Berrocal, Extremera eta Ramos, 2004)	Hautemate emozionala (arreta): sentimenduak modu egokian sentitzeko eta azaltzeko gaitasuna. Sentimenduen ulermena (argitasuna): sgoera emozionalak ulertzeko gaitasuna. Erregulazio emozionala (konponketa): egoera emozionalak modu egokian erregulatzeko gaitasuna.	Salovey, P., Mayer J., Goldman, S., Turvei, C., eta Palfai, T. (1995). Emotional attention, clarity, and repair: Exploring emotional intelligence using the Trait Meta-Mood Scale. En Pennebaker, J. W. (ed.), <i>Emotion, Disclosure &amp; Health</i> (pp. 125-154). Washington, D. C.: American Psychological Association.  Fernández-Berrocal, P. Extremera, N. eta Ramos, N. (2004). Validity and reliability of the Spanish Modified Version of the Trait Meta-Mood Scale. <i>Psychological Reports</i> , 94, 751-755.

Ebaluazio tresna, autoreak eta urtea	Neurtutako aldagaiak	Erreferentzia bibliografikoa
Enpatia Kognitiboaren eta Afektiboaren Testa (López-Pérez, Fernández-Pinto eta Abad-García, 2008 nerabeei zuzendutako egokitzapena; Gorostiaga, Balluerka eta Soroa, 2014)	Enpatia 4 dimentsioetan neurtzen du: (1) Ikuspegiak-hartzea: beste pertsonaren lekuan jartzeko gaitasun intelektual edo irudimenezkoa; (2) Ulermen emozionala: beste pertsonen egoera emozionalak, intentzioak eta zirrarak ulertu eta antzemateko gaitasuna; (3) Estres enpatikoa: beste pertsonaren emozio negatiboak partekatzeko gaitasuna; (4) Alaitasun enpatikoa: beste pertsonaren emozio positiboak partekatzeko gaitasuna.	López-Pérez, B., Fernández-Pinto, I. eta Abad García, F. J. (2008). TECA. Test de Empatía Cognitiva y Afectiva. Madrid: TEA.  Gorostiaga, A., Balluerka, N., eta Soroa, G. (2014). Evaluación de la empatía en el ámbito educativo y su relación con la inteligencia emocional <sup>1</sup> Assessment of empathy in educational field and its relationship with emotional intelligence. <i>Revista de Educación</i> , 364, 12-38

### 6.2.1 Cyberbullying: Berdinen arteko jazarpenaren Screeninga (Garaigordobil, 2013)

#### Probaren deskribapena

Cyberbullyingaren testa aurrez aurreko bullyinga eta teknologikoa ebaluatzeko erabitzen den tresna estandarizatua da, bi eskala dituena:

**Bullyingaren eskala:** Aurrez aurreko lau jazarpen mota ebaluatzen ditu: fisikoa, ahozkoa, soziala eta psikologikoa. 12 itemek osatzen dute eta hauek jazarpen egoeran hartzen den rola baitan sailkatzen daude: biktima, erasotzaile eta behatzailea. Ebaluatutako pertsona bakoitzak jokaera horiek biktima bezala sufritu, erasotzaile bezala burutu edo behatzaile moduan ikusi dituen edo ezagun bati gertatu zaziola dakien esan behar du.

**Cyberbullyingaren eskala:** Cyberbullyingaren 15 jokaera ebaluatzen ditu: mezu iraingarriak eta mingarriak bidali, dei mingarriak egin, jipoiak grabatu eta Youtuben zintzikiatu, argazki edo bideo pertsonalak zabaldu, lapurtutako argazkiak egin eta zabaldu, dei anonimoak egin beldurtzeko, txantxa edo mehatxu egin, eraso sexualak burutu, zurrumurrak, sekretuak eta gezurrak zabaldu, posta elektronikoa pasahitza lapurtu..., argazkiak edo bideoak eraldatu eta Youtubera igo, sare sozialetan isolatu, gauza intimoak diren gauzak ez zabaltzeko txantxa egin, heriotzarekin mehatxu egin eta izena zikintzeko gezurrak esan. Eskala hau 45 itemek osatzen dute, eta hauek rola baitan taldekatuak daude, hau da, ebaluatutako pertsonak biktima bezala sufritu, erasotzaile bezala burutu edo behatzaile bezala ikusi dituen edo ezagun



bati gertatu zaziola dakien esan behar du. Ez da hain garrantzitsua jakitea zein bide (internetara, mugikorra...) erabiliz burutu den jokaera baizik eta eskala honen lehentasuna jokaeren identifikazioa da. Gainera, eskala honek informazio osagarria jasotzen du rolaeren arabera. Pertsona biktima izan denean, zein pertsonari kontatu dion eta zein sentimendu sentitu dituen galdetzen zaio. Ebaluatutako pertsona erasotzailea izan denean, jokaera horiek burutzeko arrazoiak eta bizi izan dituen sentimenduak galdetzen zaizkio. Ebaluatutako pertsona behatzailea izan denean, egoera horretan zer egin duen, zeini esan dion eta zein sentimendu izan dituen galdetzen zaio.

### **Aplikazio, zuzenketa eta interpretazio arauak**

Ikerketa honetan, biktimaren, erasotzailearen eta biktima-erasotzailearen rola ebaluatu dira. Aplikazio, zuzenketa eta interpretazio prozedurari dagokionez, Cyberbullyingaren Testa bakarka edo taldeka egin daiteke. Pertsona helduak bullying eskalaren argibideak irakurri eta ondoren, partaideek bullyingaren jokaera bakoitza (ahozkoa, fisikoa, soziala eta psikologikoa) bizitzan zehar zenbateko maiztasunarekin sufritu eta burutu duten adierazten dute. Proba honen bidez, 3 adierazle edo indize eskura daitezke hala bullying eskalan nola cyberbullying eskalan: 1) Biktimizazio maila: ebaluatutako pertsonak sufritutako biktimizazio kopuruaren inguruan informatzen du (biktimaren rola) 2) Eraso maila: ebaluatutako pertsonak besteei burututako jokaera agresiboen kopuruaz informatzen du (erasotzailearen rola) 3) Biktimizazio-erasokorraren maila: biktimizazio maila eta eraso maila hartzen ditu kontuan eta biktima nahiz erasotzaile bezala sufritu edo burutzen diren jazarpen portaerez informatzen du.

Testak zentil-puntuazioetan oinarritutako baremoak ematen ditu 8 adierazleerako. Baremo hauei esker, puntuazio zuzenak portzentaje bilakatzen dira. Horrela, ebaluazioa jasotzen ari den nerabe edo gaztea arauzko erreferentzia-taldean (adinaren eta sexuaren arabera) kokatzen da, 3 rol horietan sartuz (biktima, erasotzaile eta biktima-erasotzaile), bai bullying nahiz cyberbullyingean. Gainera, diagnosiaren ikuspegitik, galdetegiarri esker haurrak bullying edo cyberbullying arazoak "EZ" dituen, "ARRISKU" egoera batean dagoen, edo puntuazioen arabera argi eta garbi "ARAZO" bat dagoen identifitu daiteke.

## Froga psikometrikoak

Propietate psikometrikoei dagokienez, lehenengo bullying eskalaren propietateak deskribatuko dira eta, ondoren, cyberbullyingarenak.

### 1) Bullying eskala:

Jatorrizko laginean, Bullying Eskalarako Cronbachen Alpha koefizientea erabiliz (12 item) egindako fidagarritasun-azterketen barne konsistentzia egokia berresten dute ( $\alpha = .81$ ). Azterlan honetako laginean, barne konsistentzia maila egokia erdietsi da eskala guztirako ( $\alpha = .76$ ), eta konsistentzia altua biktimizazioen eskalarentzako ( $\alpha = .80$ ). Dena den, arinki baxua den konsistentzia lortu da erasotzaile eskalaren kasuan ( $\alpha = .62$ ).

Balioetasunari dagokionez, lehenik eta behin, eskalaren dimentsionaltasuna aztertu zen, osagai nagusien azterketa eginez. KMO indizeak 0,79ko balioa eman zuen, egokitzat jo daitekeena. Bestalde, Bartlett testak emaitza adierazgarria erakutsi zuen estatistikoki,  $\chi(66) = 11634,93$ ,  $p < .001$ . Faktore-matrizearen errotazio-metodo modura varimac-errotazioa burutu zen. Kaiser faktoreak ateratzeko irizpideak aintzat hartuz unitateaz gaindiko balioak dituzten 3 faktore eskuratzen dira, bariantza osoaren % 57,89ko portzentajea azaltzen dutenak. Lehen faktorea portaera erosokor fisiko, ahozko, sozial eta psikologikoen behatzailearen rola itemekin konfiguratu da. Bigarren faktorea portaera erosokor psikologiko, sozial, ahozko eta fisikoak eragiten dituen erasotzailearen rola itemekin lotzen da. Azkenik, hirugarren faktoreak biktimaren rola itemekin lotzen diren itemak barneratzen ditu, hots, biktimizazio sozial, psikologiko, ahozko eta fisikoaren itemak. Datu horiek bullying eskalaren faktore-egitura egokia berresten dute.

### 2) Cyberbullyingaren eskala

Cyberbullying eskalari dagokionez, jatorrizko laginean Cronbach Alpha koefizientea altua eskuratu zen ( $\alpha = .91$ ), 3 faktoreetan erdietsitakoaren antzera: ziberbiktimizazioa ( $\alpha = .82$ ), zibererasoa ( $\alpha = .91$ ) eta ziberbehaketa ( $\alpha = .87$ ). Emaitza horiek eskalaren barne konsistentzia handia berresten dute. Ikerketa honetako laginean, emaitza antzekoak eskuratu dira proba

guztirako ( $\alpha = .84$ ), ziberbiktimizazio eskalarako ( $\alpha = .80$ ) eta baita zibereraso eskalarako ere ( $\alpha = .83$ ).

Eskalaren dimentsionaltasuna aztertzeko osagai nagusien azterketa egin zen. KMP indizeak 0,94ko balioa eman zuen, egokizat jo daitekeena. Bestalde, Barlett testak emaitza adierazgarria erakutsi zuen estatistikoki  $\chi(990) = 51208,99$ ,  $p < .001$ . Faktore-matrizearen errotaio método modura, varimax-errotaioa burutu zen. Kaiser faktoreak ateratzeko irizpideak aintzat hartuz unitateaz gaindiko balioak dituzten 3 faktore eskuratzen dira, bariantza osoaren % 40,5eko portzentajea azaltzen dutenak. Faktoreen gaineko azterketaren emaitzek hiru faktore daudela erakusten dute. Lehen faktorea zibererasotzailearen rolaren 15 itemekin konfiguratzen da, bigarren faktorea ziberbehatazailearen rolaren 15 itemekin eta hirugarren faktorea ziberbiktimari dagozkion 15 itemekin. Datu horiek cyberbullying eskalaren faktore-egitura egokia berresten dute.

### **6.2.2 Bullying homofobia neurtzeko eskala, LGTBIQ populazioari zuzenduta dagoena (Caballo, Arias, Calderero, Salazar eta Iruñia, 2011 egokitzapena Caminos eta Quentrequeo, 2015)**

#### **Probaren deskribapena**

Galdetegi hau Caballo, Arias, Calderero, Salazar eta Iruñiak (2011) diseinatu zuten “*Cuestionario multimodal de interacción escolar*” (CMIE-III) eskalan oinarrituta dago, ikasleen arteko interakzioak neurtzen dituena. Horrela, Caminos eta Quentreque (2015) autorek jazarpen homofobia ebaluatzeko tresna bat sortu zuten. Lehenik eta behin, kontzeptu hau ulertu ahal izateko, Olweus (1999) autoreak bullyingaren inguruan egindako definiziora jo behar da: modu errepikatuan ikasle batek beste baten aurka egindako jazarpen fisiko edota psikologikoa. Berriazko ekintza negatibo honek ihes egiten zaila den egoera batean kokatzen du biktima. Autore honen azterketarekin jarraituz, jokaera honek eragin negatibo desberdinak dituela ikusi da: autoestima mailen jetsiera, estutasun egoerak eta baita depresio-maila areagotzea ere. Ondorio hauek aldi berean, eskolan integratu ahal izatea eta pertsonetan ikaskuntzaren garapena normala lortzea zailtzen dute.

Bullying homofobia testuinguru honen barruan kokatzen da, eskola jazarpen mota espezifikoa den bullying mota izanik. Bullying homofobia Platero-Méndez (2008) ikerlariak definitu zuen erasotzaile batek edo gehiagok burututako indarkeria jokabideak bezala, non biktimak modu errepikatuan, eskusioa, mehatxuak, irainak eta erasoak jasaten dituen. Egoera honetan botere desparekotasunean oinarritzen den harremana egongo da eta erasotzaileak edo "bulliak" homofobiaz, sexismoaz eta heterosexismoarekin erlazionatutako baloreez baliatuko dira. Testuinguru honetan, biktimari gizatasuna eta izen ona kenduko zaio eta, orokorrean, ezingo du egoera honetatik ihes egin. Biktimen barruan hala gazte gayak, lesbianak, bisexualak, transexualak, intersexualak edo queerrak, nola feminitate/maskulinitate ereduetatik urruntzen den edozein pertsona sartzen dira.

Jatorrizko tresna Caballo, Arias, Calderero, Salazar eta Irurtiak (2011) sortu zuten eta 44 itemek gehi 2 kontrol-itemek osatzen dute. 44 item hauek 6 faktoreetan banatzen dira: (1) Eraso jokabideak (erasotzailea), (2) Jasandako biktimizazioa (biktima), (3) Erasotzaileari sostengua ematearen jokabidea, (4) Biktima defendatzen duen behatzaile aktiboa, (5) Muturreko jazarpena/Ziberjazarpena, eta (6) Behatzaile pasiboa. Egokitzapen honetan ondorengo faktoreei lotutako itemak aukeratu dira: Jasandako biktimizazioa (Adibidez: *"Niretz barre edo burla egin dute nire orientazio sexualarengatik"*), Biktima defendatzen duen behatzaile aktiboa (Adibidez: *"Orientazio edo genero identitate edo genero adierazpenarengatik kide batetaz barre egin badute, egoera mozteko esku hartu dut"*), Muturreko Jazarpena/Ziberjazarpena: (Adibidez: *"Gailu elektronikoen bitartez [internet, mugikota, etab.] mehatxuak jasan ditut nire genero identitate edo adierazpenarengatik"*) eta, azkenik, Behatzaile pasiboa (Adibidez: *"Orientazio sexualarengatik edo genero identitate edo adierazpenarengatik pertsona bat mehatxatuz gero, ez nuen ezer egin"*).

### **Aplikazio, zuzenketa eta interpretazio arauak**

Egokitzapenak egin eta gero, galdetegi honek 1 eta 6 puntu bitarteko Likert formatua dauka. Elkarriketatuek bullying homofoboarekin lotura duten egoera bakoitzarekin zenbateko maiztasunarekin inplikatuak egon diren adierazi behar dute (1 = inoiz ez; 2 = behin; 3 = batzuetan; 4 = askotan; 5 = ia beti; 6 = beti).

## 2. Koadroa. Bullying homofoboaren eskalaren bidez ebaluatutako aldagaiak, itemak eta puntuazio minimo eta maximoak

Aldagaiak	Itemak	Puntuazio minimoa	Puntuazio maximoa
Jasandako biktimizazioa	1-21	21	126
Eskola hutsegitea jazarpenarengatik	22-24	3	18
Ziberbiktimizazioa	25-26	2	12
Behatzaile pasiboa	27-29	3	18
Erasotzailea	30	1	6
Behatzaile aktiboa	31-33	3	18

## 3. Koadroa: Bullying homofoboa: biktima, erasotzailea eta behatzailea

Aldagaiak	Itemak	Puntuazio minimoa	Puntuazio maximoa
Jazarpen homofoboaren biktima	1-26	26	156
Jazarpen homofoboaren erasotzailea	30	1	6
Jazarpen homofoboaren behatzailea	27-29 eta 31-33	6	36

## Froga psikometrikoak

Camino eta Quentrequero (2015) autoreek egindako ikerketan Bullying Homofoboaren eskala behatzean, item bakoitzak bere dimentsioarekin lotura duela berretsi da, faktore bakoitzarekin erlatiboki altua den korrelazioa azalduz. Hasiera batean, eskalak 22 item zituen, 20 jasandako biktimizazioarentzat, 6 muturreko jazarpen/ziberjazarpenarentzat, 4 behatzaile pasiboarentzat eta 3 behatzaile aktiboarentzat. Tresna honetan eraldaketak egin ziren, izan ere, 30. itema hirugarren dimentsioan (behatzaile pasiboa) sartuta zegoen (*“Beste kide baten orientazio sexualari edo genero identitate edo adierazpenari buruzko zurrumurru bat zabaldu nuen”*) eta behatzaile pasiboaren dimentsioaren fidagarritasuna gutxitzen zuenez ( $\alpha = .74$ ), dimentsio honetatik ezabatua izan zen. Ondorioz, Cronbachen Alfabaren koefizienteak gora ezin zuen fidagarritasuna hobetuz ( $\alpha = .89$ ). Edozein kasutan ere, 33. itemak kontuan hartuz gero lortutako barne konsistentzia onargarria da. Azterlan honen laginean, eskala guztirako barne konsistentzia altua izan da ( $\alpha = .81$ ).

### **6.2.3 Nerabezaroaren eta aniztasun sexualaren inkesta (Pichardo, Molinuelo, Rodríguez, Martín eta Romero, 2007)**

#### **Probaren deskribapena**

Inkesta hau nerabeen populazioan nagusi diren aniztasun sexualaren aurreko jokabideak neurtzeko sortu zen. Horretarako, tresna honek helburu hauek ditu:

- Ikasgeletako nerabe ez-heterosexuak identifikatu (aniztasun sexuala).
- Nerabeek duten LGTB pertsonen inguruko ezagutza egiaztatu.
- Nerabeek dituzten jokabide LGTBfobikoen existentzia berretsi.
- Nerabeen inguru sozialak aniztasun sexualaren aurrean dituen jokabideak neurtu, nerabeek emandako informazioaren bidez.

Pichardo et al. (2007) ikerlariek kontzeptu hauek definitu zituzten. Alde batetik, aniztasun sexuala erabilia izan da orientazio sexualarekin zerikusia duen aniztasuna neurtzeko, hau da, pertsona homosexualak sexu bereko pertsonengatik erakarpena sentitzen duten pertsonak dira. Bestalde, elkarriketatutako pertsonak LGTB pertsonen artean nortzuk diren beraien erreferenteak adierazi behar dute galdetegi honetan. Badirudi pertsona homosexualak ezagutzeak adierazle eta jokaera homofoboak murrizten dituela. Zenbat eta hurbiltasun afektibo eta emozional handiagoa egon pertsona horiekiko, orduan eta baxuagoa izango da adierazleen zenbatekoa.

LGTBfobia horrela definitua izan da: “Homosexuala den orientazio sexuala behe mailako, aurkako edo ez-normala den orientazioa dela sinisten duen etsaitasun jarrera da. Sinesmen honek orientazio sexual hau praktikan jartzen duten pertsonak bekatari, gaixo, maltzur, gaizkile, kriminal edo oreka gabeko pertsonak bezala kontsideratuko ditu, batzuetan gizakiak direla zalantzan jarritz” (Pichardo et al., 2007).

Gaitzespen hau heteronormatibitate aldentzen diren pertsonen zuzenduta egongo da, jokabide honek gizarteak inposatutako genero roletatik urruntzen diren pertsonak barne hartzen dituelarik. Gainera, kontuan hartu behar da, fenomeno hau ez dutela sufritzen bakarrik bazterkeria eta irainak modu zuzenean pairatzen dituzten pertsonak, baizik eta baita orientazio

sexuala eta genero identitatea adieraztean erasotzak izan daitezkeela kontziente diren pertsonen ere (Pichardo et al, 2007).

Azkenik, inguruzten gaituzten sare sozialen edo bizitzako bizipenen baitan, pertsona bakoitzak hautemate desberdina izango du gizarteak LGTB pertsonen aurrean dituen jokabideen inguruan. Testuinguru honetan, galdetegi honek berreitsi nahi du LGTB pertsonen duten babes falta.

### **Aplikazio, zuzenketa eta interpretazio arauak**

Jatorrizko galdetegi lau faktoreetan banatzen da: (1) aniztasun sexuala, (2) jarrera LGTBfobikoak, (3) aniztasun sexualaren inguruko ezagutza eta (4) nerabeen hautemate beste pertsonen aniztasun sexualaren aurrean dituzten jokabideen inguruan.

Lehenengo faktoreari dagokionez, elkarrizketatuen orientazio sexuala ebaluatzen duen itema ezabatua izan da. Izan ere, aldagai hau lehenago aztertzen da galdetegi soziodemografikoaren bidez. Gainera, aipagatzekoa da jatorrizko galdetegi aldatu egin dela, ikerketa hau aurrera eramateko garrantzitsuak diren itemak aukeratuz eta horrela, tresnaren aplikazioa, zuzenketa eta interpretazioa erraztuz.

Bigarren faktorea bi osagarri nagusietan banatzen da: hasteko, bullying LGTB-fobikoa, lehenengo itemaren bidez neurtzen dena. Kasu honetan, ikasleek zenbait jokabide LGTBfobikoen (Adibidez: irainak: marikoi, tortillera, bollera...) biktima, erasotzaile edo behatzaile izan diren erantzun behar zuten ondorengo erantzunak aukeratuz: (biktima), esan edo egin duzu (erasotzaile), edo ikusi edo testigu izan zara (behatzaile). Ondoren, 5. eta 7. itemen bidez aniztasun sexualaren aurrean dituzten erantzunak aztertzen dira.

- 5. itema: item honetan elkarrizketatuek LGTB den irakasle baten aurrean edukiko zuten erreakzioa adierazi behar zuten, beraien iritzari gehien hurbiltzen zen erantzuna aukeratuz: burla egingo nioke, pertsona gay, lesbiana, bisexual eta transexualak ez lirateke irakasleak izan behar, senideei esango nieke eskolan kexa bat jarri dezaten, garrantzitsuena irakasle ona izatea da, ez beste ezer.
- 7. itema: item honetan elkarrizketatuek kide batek LGTB dela onartuz gero, zein erreakzio edukiko zuten adierazi behar zuten. Kasu honetan, egoera horretan edukiko zuten

sentimenduari edo jokaerari gehien hurbiltzen zen erantzuna aukeratu behar zuten: lekuz aldatzen saiatuko nintzake; ez nuke ezer egingo baina deseroso sentituko nintzateke; ez nuke nire portaera aldatuko, dena berdin jarraituko luke; berejun ligatzen saiatuko nintzateke.

Bukatzeko, 6. eta 8. Itemek laugarren faktorearen inguruko informazioa ematen dute. Hots, 6. itemak elkarrizketatuen hautematea neurtzen du LGB pertsonen familian, eskolan eta gizartean ematen zaien tratua inguruan. 8. Itemak berriz, elkarrizketatuak LGTB balira edo LGTB direla pentsatuko balute inguru sozialek nola erantzun zuten ebaluatzen du. Item bakoitzean, elkarrizketatuen iritzia gehien hurbiltzen zaion erantzuna adierazi behar da.

### **Froga psikometrikoak**

Galdetegi hau Picardo et al. (2007) ikerlariengatik diseinatua eta erabilia izan zen Espainiako ikasgeletan LGTBfobiaren existentzia berretsi nahian. Modu honetan, ez-normatiboa den orientazio sexuala edota genero/sexu identitatea duten ikasleak eskoletan babesturik dauden ikertu nahi zen. Nahiz eta azterlan honek arazo honen esku-hartzerako programak martxan jartzeko informazio garrantzitsua eskuratu zuen, erakusten duen mugetariko bat galdetegi bera da, ez baititu tresnaren balioasuna eta fidagarritasuna frogatzen duten froga psikometrikoak pasa. Horregatik, eta gure ikerketarako, item batzuek aukeratu ziren eta lagina jaso baino lehen lagin pilotu batek bete zuen galdetegi parametro psikometrikoak berresteko asmoz.

#### **6.2.4 Beck-en Depresioaren Inbentarioa II (Beck, Steer eta Brown, 1996; egokitzapena Sanz, García-Vera, Espinosa, Fortún eta Vázquez, 2005)**

##### **Probaren deskribapena**

Beck-en Depresioaren Inbentarioa II (BDI-II) Beck, Steer eta Brown-ek (1996) diseinatutako jatorrizko tresnaren espanierazko egokitzapena da, eta zuzenduta dago depresioarekin erlazionaturako sintomak ebaluatzen, nahasmen mentalen diagnostiko eta estadistiken eskuliburuaren laugarren edizioan (DSM-IV; American Psychiatric Association, APA, 1994) deskribatu direnak. Depresio hitzak latinezko depresio hitzean dauka jatorria, bere esanahia "lurreratuta" edo "eraitsita" dena. Kontzeptu honetaz hitz egiten dugunean, triste eta



ahulduta sentitzen den pertsona batek sufritzen duen nahasmen emozionalaz ari gara, barne ongieza-bizipenak eta inguruarekin harremanak edukitzeko zailtasuna eragiten dituen. Tresna hau 21 itemek osatzen dute eta hauek depresioaren larritasuna neurtzera zuzenduta daude, 13 urtez gorako heldu eta nerabeetan. Beck-en Depresioaren Inbentarioa II eskalak aldaketa asko pairatu ditu azken urteetan, eta berrikusitako bertsio berrian, adibidez, 4 item ezabatuak izan ziren eta beste berri batzuegatik ordezkatuak izan ziren (urduritasuna, eraginkortasun ezaren sentimendua, kontzentrazio zailtasuna eta energiaren galera). Kontuan hartu behar da tresna hau ez zela sortu diagnostiko kliniko bat zehazteko, baizik eta lehen aipatu den bezala, DSM-IV eskuliburuan deskribatutako depresio sintomen agerpena detektatzeko.

### **Aplikazio, zuzenketa eta interpretazio arauak**

Tresna hau 21 itemez osaturik dago eta 63 puntuko puntuazio maximoa dauka. Item bakoitza 4 puntuko Likert eskalaren bidez erantzuten da (0tik 3ra) eta erantzun hauek larritasunaren arabera ordenatuak daude, larritasun gutxienetik gehienara. Elkarrizketatuaren erantzuna azken bi asteetan sentitu den modua hobekien deskribatzen duen esaldiaren arabera izango da. Pertsonak erantzun bat baino gehiago aukeratuz gero, puntuazio altuagoa duen erantzuna hartuko da kontuan.

Item hauek honako modu honetan sailkatuak daude: tristura, ezkortasuna, porrota sentimendua, plazarren galera, erru sentimendua, zigor sentimendua, norberaren buruarekin atsekabea, autokritikak, suizidio pentsamendua edo nahia, negarra, urduritasuna, interesaren galera, zalantza, eraginkortasun eza, energiaren galera, loaren patroian aldaketak, suminkortasuna, aldaketak apetituan, kontzentratzeko zailtasuna, nekea edo itolarria, sexuarekiko interesaren galera.

Elkarrizketatutako bakoitzaren puntuazioa item bakoitzaren batukaren bidez lortzen da. Ondorengo koadroak (4. Koadroa), puntuazioak nola interpretatu behar diren adierazten du.

#### 4. Koadroa. BDI-ren tarteak eta eta puntuazio totalak

Tartea	Puntuazio totalak
Mínimoa	0-13
Arina	14-19
Neurrizkoa	20-28
Larria	29-63

BDI-II- tresnaren bidez, aplikazioa erraztu egin da, 5-10 minututan egiten dena, eta eskuliburua erabiliz interpretazio erraza izatea lortu da. Beraz, abantaila handia dauka jatorrizko tresnarekin alderatuz gero. Gainera, galdetegi hau modu desberdinetan neur daiteke: norbere aplikazioaren bidez eda ahozko aplikazioaren bidez. Horregatik, pertsonak 21 itemak betetzeaz amaitzen duenean, gomendagarria da item guztiak ondo erantzunak daudela egiaztatzea.

### **Froga psikometrikoak**

Propietate psikometrikoei dagokienez, ikerketa anitzek tresna honen fidagarritasuna eta baliotasuna ziurtatzen dute. Barne konsistentziaren azterketek .87 eta .90 tartean dauden Cronbanchen Alphak erdietsi dituzte, BDI-II eskala guztirako emaitza oso egokiak erakutsiz. Era berean, gure laginarekin egindako frogetan barne konsistentzia altua erdietsi da eskala guztiarentzat ( $\alpha = .84$ ).

Gainera, item bakoitzak bere dimentsioak ebaluatzen dituela frogatu ahal izan da, faktore bakoitzaren totalarekin estatistikoki esanguratsuak diren korrelazio positiboak adieraziz ( $DT=.08$ ). Ondorioz, BDI-II espanierazko bertsioak Alpha koefiziente altuak erakutsi ditu eta depresioaren dimentsio orokorra neurtzeko tresna egokia dela egiaztatu duen egitura faktoriala azaldu du, hurrengo bi faktoreak era egokian desberdinduz: sintomatologia kognitibo-afektiboa eta somatiko-motibazionala. Beraz, ezaugarri psikometriko onargarriak erakusten ditu eta tresna egokia da nerabeetan eta helduetan depresioaren sintomatologia ebaluatzeko.

### **6.2.5 Nerabeen Estutasun Sozialaren Eskala (SAS-A) (La Greca eta Stone, 1993; espanierazko egokitzapena Olivares et al., 2005)**

#### **Probaren deskribapena**

SAS-A eskala Social Anxiety for Children-Revised (SASC-R) (La Greca eta Stone, 1993) tresnaren egokitzapena da. Egokitzapen hau nerabeetan estutasun soziala ebaluatzeko diseinatu zen eta autore berdinek egokitu zuten (La Greca eta López, 1998). Fobia soziala helduetan ohikoena den eta nerabezaroan sarrien diagnostikatzen den nahasmen mentala da. Honen harira, ikerketa anitzek frogatu dute fobia hau nerabezaroan hasten dela. Arrazoi honengatik, ikerlari anitzek interes handia adierazi dute estutasun soziala ebaluatzeko tresna

berrien sorkuntzan. Gaur egun, eta nahiz eta kontzeptu honek interes handia piztu duen, nerabeetan fobia soziala ebaluatzeko bi tresna existitzen dira bakarrik, eta horietako bat SAS-A da, Olivares et al. (2002) autoreek gaztelerara egokitu zutena.

### **Aplikazio, zuzenketa eta interpretazio arauak**

SAS-A 22 itemek osatzen dute: horietatik 18 nork bere buruaz egindako baieztapenak dira (Adibidez: besteek nire buruaz esaten dutenak kezkatzen dit) eta 4 neutroak dira (Adibidez: kirola egitea gustatzen zait).

Eskala honen erantzunak 1-5 bitarteko Likert eskala baten bidez puntuatzen dira, non 1 inoiz ez den eta 5 beti. Tresna honek hiru azpieskala barne hartzen ditu: 8 item ebaluazio negatiboari beldurra neurtzeko, 6 item egoera berrietan eta ezezagunekin sufritzen den ekidite eta ongieza soziala neurtzeko eta 4 item orokorrean ezezagunen ondoan sufritzen den ekidite eta ongieza soziala ebaluatzeko. Puntuazio totalari dagokionez, bi modutara egin dateieke: azpieskala bakoitzaren itemen erantzunak gehituz azpieskala bakoitzaren puntuazioa eskuratzeko, edo item guztiak gehituz (4 neutroak ez beste) eskalaren puntuazio totala lortzeko.

#### 5. Koadroa. SAS-A eskalaren azpieskalak, itemak eta puntuazio minimoak eta maximoak

Azpieskalaren izena	Itemak	Puntuazio minimoa	Puntuazio maximoa
Ebaluazio negatiboari beldurra	3,6,8,9,12,14,17,18	8	40
Ekidite eta ongieza soziala egoera berrietan eta ezezagunekin	1,4,5,10,13,20	6	30
Orokorrean ezezagunekin sufritzen den ekidite edo ongieza soziala	15,19,21,22	4	20
Neutroak	2,7,11,16		
Estutasun sozial totala	Item guztiak hauek ez beste: 2,7,11,16	18	90

### **Froga psikometrikoak**

Tresta honek jarraian azalduko diren parametro psikometriko egokiak erakutsi ditu. Barne konsistentziari dagokionez, Cronbachen Alpha koefizientea .91 puntukoa izan zen eskala guztirako. Dimentsioek ere, beraien aldetik, amaitza onak azaldu zituzten: .94 puntu ebaluazio negatiboari beldurrantzat, .87 egoera berri eta ezezagunekin sufritutako ekidite eta ongieza

sozialarentzat eta .80 orokorrean ezagunekin gertatzen den ekidite eta ongieza emozionalarentzat. Ikerketa honen laginarekin barne konsistentzia altua izan da ( $\alpha = .87$ ).

Berrespen-azterketa faktorialek ere emaitza onak agertu zituzten. Izan ere, azpieskalen artean korrelazio altuak baieztatu ziren eta honek frogatzen du azpieskalek estatusun sozialaren aspektu desberdinek neurtzen dituztela. Ondorioz, emaitzek berretsi dute tresna hau estatusun soziala neurtzeko egokia dela

### **6.2.6 SCL-90-R. Berrikusitako 90 sintomen galdetegia (Derogatis, 2002)**

#### **Probaren deskribapena**

90 itemez osatuta dagoen eta elkarriketatuak berak erantzuten duen galdetegia da. Erantzunak 0-4 bitarteko Likert eskalaren bidez puntuatzen dira eta elkarriketatuak azken asteetan, item bakoitzak aztertzen duen ongieza zein nolako intentsitatearekin bizi duen adierazi behar du. 90 itemak asaldura psikologikoez informatzen duten 10 eskaletan sailkatzen dira.

1. *Somatizazioa* (gorputz disfunzioekin eta bihotzeko, arnas, urdail-hesteetako eta muskulu sistemetako asaldura neurovegetatiboekin erlazonatutako bizipenak adierazten dituzten 12 sintoma)
2. *Obsesio-konpulsioa* (zentzugabetzat hartzen diren eta desiatzen ez diren jokabide, pentsamendu eta inpultsuak deskribatzen dituzten 10 item, larritasun handia eragiten dutenak eta ekiditen, ezabatzen edo aurka egiten zailak direnak).
3. *Sentikortasun interpersonal* (9 sintoma ondorengoa adierazten dutela: herabetasun eta lotsa sentimenduak, bestepertsonak baino gutxiago sentitzeko joera, besteen iritziei eta jarrerrei hipersentikortasuna, eta orokorrean, deserosotasuna eta inhibizioa sentitzea harreman interpersonaletan).
4. *Depresioa* (depresio desorekaren sintoma eta zeinuak barne hartzen dituzten 13 sintoma: bizipen disforikoa, anhedonia, itxaropen eza, inpotentzia, energia falta eta nork bere burua mintzen duten eta depresio egoeren ezaugarri diren ideia eta adierazpen kognitiboak eta somatikoak).
5. *Estutasuna* (estatusun-adierazpen klinikoarekin zerikusia duten adierazpenekin erlazonatutako 10 sintoma, bai orokortuak eta baita zehatzak ere. Tentsio emozionala eta honen adierazpen psikosomatikoak sartzen dira multzo honetan).

6. *Etsaitasuna*: (agresibitatea, haserrea, sumindura, gorrotoa eta erresumina barne hartzen dituzten 6 sintoma).
7. *Estutasun fobikoa* (bizipen fobikoaren aldaera desberdinak aintzat hartzen dituzten 7 sintoma. Bizipen fobikoa etengabeko, neurritz kanpoko eta irrazionala den beldurra da, pertsona, animali, leku, objektu edo egoera baten aurrean gertatzen dena eta orokorrean, ekidite edo ihes jokabideek zailtzen dutena. Honek agorafobiaren eta fobia sozialaren sintomen eskaletan pisu handiagoa du fobia sinpleen sintometan baino).
8. *Ideiagintza paranoidea* (jokaera paranoidearen 6 sintoma. Orokorrean erantzun bat kontsideratzen da non mesfidantza, zentralismo autoerreferentziala eta eldarniozko ideiak, etsaitasuna, handitasuna, autonomiaren galerari beldurra eta kontrolaren beharra ematen den).
9. *Psikotizismoa* (eskizodia arinetik psikosira zabaltzen den esprektro psikotikoa deskribatzen duten 10 sintoma, populazio orokorrean alineazio sozialaren sentimenduekin erlazionatzen dena eta ez hainbeste klinikoki adierazten den psikosiarekin).
10. *Gehitutako eskala* (7 sintoma nahasi depresio melankolikoarekin lotura handia dutela).

#### **Aplikazio, zuzenketa eta interpretazio arauak**

Eskala honen erantzunak Likert eskala baten bidez adierazita daude (0-4 bitarte). SCL-90 eskalaren puntuazio totala dimentsio desberdinak neurtzen dituzten 10 azpieskalen puntuazioak gehitzen eskuratzen da. Gainera, proba honek honako indize hauek lortzea baimentzen du: *sintomen indize orokorra* (GSI), hots, sufrimendu psikiko eta psikosomatiko globalaren intentsitatearen neurketa, orokortutako eta bereizi gabekoa dena; *sintoma positiboaren totala* (PST), bertan diren sintomen zenbatekoa; eta *sintoma positiboaren distresaren indizea* (PSDI), sufrimendua edo distres globala sintomen zenbatekoarekin erlazionatzen duena.

## 6. Koadroa. SCL-90 R-ren dimentsioak, itemak eta puntuazio minimo eta maximoak

Dimentsioak	Itemak	Puntuazio minimoak	Puntuazio maximoak
Somatizazioa (SOM)	1-12	0	48
Obsesio konpulsioa (OBS)	13-22	0	40
Sentikortasun interperersonala (SEN)	23-31	0	36
Depresioa (DEP)	32-44	0	52
Estutasuna (ANS)	45-54	0	40
Etsaitasuna (HOS)	55-60	0	24
Estutasun fobikoa (FOB)	61-67	0	28
Ideia gintza paranoidea (PAR)	68-73	0	24
Psikotizismoa (PSIC)	74-83	0	40

**Froga psikometrikoak**

Espaniako laginarekin burututako ikerketen emaitzek (González de Rivera et al., 2002) probaren fidagarritasun egokia aditzera eman dute eta hau koherentea izan da tresnaren egileak eskuratutako datuekin (Derogatis, 2002). Alpharen balioak .81 eta .90 puntu bitartekoak dira. Barne konsistentziaren balio hauek adierazten dute dimentsio bakoitza osatzen duten itemen homogeneotasuna oso altua dela, beraien arteko korrelazioa altua izanik. Denborazko egonkortasunak, (.78 eta .90 puntu bitarte) aste bateko trest-retest tartearekin, denboran zeharreko puntuazio egonkorak azaltzen ditu. Beste ikerketa batzuek dimentsio sistematikoaren profila eta lagin klinikoa osatzen duten talde diagnostikoaren arteko erlazioa erakutsi dute, tresnaren baliotasuna indartu dutelarik. Horrela, adibidez, puntuazioak estatistikoki altuagoak izan dira lagin psikiatrikoetan ez-klinikoak diren laginetan baino. Azkenik, ikerketa honen laginarekin Cronbachen Alpharen koefizientea kalkulatu da eta eskala osoarentzat barne konsistentzia oso altua berretsi da ( $\alpha = .97$ ).

**6.2.7 Bem-en Sexu Rolaren Inbentarioa (Bem, 1981; espanierazgo agokitzapena Fernández eta Páez, 2004)****Probaren deskribapena**

Inbentario hau Bem's Sexual Role Inventory-ren (BSRI) (Bem, 1981) laburpena da. Proba honen helburua generoaren rolen ezaugarriekin, hots, maskulinitate eta feminitatearekin, pertsonen duten identifikazioa ebaluatzea da. Ezagarri hauek lorpen, materialismo eta

konpetizioarekin lotura duen enfasiarekin edo partekatze afektiboa, bizitza kalitatea eta harmonia interperstonalarekin zerikusia dute (Fernández eta Páez, 2004). Bem (1981) autoreak egindako ikerketan bi konstruktua hauek bi dimentsio desberdinak direla berresten du eta, horregatik, bai bata eta baita bestea ere pertsona berean aurki daitezke. Lan honetan norbere-ebaluazio formatuan banatzen da eskala, ebaluatua izaten ari den pertsonak bere buruarekiko duen feminitatearen eta maskulinitatearen irudia identifikatzeko asmoz.

### **Aplikazio, zuzenketa eta interpretazio arauak**

Proba honen emaitzak Likert formatuaren baitan puntuatzen dira, 1-7 bitarteko eskalarekin, non 1 inoiz ez den eta 7 beti. Honek esan nahi du, elkarriketatutako pertsonak 1etik 7ra puntuatu beharko duela erantzuna bere iritzira gehien hurbiltzen den muturra erreferentzia gisa hartuz. Puntuazioa 18-26 puntu bitartekoa izan daiteke eta elkarriketatutako puntuazioak bi dimentsioen arabera bereizten dira.

Bakoitzak bere buruarekiko duen Maskulinitatearen (MAS) irudiaren azpieskalari dagokionez, puntuazioa eskuratu ahal izateko 1, 3, 5, 8, 11, 12, 13, 16 eta 18 itemak gehitu behar dira. Feminitatearen (FEM) azpieskalaren kasuan, 2, 4, 6, 7, 9, 10, 14, 15 eta 17 itemak gehitu behar dira. Puntuazioen interpretazioa burutu ahal izateko ondorengo puntuazio tarteak hartu behar dira kontuan:

**MAS azpieskalan:** Emakumea izanez gero, 32 puntu edo gehiagoko puntuazioek pertsona instrumentaletan kokatzen dute, espaniar bataz bestekoaren gainetik. Gizona izanez gero, 34 puntu edo gehiagoko puntuazioek posizio instrumentaletan eta bataz bestekoaren gainetik kokatzen dute. Maskulinitatearen eskalaren itemak hauek dira: atletikoa, nortasun indartsua, arriskatzeko nahia du/arriskua gustuko du, menderatzailea, agresiboa, lider bezala jokatzeko du, indibidualista, gogorra eta berekoa.

**FEM azpieskalan:** Emakumea izanez gero, 46 puntu edo gehiagoko puntuazioek pertsona adierazkorretan kokatzen dute, espaniar bataz bestekoaren gainetik. Gizona izanez gero, 41 puntu edo gehiagoko puntuazioek posizio adierazkor tinkoetan kokatzen dute, hots, espaniar bataz bestekoaren gainetik. Feminitatearen eskala osatzen duten itemak hauek dira: maitekorra, besteen beharrekiko sentikorra, ulerkorra, errukiorra, epela, samurra, umeak gustoko dituen, erraz negar egiten duena eta otzana.

## 7. Koadroa. BSRI eskalaren puntuazioen interpretazioa

Sexua	MAS azpieskala	FEM azpieskala
Gizona	Pertsona instrumentala $\geq 34$	Pertsona adierazkorra $\geq 41$
Emakumea	Pertsona intrumentala $\geq 32$	Pertsona adierazkorra $\geq 46$

**Proba psikometrikoak**

Proba psikometrikoei dagokionez, galdetegiak emaitza onargarriak erakutsi zituen fidagarritasunean nahiz baliotasunean. 9 lurralde geografiko-linguistikoetan (Latino Amerika, Estatu Batuak, Europa frankofonoa, hegoaldeko Europa, Alemania, Errusia, Saharaz hegoaldeko Afrika, gertuko Ekialdea eta Ekialdeko Asia), Cronbanchen alpha balio altuagoak berretsi dira adiezkortasun konstruktuentzat (.70 - .89) instrumentalitatearen konstruktuekin alderatuz (.64 - .78). Azterlan honen laginarekin berretsitako barne konsistentzia arinki baxua izan da eskala bere osotasunean kontuan hartu denean ( $\alpha = .64$ ). Hala eta guztiz ere, maskulinitatearen dimentsioak ( $\alpha = .73$ ) eta feminitatearen dimentsioak ( $\alpha = .74$ ) barne konsistentzia egokia azaltzen dute.

**6.2.8 Oxford-eko Zoriontasunaren Eskala (Hills eta Argyle, 2002; espanierazko egokitzapena Garaigordobil, 2015a)****Probaren deskribapena**

Eskala hau *Oxford Happiness Inventory* (Hills eta Argyle, 2002) inbentarioan du bere jatorria, zein laburtuta izan ondoren, modu orokorrean gizabanako bakoitzaren zoriontasuna neurtzen saiatzen den. Konstruktua honen definizioa zailtasun handikoa izan da, eta, horregatik, ikerkuntzak hitz desberdinak erabili ditu zoriontasunaren inguruan hitz egiteko: ongizate subjektiboa, ongizate psikologikoa, bizitza kalitatea, etab. (Garaigordobil, 2015b).

Zoriontasuna bizitza beraren ebaluazio afektibo nahiz kognitiboa bezala definitua izan da, eta hau bizitzarekiko asebetetzearekin, ondorio positiboen agerpenarekin eta ondorio negatiboen gabeziarekin adierazten da (Diener, Suh, Lucas eta Smith 1999). RICH teoriak (Kehle eta Bray, 2004) zoriontasunaren sinonimotzat ongizate psikologikoa hartzen du eta teoria honen arabera, pertsona zorionsuek lau ezaugarri dituzte: baliabideak (bakoitzak bere buruaren kontrola duelaren eta independentziaren sentimendua), intimitatea (laguntasuna, enpatia eta



beste pertsonen konpainiarekin disfrutatzeko gaitasuna), eskumena (trebetasunen kontzientzia eta gaitasunak) eta osasuna (jokabide osasuntsuak praktikatu eta hauen kontzientzia edukitzea).

### **Aplikazio, zuzenketa eta interpretazio arauak**

Ikerketa honen aplikaziorako 29 itemak era positiboan proposatu dira, alderantzizko baieztapenek tresnaren aplikazioa zailtzen baitute. Pertsonak esaldi bakoitzarekin duen adostasun maila azalduko du 1-6 puntu bitarteko Likert eskala batean. Itemen puntuazioen gehiketa egin ondoren, puntuazio altuenek pertsonaren zorientasun maila handiagoa islatuko dute. Puntuazio maximoa 174koa izango da eta minimoa berriz, 29koa.

### **Froga psikometrikoak**

Eskalaren fidagarritasunari dagokionez, 13-68 urte bitarteko 168 pertsonen lagin batean egindako frogetan, .91 puntuko Alpha eskuratu zen. Lan honetako laginarekin eskala honek erakusten duen barne konsistentzia berresteko asmoz, Cronbanchen fidagarritasun balioa kalkulatu da, barne konsistentzia oso altua erdietsiz ( $\alpha = .93$ )

Eskala honetako itemen arteko korrelazioak  $-0.04$  eta  $0.65$  bitartekoak izan ziren eta batz bestekoa, berriz,  $0.28$  puntukoa. Bestalde, *Oxford Happiness Inventory*-ren konstruktua baliotasuna lehenago ebaluatu zen eta hau, aldagai eta ezaugarri kognitiboen desberdintasun indibidualen neurri desberdinen asoziazioen bidez burutu zen. Horrela, jatorrizko ikerketan OHI eta OHQ-ren asoziazioak alderatu ziren. Konstruktua baliotasunaz hitz egiten badugu, OHQ lehenasunezko neurria dela frogatu zen. Izan ere, OHQ eta ebaluatutako nortasun aldagaien arteko korrelazioek tresnaren konstruktua baliotasuna berretsi zuten. Baliotasuna tresnaren bertsio luze eta motzen arteko korrelazioekin baieztatu zen ere ( $r = (163) = .80, p > .001$ ).

### 6.2.9 TMMS-24. Trait Meta-Mood Scale. Metaezagutza-ezaugarrien eskala (Salovey, Mayer, Goldman, Turvei eta Palfai, 1995; espanierazko egokitapena Fernández-Berrocal, Extremera eta Ramos, 2004)

#### Probaren deskribapena

Trait Meta-Mood Scale-24 (TMMS-24) laburtutako eta egokitutako bertsioa da, Espaniako populazioari zuzenduta dagoena (Fernández-Berrocal et al., 2004) eta Trait Meta-Mood Scale (TMMS) eskalan jatorria duena. Adimen emozional intrapertsonalaren mailak hiru faktoreen bidez ebaluatzen ditu: sentimenduei arreta (sentimenduak modu egokian sentitzeko eta adierazteko gaitasuna), argitasun emozionala (bakoitzak bere buruaren sentimenduak ulertzeko gaitasuna) eta aldartearen konponketa (egoera emozionalak modu egokian erregulatzeko gaitasuna)

#### Aplikazio, zuzenketa eta interpretazio arauak

TMMS-24 eskala 24 baieztapenetan datza eta ebaluatutako pertsonak adostasun maila adierazi behar du 1-5 bitarteko Likert eskala batean (1= Adostasunik ez, 5= Erabat ados). Faktore bakoitza zuzendu ahal izateko eta puntuazioak lortzeko, hautemate emozionalarentzat (arreta) 1-8 bitarteko itemak gehitzen dira, 9-16 bitarteko itemak ulermen emozionalarentzat (argitasuna) eta 17-24 bitarteko itemak erregulazio emozionalaren faktorearentzat (konponketa). Testak neurtzen dituen dimentsio bakoitzaren puntuazioen baremoak desberdinak dira gizon zein emakumentzat (8. Koadroa).

#### 8. Koadroa. TMMS-24 eskalaren faktore eta baremoak eta sexuaren araberako interpretazioa

Factorea	Sexua	Baremoak eta interpretazioa
Hautemate emozionala	Gizona	Baxua <21; Ertaina 22-32; Altua >33
	Emakumea	Baxua <24; Ertaina 25-35; Altua >36
Ulermen emozionala	Gizona	Baxua <25; Ertaina 26-35; Altua >36
	Emakumea	Baxua <23; Ertaina 24-34; Altua >35
Erregulazio emozionala	Gizona	Baxua <23; Ertaina 24-35; Altua >36
	Emakumea	Baxua <23; Ertaina 24-34; Altua >35

### **Froga psikometrikoak**

TMMS eskalaren espanierazko egokitzapena egin zen ikerketan, eskalak barne konsistentzia altua erakutsi zuen, azpieskala bakoitzak .85 puntuko Cronbanchen Alpha eskuratu zuelarik. Gure laginean, Cronbanchen Alpharen balioa eskala guztiarentzat .89 puntukoa izan zen, barne konsistentzia altua berresten duena.

Azkenik, tresna honen espanierazko egokitzapenak baliotasun konbergentea eta diskriminatzaile egokia azaldu zuen, emozioen argitasunaren eta konponketaren eta bizitzarekiko asebetetzearen artean korrelazio positiboak aurkitu baitziren eta korrelazio negatiboak berriz, depresioarekin. Azkenik, korrelazio positiboak aurkitu ziren arreta eta depresioaren artean.

#### **6.2.10 Enpatia Kognitiboaren eta Afektiboaren Testa (EKAT) (López-Pérez, Fernández-Pinto eta Abad, 2008) (nerabeentzat egokitzapena Gorostiaga, Balluerka eta Soroa, 2014)**

##### **Probaren deskribapena**

Test hau López-Pérez, Fernández-Pinto eta Abad (2008) autoreek diseinatu zuten helduetan enpatia neurtzeko, apektu kognitiboak eta afektiboak bananduz. Enpatia besteen egoera afektiboak ulertu eta egoera horien aurrean modu egokian jokatzeko gaitasuna da. Kontzeptu hau urte askotan definitua izan da honako bi parametro hauek bereiztuz: kognitiboa (sentimenduen ulermena) eta afektiboa (sentimenduen aurrean gertatzen den emozioen aktibazioa). Gaur egun, enpatiaren definizioa bi osagai hauek kontuan hartuz egiten da, hau da, enpatia beste pertsonen pentsamendu eta emozioak ulertzea eta sentitzea baimentzen duen gaitasuna da.

Eskala kognitiboen artean, alde batetik, ikuspegiak-hartzea aurkitzen dugu, hau da, beste pertsonaren lekuan jartzeko gaitasun intelektuala edo irudimenezkoa (Adibidez: Lagunei hobeto ulertzen saiatzen naiz egoerak beraien ikuspuntutik begiratur). Bestalde, emozioen ulermena, beste pertsonen emozio, intentzio eta asmoak ulertzeko gaitasunari erreferentzia egiten diona (Adibidez: norbaitek bere benetako sentimenduak ezkututzen saiatzen denean konturatu egiten

naiz). Ikuspegiak-hartzearen puntuazio altua duten pertsonek komunikatzeko eta besteekin harremanak mantentzeko erraztasuna izaten dute eta tolerantzia handiagoa erakusten dute. Puntuazio baxua edukitzeak berriz, beste pertsonen egoera mentalak ulertzeko zailtasuna eragiten du. Ulermen emozionalaren eskalan puntuazio altuak dituzten pertsonek ahozko eta ez-ahozko komunikazioan besteen emozioak ulertzeko gaitasuna izaten dute. Ulermen emozionalean puntuazio baxuek harremanak edukitzeko zailtasuna eragiten du, gaitasun sozial gutxiago dituzten pertsonen ezaugarria dena.

Eskala afektiboen artean, estres empatikoa aurkitzen dugu, hots, beste pertsonen emozio negatiboak sentitzeko gaitasuna (Adibidez: Ezin dut pertsona ezezagunen bizipenekin negar egitea ekidin). Alaitasun empatikoak beste pertsonen emozio positiboak sentitzeko gaitasuna da (Adibidez: Norbaiti zerbait ona gertatzen zaionean poztasuna sentitzen dut). Estres empatikoaren eskalan puntuazio altuak dituzten pertsonek kalitatezko harreman sozialak lortzen dituzte eta pertsona sentikorrek eta maitakorrek izaten dira harremanak edukitzeko orduan. Bukatzeko, alaitasun empatikoan puntuazio altuak dituzten pertsonek besteen poztasunaren edo gertakizun positiboaren aurrean zorientasuna sentitzen ohi dute.

Autore batzuek berretsi dute enpatia bizitzaren lehen urtean garatzen dela. Jarrera erasokorrak galarazten ditu jokaera prosozialak sustatuz eta, horregatik, oso garrantzitsua da bai haurtzaroen eta baita nerabezaroen ere (López-Pérez, Ambrona eta Márquez-González, 2014). Ikerketa batean, Garaigordobil eta García de Galdeano (2006) autoreek aurkitu zuten maila altuagoak zituzten umeei adeitasun gehiago erakusten zutela berdinaren aurrean eta autokontrola, lidergoa eta adierazpeneko elkarrekintza maila handiagoak adierazten zituztela. Besteen emozioak ulertzen laguntzen duen aldagaia da eta honekin batera, bakoitzak dituen emozioak erregulatzen laguntzen du besteen erantzun emozionalak eraldatu ahal izateko.

### **Aplikazio, zuzenketa eta interpretazio arauak**

Eskala hau 30 itenez osaturik dago eta erantzunek Likert formatua dute. Erantzun bakoitzaren puntuazioa 1-5 puntu bitartekoa da eta elkarrizketatuak item bakoitzarekin duen adostasun maitalaren arabera izango da (1: guztiz ados; 5: adostasunik ez). Puntuazio globala item bakoitza gehituz lortzen da. 9. Koadroan itemek ebaluatzen dituzten faktoreak eta faktore bakoitzaren puntuazio minimo eta maximoak ikus ditzakegu.

## 9. Koadroa. EKAT eskalaren azpieskalak, itemak eta puntuazio minimo eta maximoak

Azpieskalaren izena	Itemak	Puntuazio minimoa	Puntuazio maximoa
Ikuspegiak-hartzea	6,11,15,17*,20,26*,29,32*	8	40
Emozioen ulermena	1,7*,10*,13,14*,24,27,31,33	9	45
Estres enpatikoa	3,5,8*,12*,18,23,28*,30*	8	40
Alaitasun enpatikoa	2,4,9,16,19,21*,22,25*	8	40
GUZTIRA	1-33	33	165

Oharrak: \* Alderantzizko moduan neurtzen diren itemak. Erabilitako egokitzapenean 3. Itema modu zuzenean neurtzen da.

**Froga psikometrikoak**

Parametro psikometrikoei dagokienez, alde batetik, test honek fidagarritasun egokia erakusten du, galdetegi guztiarentzat Cronbanchen Alpha .86 puntukoa izanik. Lau dimentsioentzat .70 eta .78 puntu bitartekoa da balio hau. Gainera, tresna honek beste galdetegiekin .63 eta .73 puntuko korrelazioak erakutsi zituen, baliotasun konbergente egokia frogatzen dutena. Bestalde, nerabeentzat egokitutako tresnak lau dimentsioentzat .76; .67; .66; .86 puntuko Omega erakutsi zuen: ikuspegiak-hartzea, emozioen ulermena, estres enpatikoa eta alaitasun enpatikoa. Enpatia globalaren kasuan, azterketek .89 puntuko Omega baieztatu zuten, balio guztiak onargarriak izan zirela berretsi zelarik. Azkenik, ikerketa honen laginarekin Cronbanchen Alpha kalkulatu da eta barne konsistentzia altua frogatu da eskala guztiarentzat ( $\alpha = .84$ ).



---

**7. KAPITULUA**  
**DISEINUA ETA PROZEDURA**

---





## 7. KAPITULUA. DISEINUA ETA PROZUDURA

Zeharkako ikerketa honetan, konparazio diseinu deskribatzailea erabili da. Lehenik eta behin, metodologia deskribatzailea erabili zen DBHko bigarren zikloko bullying eta cyberbullyingaren biktimen eta erasotzaileen prebalentzia aztertu ahal izateko. Honez gain, metodologia bera burutu zen bullying eta cyberbullying LGTB-fobikoaren biktima, erasotzaile eta behatzaileen prebalentzia eta nerabeek aniztasun sexualaren aurrean dituzten jarrerak neurtzeko. Bestalde, konparaziozko metodologia erabili zen sexuaren, orientazio eta identitate sexualaren arabera biktimizazio, eraso eta biktimizazio-esaotzailean alderik zegoen aztertzeko. Metodologia bera erabili zen pertsona ez-heterosexualen eta heterosexualen artean bullying/cyberbullying LGTB-fobikoaren biktima, erasotzaile eta behatzaileen prebalentzian desberdintasunik zegoen frogatzeko eta aniztasun sexualaren aurreko jarreretan sexuaren araberako desberdintasunik zegoen berresteko. Azkenik, konparaziozko metodologia erabili zen bullyingaren (aurrez-aurreko, elektronikoa eta LGTB-fobikoa) biktima eta erasotzaile izan ziren edo ziren ez-heterosexualen eta heterosexualen artean osasun mentalean eta nortasun ezaugarrietan desberdintasunik existitzen zen aztertzeko.

Honako prozedura hau jarraitu zen: lehenik eta behin, Euskadiko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko eta pribatuetan ikasketak burutzen ari zituzten ikasleen zenbatekoaren zerranda eskuratu zen. Lagin adierazgarria kalkulatu ondoren, ikastetxeak zorizko laginketaren bidez aukeratu ziren eta mezu elektronikoa bidali zitzaie proiektua azaltzen zuen gutuna barne zuena. Mezu elektronikoa bidali zenetik bi aste igaro zirenean, ikastetxeetako zuzendarietara telefonoz deitu zitzaie ikerketan parte hartzeko zuten xedea ezagutzeko asmoz, ikerketaren hainbat aspektu azalduz.

Ikerketan parte hartzea onartu zuten ikastetxeei baimen informatzaileak bidali zitzaizkien, bai zentruarena eta baita guraso eta ikasleena ere. Parte hartzeko interesik ez bazuten, bere arreta eskertu eta beste ikastetxe bat hautatzen zen. Baimenak sinatuak zeudela, ikasleek test batera betetzeko egunak adosten zen eta ikastetxe bakoitzeko partaideen zenbateakoa ezagutzen zen. Ondoren, adostutako datetan doktoregaia, lehenago trebatutako graduondoko ikasleen laguntzarekin batera, ikastetxeetara joan eta bi orduko saio batean probak banatzen zituen, saioak ordu erdiko atsedena zuelarik.

Ikasle bakoitzaren anonimata gordetzeko helburuarekin, ikasle bakoitzari zenbaki-kode bat jarri zitzaion. Hala ere, proiektu hau datu disoziatuekin egin ds, hau da, kodigo bakoitza ikasleen izenekin erlazionatu daiteke, beti ere arriskuzko kasu batetaz hitz egiten ari garenean eta egoera hobetzeko xedearekin.

Proiektuak gizakiekin burututako ikerketetan eskatzen diren balore-etikoak bete ditu eta Helsinkiko Deklarazioan kasotzen diren funtsezko oinarriak errespetatu ditu, bere aktualizazioetan eta indarrean dauden arauetan (baimen informatzailea eta informaziorako eskubidea, datu pertsonalen babesa eta konfidentzialitate bermea, diskriminazio eza, doakotasuna, eta ikerketa uzteko aukera edozein fasetan). Gainera, ikerketak aldeko ebaluazioa jaso du Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Irakaskuntzaren eta Ikerkuntzaren Etikarako Batzordearen (IIEUB) eskutik (M10\_2017\_094).

---

## **8. KAPITULUA**

### **EMAITZAK**

---



## 8. KAPITULUA. EMAITZAK

Kapitulu honetan, ikerketan aurkitutako emaitzak aurkezten dira. Lehenengo atalean, aurrez aurreko bullying-prebalentziaren azterketak eta partaideen sexuaren eta orientazio/identitate sexualaren araberako analisi diferentzialak egin dira. Jarraian, analisi hauek errepikatu dira cyberbullyinga aztertzeko. Bigarren atalean, bullying eta cyberbullying LGTB-fobikoaren prebalentzia aurkezten da orientazio sexualaren arabera. Gainera, hurrengo atalean, nerabeek aniztasun sexualaren aurrean dituzten portaeren inguruko emaitzak aurkezten dira. Azkenik, bullying/cyberbullying orokorra eta LGTB-fobikoaren biktima/erasotzaile izan diren ez-heterosexualek eta heterosexualek osasun mentalean eta nortasun ezaugarrietan aurkitutako desberdintasunak aurkezten dira.

### 8.1 BULLYING: PREBALENTZIA

Lehenik eta behin, bizitzan zehar, aurrez aurreko bullying erasoetan, (fisikoa, ahozkoa, soziala eta psikologikoa) biktima, erasotzaile edota biktima-erasotzaile moduan inplikatuak egon diren ikasleen prebalentzia erakusten da. Horrez gain, biktima hutsen (ez dira erasotzaile izan) eta erasotzaile hutsen (ez dira biktima izan) prebalentzia aurkezten da. Lehengo atal honekin bukatzeko, bullying globalaren (“batzuetan”, “sarritan” eta “beti” erantzunei dagokie) nahiz bullying larriaren (“sarritan” eta “beti” erantzunei dagokie) (bullyinga zehazki esanda) portzentajeak aztertzen dira.

Bigarrenik, kontingentzia analisiak egin dira sexu eta orientazio/identitate sexualaren aldagaiekin. Modu honetan, neska eta mutilen nahiz ez-normatiboa den orientazio/identitate sexuala duten pertsonetan eta pertsona heterosexual eta zisgeneroetan aurrez aurreko bullyingaren prebalentzia zehazten da. Halaber, sexuaren eta orientazio/identitate bullyingaren identifikatzaileetan (biktimizazioa, eraso, biktimizazio-erasokorra) sexualaren araberako desberdintasunak dauden frogatzeko, aldagai anitzeko bariantza analisiak (MANOVA) burutu dira.

### 8.1.1 Bullying: biktima, erasotzaile eta biktima-erasotzaileen prebalentzia


#### 8.1.1.1 Bullying: Prebalentzia globala eta larria

##### ***Bullying: Prebalentzia globala***


Atal honetan, bizitzan zehar, aurrez aurreko bullyingean inplikatuak egon diren partaideen prebalentzia globalaren (“batzuetan”, “sarritan” eta “beti”) emaitzak aurkezten dira. Horretarako, aurrez aurreko bullyingaren biktima eta erasotzaileen maiztasunak eta ehunekoak erakusten dira. Horrez gain, biktima-erasotzaileen, biktima hutsen eta erasotzaile hutsen maiztasunak eta ehunekoak erakusten dira. Emaitza hauek jarraian aurkezten dira eta 1. eta 2. Grafikoetan irudikatzen dira.

- **Biktimak:** Laginaren % 41,6k ( $n = 728$ ) adierazi du bizitzan zehar, beste kide batzuegandik aurrez aurreko bullyinga sufritu zuela.
- **Erasotzaileak:** Ikasleen % 28,6k ( $n = 500$ ) adierazi du bizitzan zehar, beste kide batzuei portaera erasokor bate do gehiago egin zizkiola.
- **Biktima-erasotzaileak:** Bullyinga sufritu zuten Ikasleen % 22,8k ( $n = 398$ ) bere kideen aurkako erasoak egin zituen.
- **Biktima hutsak:** Laginaren % 18,9k ( $n = 330$ ) beste kide batzuegandik aurrez aurreko bullyinga sufritu zuen baina ez zituen portaera horiek burutu.
- **Erasotzaile hutsak:** Laginaren % 5,8k ( $n = 102$ ) aurrez aurreko bullying jarrerak burutu zituen baina ez zen jarrera horien biktima izan.

## 1. Grafikoa. Bullying globalaren biktimen, erasotzaileen eta biktima-erasotzaileen ehunekoak




## 2. Grafikoa. Laginaren banaketa biktima huts, erasotzaileetan huts eta biktima-erasotzaileetan

**Bullying: Prebalentzia larria**

Bullying globalaren prebalentzia aztertu ondoren, aurrez aurreko bullyingaren jarreraren bat "sarritan" edota "beti" burutu duten partaideak hartuko dira kontuan. Hau da, biktima larrien eta erasotzaile larrien prebalentzia aurkezten da. Emaizak 3. Grafikoan aurkezten dira.

3. Grafikoa. Biktima eta erasotzaile larrien eta noizbehinkakoen ehunekoak laginaren gainean



Lehenik eta behin, ikus daiteke %11k ( $n = 193$ ) sarritan eta beti aurrez aurreko bullyinga sufritu zuen bitartean, % 30,6k ( $n = 535$ ) noizbehinka (“batzuetan”) sufritu zuela. Bigarrenik, aurkitutako emaitzek % 2,7ko portzentajea berresten dute erasotzaile larrien artean ( $n = 47$ ) (“sarritan” eta “beti”) eta % 25,9koa ( $n = 453$ ) noizbehinkako erasotzaileetan (“batzuetan”).

**8.1.1.2 Bullying: Portaera fisiko, ahozko, sozial eta psikologikoen prebalentzia**

Atal honetan, aurrez aurreko bullyingaren portaera desberdinetan sakontzeko asmoz, ebaluatutako rolen (biktima eta erasotzaile) maiztasun eta ehunekoak aztertzen dira, bai modu globalean eta baita larrian ere burutu eta sufritu duten partaideak kontuan hartuz. Azterketa horretarako, biktima guztiak (ez soilik biktima hutsak) eta erasotzaile guztiak (ez soilik erasotzaile hutsak) kontuan hartu dira. Alde batetik, ehuneko globalek jokoerak “batzuetan”, “sarritan” eta “beti” pairatu edota burutu dituzten parte hartzeileen ehunekoa adierazten dute, eta ehuneko larriek berriz, ebaluatutako portaeraren bat “sarritan” eta “beti” pairatu edota burutu duten parte hartzaileen ahunekoa adierazten dute. Datuak 1. Taulan eta 4., 5., eta 6., Grafikoetan adierazten dira.




1. Taula. Biktima eta erasotzaileak: parte-hartzaileen maiztasun eta ehunekoak eraso motaren arabera


Eraso mota	Inoiz ez	Batzuetan	Sarritan	Beti	
	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	
Biktima	Eraso fisikoa	1.539 (88,0)	181 (10,4)	25 (1,4)	3 (0,2)
	Ahozko eraso	1.132 (64,8)	462 (26,4)	138 (7,9)	16 (0,9)
	Eraso soziala	1.449 (82,9)	224 (12,8)	64 (3,7)	11 (0,6)
	Eraso psikologikoa	1.521 (87,0)	156 (8,9)	58 (3,3)	13 (0,7)
Erasotzailea	Eraso fisikoa	1.633 (93,4)	109 (6,2)	4 (0,2)	2 (0,1)
	Ahozko eraso	1.327 (75,9)	383 (21,9)	37 (2,1)	1 (0,1)
	Eraso soziala	1.609 (92,0)	128 (7,3)	8 (0,5)	3 (0,2)
	Eraso psikologikoa	1.684 (96,3)	58 (3,3)	3 (0,2)	3 (0,2)

*f* = maiztasuna, % = ehunekoa


4. Grafikoa. Bullying globalaren portaeren biktima eta erasotzaileen ehunekoak (“batzuetan”, “sarritan” eta “beti”)



5. Grafikoa. Aurrez aurreko portaeren biktimen ehunekoak (globala eta larria)



6. Grafikoa. Aurrez aurreko portaeren erasotzaileen ehunekoak (globala eta larria)



Biktimei dagokienez, globalki (batzuetan, sarritan eta beti) gehien pairatzen dituzten erasoak ahozko erasoak dira (% 35,2), ondoren sozialak (% 17,1), psikologikoak (% 12,9) eta, azkenik, fisikoak (% 12) hurrenez hurren. Maiztasun larriak aztertuz gero (sarritan eta beti), maiztasunaren araberrako ordena aurrekoaren berdina dela ikus daiteke. Horrela, maiztasun handiz pairatzen direnak ahozko erasoak dira (% 8,8), ondoren eraso sozialak (% 4,3), psikogikoak (% 4) eta fisikoak (% 1,6).

Erasotzaileen ikuspegitik, globalki (batzuetan, sarritan eta beti) gehien burutzen dituzten jokaera erasokorrek ahozko erasoak dira (% 24,1), ondoren sozialak (% 8), fisikoak (% 6,5) eta eraso psikologikoak (% 3,7) hurrenez hurren. Bullying larriari dagokionez (“sarritan” eta “beti”), eta biktimetan ikusi den patroiarri jarraituz, ehuneko araberako ordena bullying globalean ikusi dugunaren berdina da: ahozko erasoak (% 2,2), eraso sozialak (% 0,7), eraso psikologikoak (% 0,4) eta eraso fisikoak (% 0,3).

Laburbilduz, biktima zein erasotzaileak bat datoz maizen ematen diren erasoak ahozkoak direla, bai aurrez aurreko bullying globalean eta baita larrian ere. Ondoren, eraso sozialak, psikologikoak eta fisikoak egongo lirateke.

### 8.1.2 Bullying: Prebalentzia sexuaren arabera

#### 8.1.2.1. Bullying: Neska eta mutilen ehunekoak, biktima, erasotzaile eta biktima-erasotzaileak

##### ***Bullying Globala: Sexuaren arabeko aldeak***


Atal honetan, bullying globalaren (“batzuetan”, “sarritan”, “beti”) sexuaren arabeko ezberdintasunak zehazteko asmoz, bai biktimetan eta baita erasotzaile eta biktima-erasotzaileetan ere, kontingentzia azterketak gauzatu dira bi aldagaien artean. Gainera, aurrez aurreko bullyinga burutu ez zuten biktimen prebalentzia (biktima hutsak) eta bullyinga sufritu ez zuten erasotzaileen (erasotzaile hutsak) prebalentzia erakutsiko dira. Emaizak 7. eta 8. Grafikoetan aurkezten dira.

- **Biktimak:** Laginaren % 41,6 ( $n = 728$ ) beste kideengandik portaera erasokorren biktima izan zen. Sexu bakoitzaren laginaren gaineko neska eta mutil biktimen ehunekoak hauek izan ziren: % 47 neskak ( $n = 432$ ) eta % 35,7 mutilak ( $n = 296$ ). Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren biktimetan sexuaren arabera ( $\chi^2 = 22,52, p < .001$ ).
- **Erasotzaileak:** Ikasleen % 28,6k ( $n = 500$ ) aurrez aurreko bullyinga burutu zuen. Sexu bakoitzaren laginaren gaineko neska eta mutil erasotzaileen ehunekoak hauek izan ziren:

% 26,4 neskak ( $n = 243$ ) eta % 31 mutilak ( $n = 257$ ). Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren erasotzaileetan sexuaren arabera ( $\chi^2 = 4,56, p < .05$ ).


- **Biktima-erasotzaileak:** Bullyinga pairatu zuten ikasleen % 22,8k ( $n = 398$ ) beste kideei jokaera erasokorrek egin zizkion. Sexu bakoitzaren laginaren gaineko neska eta mutil biktima-erasotzaileen ehunekoak hauek izan ziren: % 22,5 neskak ( $n = 207$ ) eta % 23,1 mutilak ( $n = 191$ ). Ez ziren estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu biktima-erasotzaileetan sexuaren arabera ( $\chi^2 = 0,08, p > .05$ ).
- **Biktima hutsak:** Laginaren % 18,9k ( $n = 330$ ) beste kideengandik aurrez aurreko bullyingaren portaerak pairatu zituen baina ez zuen portaera erasokorrik gauzatu. Sexu bakoitzaren laginaren gaineko neska eta mutil biktima hutsen ehunekoak hauek izan ziren: % 52,1 neskak ( $n = 225$ ) eta % 35,5 mutilak ( $n = 105$ ). Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren biktima hutsetan sexuaren arabera ( $\chi^2 = 19,56, p < .001$ ).
- **Erasotzaile hutsak:** Laginaren % 5,8k ( $n = 102$ ) aurrez aurreko bullyingaren portaerak burutu zituen baina ez zituen portaera hauek sufritu. Sexu bakoitzaren laginaren gaineko neska eta mutil erasotzaile hutsen ehunekoak hauek izan ziren: % 14,8 neskak ( $n = 36$ ) eta % 25,7 mutilak ( $n = 66$ ). Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren erasotzaile hutsetan sexuaren arabera ( $\chi^2 = 9,08, p < .05$ ).

7. Grafikoa. Bullying Globala: Neska eta mutil biktimen eta erasotzaileen ehunekoak (sexu bakoitzaren laginaren gainean)



\*  $p < .05$

8. Grafikoa. Bullying Globala: Neska eta mutil biktima huts, erasotzaile huts eta biktima-erasotzaileen ehunekoak (sexu bakoitzaren laginaren gainean)



\*  $p < .05$


Ikus daitekeenez, kontingentzia azterketek parte hartzaileen sexuaren arabera, desberdintasun esanguratsuak berretsi dituzte bullying globalaren biktima eta erasotzaileetan. Zehazki, kontingentzia analisiek adierazi dute nesken artean biktimen ehunekoak handiagoak direla mutilekin alderatuz eta erasotzaileen ehunekoak berriz, handiagoak direla mutilen artean.

### ***Bullying Larria: Sexuaren arabera aldeak***


Aurrez aurreko bullying larriaren (“sarritan” eta “beti”) biktima eta erasotzaileen ehunekoetan sexuaren arabera ezberdintasunak dauden aztertzeko, kontingentzia analisiak burutu dira. Jarraian, biktima larrien zein erasotzaile larrien prebalentzia aurkezten da neska eta mutiletan (ikusi 9. eta 10. Grafikoak).

- **Biktima larriak:** Partaideen % 11k ( $n = 193$ ) aurrez aurreko bullyinga sarrietan eta beti sufritu zuen. Sexu bakoitzaren laginaren gaineko neska eta mutil biktima larrien ehunekoak hauek izan ziren: % 9,5 neskak ( $n = 131$ ) eta % 4,6 mutilak ( $n = 62$ ). Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren biktima larrietan sexuaren arabera ( $\chi^2 = 15,54, p < .001$ ).
- **Noizbehinkako biktimak:** Partaideen % 30,6k ( $n = 535$ ) aurrez aurreko bullyinga sufritu zuen noizbehinka. Sexu bakoitzaren laginaren gaineko neska eta mutil noizbehinkako biktimen ehunekoak hauek izan ziren: % 37,5 neskak ( $n = 234$ ) eta % 31,1 mutilak ( $n = 301$ ). Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren noizbehinkako biktimetan sexuaren arabera ( $\chi^2 = 7,92, p < .001$ ).
- **Erasotzaile larriak:** Erasotzaileen % 2,7k ( $n = 47$ ) adierazi zuen aurrez aurreko bullying larria burutu zuela. Sexu bakoitzaren laginaren gaineko neska eta mutil erasotzaile larrien ehunekoak hauek izan ziren: % 9,9 neskak ( $n = 23$ ) eta % 8,9 mutilak ( $n = 24$ ). Ez ziren estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu erasotzaile larrietan sexuaren arabera ( $\chi^2 = 0,04, p > .05$ ).
- **Noizbehinkako erasotzaileak:** Partaideen % 25,9k ( $n = 453$ ) aurrez aurreko bullyinga burutu zuen noizbehinka. Sexu bakoitzaren laginaren gaineko neska eta mutil noizbehinkako erasotzaileen ehunekoak hauek izan ziren: % 23,8 neskak ( $n = 219$ ) eta % 28,2 mutilak ( $n = 234$ ). Ez ziren estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu noizbehinkako erasotzaileetan sexuaren arabera ( $\chi^2 = 0,13, p > .05$ ).

9. Grafikoa. Bullying: Neska eta mutil biktima larrien, noizbehinkako biktimen eta ez-biktimen ehunekoak

\* $p < .05$ 

10. Grafikoa. Bullying: Neska eta mutil erasotzaile larrien, noizbehinkako erasotzaileen eta ez-erasotzaileen ehunekoak



Ikus daitekeenez, biktima larrien eta noizbehinkakoen ehuneko esanguratsuki handiagoak aurkitu dira nesken artean mutilekin aldatuz. Ez dira estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu erasotzaile larrietan eta noizbehinkakoetan sexuaren arabera.

### 8.1.2.2 Bullying: Mutil eta neskek pairatu eta burututako jokaera erasokorren kopurua


Mutil eta neskek pairatu eta burututako jokaera kopuruan sexuaren arabera alderik dagoen ala ez identifikatze aldera, bullying adierazle desberdinetan (biktimizazioa, erasoa eta biktimizazio-erasokorra) eskuratutako puntuazioaren gainean aldagai anitzeko bariantza analisiak (MANOVA) burutu dira. Emaitzek estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak berresten dituzte sexuaren arabera, Wiksen Lambda,  $\Lambda = 0,975$ ,  $F(3,1744) = 15,05$ ,  $p < .001$  (eraginaren tamaina txikia,  $\eta^2 = 0,025$ ,  $r = 0,15$ ). Horrez gain, analisi deskribatzaileak gauzatu dira (bataz bestekoak eta desbideratze tipikoa), aldagai bakarreko bariantza analisiak eta eraginaren tamainaren azterketa (Cohenen  $d$ -ren frogia). Informazio hau 2. Taulan eta 11. Grafikoan adierazten da.

2. Taula. Bullying adierazleen bataz bestekoak, desbideratze tipikoak, bariantza analisisa eta eraginaren tamaina (Cohenen  $d$ ) neska eta mutiletan

	Neskak (n = 920 )	Mutilak (n = 828 )	F (p)	d
	M (Dt)	M (Dt)		
Biktimizazioa	1,17 (1,84)	0,78 (1,44)	23,0 (.000)	.23
Erasoa	0,42 (0,92)	0,52 (0,93)	5,04 (.025)	.10
Biktimizazio erasokorra	0,73 (0,80)	0,67 (0,82)	2,84 (.092)	.08

M = Bataz bestekoa, DT = Desbideratze tipikoa, F = F Fisher, p = esangura, d = eraginaren tamaina

11. Grafikoa. Bullying adierazleen bataz besteko puntuazioak sexuaren arabera



\* $p < .05$



Bataz besteko puntuazioen emaitzek sexuaren arabera ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak erakusten dituzte erasoan eta biktimizazioan (ikusi 2. Taula eta 11. Grafikoa). Alde batetik, biktimizazio mailan desberdintasunak existitzen direla berretsi da, neskek bataz besteko altuagoak azaltzen dituztelarik ( $M = 1,17$ ) mutilekin alderatuz gero ( $M = 0,78$ ). Bestalde, estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu dira eraso mailan, mutilek bataz besteko altuagoak azalduz ( $M = 0,52$ ) neskekin konparatuz ( $M = 0,42$ ). Ondorioz, nahiz eta eraginaren tamaina txikia izan, neskek portaera erasokorren zenbateko gehiago sufritzen dituzten bitartean, mutilek eraso maila altuagoak erakusten dituzte. Azkenik, ez ziren estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu biktimizazio-erasokorren adierazlean.

### **8.1.3 Bullying: Prebalentzia orientazio sexualaren arabera**

#### **8.1.3.1. Bullying: heterosexualen eta ez-heterosexualen ehunekoak, biktima, erasotzaile eta biktima-erasotzaileak**

##### ***Bullying Globala: orientazio sexualaren arabera aldeak***

Atak honetan, bullying globalaren prebalentzia azaltzen da partaideen orientazio sexualaren arabera. Horretarako, bi talde desberdin eratu dira, alde batetik, ikasle heterosexualen taldea eta bestetik, pertsona ez-heterosexualen taldea. Azken talde hau gay, lesbiana, bisexual edo orientazio sexuala argi ez duten ikasleek osatuko dute. Kontuan hartu behar da, laginaren % 87,5ek heterosexuala zela adierazi zuen bitartean ( $n = 1.529$ ), partaideen % 12,5 ( $n = 219$ ) ez-heterosexual moduan identifikatu zela.

Kontingentzia analisiak burutu dira biktima, erasotzaile eta biktima-erasotzaileen maiztasunak eta ehunekoak lortzeko orientazio sexualaren arabera. Gainera, heterosexualen eta ez-heterosexualen talde bakoitzeko biktima hutsen eta erasotzaile hutsen maiztasunak eta ehunekoak adierazten dira. Emaidzak jarraian adierazten dira eta 12. eta 13. Grafikoetan azaltzen dira.


- **Biktimak:** Laginaren % 41,6 ( $n = 728$ ) beste kideengandik portaera erasokorren biktima izan zen. Orientazio sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko biktima

heterosexualen eta ez-heterosexualen ehunekoak hauek izan ziren: % 37,9 heterosexualak ( $n = 579$ ) eta % 68 ez-heterosexualak ( $n = 149$ ). Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren biktimetan orientazio sexualaren arabera ( $\chi^2= 71,74, p < .001$ ).

- **Erasotzaileak:** Ikasleen % 28,6k ( $n = 500$ ) aurrez aurreko bullyinga burutu zuen. Orientazio sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko erasotzaile heterosexualen eta ez-heterosexualen ehunekoak hauek izan ziren: % 27,4 heterosexualak ( $n = 419$ ) eta % 37 ez-heterosexualak ( $n = 81$ ). Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren erasotzaileetan orientazio sexualaren arabera ( $\chi^2= 8,61, p < .05$ ).
- **Biktima-erasotzaileak:** Bullyinga pairatu zuten ikasleen % 22,8k ( $n = 398$ ) beste kideei jokaera erasokorrek egin zizkion. Orientazio sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko biktima-erasotzaile heterosexualen eta ez-heterosexualen ehunekoak hauek izan ziren: % 21,4 heterosexualak ( $n = 327$ ) eta % 32,4 ez-heterosexualak ( $n = 71$ ). Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren biktima-erasotzailetan orientazio sexualaren arabera ( $\chi^2= 13,26, p < .001$ ).
- **Biktima hutsak:** Laginaren % 18,9k ( $n = 330$ ) beste kideengandik aurrez aurreko bullyingaren portaerak pairatu zituen baina ez zuen portaera erasokorrik gauzatu. Orientazio sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko biktima-huts heterosexualen eta ez-heterosexualen ehunekoak hauek izan ziren: % 43,5 heterosexualak ( $n = 252$ ) eta % 52,3 ez-heterosexualak ( $n = 78$ ). Ez ziren estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu biktima hutsetan orientazio sexualaren arabera ( $\chi^2= 3,73, p > .05$ ).
- **Erasotzaile hutsak:** Laginaren % 5,8k ( $n = 102$ ) aurrez aurreko bullyingaren portaerak burutu zituen baina ez zituen portaera hauek sufritu. Orientazio sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko erasotzaile-huts heterosexualen eta ez-heterosexualen ehunekoak hauek izan ziren: % 22 heterosexualak ( $n = 92$ ) eta % 12,3 ez-heterosexualak


( $n = 10$ ). Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren erasotzaile hutsetan orientazio sexualaren arabera ( $\chi^2 = 3,86$ ,  $p < .05$ ).

12. Grafikoa. Bullying Globala: Biktima eta erasotzaile heterosexualen eta ez-heterosexualen ehunekoak (orientazio sexualaren talde bakoitzeko laginarean gainean)



\* $p < .05$

13. Grafikoa. Bullying Globala: Biktima huts, erasotzaile huts eta biktima-erasotzaile heterosexualen eta ez-heterosexualen ehunekoak (orientazio sexualaren talde bakoitzeko laginarean gainean)



\* $p < .05$

Bullying globalaren biktima eta erasotzaileen ehunekoak aztertu direnean, kontingentzia azterketek partaideek adierazi zuten orientazio sexualaren araberako desberdintasun esanguratsuak berretsi dituzte. Biktimei dagokienez, emaitzek ehuneko esanguratsuki

handiagoak erakutsi dituzte pertsona ez-heterosexualetan pertsona heterosexualekin alderatuz. Azkenik, estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu dira biktima-erasotzaileetan. Azterketa honetan, bullyingaren jokabideak sufritu eta aldi berean gauzatzen dituzten pertsonen ehuneko handiagoak aurkitu dira pertsona ez-heterosexualetan artean heterosexualekin alderatuz gero.

### ***Bullying Larria: Orientazio sexualaren arabera aldeak***


Orientazio sexualaren arabera bullying larrian desberdintasunak dauden identifikatzeko, bullying larriaren (“sarritan” eta “beti”) eta noizbehinkako bullyingaren (“batzuetan”) biktimen, erasotzaileen eta biktima-erasotzaileen maiztasunak eta ehunekoak aztertu dira pertsona ez-heterosexualetan eta heterosexualetan, Pearsonen khi karratua kalkulatu. Emaitzak jarraian deskribatzen dira eta 14. eta 15. Grafikoetan aurkezten dira.

- **Biktima larriak:** Partaideen % 11k ( $n = 193$ ) aurrez aurreko bullyinga sarrietan eta beti sufritu zuen. Orientazio sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko biktima heterosexual eta ez-heterosexual larrien ehunekoak hauek izan ziren: % 6,2 heterosexualak ( $n = 138$ ) eta % 13,7 ez-heterosexualak ( $n = 55$ ). Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren biktima larrietan orientazio sexualaren arabera ( $\chi^2 = 16,16, p < .001$ ).
- **Noizbehinkako biktimak:** Partaideen % 30,6k ( $n = 535$ ) aurrez aurreko bullyinga sufritu zuen noizbehinka. Orientazio sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko noizbehinkako biktima heterosexual eta ez-heterosexual ehunekoak hauek izan ziren: % 31,7 heterosexualak ( $n = 441$ ) eta % 54,3 ez-heterosexualak ( $n = 94$ ). Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren noizbehinkako biktimetan orientazio sexualaren arabera ( $\chi^2 = 7,92, p < .001$ ).
- **Erasotzaile larriak:** Erasotzaileen % 2,7k ( $n = 47$ ) adierazi zuen aurrez aurreko bullying larria burutu zuela. Orientazio sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko erasotzaile heterosexual eta ez-heterosexual larrien ehunekoak hauek izan ziren: % 1,7

heterossexualak ( $n = 38$ ) eta % 0,9 ez-heterossexualak ( $n = 9$ ). Ez ziren estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu erasotzaile larrietan orientazio sexualaren arabera ( $\chi^2 = 0,75$ ,  $p > .05$ ).


- **Noizbehinkako erasotzaileak:** Partaideen % 25,9k ( $n = 453$ ) aurrez aurreko bullyinga burutu zuen noizbehinka. Orientazio sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko noizbehinkako erasotzaile heterossexual eta ez-heterossexual ehunekoak hauek izan ziren: % 25,7 heterossexualak ( $n = 381$ ) eta % 36,1 ez-heterossexualak ( $n = 72$ ). Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren noizbehinkako erasotzaileetan orientazio sexualaren arabera ( $\chi^2 = 9,85$ ,  $p < .001$ ).

14. Grafikoa. Bullying: biktima larrien, noizbehinkako biktimen eta ez-biktimen ehunekoak heterossexueletan eta ez-heterossexualetan



\* $p < .05$

15. Grafikoa. Bullying: Erasotzaile larrien, noizbehinkako erasotzaileen eta ez-erasotzaileen ehunekoak heterosexualetan eta ez-heterosexualetan



\* $p < .05$

Ikus daitekeen moduan, kontingentzia analisisiek estatistikoki esanguratsuak diren ezberdintasunak berretsi dituzte biktima larrietan eta noizbehinkako erasotzaileetan. Emaizta hauek adierazten dute biktima larrien eta noizbehinkako erasotzaileen ehunekoak pertsona heterosexualetan baino handiagoak direla pertsona ez-heterosexualetan.

**8.1.3.2 Bullying: heterosexualek eta ez-heterosexualek pairatu eta burututako jokaera erasokorren kopurua**


Heterosexualek eta ez-heterosexualek pairatu eta burututako jokaera kopuruan orientazio sexualaren arabera alderik dagoen ala ez identifikatzeko helburuarekin, bullying adierazle desberdinetan (biktimizazioa, eraso eta biktimizazio-erasokorra) eskuratutako puntuazioaren gainean aldagai anitzeko bariantza analisiak (MANOVA) burutu dira. Emaiztek estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak berresten dituzte orientazio sexualaren arabera,  $\Lambda = 0,946$ ,  $F(3,1744) = 33,14$ ,  $p < .001$  (eraginaren tamaina ertaina,  $\eta^2 = 0,054$ ,  $r = 0,23$ ). Horrez gain, analisi deskribatzaileak gauzatu dira (batz bestekoak eta desbideratze tipikoa), aldagai bakarreko bariantza analisisiak eta eraginaren tamainaren azterketa (Cohenen  $d$ -ren froga). Informazio hau 3. Taulan eta 16. Grafikoan adierazten da.

3. Taula. Bullyingaren adierazleen batz bestekoak, desbideratze tipikoa, bariantza analisia eta eraginaren tamaina (Cohenen  $d$ ) heterosexuletan eta ez-heterosexueletan

	Heterosexualak ( $n = 1529$ )	Ez-heterosexualak ( $n = 219$ )	$F (p)$	$d$
	$M (Dt)$	$M (Dt)$		
Biktimizazioa	0,84 (1,53)	1,96 (2,19)	89,71 (.000)	.59
Erasoa	0,44 (0,92)	0,60 (0,97)	5,26 (.022)	.16
Biktimizazio-erasokorra	0,65 (0,80)	1,05 (0,77)	46,72 (.000)	.50

$M$  = Batz bestekoa,  $DT$  = Desbideratze tipikoa,  $F$  =  $F$  Fisher,  $p$  = esangura,  $d$  = eraginaren tamaina

16. Grafikoa. Bullying adierazleen batz besteko puntuazioak orientazio sexualaren arabera



\* $p < .05$

Emaidza hauek biktimizazio, eraso eta biktimizazio-erasokorra adierazleetan orientazio sexualaren araberako ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak berretsi dituzte. Hiru adierazletako batz besteko puntuazioak altuagoak izan dira ez-heterosexueltan: biktimizazioa (heterosexualak  $M = 0,84$ ; ez-heterosexualak  $M = 1,96$ ), eraso (heterosexualak  $M = 0,44$ ; ez-heterosexualak  $M = 0,6$ ) eta biktimizazio-erasokorra (heterosexualak  $M = 0,65$ ; ez-heterosexualak  $M = 1,05$ ). Ondorioz, emaitzek sufrututako eta burututako jokaera erasokorren zenbateko handiagoak azaltzen dituzte pertsona ez-heterosexualetan. Eraginaren tamaina ertaina izan zen biktimizazioan eta biktimizazio-erasokorrean.

### 8.1.3.3 Biktimak, erasotzaileak eta biktima-erasotzaileak: heterosexualen, gayen, lesbianen, bisexualen eta orientazio sexuala argi ez duten pertsonen ehunekoak


Ez-normatiboa den orientazio sexuala duten partaideen taldean sakontzeko asmoz, beste azterketa batzuek gauzatu dira (maiztasunak, ehunekoak eta Pearsonen khi karratua) partaide heterosexualak, gayak, lesbianak, bisexualak eta orientazio sexuala argi ez duten partaideak kontuan hartuz. Azpimarratu beharra dago, datu hauek kontu handiz hartu behar direla, lan honek pertsona ez-heterosexualen lagin mugatua baitu: % 0,7 gayak ( $n = 13$ ), % 0,2 lesbianak ( $n = 3$ ), % 5,7 bisexualak ( $n = 99$ ) eta % 5,9 ez daude ziur orientazio sexualaz ( $n = 104$ ). Jarraian, bullying globalaren biktimen, erasotzaileen eta biktima-erasotzaileen ehunekoak aurkezten dira aniztasun sexualaren ikuspegitik (ikusi 17. Grafikoa).

- **Biktimak:** Laginaren % 41,6 ( $n = 728$ ) beste kideengandik portaera erasokorren biktima izan zen. Orientazio sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko biktima heterosexualen, gayen, lesbianen, bisexualen eta ziur ez daudenen ehunekoak hauek izan ziren: % 37,9 heterosexualak ( $n = 579$ ), % 76,9 gayak ( $n = 10$ ), % 33,3 lesbianak ( $n = 2$ ), % 75,8 bisexualak ( $n = 75$ ) eta % 60,6 orientazio sexualaz ziur ez zeuden partaideak ( $n = 63$ ). Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren biktimetan orientazio sexualaren arabera ( $\chi^2 = 78,46$ ,  $p < .001$ ).
- **Erasotzaileak:** Ikasleen % 28,6k ( $n = 500$ ) aurrez aurreko bullyinga burutu zuen. Orientazio sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko erasotzaile heterosexualen, gayen, lesbianen, bisexualen eta ziur ez daudenen ehunekoak hauek izan ziren: % 27,4 heterosexualak ( $n = 419$ ), % 38,5 gayak ( $n = 5$ ), % 66,7 lesbianak ( $n = 2$ ) % 45,5 bisexualak ( $n = 54$ ) eta % 27,9 orientazio sexualaz ziur ez zeuden partaideak ( $n = 29$ ). Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren erasotzaileetan orientazio sexualaren arabera ( $\chi^2 = 17,61$ ,  $p < .05$ ).
- **Biktima-erasotzaileak:** Bullyinga pairatu zuten ikasleen % 22,8k ( $n = 398$ ) beste kideei jokaera erasokorrek egin zizkion. Orientazio sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko biktima-erasotzaile heterosexualen, gayen, lesbianen, bisexualen eta ziur ez



dauden ehunekoak hauek izan ziren: % 21,4 heterosexualak ( $n = 327$ ), % 30,8 gayak ( $n = 4$ ), % 33,3 lesbianak ( $n = 1$ ), % 43,4 bisexualak ( $n = 43$ ) eta % 22,1 orientazio sexualaz ziur ez zeuden pertaideak ( $n = 23$ ). Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren biktima-erasotzaileetan orientazio sexualaren arabera ( $\chi^2 = 26,39$ ,  $p < .001$ ).

17. Grafikoa. Bullying Globala: Biktimen, erasotzaileen eta biktima-erasotzaileen ehunekoak orientazio sexualaren arabera



\* $p < .05$

Lortutako emaitzak kontuan hartuz, alde batetik, biktimen ehuneko handienak erakusten dituzten taldeak hauek dira: pertsona gayak, bisexualak eta orientazio sexualaz ziur ez daudenak. Bestalde, pertsona heterosexualak eta lesbianek biktimen ehuneko txikiak azaldu dituzte. Erasotzaileei dagokienez, portaera erasokorrek burutzen dituztenen ehuneko handienak lesbianenetan aurkitu dira, bisexualen, gayen, orientazio sexuala argi ez duten pertaideen eta heterosexualen gainera. Azkenik, emaitza hauen arabera, biktima-erasotzaileen ehuneko handiagoak erakusten dituzte bisexualak, orientazio sexualeko beste taldeekin alderatuz gero, lesbianen, gayen eta ziur ez dauden pertsonen aurretik. Kasu honetan eta erasotzaileen kasuan bezala, biktima-erasotzaileen ehuneko txikiak heterosexualen taldeak erakutsi du.

#### **8.1.3.4 Bullying: Heterosexualek, gayek, lesbianek, bisexualek eta orientazio sexuala argi ez dutenek pairatu eta burututako jokaera erasokorren kopurua**

Orientazio sexualeko 5 taldeen artean bullyingaren adierazleetan (biktimizazioa, eraso eta biktimizazio-erasokorra) desberdintasunak identifikatze aldera, hau da, heterosexualek, gayek, lesbianek, bisexualek eta orientazio sexuala argi ez zutenek sufritu eta burututako jokaeren kopuruan orientazio sexualaren arabera alderik dagoen aztertzeko, lehenik eta behin, aldagai anitzeko bariantza analisiak (MANOVA) gauzatu dira. Emaitzek orientazio sexualaren araberako estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak berretsi dituzte, Wilksen Lambda,  $\Lambda = 0,920$ ,  $F(12,4605) = 12,316$ ,  $p < .001$  (eraginaren taimaina txikia,  $\eta^2 = 0,027$ ,  $r = 0,16$ ) (Ikusi 4. Taula eta 18. Grafikoa).

Taldeen arteko konparaketak egiteko Bonferroni frogaren erabili zen. Azterketa honek estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak frogatu ditu biktimizazioan eta biktimizazio-erasokorrean pertsona heterosexualen, bisexualen eta orientazio sexuala argi ez dutenen artean. Era berean, biktimizazioan estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu dira izendatutako azken bi taldeen artean. Zehazki esanda, bisexualen taldeak biktimizazioan eta biktimizazio-erasokorrean puntuazio altuenak erakusten ditu ( $M = 2,58$ ;  $M = 1,21$ ), ondoren orientazio sexuala argi ez dutenak egongo lirateke ( $M = 1,42$ ;  $M = 0,88$ ), eta azkenik, heterosexualak ( $M = 0,84$ ;  $M = 0,65$ ).


Erasoaren adierazleari dagokionez, batzuetan puntuazio esanguratsuki altuagoak aurkitu dira lesbianen artean ( $M = 2,33$ ) eta bisexualen artean ( $M = 0,74$ ), heterosexualekin alderatuz ( $M = 0,44$ ). Gainera, estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu dira erasoan lesbianen taldea, bisexualekin eta orientazio sexuala argi ez duten taldearekin alderatu denean: lesbianak ( $M = 2,33$ ), bisexualak ( $M = 0,74$ ) eta ez daude ziur ( $M = 0,40$ ). Eraginaren taimainaren analisiak taimaina ertaina azaldu dute biktimizazioan eta eraginaren taimaina txikia eraso eta biktimizazio-erasokorrean (ikusi 4. Taula eta 18. Grafikoa).

4. Taula. Bullyingaren adierazleen batz bestekoak, desbideratze tipikoa, bariantza analisia, eraginaren tamaina (Eta karratua) eta post-Hoc kontrastea orientazio sexualaren arabera

	Hetero. (n=1.529)	Gay (n=13)	Lesbiana (n=3)	Bisexuala (n=99)	Ez daude ziur (n=104)	F	p	$\eta^2$	Post-Hoc
	M (Dt)	M (Dt)	M (Dt)	M (Dt)	M (Dt)				
Biktimizazioa	0,84 (1,53)	1,69 (1,37)	1,67 (2,88)	2,58 (2,48)	1,42 (1,79)	29,23	.000	.063	1=2=3;1< 4,5;2=3=4 =5;4>5
Erasoa	0,44 (0,92)	0,69 (1,18)	2,33 (2,51)	0,74 (1,03)	0,40 (0,74)	5,66	.000	.013	1=2=5;1< 3,4;2=3,4; 3>4,5
Biktimizazio- erasokorra	0,65 (0,80)	1,15 (0,68)	1 (1,0)	1,21 (0,78)	0,88 (0,74)	13,88	.000	.031	1=2=3;1< 4,5;2=3=4 =5;4>5

Oharra: 1= heterossexuala, 2= gay, 3= lesbiana, 4= bisexuala, 5= ziur ez dagoena

18. Grafikoa. Bullying adierazleen batz besteko puntuazioak orientazio sexualaren arabera



\*p < .05

#### 8.1.4 Bullying: Prebalentzia identitate sexualaren arabera

##### 8.1.4.1 Zisgeneroen eta ez-zisgeneroen ehunekoak, biktima, erasotzaile eta biktima-erasotzaileak


###### ***Bullying Globala: identitate sexualaren arabeko aldeak***

Atal honetan, aurrez aurreko bullyingean inplikaturakoen prebalentzia azaltzen da identitate sexualaren arabera. Kontuan hartuta ez-normatiboa den identitate sexuala duten pertsonen lagina mugatua izan dela, eta orientazio sexualarekin egin den bezala, partaideak identitate sexualaren arabeko bi talde desberdinetan sailkatu dira: pertsona zisgeneroak, normatiboa den identitate sexuala zutela adierazi zuten partaideak ( $n = 1.721$ ), eta pertsona ez-zisgeneroak ( $n = 27$ ), hau da, ez-normatiboa den identitate sexuala zutela adierazi zuten ikasleak ( $n = 2$ ) eta identitate sexuala argi ez zutela adierazi zutenak ( $n = 25$ ). Biktima, erasotzaile eta biktima-erasotzaileen prebalentzia aztertzeko asmoz, kontingentzia azterketak gauzatu dira, bullying globaleko portaeretan inplikaturako pertsonen ehunekoak erkuratuz (“batzuetan”, “sarritan” eta “beti”). Emaitzak jarraian azaltzen dira eta 19. eta 20. Grafikoetan aurkezten dira.

- **Biktimak:** Laginaren % 41,6 ( $n = 728$ ) beste kideengandik portaera erasokorren biktima izan zen. Identitate sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko biktima zisgenero eta ez-zisgeneroen ehunekoak hauek izan ziren: % 41,1 zisgeneroak ( $n = 708$ ) eta % 74,1 ez-zisgeneroak ( $n = 20$ ). Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren biktimetan identitate sexualaren arabera ( $\chi^2 = 11,86, p < .05$ ).
- **Erasotzaileak:** Ikasleen % 28,6k ( $n = 500$ ) aurrez aurreko bullyinga burutu zuen. Identitate sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko erasotzaile zisgenero eta ez-zisgeneroen ehunekoak hauek izan ziren: % 28,2 zisgeneroak ( $n = 485$ ) eta % 55,6 ez-zisgeneroak ( $n = 15$ ). Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren erasotzaileetan identitate sexualaren arabera ( $\chi^2 = 9,75, p < .05$ ).


- **Biktima-erasotzaileak:** Bullyinga pairatu zuten ikasleen % 22,8k ( $n = 398$ ) beste kideei jokaera erasokorrek egin zizkion. Identitate sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko biktima-erasotzaile zisgenero eta ez-zisgeneroen ehunekoak hauek izan ziren: % 22,4 zisgeneroak ( $n = 385$ ) eta % 48,1 ez-zisgeneroak ( $n = 13$ ). Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren biktima-erasotzaileetan identitate sexualaren arabera ( $\chi^2= 10,04, p < .05$ ).
- **Biktima hutsak:** Laginaren % 18,9 ( $n = 330$ ) beste kideengandik aurrez aurreko bullyingaren portaerak pairatu zituen baina ez zuen portaera erasokorrik gauzatu. Identitate sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko biktima-huts zisgenero eta ez-zisgeneroen ehunekoak hauek izan ziren: % 45,6 zisgeneroak ( $n = 323$ ) eta % 35 ez-zisgeneroak ( $n = 7$ ). Ez ziren estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu biktima hutsetan identitate sexualaren arabera ( $\chi^2= 0,89, p > .05$ ).
- **Erasotzaile hutsak:** Laginaren % 5,8k ( $n = 102$ ) aurrez aurreko bullyingaren portaerak burutu zituen baina ez zituen portaera hauek sufritu. Identitate sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko erasotzaile-huts zisgenero eta ez-zisgeneroen ehunekoak hauek izan ziren: % 20,6 zisgeneroak ( $n = 100$ ) eta % 13,3 ez-zisgeneroak ( $n = 2$ ). Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren erasotzaile-hutsetan identitate sexualaren arabera ( $\chi^2= 0,48, p < .05$ ).

19. Grafikoa. Bullying Globala: Biktima eta erasotzaile zisgenero eta ez-zisgeneroen ehunekoak (identitate sexual bakoitzeko laginaren gainean)



\* $p < .05$

20. Grafikoa. Bullying Globala: Biktima huts, erasotzaile huts eta biktima-erasotzaile zisgeneroen eta ez-zisgeneroen ehunekoak (identitate sexual bakoitzeko laginaren gainean)



\* $p < .05$

Ikus daitekeenez, kontingentzia azterketek identitate sexualaren araberako desberdintasun estatistikoki esanguratsuak azaldu dituzte, bai bullying orokorraren biktimetan eta baita erasotzaileetan ere. Zehazki, biktimen eta erasotzaileen ehuneko handiagoak aurkitu dira pertsona ez-zisgeneroetan normatiboa den identitate sexuala duten pertsonekin alderatuz.

Azkenik, ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak aurkitu dira biktima-erasotzaileetan, portaera erasokorrek sufritu eta aldi berean burutzen dituzten pertsonen ehuneko handiagoak pertsona zisgeneroen artean aurkituz zisgeneroekin konparatuz.


### ***Bullying Larria: identitate sexualaren arabera aldeak***

Identitate sexualaren arabera bullying larrian desberdintasun esanguratsuak existitzen diren identifikatzeko asmoz, lehenik, biktima, erasotzaile eta biktima-erasotzaileen maiztasunak eta ehunekoak eskuratu dira eta ondoren, kontingentzia analisiak gauzatu dira Pearsonen Khi karratua lortuz. Azterketa hauen emaitzak atal honetan aurkezten dira eta 21. eta 22. Grafikoetan irudikatzen dira.

- **Biktima larriak:** Partaideen % 11k ( $n = 193$ ) aurrez aurreko bullyinga sarrietan eta beti sufritu zuen. Identitate sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko biktima zisgenero eta ez-zisgenero larrien ehunekoak hauek izan ziren: % 10,5 zisgeneroak ( $n = 180$ ) eta % 48,1 ez-zisgeneroak ( $n = 13$ ). Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren biktima larrietan identitate sexualaren arabera ( $\chi^2 = 34,44$ ,  $p < .001$ ).
- **Noizbehinkako biktimak:** Partaideen % 30,6k ( $n = 535$ ) aurrez aurreko bullyinga sufritu zuen noizbehinka. Identitate sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko noizbehinkako biktima zisgenero eta ez-zisgenero ehunekoak hauek izan ziren: % 30,6 zisgeneroak ( $n = 528$ ) eta % 54,3 ez-zisgeneroak ( $n = 7$ ). Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren noizbehinkako biktimetan identitate sexualaren arabera ( $\chi^2 = 15,64$ ,  $p < .001$ ).
- **Erasotzaile larriak:** Erasotzaileen % 2,7k ( $n = 47$ ) adierazi zuen aurrez aurreko bullying larria burutu zuela. Identitate sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko erasotzaile zisgenero eta ez-zisgenero larrien ehunekoak hauek izan ziren: % 2,7 zisgeneroak ( $n = 46$ ) eta % 3,7 ez-zisgeneroak ( $n = 1$ ). Ez ziren estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu erasotzaile larrietan identitate sexualaren arabera ( $\chi^2 = 0,10$ ,  $p > .05$ ).


- **Noizbehinkako erasotzaileak:** Partaideen % 25,9k ( $n = 453$ ) aurrez aurreko bullyinga burutu zuen noizbehinka. Identitate sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko noizbehinkako erasotzaile zisgenero eta ez-zisgenero ehunekoak hauek izan ziren: % 25,5 zisgeneroak ( $n = 439$ ) eta % 51,9 ez-zisgeneroak ( $n = 14$ ). Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren noizbehinkako erasotzaileetan identitate sexualaren arabera ( $\chi^2 = 10,71$ ,  $p < .001$ ).

21. Grafikoa. Bullying: Biktima larrien, noizbehinkako biktimen eta ez-biktimen ehunekoak zisgeneroetan eta ez-zisgeneroetan



\* $p < .05$

22. Grafikoa. Bullying: erasotzaile larrien, noizbehinkako erasotzaileen eta ez-erasotzaileen ehunekoak zisgeneroetan eta ez-zisgeneroetan



\* $p < .05$



Bullying larriari dagokionez, estatistikoki identitate sexualaren arabera ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak berresten dira biktimen ehunekoetan. Horrela, pertsona ez-zisgeneroek, pertsona zisgeneroen aldean, aurrez aurreko bullying gehiago sufritzen dute. Gainera, eta nahiz eta noizbehinkako erasotzaileen ehuneko handiagoak aurkitu pertsona ez-zisgeneroetan, ez ziren ezberdintasun esanguratsuak aurkitu erasotzaile larrietan partaideen identitate sexualaren arabera.

#### 8.1.4.2 Bullying: Pertsona zisgeneroek eta ez-zisgeneroek sufritutako eta burututako jokaera erasokorren kopurua


Atal honetan, identitate sexualaren arabera bullying adierazleetan (biktimizazioa, eraso eta biktimizazio-erasokorra) desberdintasunak existitzen diren identifikatzeko helburuarekin, gauzatutako aldagai anitzeko bariantza analisiak (MANOVA) azaltzen dira. Adierazleekin burututako azterketaren emaitzek esanguratsuak diren desberdintasunak erakutsi dituzte identitate sexualaren arabera, Wilksen Lambda,  $\Lambda = 0,986$ ,  $F(3,1744) = 8,476$ ,  $p < .001$  (eraginaren tamaina txikia,  $\eta^2 = 0,014$ ,  $r = 0,11$ ). Ondoren, aldagai bakarreko bariantza analisiak eta eraginaren taimainaren azterketak (Cohenen  $d$ ) gauzatu dira (ikusi 5. Taula eta 23. Grafikoa).

5. Taula. Bullying adierazleen batz bestekoak, desbideratze tipikoak, bariantza analisiak eta eraginaren tamaina (Cohenen  $d$ ) identitate sexualaren arabera

	Zisgenero ( $n = 1721$ )	Ez-zisgenero ( $n = 27$ )	$F(p)$	$d$
	$M(Dt)$	$M(Dt)$		
Biktimizazioa	0,96 (1,65)	2,56 (2,11)	24,41 (.000)	.84
Erasoa	0,46 (0,93)	0,85 (1,09)	4,76 (.029)	.38
Biktimizazio erasokorra	0,69 (0,81)	1,30 (0,77)	14,65 (.000)	.77

$M$  = Batz bestekoa,  $DT$  = Desbideratze tipikoa,  $F$  =  $F$  Fisher,  $p$  = esangura,  $d$  = eraginaren tamaina

23. Grafikoa. Bullying adierazleen batz besteko puntuazioak identitate sexualaren arabera



\* $p < .05$

Bai 5. Taulan eta baita 23. Grafikoan ere bullying adierazle guztietan estatistikoki esanguratsua diren desberdintasunak ikus daitezke identitate sexualaren arabera. Zehazki, ez-normatiboa den identitate sexuala duten pertsonen, pertsona zisgeneroen aldean, aurrez aurreko jokoaren kopuru handiagoa sufritu eta gauzaten dutela ikusi da. Emaitzek eraginaren tamaina handia azaldu dute biktimizazio eta biktimizazio-erasokorrean eta txikia eraso adierazlean.

## 8.2 CYBERBULLYING: PREBALENTZIA

Atal honetan, lehenik eta behin, ziberbiktima, zibererasotzaile eta ziberbiktima-erasotzaileen prebalentziak erakusten dira, eta, honez gain, ziberbiktima-hutsen (ziberbiktima izan dira baina ez zibererasotzaile) eta zibererasotzaile hutsen (zibererasotzaile izan dira baina ez ziberbiktima) prebalentziak azaltzen dira. Gainera, cyberbullying globalaren eta larriaren (cyberbullying zehazki esanda) nahiz cyberbullyingeko 15 eraso moduen ehunekoak aztertu dira.

Bigarrenik, kontingentzia analisiak gauzatu dira sexu eta orientazio/identitate sexualarekin. Modu honetan, cyberbullyingaren prebalentzia kalkulatu da bai neska eta bai mutiletan, eta baita orientazio eta identitate sexual ez-normatiboa duten pertsonetan ere. Halaber, aldagai anitzeko bariantza analisiak (MANOVA) gauzatu dira cyberbullying adierazleetan (ziberbiktimizazioa, zibererasoa eta ziberbiktimizazio-erasokorra) sexu eta orientazio/identitate sexualaren arabera desberdintasunak dauden zehazteko asmoz.

## 8.2.1 Cyberbullying: Ziberbiktima, zibererasotzaile eta ziberbiktima-erasotzaileen prebalentzia


### 8.2.1.1 Cyberbullying: Prebalentzia globala eta larria

#### *Cyberbullying: Prebalentzia Globala*


Jarraian, bizitzan zehar cyberbullying jokaeretan inplikatu zirenen prebalentzia globala (behin edo gehiagotan) azaltzen da. Horretarako, ziberbiktima, zibererasotzaile, ziberbiktima-erasotzaile, ziberbiktima hutsak eta zibererasotzaile hutsak identifikatzen dira. Aurkitutako ehunekoak jarraian azaltzen dira eta 24. eta 25. Grafikoetan erakusten dira.

- **Ziberbiktimak:** Ikasleen % 36,3k ( $n = 635$ ), bizitzan zehar, beste kide batzuegandik cyberbullyingeko jokaeraren bat edo gehiago pairatu zuela adierazi zuen.
- **Zibererasotzaileak:** Ikasleen % 18,1ek ( $n = 317$ ), bizitzan zehar, cyberbullyingeko jokaeraren bat edo gehiago gauzatu zuela adierazi zuen.
- **Ziberbiktima-erasotzaileak:** Cyberbullyingeko jokaerak sufritu zuten ikasleen % 14,5 ( $n = 254$ ), aldi berean zibererasotzaile izan zen.
- 
- **Ziberbiktima hutsak:** Partaideen % 21,8 ( $n = 381$ ) cyberbullyingaren biktima izan zen baina ez zituen jokaera horiek burutu.
- **Zibererasotzaile hutsak:** Laginaren % 3,6k ( $n = 63$ ) cyberbullyingeko jokaerak pairatu zituela baina ez zituela sufritu adierazi zuen.

24. Grafikoa. Ziberbiktima, zibererasotzaile eta ziberbiktima-erasotzaileen ehunekoak



25. Grafikoa. Cyberbullying: Laginaren banaketa ziberbiktima hutsetan, zibererasotzaile hutsetan eta ziberbiktima-erasotzaileetan




Ikus daitekeen bezala, cyberbullyingeko 15 jokaeretatik 1 behintzat sufritu izan zuten partaideen % 14,5ek ( $n = 254$ ), aldi berean, jokaera horiek burutu izan zituen (ziberbiktima-erasotzaileak). Gainera, emaitzek % 21,8ko portzentajea ( $n = 381$ ) erakutsi dute ziberbiktima-hutsetan eta % 3,6koa zibererasotzaile hutsetan ( $n = 63$ ) (ikusi 25. Grafikoa).

**Cyberbullying: Prebalentzia Larria**

Atal honetan, cyberbullying larriaren prebalentziaren inguruko datuak aztertzeko asmoz, 15 jokaeren bat "sarritan" edota "beti" sufritu edo gauzatu zituzten partaideak hartu dira kontuan. Emaitzek 26. Grafikoan erakusten diren ehunekoak azaldu dituzte.

26. Grafikoa. Cyberbullying: Ziberbiktima eta zibererasotzaile larrien eta noizbehinako ehunekoak laginaren gainean



Datu hauek kontuan hartuz, partaideen % 7,2k ( $n = 126$ ) cyberbullyingeko jokaera bat edo gehiago sufritu zituen maiztasun handiarekin (ziberbiktima larriak). Gainera, ikasleen % 1,6k ( $n = 28$ ) cyberbullyingeko jokaerak sarritan edota beti burutu zuela adierazi zuen. Noizbehinkako ziberbiktimei dagokienez, % 29,1ek ( $n = 509$ ) cyberbullyingeko jokaerak noizbehinka burutu zituela adierazi zuen. Azkenik, %16,5ek ( $n = 289$ ) cyberbullyingeko jokaerak burutu zituen noizbehinka.

**8.2.1.2 Ziberbiktima eta zibererasotzaileen prebalentzia cyberbullyingeko erasoetan**

Cyberbullying-eraso ezberdinetan sakontzeko asmoz, bizitzan zehar ziberbiktima eta zibererasotzaile izan direla berretsi duten parte hartzeileen maiztasunak eta ehunekoak aztertu dira (modu globalean nahiz larrian). Azterketa horretarako, ziberbiktima eta zibererasotzaile guztiak (ez soilik hutsak) hartu dira kontuan. Lehenik eta behin, cyberbullying globaleko ("batzuetan", "sarritan" eta "beti") erasoren bat sufritu edo gauzatu dutela adierazi duten ikasleen ehunekoak azaltzen dira. Ondoren, cyberbullyingeko erasoren bat "sarritan" eta "beti" pairatu eta

egin duten parte hartzaileen ehunekoak aztertu dira, hau da, cyberbullying larriaren ehunekoak aurkezten dira. Datu hauek 6. Taulan adierazten dira eta 27. eta 28. Grafikoetan irudikatzen dira.


6. Taula. Ziberbiktimen maiztasun eta ehunekoak

	Inoiz ez	Batzuetan	Sarritan	Beti
	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)
Internetetik edo telefono mugikorretik <b>mezu iraingarriak</b> eta mingarriak bidali al dizkizute?	1.391 (79,6)	312 (17,8)	42 (2,4)	3 (0,2)
Internetetik edo telefono mugikorretik <b>dei iraingarriak</b> eta mingarriak egin al dizkizute (Skype-n...)?	1.643 (94,0)	92 (5,3)	12 (0,7)	1 (0,1)
<b>Eraso egin</b> al dizute <b>grabatu</b> eta internetera <b>igotzeko</b> ?	1.734 (99,2)	12 (0,7)	2 (0,1)	0 (0,0)
Internet edo mugikor bidez zure <b>argazki edo bideo pribatu edo konprometituri</b> <b>zabaldu</b> al dute?	1.648 (94,3)	95 (5,4)	3 (0,2)	2 (0,1)
Zu <b>ohartu gabe</b> aldageletan, hondartzan edo komunean <b>argazkirik atera</b> al dizute eta interneten ipini dituzte edo mugikorretik <b>zabaldu</b> ?	1.704 (97,5)	38 (2,2)	6 (0,3)	0 (0,0)
Zu <b>beldurtzeko</b> helburuarekin eginiko <b>dei anonimorik</b> jaso duzu?	1.536 (87,9)	185 (10,6)	25 (1,4)	2 (0,1)
Mezu edo dei bidez <b>xantaia</b> edo mehatxu egin dizute?	1.629 (93,2)	101 (5,8)	17 (1,0)	1 (0,1)
Mugikorretik edo internetetik <b>jazarpen sexualik</b> pairatu duzu?	1.651 (94,5)	79 (4,5)	15 (0,9)	3 (0,2)
Norbaitek zure blogean <b>zu bazina bezala sinatu</b> du, gezurrak edo sekretuak kontatuz?	1.703 (97,4)	36 (2,1)	7 (0,4)	2 (0,1)
Zure blogera edo posta elektronikora sartu ez zaitezten <b>pasahitza lapurtu</b> dizute?	1.662 (95,1)	82 (4,7)	4 (0,2)	0 (0,0)
<b>Zure argazki edo bideoak aldatu</b> dituzte Internet bidez sare sozialetan edo YouTuben <b>zabaldu</b> eta zutaz barre egiteko edo zu umilatzeko?	1.725 (98,7)	18 (1,0)	5 (0,3)	0 (0,0)
Sare sozialetan zu zure <b>kontaktuetatik urruntzeko</b> helburuarekin jazarpenik pairatu duzu?	1.711 (97,9)	28 (1,6)	7 (0,4)	2 (0,1)
Egin nahi ez zenituen gauzak egitera behartu zaituzte zure <b>gauza pertsonalak sarean ez zabaltzeko</b> ?	1.696 (97,0)	42 (2,4)	5 (0,3)	5 (0,3)
<b>Heriotzarekin mehatxatu</b> al zaituzte zu edo zure familiako norbait telefono mugikorretik, sare sozialetatik edo bestelako teknologien bitartez?	1.699 (97,2)	40 (2,3)	7 (0,4)	2 (0,1)

	Inoiz ez	Batzuetan	Sarritan	Beti
	f (%)	f (%)	f (%)	f (%)
Internet bidez <b>zuri buruzko gezurrak zabaldu</b> al dituzte zure izen ona edo ospea zikintzeko asmoz? Zuri buruzko <b>zurrumurrak zabaldu</b> al dituzte zuri min egiteko?	1.516 (86,7)	175 (10,0)	50 (2,9)	7 (0,4)

f = maiztasuna, % = ehunekoa

### 27. Grafikoa. Cyberbullying portaera globalen ziberbiktimen ehunekoa



4. Taulan eta 26. Grafikoan ikus daitekeen bezala, nahiz eta ziberbiktimen ehunekoa oso altua ez izan, argi dago ez dela gutxiesteko modukoa. Izan ere, ikasleek emandako informazioaren arabera, aztertutako 15 jokoerak pairatuak izan dira. Jasandako jokoaren prebalentzia % 20,5 eta % 0,8 artean kokatuko litzateke. Datu hauen baitan, eta ziberbiktimizazio

globala (“batzuetan”, “sarritan” eta “beti”) kontuan hartuz gero, gehien pairatzen dituzten jokaerak honako hauek dira:

- Mugikor edo Internet bidezko mezu iraingarriak jasotzea (% 20,4).
- Zurrumurrak edo gezurrak zabaltzea norberaren ospea zikintzeko (% 13,3).
- Beldurtzeko asmoarekin egindako dei anonimoak jasotzea (% 12,1).
- Dei edo Internet bidez xantaia edo mehatxuak jasotzea (% 6,9).
- Mugikor edo Internet bidez dei iraingarriak jasotzea (% 6,1).
- Bideo/argazki pribatuak zabaltzea Internet edo mugikorraren bidez (% 5,7).
- Internet edo mugikor bidez sexualki jazarria izatea (% 5,6).
- Pasahitza lapurtzea posta elektronikoa edo blogean ez sartzeko (% 4,9).
- Sekretuak sarean ez hedatzeko egin nahi ez dituen gauzak eginaraziz xantaiaren biktima izatea (% 3).
- Heriotza mehatxuak jasotzea mugikorrean edo sarean (% 2,8).
- Identitatea faltsutzea eta zu izango bazina bezala sinatzea gezurrak kontatzeko (% 2,6).
- Aldageletan, hondartzan, etab. baimenik gabe argazkiak egin eta ondoren Interneten zabaltzea (% 2,5).
- Sare sozialetan kontaktuengandik isolatzea (% 2,1).
- Aldatutako argazkiak eta bideoak zabaltzea iseka egiteko eta umiliatzeko (% 1,3).
- Grabatu eta Internetera igotzeko egindako erasoen biktima izatea (% 0,8).

Jarraian, partaideek larriki sufritutako (“sarritan” eta “beti”) 15 portaeren ehunekoak adierazten dira (ikusi 28. Grafikoa)



28. Grafikoa. Cyberbullying portaera larrien ziberbiktimen ehunekoak



Ziberbiktimizazio larria aztertu denean (ikusi 28. Grafikoa), % 0,1 eta % 3,3 arteko prebalentzia berretsi da Bigarren Hezkuntzako 3.-4. mailako ikasleen artean. Ziberbiktimen ikuspegitik, honako hauek dira era larrian gehien pairau diren cyberbullying-jokaerak.

- Zurrumurrak edo gezurrak zabaltzea norberaren ospea zikintzeko (% 3,3).
- Mugikor edo Internet bidezko mezu iraingarriak jasotzea (% 2,6).
- Beldurtzeko asmoarekin egindako dei anonimoak jasotzea (% 1,5).
- Dei edo Internet bidez xantaia edo mehatxuak jasotzea (% 1,1).
- Internet edo mugikor bidez sexualki jazarria izatea (% 1,1).
- Mugikor edo Internet bidez dei iraingarriak jasotzea (% 0,8).


- Sekretuak sarean ez hedatzeko egin nahi ez dituen gauzak eginaraziz xantaiaren biktima izatea (% 0,6).
- Heriotza mehatxuak jasotzea mugikorrean edo sarean (% 0,5).
- Identitatea faltsutzea eta zu izango bazina bezala sinatzea gezurrak kontatzeko (% 0,5).
- Sare sozialetan kontaktuengandik isolatzea (% 0,5).
- Bideo/argazki pribatuak zabaltzea Internet edo mugikorraren bidez (% 0,3).
- Aldageletan, hondartzan, etab. baimenik gabe argazkiak egin eta ondoren Interneten zabaltzea (% 0,3).
- Aldatutako argazkiak eta bideoak zabaltzea iseka egiteko eta umiliatzeko (% 0,3).
- Pasahitza lapurtzea posta elektronikoan edo blogean ez sartzeko (% 0,2).
- Grabatu eta Internetera igotzeko egindako erasoen biktima izatea (% 0,1).

7. Taula. Zibererasotzaileen maiztasun eta ehunekoak

	Inoiz ez	Batuetan	Sarritan	Beti
	f (%)	f (%)	f (%)	f (%)
Internetetik edo telefono mugikorretik <b>mezu iraingarriak eta mingarriak</b> bidali al dituzu?	1.538 (88,0)	199 (11,4)	9 (0,5)	2 (0,1)
Internetetik edo telefono mugikorretik <b>dei iraingarriak eta mingarriak</b> egin al dituzu (Skype-n...)?	1.715 (98,1)	26 (1,5)	3 (0,2)	4 (0,2)
Norbait <b>erasotu</b> edota probokatu al duzu jipoi bat eman, <b>grabatu eta internetera igotzeko</b> ?	1.743 (99,7)	3 (0,2)	1 (0,1)	1 (0,1)
Internet edo mugikor bidez norbaiten <b>argazki edo bideo pribatu edo konprometiturik zabaldu</b> al duzu?	1.711 (97,9)	32 (1,8)	4 (0,2)	1 (0,1)
Bestea <b>ohartu gabe</b> aldageletan, hondartzan edo komunean <b>argazkirik atera</b> al duzu eta interneten ipini edo mugikorretik zabaldu?	1.730 (99,0)	16 (0,9)	1 (0,1)	1 (0,1)
Norbait <b>beldurtzeko helburuarekin dei anonimorik</b> egin duzu?	1.676 (95,9)	65 (3,7)	3 (0,2)	4 (0,2)
Mezu edo dei bidez <b>xantaia</b> edo <b>mehatxu</b> egin duzu?	1.713 (98,0)	30 (1,7)	3 (0,2)	2 (0,1)
Mugikorretik edo internetetik inor <b>sexualki jazarri duzu</b> ?	1.740 (99,5)	6 (0,3)	1 (0,1)	1 (0,1)
Besteren baten blogean sartu eta <b>irainak, gezurrak edo sekretuak kontatu</b> al dituzu?	1.739 (99,5)	6 (0,3)	2 (0,1)	1 (0,1)
Blogean edo posta elektronikokoan ez sartzeko norbaiti bere blogeko edo posta elektronikoko <b>pasahitza lapurtu</b> diozu?	1.722 (98,5)	23 (1,3)	2 (0,1)	1 (0,1)
<b>Argazki edo bideoak aldatu</b> dituzu Internet bidez sare sozialetan edo YouTuben zabaldu eta norbaitetaz barre egiteko edo bera umilatzeko?	1.732 (99,1)	14 (0,8)	12 (0,1)	0 (0,0)
Sare sozialetan norbait bere <b>kontaktuetatik urruntzeko</b> helburuarekin jazarpenik egin diozu?	1.740 (99,5)	6 (0,3)	1 (0,1)	1 (0,1)
Norbait egin <b>nahi ez zituen gauzak egitera behartu duzu</b> bere <b>gauza pertsonalak</b> sarean <b>ez zabaltzearen</b> truke?	1.734 (99,2)	11 (0,6)	2 (0,1)	1 (0,1)
<b>Inor heriotzaz mehatxatu</b> al duzu telefono mugikorretik, sare sozialetatik edo bestelako teknologien bitartez?	1.740 (99,5)	5 (0,3)	2 (0,1)	1 (0,1)
Internet bidez <b>bestei buruzko gezurrak zabaldu</b> al dituzu haien izen ona edo ospea zikintzeko asmoz? Beste buruzko zurrumurrak zabaldu al dituzu haiei min egiteko?	1.713 (98,0)	26 (1,5)	7 (0,4)	2 (0,1)

Nota: f = maiztasunak, % = ehunekoak

## 29. Grafikoa. Cyberbullying portaera globalen zibererasotzaileen ehunekoak




Ikus daitekeen moduan (ikusi 7. Taula eta 29. Grafikoa), zibererasotzaileen ikuspegitik cyberbullying globalaren (“batzuetan”, “sarritan” eta “beti”) prebalentzia maila % 0,4 eta % 12 artean kokatzen da, aztertutako 15 jokaerak kontuan hartuz gero. Jarraian, cyberbullying-eraso mota guztiak azaltzen dira aurkitutako zibererasoaren ehunekoekin:

- Mugikor/Internet bidezko mezu mingarriak edo iraingarriak bidaltzea (% 12).
- Beldurtzeko helburuarekin dei anonimoak egiteak (% 4,1).
- Argazki/bideo pribatuak Internet edo mugikorraren bidez hedatzea (% 2,1).
- Zurrumurrak edo gezurrak zabaltzea beste pertsona baten ospea zikintzeko (% 2).
- Dei/Internet bidezko xantaia edo mehatxuak egitea (% 2).

- Mugikor/Internet bidezko dei mingarriak edo iraingarriak egitea (% 1,9).
- Pasahitza lapurtzea blogean edo korreo elektronikoan ez sartzeko (% 1,5).
- Aldageletan, hondartzan, etab. baimenik gabe argazkiak egin eta ondoren Interneten edo mugikorraren bidez zabaldu (% 1,1).
- Norbaiten argazkiak edo bideoak aldatzea Interneten zabaltzeko (% 0,9).
- Sekretuak sarean ez hedatzeko egin nahi ez dituen gauzak eginaraziz xantaia egitea (% 0,8).
- Internet edo mugikorraren bidez jazarpen sexuala gauzatzea (% 0,5).
- Kide bati edo bere senideei heriotza-mehatxuak egitea mugikorraren edo sarearen bidez (% 0,5).
- Identitatea faltsutzea eta beste pertsona bat izango balitz bezala sinatzea gezurrak kontatzeko (% 0,5).
- Sare sozialetan norbait bere kontaktuengandik urruntzea eta isolatzea (% 0,5).
- Norbaiti eraso egin grabatzeko eta Internetera igotzeko (% 0,4).

Oraingo honetan, cyberbullyingeko 15 erasoetako bat edo gehiago “sarritan” edo “beti” burutu zutela adierazi zuten partaideen ehunekoak erakusten dira. Zibererasotzaile larrien prebalentzia maila 30. Grafikoan azaltzen da.

30. Grafikoa. Cyberbullying portaera larrien zibererasotzaileen ehunekoak



Zibererasotzaileen ikuspegitik, eta cyberbullyingeko jokaerak oso maiz (“sarritan” edo “beti”) burutu zutela adiera zuten partaideak kontuan hartuz, emaitzek % 0,1 eta % 0,6 bitarteko prebalentzia maila adierazi dute Bigarren Hezkuntzako 3.-4. maila burutzen ari ziren ikasleen artean. Hauek dira gehien burututako jokaerak:

- Mugikor/Internet bidezko mezu mingarriak edo iraingarriak bidaltzea (% 0,6).
- Zurrumurrak edo gezurrak zabaltzea beste pertsona baten ospea zikintzeko (% 0,5).
- Beldurtzeko helburuarekin dei anonimoak egiteak (% 0,4).
- Mugikor/Internet bidezko dei mingarriak edo iraingarriak egitea (% 0,4).
- Argazki/bideo pribatuak Internet edo mugikorraren bidez hedatzea (% 0,3).
- Dei/Internet bidezko xantaia edo mehatxuak egitea (% 0,3).
- Pasahitza lapurtzea blogean edo korreo elektronikoan ez sartzeko (% 0,2).

- Aldageletan, hondartzan, etab. baimenik gabe argazkiak egin eta ondoren Interneten edo mugikorraren bidez zabaldu (% 0,2)
- Sekretuak sarean ez hedatzeko egin nahi ez dituen gauzak eginaraziz xantaia egitea (% 0,2).
- Internet edo mugikorraren bidez jazarpen sexuala gauzatzea (% 0,2).
- Kide bati edo bere senideei heriotza-mehatxuak egitea mugikorraren edo sarearen bidez (% 0,2).
- Identitatea faltsutzea eta beste pertsona bat izango balitz bezala sinatzea gezurrak kontatzeko (% 0,2).
- Sare sozialetan norbait bere kontaktuengandik urruntzea eta isolatzea (% 0,2).
- Norbaiti eraso egin grabatzeko eta Internetera igotzeko (% 0,2).
- Norbaiten argazkiak edo bideoak aldatzea Interneten zabaltzeko (% 0,1).

Cyberbullying globalaren eta larriaren prebalentzia rolarren (ziberbiktima eta zibererasotzaile) arabera aztertu ondoren, 8. Taulak eta 31. Grafikoak bi rolen ehunekoak azaltzen ditu, rolen arteko konparaketa errazteko asmoz.


## 8. Taula. Prebalentzia globalaren ehunekoak ziberbiktimitan eta zibererasotzaileetan

	Ziberbiktimak	Zibererasotzaileak
	%	%
Internet edo mugikorraren bidezko <b>mezu mingarri eta iraingarriak</b>	20,4	12,0
Mugikorra/Internetaren bidezko <b>dei mingarri eta iraingarriak</b>	6,1	1,9
<b>Erasotu grabatzeko eta Internetera igotzeko</b>	0,8	0,4
<b>Argazki/bideo pribatuak Internet edo mugikorraren bidez zabaltzea</b>	5,7	2,1
Hondartzan, aldegeletan, etab. <b>baimenik gabe argazkiak egin</b> eta mugikorraren edo Internetaren bidez zabaltzea.	2,5	1,1
Beldurtzeko <b>dei anonimoak</b>	12,1	4,1
Mezu edo deien bidez <b>xantaia edo mehatxuak</b>	6,9	2,0
Mugikorra edo Internet bidezko <b>jazarpen sexuala</b>	5,6	0,5
<b>Identitatea faltsutzea</b>	2,6	0,5
<b>Pasahitza lapurtu</b> korreo elektronikoan edo blogean ez sartzeko	4,9	1,5
<b>Argazki edo bideoak aldatu</b> sare sozialetan edo web orrialdetan zabaltzeko	1,3	0,9
Sare sozialetan <b>isolateko jazarri</b>	2,1	0,5
Sekretuak sarean ez hedatzeko egin nahi ez diren gauzak eginaraziz <b>xantaia</b> egin	3,0	0,8
<b>Heriotza-mehatxuak</b> pertsona bati edo familiari, mugikorra, sare sozialak edo beste teknologien bitartez	2,8	0,5
<b>Difamatu edo zurrumurrak</b> zabaltzeko norberaren izena zikintzeko asmoz.	13,3	2,0

% = ehunekoa



## 31. Grafikoa. Cyberbullying globalaren prebalentzia ziberbiktimetan eta zibererasotzaileetan




8. Taulan eta 31. Grafikoan agertutako emaitzek koherentzia maila altua erakusten dute 15 jokaera desberdinen prebalentzian bi rolen arabera (ziberbiktima eta zibererasotzailea). Ikasleek maiztasun gehiagorekin adierazi zuten jokaera hauek sufritu izana, zibererasotzaileen ehunekoak ziberbiktimenak baino txikiagoak izanik. Bi rolak kontuan hartuta, honako hauek dira maiztasun gehiagorekin gertatzen diren Cyberbullyineko 6 jokaerak.

- Mugikorraren edo Internetaren bidezko mezu mingarri edo iraingarriak: Ziberbiktimak (% 20,4) eta zibererasotzaileak (% 12).
- Beldurtzeko dei anonimoak: Ziberbiktimak (% 12,1) eta zibererasotzaileak (% 4,1).
- Zurrumurruak edo gezurrak zabaldu beste pertsona baten ospea zikintzeko edo mintzeko asmoz: ziberbiktimak (% 13,3) eta zibererasotzaileak (% 2).
- Dei edo Internet bidez xantaia edo mehatxu egin: Ziberbiktimak (% 6,9) eta zibererasotzaileak (% 2).
- Mugikorra edo Internet bidez dei mingarri edo iraingarriak: Ziberbiktimak (% 6,1) eta zibererasotzaileak (% 1,9).
- Argazki edo bideo pribatuak zabaltzea mugikorraren edo Internetaren bitartez: Ziberbiktimak (% 5,7) eta zibererasotzaileak (% 2,1).

32. Grafikoak cyberbullying larriaren (“sarritan” eta “beti”) biktima eta erasotzaileen ehunekoak azaltzen ditu.

## 32. Grafikoa. Cyberbullying larriaren ehunekoak ziberbiktima eta zibererasotzaileetan



Cyberbullyingeko jokaera larriei dagokienez, aztertutako bi rolen arabera (ziberbiktima eta zibererasotzailea) honako hauek dira gehien gertatzen diren 6 jokaerak.

- Zurrumurruek edo gezurrak zabaldu beste pertsona baten ospea zikintzeko edo mintzeko asmoz: Ziberbiktimak (% 3,3) eta zibererasotzaileak (% 0,5).
- Mugikorraren edo Internetaren bidezko mezu mingarri edo iraingarriak: Ziberbiktimak (% 2,6) eta zibererasotzaileak (% 0,6).
- Beldurtzeko dei anonimoak: Ziberbiktimak (% 1,5) eta zibererasotzaileak (% 0,4).
- Dei edo Internet bidez xantaia edo mehatxu egin: Ziberbiktimak (% 1,1) eta erasotzaileak (% 0,3).
- Mugikorra edo Internet bidezko jazarpen sexuala: Ziberbiktimak (% 1,1) eta zibererasotzaileak (% 0,2).
- Mugikorra edo Internet bidez dei mingarri edo iraingarriak: Ziberbiktimak (% 0,8) eta erasotzaileak (% 0,4)

## **8.2.2 Cyberbullying: Prebalentzia sexuaren arabera**

### **8.2.2.1 Cyberbullying: Neska eta mutilen ehunekoak, ziberbiktima, zibererasotzaile eta ziberbiktima-erasotzaileak**

#### ***Cyberbullying Globala: Sexuaren araberako aldeak***


Cyberbullying globalaren sexuaren araberako ezberdintasunak zehazte aldera, bai ziberbiktimak eta baita zibererasotzaile eta ziberbiktima-erasotzaileak ere kontuan hartuta, kontingentzia azterketak burutu dira. Modu honetan, rol bakoitzeko neska eta mutilen erantzunen maiztasunak eta ehunekoak erkuratu dira. Jarraian, ziberbiktimen (hutsak eta erasotzaileak) eta zibererasotzaileen (hutsak eta biktimak) inguruko emaitzak aurkezten dira eta 33. eta 34. Grafikoetan irudikatzen dira.

- **Ziberbiktimak:** Ikasleen % 36,3k ( $n = 635$ ), bizitzan zehar, beste kide batzuegandik cyberbullyingeko jokaeraren bat edo gehiago pairatu zuela adierazi zuen. Sexu

bakoitzaren laginaren gaineko neska eta mutil ziberbiktimen ehunekoak hauek izan ziren: % 42,6 neskak ( $n = 392$ ) eta % 29,3 mutilak ( $n = 243$ ). Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren ziberbiktimetan sexuaren arabera ( $\chi^2 = 33,13$ ,  $p < .05$ ).


- **Zibererasotzaileak:** Ikasleen % 18,1ek ( $n = 317$ ), bizitzan zehar, cyberbullyingeko jokoeraren bat edo gehiago gauzatu zuela adierazi zuen. Sexu bakoitzaren laginaren gaineko neska eta mutil zibererasotzaileen ehunekoak hauek izan ziren: % 16,2 neskak ( $n = 149$ ) eta % 20,3 mutilak ( $n = 168$ ). Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren zibererasotzaileetan sexuaren arabera ( $\chi^2 = 4,92$ ,  $p < .05$ ).
- **Ziberbiktima-erasotzaileak:** Cyberbullyingeko jokoerak sufritu zuten ikasleen % 14,5 ( $n = 254$ ), aldi berean zibererasotzaile izan zen. Sexu bakoitzaren laginaren gaineko neska eta mutil ziberbiktima-erasotzaileen ehunekoak hauek izan ziren: % 14,1 neskak ( $n = 130$ ) eta % 15 mutilak ( $n = 124$ ). Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren ziberbiktima-erasotzaileetan sexuaren arabera ( $\chi^2 = 4,9$ ,  $p < .05$ ).
- **Ziberbiktima hutsak:** Partaideen % 21,8 ( $n = 381$ ) cyberbullyingaren biktima izan zen baina ez zituen jokoera horiek burutu. Sexu bakoitzaren laginaren gaineko neska eta mutil ziberbiktima hutsen ehunekoak hauek izan ziren: % 66,8 neskak ( $n = 262$ ) eta % 49 mutilak ( $n = 119$ ). Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren ziberbiktima hutsetan sexuaren arabera ( $\chi^2 = 19,95$ ,  $p < .001$ ).
- **Zibererasotzaile hutsak:** Laginaren % 3,6k ( $n = 63$ ) cyberbullyingeko jokoerak pairatu zituela baina ez zituela sufritu adierazi zuen. Sexu bakoitzaren laginaren gaineko neska eta mutil zibererasotzaile hutsen ehunekoak hauek izan ziren: % 12,8 neskak ( $n = 19$ ) eta % 26,2 mutilak ( $n = 44$ ). Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren zibererasotzaile hutsetan sexuaren arabera ( $\chi^2 = 8,96$ ,  $p < .05$ ).

33. Grafikoa. Cyberbullying Globala: Neska eta mutil ziberbiktimen eta zibererasotzaileen ehunekoak (sexu bakoitzaren laginaren gainean)



\* $p < .05$

34. Grafikoa. Cyberbullying Globala: Neska eta mutil ziberbiktima huts, zibererasotzaile huts eta ziberbiktima-erasotzaileen ehunekoak (sexu bakoitzaren laginaren gainean)



\* $p < .05$


Kontingentzia azterketek estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak azaldu dituzte cyberbullying globaleko ziberbiktima eta zibererasotzaileetan, partaide bakoitzaren sexuaren arabera. Emaitez ziberbiktimen ehuneko handiagoak eta zibererasotzaileen ehuneko txikiagoak erakusten dituzte nesketan mutilekin alderatuz. Azkenik, ziberbiktima-erasotzaileetan estatistikoki esanguratsuak diren ezberdintasunak aurkitu dira sexuaren arabera, cyberbullyingeko portaerak sufritu eta aldi berean burutzen dituztenen ehuneko handiagoak aurkituz mutiletan (neskekin konparatuz).

### **Cyberbullying Larria: Sexuaren arabera aldeak**

Cyberbullyingean sakontzeko asmoz, cyberbullying larriaren (“sarritan” eta “beti”) prebalentzia kalkulatu da sexuaren arabera, hau da, sexuaren arabera benetako cyberbullyingaren prebalentzia aztertu da. Gainera, Pearsonen Khi karratua aztertu da neska eta mutilen artean desberdintasunak existitzen diren zehazteko. Emaidzak jarraian aurkezten dira eta 35. eta 36. Grafikoetan azaltzen dira.


- **Ziberbiktima larriak:** Biktimen % 7,2k ( $n = 125$ ) cyberbullyinga oso maiz sufritu du. Sexu bakoitzaren laginaren gaineko neska eta mutil ziberbiktima larrien ehunekoak hauek izan ziren: % 9,5 neskak ( $n = 87$ ) eta % 4,6 mutilak ( $n = 38$ ). Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren ziberbiktima larrietan sexuaren arabera ( $\chi^2 = 15,54$ ,  $p < .001$ ).
- **Noizbehinkako ziberbiktimak:** %29,1k ( $n = 509$ ) adierazi zuen cyberbullyinga sufritu izan duela noizbehinka. Sexu bakoitzaren laginaren gaineko neska eta mutil noizbehinkako ziberbiktimen ehunekoak hauek izan ziren: % 33,1 neskak ( $n = 305$ ) eta % 24,7 mutilak ( $n = 204$ ). Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren noizbehinkako ziberbiktimetan sexuaren arabera ( $\chi^2 = 4,08$ ,  $p < .05$ ).
- **Zibererasotzaile larriak:** Zibererasotzaileen % 1,6k ( $n = 28$ ) oso maiz burutu du cyberbullyinga. Sexu bakoitzaren laginaren gaineko neska eta mutil zibererasotzaile larrien ehunekoak hauek izan ziren: % 1 neskak ( $n = 9$ ) eta % 2,3 mutilak ( $n = 19$ ). Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren zibererasotzaile larrietan sexuaren arabera ( $\chi^2 = 4,79$ ,  $p < .05$ ).
- **Noizbehinkako zibererasotzaileak:** % 16,5ek ( $n = 289$ ) adierazi zuen cyberbullyinga burutu zuela noizbehinka. Sexu bakoitzaren laginaren gaineko neska eta mutil noizbehinkako zibererasotzaileen ehunekoak hauek izan ziren: % 15,2 neskak ( $n = 140$ ) eta % 18 mutilak ( $n = 149$ ). Ez ziren estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu noizbehinkako zibererasotzaileetan sexuaren arabera ( $\chi^2 = 2,27$ ,  $p > .05$ ).

35. Grafikoa. Cyberbullying: Neska eta mutil ziberbiktima larrien, noizbehinkako ziberbiktimen eta ez-ziberbiktimen ehunekoak



\* $p < .05$

36. Grafikoa. Cyberbullying: Neska eta mutil zibererasotzaile larrien, noizbehinkako zibererasotzaileen eta ez-zibererasotzaileen ehunekoak



\* $p < .05$

Ikus daitekeenez, ziberbiktima larrien ehuneko handiagoa aurkitu da nesken artean eta zibererasotzaileen ehuneko handiagoak berriz, mutiletan. Neskek cyberbullyingeko jokaerak maiztasun handiagoarekin sufritzen dituzten bitartean, mutilek maiztasun handiagoarekin burutzen dituzte cyberbullyingeko jokaerak.



### 8.2.2.2 Cyberbullying: Mutil eta neskek pairatu eta burututako jokaera erasokorren kopurua


Lehenik eta behin, cyberbullying adierazleetan (ziberbiktimizazioa, zibererasoa eta ziberbiktimizazio-erasokorra) sexuaren arabera desberdintasunak existitzen diren zehazteko asmoz, aldagai anitzeko bariantza analisiak (MANOVA) burutu dira. Azterketa hauek estatistikoki esanguratsua diren desberdintasunak berresten dituzte sexuaren arabera, Wilksen Lambda,  $\Lambda = 0,975$ ,  $F(3,1744) = 15,05$ ,  $p < .001$  (eraginaren tamaina txikia,  $\eta^2 = 0,025$ ,  $r = 0,15$ ). Bigarrenik, azterketa deskribatzaileak (bataz bestekoak eta desbideratze tipikoak), aldagai bakarreko bariantza analisiak eta eraginaren tamainaren analisiak (Cohenen  $d$ ) burutu dira. Informazio hau 9. Taulan eta 37. Grafikoan adierazten da.

9. Taula. Cyberbullying adierazleen bataz bestekoak, desbideratze tipikoak, bariantza analisisia eta eraginaren tamaina (Cohenen  $d$ ) neska eta mutiletan

	Neskak ( $n = 920$ )	Mutilak ( $n = 828$ )	$F(p)$	$d$
	$M(Dt)$	$M(Dt)$		
Ziberbiktimizazioa	1,32 (2,58)	0,75 (1,78)	27,85 (.000)	.25
Zibererasoa	0,34 (1,73)	0,38 (1,03)	0,31 (.576)	.02
Ziberbiktimizazio-erasokorra	0,14 (0,34)	0,15 (0,35)	0,25 (.617)	.02

$M$  = Bataz bestekoa,  $DT$  = Desbideratze tipikoa,  $F$  =  $F$  Fisher,  $p$  = esangura,  $d$  = eraginaren tamaina

37. Grafikoa. Cyberbullying adierazleen bataz besteko puntuazioak sexuaren arabera



\* $p < .05$

Bataz besteko puntuazioen emaitzek sexuaren arabera ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak erakusten dituzte ziberbiktimizazioan (ikusi 9. Taula eta 37. Grafikoa). Horrela, ziberbiktimizazio mailan bakarrik aurkitu dira ezberdintasun esanguratsuak neskek bataz besteko altuagoak azalduz ( $M = 1,32$ ) mutilekin alderatuz gero ( $M = 0,75$ ). Ondorioz, neskek mutilek baino cyberbullyingeko jokaera kopuru handiagoa sufritzen dute. Ez ziren estatistika aldetik esanguratsuak diren ezberdintasunak aurkitu zibereraso eta ziberbiktimizazio-erasokorraren adierazleetan. Eraginaren tamainari dagokionez, hiru adierazleek eraginaren tamaina txikia erakusten dute.

### **8.2.3 Cyberbullying: Prebalentzia orientazio sexualaren arabera**

#### **8.2.3.1. Cyberbullying: heterosexualen eta ez-heterosexualen ehunekoak, biktima, erasotzaile eta biktima-erasotzaileak**


##### ***Cyberbullying Globala: Orientazio sexualaren arabera aldeak***

Lehenik eta behin, kontingentzia analisiak burutu dira Pearsonen Khi karratua kalkulatu eta cyberbullying globalean, orientazio sexualaren arabera desberdintasun estatistikoki esanguratsuak existitzen diren zehazteko asmoz. Bullyingarekin gauzatu den bezala, partaideak bi taldeetan sailkatu dira, pertsona heterosexualetan eta ez-heterosexualetan (gayak, lesbianak, bisexualak eta orientazio sexuala argi ez duten partaideak) hain zuzen ere. Horrela, cyberbullying globalaren maiztasunak eta ehunekoak erdietsi dira orientazio sexualaren talde bakoitzean. Emaitzak jarraian adierazten dira eta 38. eta 39. Grafikoetan irudikatzen dira.

- **Ziberbiktimak:** Ikasleen % 36,3k ( $n = 635$ ), bizitzan zehar, beste kide batzuegandik cyberbullyingeko jokaeraren bat edo gehiago pairatu zuela adierazi zuen. Orientazio sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko ziberbiktima heterosexualen eta ez-heterosexualen ehunekoak hauek izan ziren: % 33,9 heterosexualak ( $n = 518$ ) eta % 53,4 ez-heterosexualak ( $n = 117$ ). Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren ziberbiktimitan orientazio sexualaren arabera ( $\chi^2 = 31,64, p < .001$ ).


- **Zibererasotzaileak:** Ikasleen % 18,1ek ( $n = 317$ ), bizitzan zehar, cyberbullyingeko jokoeraren bat edo gehiago gauzatu zuela adierazi zuen. Orientazio sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko zibererasotzaile heterosexualen eta ez-heterosexualen ehunekoak hauek izan ziren: % 17,7 heterosexualak ( $n = 270$ ) eta % 21,5 ez-heterosexualak ( $n = 47$ ). Ez ziren estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu zibererasotzaileetan orientazio sexualaren arabera ( $\chi^2 = 1,86, p > .05$ ).
  
- **Ziberbiktima-erasotzaileak:** Cyberbullyingeko jokoerak sufritu zuten ikasleen % 14,5 ( $n = 254$ ), aldi berean zibererasotzaile izan zen. Orientazio sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko ziberbiktima-erasotzaile heterosexualen eta ez-heterosexualen ehunekoak hauek izan ziren: % 13,8 heterosexualak ( $n = 211$ ) eta % 19,6 ez-heterosexualak ( $n = 43$ ). Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren ziberbiktima-erasotzaileetan orientazio sexualaren arabera ( $\chi^2 = 24,55, p < .001$ ).
  
- **Ziberbiktima hutsak:** Partaideen % 21,8 ( $n = 381$ ) cyberbullyingaren biktima izan zen baina ez zituen jokoera horiek burutu. Orientazio sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko ziberbiktima-huts heterosexualen eta ez-heterosexualen ehunekoak hauek izan ziren: % 59,3 heterosexualak ( $n = 307$ ) eta % 63,2 ez-heterosexualak ( $n = 74$ ). Ez ziren estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziberbiktima hutsetan orientazio sexualaren arabera ( $\chi^2 = 0,63, p > .05$ ).
  
- **Zibererasotzaile hutsak:** Laginaren % 3,6k ( $n = 63$ ) cyberbullyingeko jokoerak pairatu zituela baina ez zituela sufritu adierazi zuen. Orientazio sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko zibererasotzaile-huts heterosexualen eta ez-heterosexualen ehunekoak hauek izan ziren: % 21,9 heterosexualak ( $n = 59$ ) eta % 8,5 ez-heterosexualak ( $n = 4$ ). Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren zibererasotzaile hutsetan orientazio sexualaren arabera ( $\chi^2 = 4,47, p < .05$ ).

38. Grafikoa. Cyberbullying Globala: Ziberbiktima eta zibererasotzaile heterosexualen eta ez-heterosexualen ehunekoak (orientazio sexualaren talde bakoitzeko laginaren ganean)



\* $p < .05$

39. Grafikoa. Cyberbullying Globala: Ziberbiktima huts, zibererasotzaile huts eta ziberbiktima-erasotzaile heterosexualen eta ez-heterosexualen ehunekoak (orientazio sexualaren talde bakoitzeko laginaren ganean)



\* $p < .05$

Ikus datekeen bezala (ikusi 38. eta 39. Grafikoak), partaide ez-heterosexualek ziberbiktimen eta ziberbiktima-erasotzaileen ehuneko handiagoak azaltzen dituzte. Azkenik, kontingentzia analisisiek zibererasotzaile hutsen ehuneko handiagoak zehaztu ditu heterosexualen artean ez-heterosexualekin alderatuz.


**Cyberbullying Larria: Sexuaren arabera aldeak**

Kontingentzia analisiak burutu dira cyberbullying larriaren (“sarritan” eta “beti”) prebalentzian ezberdintasun ezstatistikoki esanguratsuak dauden zehazteko asmoz, partaide ez-heterossexualen eta heterossexualen artean. Emaizak jarraian azaltzen dira eta 40. eta 41. Grafikoetan irudikatzen dira.

- **Ziberbiktima larriak:** %7,2k ( $n = 125$ ) cyberbullyinga sufritu du sarritan eta beti. Orientazio sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko ziberbiktima heterossexual eta ez-heterossexual larrien ehunekoak hauek izan ziren: % 6,2 heterossexualak ( $n = 95$ ) eta % 13,7 ez-heterossexualak ( $n = 30$ ). Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren ziberbiktima larrietan orientazio sexualaren arabera ( $\chi^2= 16,16, p < .001$ ).
- **Noizbehinkako ziberbiktimak:** % 29,1ek ( $n = 509$ ) cyberbullyinga noizbehinka sufritu izana adierazi zuen. Orientazio sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko noizbehinkako ziberbiktima heterossexual eta ez-heterossexual ehunekoak hauek izan ziren: % 27,7 heterossexualak ( $n = 423$ ) eta % 39,7 ez-heterossexualak ( $n = 87$ ). Ez ziren estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu noizbehinkako ziberbiktimetan orientazio sexualaren arabera ( $\chi^2= 3,22, p > .05$ ).
- **Zibererasotzaile larriak:** Zibererasotzaileen % 1,6k ( $n = 28$ ) cyberbullyingeko jokaerak modu larrian gauzatu zituen. Orientazio sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko zibererasotzaile heterossexual eta ez-heterossexual larrien ehunekoak hauek izan ziren: % 1,7 heterossexualak ( $n = 26$ ) eta % 0,9 ez-heterossexualak ( $n = 2$ ). Ez ziren estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu zibererasotzaile larrietan orientazio sexualaren arabera ( $\chi^2= 0,75, p > .05$ ).
- **Noizbehinkako zibererasotzaileak:** % 16,5ek ( $n = 289$ ) cyberbullyingeko jokaerak noizbehinka burutu zituela adierazi zuen. Orientazio sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko noizbehinkako zibererasotzaile heterossexual eta ez-heterossexual ehunekoak hauek izan ziren: % 16 heterossexualak ( $n = 244$ ) eta % 20,6 ez-


heterossexualak ( $n = 45$ ). Ez ziren estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu noizbehinkako zibererasotzaileetan orientazio sexualaren arabera ( $\chi^2 = 1,44$ ,  $p > .05$ ).

40. Grafikoa. Cyberbullying: ziberbiktima larrien, noizbehinkako ziberbiktimen eta ez-ziberbiktimen ehunekoak heterossexualaetan eta ez-heterossexualaetan



\* $p < .05$

41. Grafikoa. Cyberbullying: ziberbiktima larrien, noizbehinkako ziberbiktimen eta ez-ziberbiktimen ehunekoak heterossexualaetan eta ez-heterossexualaetan



Alde batetik, emaitzek ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak berretsi dituzte ziberbiktimitan partaide heterosexualen eta ez-heterosexualen artean. Datu hauen arabera, ikasle ez-heterosexualek heterosexualek baino maiztasun handiagoarekin sufritzen dute cyberbullyinga. Bestalde, ez dira estatistikoki esanguratsuak diren ezberdintasunak aurkitu zibererasotzaile larri eta noizbehinkakoetan orientazio sexualaren arabera.

### 8.2.3.2 Cyberbullying: heterosexualek eta ez-heterosexualek pairatu eta burututako jokaera erasokorren kopurua


Heterosexualek eta ez-heterosexualek sufritu eta burututako cyberbullyingeko jokaera kopuruan identitate sexualaren araberako alderik dagoen identifikatzeko asmoz, cyberbullying adierazle desberdinetan (ziberbiktimizazioa, zibererasoa eta ziberbiktimizazio-erasokorra) eskuratutako puntuazioen gainean aldagai anitzeko bariantza analisiak (MANOVA) gauzatu dira. MANOVA-ren emaitzek ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak adierazi ditu orientazio sexualaren arabera, Wilksen Lambda,  $\Lambda = 0,975$ ,  $F(3,1744) = 15,16$ ,  $p < .001$  (eraginaren tamaina txikia,  $\eta^2 = 0,025$ ,  $r = 0,15$ ). Ondoren, azterketa deskribatzaileak (bataz bestekoak eta desbideratze tipikoak, aldagai bakarreko bariantza analisiak eta eraginaren tamainaren (Cohenen  $d$ ) azterketak burutu dira. Emaizak 10. Taulan aurkezten dira eta 42. Grafikoan irudikatzen dira.

10. Taula. Cyberbullying adierazleen bataz bestekoak, desbideratze tipikoak, bariantza analisia eta eraginaren tamaina (Cohenen  $d$ ) heterosexualetan eta ez-heterosexualetan

	Heterosexualak ( $n = 1529$ )	Ez-heterosexualak ( $n = 219$ )	$F(p)$	$d$
	$M(Dt)$	$M(Dt)$		
Ziberbiktimizazioa	0,92 (2,03)	1,99 (3,32)	43,83 (.000)	.38
Zibererasoa	0,35 (1,43)	0,42 (1,52)	0,49 (.486)	.04
Ziberbiktimizazio-erasokorra	0,14 (0,34)	0,20 (0,40)	5,26 (.022)	.16

$M$  = Bataz bestekoa,  $DT$  = Desbideratze tipikoa,  $F$  =  $F$  Fisher,  $p$  = esangura,  $d$  = eraginaren tamaina

42. Grafikoa. Cyberbullying adierazleen batz besteko puntuazioak orientazio sexualaren arabera



\* $p < .05$

Cyberbullying adierazleen emaitzek (ikusi 10. Taula eta 42. Grafikoa) ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak berretsi dituzte ziberbiktimizazioan eta ziberbiktimizazio-erasokorrean orientazio sexualaren arabera. Bi adierazle hauen puntuazio altuagoak aurkitu dira pertsona ez-heterossexualak pertsona heterossexualekin alderatuz: ziberbiktimizazioa (heterossexualak  $M = 0,92$ ; Ez-heterossexualak  $M = 1,99$ ) eta ziberbiktimizazio-erasokorra (heterossexualak  $M = 0,13$ ; Ez-heterossexualak  $M = 0,19$ ). Zibereraso adierazlean ez dira ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak aurkitu, hau da, burutzen diren zibereraso jokaeren kopurua antzekoa da orientazio sexualeko bi taldeetan.


**8.2.3.3 Ziberbiktima, zibererasotzaile eta ziberbiktima-erasotzaileak: heterossexualen, gayen, lesbianen, bisexualen eta orientazio sexuala argi ez duten pertsonen ehunekoak**

Aurrez aurreko bullyingarekin egin den bezala, kontingentzia analisiak gauzatu dira ziberbiktima, zibererasotzaile eta ziberbiktima-erasotzaileen prebalentzian orientazio sexualaren arabera ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak existitzen diren, hau da, heterossexualen, gayen, lesbianen, bisexualen eta orientazio sexuala argi ez duten pertsonen artean. Jarraian, cyberbullying globalaren ziberbiktimen, zibererasotzaileen eta ziberbiktima-erasotzaileen prebalentzia azaltzen da aniztasun sexualaren ikuspegitik (ikusi 43. Grafikoa)



- **Ziberbiktimak:** Ikasleen % 36,3k ( $n = 635$ ), bizitzan zehar, beste kide batzuegandik cyberbullyingeko jokoeraren bat edo gehiago pairatu zuela adierazi zuen. Orientazio sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko ziberbiktima heterosexualen, gayen, lesbianen, bisexualen eta ziur ez daudenen ehunekoak hauek izan ziren: % 33,9 heterosexualak ( $n = 518$ ), % 38,5 gayak ( $n = 5$ ), % 33,3 lesbianak ( $n = 1$ ), % 62,6 bisexualak ( $n = 62$ ) eta % 47,1 orientazio sexualaz ziur ez zeuden partaideak ( $n = 49$ ). Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren ziberbiktimetan orientazio sexualaren arabera ( $\chi^2 = 38,83$ ,  $p < .001$ ).
- **Zibererasotzaileak:** Ikasleen % 18,1ek ( $n = 317$ ), bizitzan zehar, cyberbullyingeko jokoeraren bat edo gehiago gauzatu zuela adierazi zuen. Orientazio sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko zibererasotzaile heterosexualen, gayen, lesbianen, bisexualen eta ziur ez daudenen ehunekoak hauek izan ziren: % 17,7 heterosexualak ( $n = 270$ ), % 30,8 gayak ( $n = 4$ ), % 33,3 lesbianak ( $n = 1$ ), % 27,3 bisexualak ( $n = 27$ ) eta % 14,4 orientazio sexualaz ziur ez zeuden partaideak ( $n = 15$ ). Ez ziren estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu zibererasotzaileetan orientazio sexualaren arabera ( $\chi^2 = 8,63$ ,  $p > .05$ ).
- **Ziberbiktima-erasotzaileak:** Cyberbullyingeko jokoerak sufritu zuten ikasleen % 14,5 ( $n = 254$ ), aldi berean zibererasotzaile izan zen. Orientazio sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko ziberbiktima-erasotzaile heterosexualen, gayen, lesbianen, bisexualen eta ziur ez daudenen ehunekoak hauek izan ziren: % 13,8 heterosexualak ( $n = 211$ ), % 15,4 gayak ( $n = 2$ ), % 33,3 lesbianak ( $n = 1$ ), % 26,3 bisexualak ( $n = 26$ ) eta % 13,5 orientazio sexualaz ziur ez dauden partaideak ( $n = 14$ ). Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren ziberbiktima-erasotzaileetan orientazio sexualaren arabera ( $\chi^2 = 12,58$ ,  $p < .05$ ).

43. Grafikoa. Cyberbullying Globala: Ziberbiktimen, zibererasotzaileen eta ziberbiktima-erasotzaileen ehunekoak orientazio sexualaren arabera



43. Grafikoan ikus daitekeenez, pertsona bisexualen taldeak ziberbiktimen ehuneko esanguratsuki handiagoak azaldu zituen aniztasun sexualeko beste taldeekin alderatuz. Ziberbiktimen ehuneko handiagoak dituen bigarren taldea orientazio sexuala argi ez dutenen taldea izango litzateke eta ondoren, gayak, heterossexualak eta, azkenik, lesbianak egongo lirateke. Zibererasotzaileen rolari dagokionez, nahiz eta ezberdintasun estatistiko esanguratsurik ez aurkitu, ehuneko handienak erakusten dituzten hiru taldeak, lesbianen, gayan eta bisexualen taldeak dira, ehuneko antzekoak aurkezten dituztelarik. Gainera, heterossexualen eta orientazio sexuala argi ez duten pertsonen taldeak zibereraso-jokaerak maiztasun gutxienarekin burutzen dituzten taldeak izan dira. Azkenik, lesbianak eta bisexualak ziberbiktima-erasotzaileen ehuneko handienak aurkeztu dituzte, gayan, heterossexualen eta orientazio sexuala argi ez duten pertsonen aurretik.

#### **8.2.3.4 Cyberbullying: Heterosexualek, gayek, lesbianek, bisexualek eta orientazio sexuala argi ez dutenek pairatu eta burututako jokaera erasokorren kopurua**

Orientazio sexualeko 5 taldeen artean cyberbullying adierazleetan (ziberbiktimizazioa, zibererasoa eta ziberbiktimizazio-erasokorra) ezberdintasunak dauden identifikatzeko asmoz, hau da, heterosexualek, gayek, lesbianek, bisexualek eta orientazio sexuala argi ez dutenek sufritu eta burututako jokaera erasokorren kopuruan orientazio sexualaren arabera alderik dagoen aztertze asmoz, aldagai anitzeko bariantza analisiak (MANOVA) gauzatu dira. Emaidzak ezberdintasun estatistiko esanguratsuak berretsi dituzte orientazio sexualaren arabera, Wilksen Lambda,  $\Lambda = 0,965$ ,  $F(12,4606) = 5,13$ ,  $p < .001$  (eraginaren tamaina txikia,  $\eta^2 = 0,012$ ,  $r = 0,11$ ) (ikus 11. Taula eta 44. Grafikoa).


Bonferroniren taldeen konparaziorako frogak agerian utzi zuen ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak egon zirela ziberbiktimizazioan heterosexualen eta bisexualen taldeen artean. Gainera, emaidzak ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak berretsi zituen bisexualen eta orientazio sexuala argi ez zutenen taldeen artean. Zehazki, bisexualen taldean ziberbiktimizazio batz besteko puntuazio altuagoak aurkitu ziren ( $M = 2,61$ ) orientazio sexuala argi ez zutenekin ( $M = 1,47$ ) eta heterosexualekin alderatuz ( $M = 0,92$ ). Zibereraso adierazlean ez ziren ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak aurkitu. Azkenik, ziberbiktimizazio-erasokorra adierazlean, ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak aurkitu ziren. Emaidza hauek agerian utzi dute bisexualen taldeak ( $M = 0,90$ ) batz besteko esanguratsuki altuagoak erakusten dituela adierazle honetan, heterosexualekin alderatuz ( $M = 0,52$ ). Eraginaren tamaina txikia izan zen 3 adierazleetan (ikus 11. Taula eta 44. Grafikoa).

11. Taula. Cyberbullying adierazleen batz bestekoak, desbideratze tipikoa, bariantza analisia, eraginaren tamaina (Eta karratua) eta post-Hoc kontrastea orientazio sexualaren arabera

	Hetero. (n = 1529) M (Dt)	Gay (n = 13) M (Dt)	Lesbiana (n = 3) M (Dt)	Bisexuala (n = 99) M (Dt)	Ziur ez dago (n = 104) M (Dt)	F	p	η <sup>2</sup>	Post-Hoc
Ziberbik.	0,92 (2,03)	1,38 (2,14)	2 (3,46)	2,61 (4,13)	1,47 (2,35)	14,57	.000	.032	1=2=3 =5;1<4 ;2=3=4 ;4>5
Ziberera.	0,35 (1,43)	0,46 (8,77)	0,33 (0,57)	0,45 (0,86)	0,38 (2,02)	0,15	.960	.000	1=2=3 =4=5
Ciberbik.- erasokor.	0,52 (0,72)	0,69 (0,75)	0,67 (1,15)	0,90 (0,78)	0,62 (0,71)	6,85	.000	.015	1=2=3 =5;1<4 ;2=3=4 =5

Oharra: 1= heterosexuala, 2= gay, 3= lesbiana, 4= bisexuala, 5= Ziur ez dagoena

44. Grafikoa. Cyberbullying: adierazleen batz besteko puntuazioak orientazio sexualaren arabera



\*p < .05

## 8.2.4. Cyberbullying: Prebalentzia identitate sexualaren arabera

### 8.2.4.1 Zisgeneroen eta ez-zisgeneroen ehunekoak, ziberbiktima, zibererasotzaile eta ziberbiktima-erasotzaileak

#### *Cyberbullying Globala: Identitate sexualaren arabeko aldeak*


Cyberbullying globalaren (“batzuetan”, “sarritan” eta “beti”) prebalentzia partaide bakoitzaren identitate sexualaren arabera zehazteko asmoz, partaideak bi taldeetan sailkatu dira: alde batetik, bere sexuarekin identifikatuak sentitzen ziren pertsonak (pertsona zisgeneroak) ( $n = 1.721$ ) eta, bestalde, bere sexuarekin identifikatuak sentitzen ez ziren pertsonak edo identitate sexuala argi ez zuten partaideak (ez-zisgeneroak) ( $n = 27$ ). Jarraian, cyberbullying globalaren ziberbiktima, zibererasotzaile eta ziberbiktima-erasotzaileen maiztasunak eta ehunekoak aurkezten dira (ikusi 45. eta 46. Grafikoak).

- **Ziberbiktimak:** Ikasleen % 36,3k ( $n = 635$ ), bizitzan zehar, beste kide batzuegandik cyberbullyingeko jokoeraren bat edo gehiago pairatu zuela adierazi zuen. Identitate sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko ziberbiktima zisgenero eta ez-zisgeneroen ehunekoak hauek izan ziren: % 36,1 zisgeneroak ( $n = 622$ ) eta % 48,1 ez-zisgeneroak ( $n = 13$ ). Ez ziren estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziberbiktimetan identitate sexualaren arabera ( $\chi^2 = 1,65, p > .05$ ).
- **Zibererasotzaileak:** Ikasleen % 18,1ek ( $n = 317$ ), bizitzan zehar, cyberbullyingeko jokoeraren bat edo gehiago gauzatu zuela adierazi zuen. Identitate sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko zibererasotzaile zisgenero eta ez-zisgeneroen ehunekoak hauek izan ziren: % 18,2 zisgeneroak ( $n = 313$ ) eta % 14,8 ez-zisgeneroak ( $n = 4$ ). Ez ziren estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu zibererasotzaileetan identitate sexualaren arabera ( $\chi^2 = 0,20, p > .05$ ).
- **Ziberbiktima-erasotzaileak:** Cyberbullyingeko jokoerak sufritu zuten ikasleen % 14,5 ( $n = 254$ ), aldi berean zibererasotzaile izan zen. Identitate sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko ziberbiktima-erasotzaile zisgenero eta ez-zisgeneroen ehunekoak


hauek izan ziren: % 14,6 zisgeneroak ( $n = 251$ ) eta % 11,1 ez-zisgeneroak ( $n = 3$ ). Ez ziren estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziberbiktima-erasotzaileetan identitate sexualaren arabera ( $\chi^2 = 0,25, p > .05$ ).

- **Ziberbiktima hutsak:** Partaideen % 21,8 ( $n = 381$ ) cyberbullyingaren biktima izan zen baina ez zituen jokaera horiek burutu. Identitate sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko ziberbiktima-huts zisgenero eta ez-zisgeneroen ehunekoak hauek izan ziren: % 59,6 zisgeneroak ( $n = 371$ ) eta % 76,9 ez-zisgeneroak ( $n = 10$ ). Ez ziren estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziberbiktima hutsetan identitate sexualaren arabera ( $\chi^2 = 1,58, p > .05$ ).
- **Zibererasotzaile hutsak:** Laginaren % 3,6k ( $n = 63$ ) cyberbullyingeko jokaerak pairatu zituela baina ez zituela sufritu adierazi zuen. Identitate sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko zibererasotzaile-huts zisgenero eta ez-zisgeneroen ehunekoak hauek izan ziren: % 19,8 zisgeneroak ( $n = 62$ ) eta % 25 ez-zisgeneroak ( $n = 1$ ). Ez ziren estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu zibererasotzaile hutsetan identitate sexualaren arabera ( $\chi^2 = 0,07, p > .05$ ).

45. Grafikoa. Cyberbullying Globala: Ziberbiktima eta zibererasotzaile zisgenero eta ez-zisgeneroen ehunekoak (identitate sexual bakoitzeko laginaren gainean)



46. Grafikoa. Cyberbullying Globala: Ziberbiktima huts, zibererasotzaile huts eta ziberbiktima-ererasotzaile zisgenero eta ez-zisgeneroen ehunekoak (identitate sexual bakoitzeko laginaren gainean)



Kontingentzia azterketen bitartez lortutako emaitzak kontuan hartuta, ez ziren ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak aurkitu identitate sexualaren arabera zibererasotzaile, ziberbiktima eta ziberbiktima-erasotzaileen ehunekoetan.


### **Cyberbullying Larria: Prebalentzia identitate sexualaren arabera**

Cyberbullyingaren identitate sexualaren araberako prebalentziarekin amaitzeko, cyberbullyinga maiztasun handiarekin (sarritan edota beti) sufritu edo pairatu duten partaideak kontuan hartu dira. Jarraian, ziberbiktima eta zibererasotzaile larrien eta noizbehinkakoen prebalentziak azaltzen dira (ikusi 47. eta 48. Grafikoak).

- **Ziberbiktima larriak:** % 7,2k ( $n = 125$ ) cyberbullyinga sufritu du sarritan eta beti. Identitate sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko ziberbiktima zisgenero eta ez-zisgenero larrien ehunekoak hauek izan ziren: % 7 zisgeneroak ( $n = 120$ ) eta % 18,5 ez-zisgeneroak ( $n = 5$ ). Estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu ziren ziberbiktima larrietan identitate sexualaren arabera ( $\chi^2= 5,33$ ,  $p < .05$ ).

- **Noizbehinkako ziberbiktimak:** % 29,1ek ( $n = 509$ ) cyberbullyinga noizbehinka sufritu izana adierazi zuen. Identitate sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko noizbehinkako ziberbiktima zisgenero eta ez-zisgenero ehunekoak hauek izan ziren: % 29,1 zisgeneroak ( $n = 501$ ) eta % 29,6 ez-zisgeneroak ( $n = 8$ ). Ez ziren estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu noizbehinkako ziberbiktimetan identitate sexualaren arabera ( $\chi^2= 2,96, p > .05$ ).
  
- **Zibererasotzaile larriak:** Zibererasotzaileen % 1,6k ( $n = 28$ ) cyberbullyingeko jokaerak modu larrian gauzatu zituen. Identitate sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko zibererasotzaile zisgenero eta ez-zisgenero larrien ehunekoak hauek izan ziren: % 1,6 zisgeneroak ( $n = 28$ ) eta inongo ez-zisgenerorik ( $n = 0$ ). Ez ziren estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu zibererasotzaile larrietan identitate sexualaren arabera ( $\chi^2= 0,44, p > .05$ ).
  
- **Noizbehinkako zibererasotzaileak:** % 16,5ek ( $n = 289$ ) cyberbullyingeko jokaerak noizbehinka burutu zituela adierazi zuen. Identitate sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko noizbehinkako zibererasotzaile zisgenero eta ez-zisgenero ehunekoak hauek izan ziren: % 16,6 zisgeneroak ( $n = 285$ ) eta % 14,8 ez-zisgeneroak ( $n = 4$ ). Ez ziren estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu noizbehinkako zibererasotzaileetan identitate sexualaren arabera ( $\chi^2= 0,39, p > .05$ ).


47. Grafikoa. Cyberbullying: Ziberbiktima larrien, noizbehinkako ziberbiktimen eta ez-biktimen ehunekoak zisgeneroetan eta ez-zisgeneroetan



\* $p < .05$



48. Grafikoa. Cyberbullying: Zibererasotzaile larrien, noizbehinkako zibererasotzaileen eta ez-zibererasotzaileen ehunekoak zisgeneroetan eta ez-zisgeneroetan



47. Grafikoan ikus daitekeen bezala, ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak aurkitu dira ziberbiktima larrietan identitate sexualaren arabera. Horrela, identitate sexual ez-normatiboa duten pertsonen cyberbullying larria maiztasun handiagoarekin sufritzen dute pertsona zisgeneroekin alderatuz. Zibererasotzaileei dagokienez, ez dira ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak aurkitu identitate sexualaren arabera (ikusi 48. Grafikoa).

#### 8.2.4.2 Cyberbullying: Pertsona zisgeneroek eta ez-zisgeneroek sufritutako eta burututako jokaera erasokorren kopurua


Identitate sexualaren arabera cyberbullying adierazleetan (ziberbiktimizazioa, zibererasoa eta ziberbiktimizazio-erasokorra) ezberdintasunak existitzen diren identifikatzeko asmoz, hau da, zisgeneroek eta ez-zisgeneroek sufritu eta burututako jokaera kopuruan ezberdintasunak dauden zehazteko, alde batetik, aldagai anitzeko bariantza analisiak (MANOVA) gauzatu dira, eta bestetik, aldagai bakarreko bariantza analisiak eta eraginaren tamainaren azterketak (Cohenen  $d$ ). MANOVA analisiaren emaitzek ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak nabarrian utzi ditu identitate sexualaren arabera, Wilksen Lambda,  $\Lambda = 0,999$ ,  $F(3,1744) = 0,695$ ,  $p > .001$  (eraginaren tamaina txikia,  $\eta^2 = 0,001$ ,  $r = 0,03$ ) (ikusi 12. Taula eta 49. Grafikoa).

12. Taula. Cyberbullying adierazleen batz bestekoak, desbideratze tipikoak, bariantza analisisia eta eraginaren tamaina (Cohenen *d*) identitate sexualaren arabera

	Zisgenero ( <i>n</i> = 1.721)	Ez-zisgenero ( <i>n</i> = 27)	<i>F</i> ( <i>p</i> )	<i>d</i>
	<i>M</i> ( <i>DT</i> )	<i>M</i> ( <i>DT</i> )		
Ziberbiktimizazioa	1,04 (2,25)	1,59 (2,37)	1,56 (.211)	.23
Zibererasoa	0,36 (1,45)	0,26 (0,71)	0,12 (.735)	.08
Ziberbiktimizazio-erasokorra	0,54 (0,73)	0,63 (0,68)	0,36 (.544)	.12

*M* = Batz bestekoa, *DT* = Desbideratze tipikoa, *F* = *F* Fisher, *p* = esangura, *d* = eraginaren tamaina

49. Grafikoa. Adierazleen batz besteko puntuazioak identitate sexualaren arabera



### 8.3 BULLYING LGTB-FOBIKOA: PREBALENTZIA PERTSONA HETEROSEXUAL ETA EZ-HETEROSEXUALETAN


Atal honetan bizitzan zehar bullying LGTB-fobikoaren biktima, erasotzaile eta behatzaile moduan inplikaturako nerabeen prebalentziaz informatzen da. Gainera, bullying LGTB-fobikoaren biktimen, erasotzaileen eta behatzaileen orientazio sexualaren arabeko maiztasun eta ehunekoak lortu dira [heterosexualak (*n* = 1.524), ez-heterosexualak (*n* = 219)]. Lehenik eta behin, bullying LGTB-fobiko globalaren (behin edo gehiagotan) prebalentzia aztertzen da eta, bigarrenik, prebalentzia larria zehazten da (“askotan”, “ia beti” eta “beti”).

**Bullying LGTB-fobikoa: Prebalentzia Globala**

Bullying LGTB-fobiko globalaren (behin edo gehiagotan) prebalentzia erakusteko asmoz, bizitzan zehar jokaera erasokor LGTB-fobikoak “behin” edo “batzuetan” pairatu, burutu edo ikusi zituztela adierazi zuten partaideak hartu dira kontuan. Emaitzak jarraian aztertzen dira eta 50. Grafikoan adierazten dira.

- **Biktimak:** Ikasleen % 60k ( $n = 1.045$ ) bizitzan zehar bullying LGTB-fobikoa sufritu zuela adierazi zuen. Orientazio sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko biktima heterosexualen eta ez-heterosexualen ehunekoak hauek izan ziren: % 79,5 ez-heterosexualak ( $n = 174$ ) eta % 57,2 heterosexualak ( $n = 871$ ). Ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak aurkitu ziren biktimetan orientazio sexualaren arabera ( $\chi^2= 39,66, p < .001$ ).
- **Erasotzaileak:** Partaideen % 6,6k ( $n = 115$ ) bizitzan zehar bullying LGTB-fobikoko jokabideak burutu zituela adierazi zuen. Orientazio sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko erasotzaile heterosexualen eta ez-heterosexualen ehunekoak hauek izan ziren: % 9,6 ez-heterosexualak ( $n = 21$ ) eta % 6,2 heterosexualak ( $n = 94$ ). Ez ziren ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak aurkitu erasotzaileetan orientazio sexualaren arabera ( $\chi^2= 3,64, p > .05$ ).
- **Behatzaileak:** Ikasleen % 73,4k ( $n = 1.237$ ) bizitzan zehar beste kide batzuen arteko bullying LGTB-fobikoaren jokabide erasokorrak behatu zituela adierazi zuen. Orientazio sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko behatzaile heterosexualen eta ez-heterosexualen ehunekoak hauek izan ziren: % 85,2 ez-heterosexualak ( $n = 184$ ) eta % 71,7 heterosexualak ( $n = 1.053$ ). Ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak aurkitu ziren behatzaileetan orientazio sexualaren arabera ( $\chi^2= 17,59, p < .001$ ).

50. Grafikoa. Bullying LGTB-fobiko Globala: Biktima, erasotzaile eta behatzaileen ehunekoak heterosexualetan eta ez-heterosexualetan



\* $p < .05$

### Bullying LGTB-fobikoa: Prebalentzia Larria


Atal honetan bullying LGTB-fobiko larriaren (“askotan”, “ia beti” eta “beti”) prebalentzia aztertzen da, eta ondoren, prebalentzia aztertzen da partaideen orientazio sexualaren arabera. Heterosexualen eta ez-heterosexualen artean biktima, erasotzaile eta behatzaileetan desberdintasunak dauden egiaztatzeko, kontingentzia analisiak gauzatu dira. Jarraian, emaitzak erakusten dira 51. Grafikoan aurkeztuz.

- **Biktima larriak:** Ikasleen %13,3k ( $n = 232$ ) bullying LGTB-fobikoko jokoerak “askotan”, “ia beti” edota “beti” sufritu zituela adierazi zuen. Orientazio sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko biktima heterosexual eta ez-heterosexual larrien ehunekoak hauek izan ziren: % 32,9 ez-heterosexualak ( $n = 72$ ) eta % 10,5 heterosexualak ( $n = 160$ ). Ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak aurkitu ziren biktima larrietan orientazio sexualaren arabera ( $\chi^2 = 83,10$ ,  $p < .001$ ).
- **Erasotzaile larriak:** Partaideen % 1ek ( $n = 18$ ) bullying LGTB-fobikoaren jokoerak “askotan”, “ia beti” edo “beti” burutu zituela adierazi zuen. Orientazio sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko erasotzaile heterosexual eta ez-heterosexual larrien ehunekoak hauek izan ziren: % 1,4 ez-heterosexualak ( $n = 3$ ) eta % 1 heterosexualak ( $n = 15$ ).

= 15). Ez ziren ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak aurkitu erasotzaile larrietan orientazio sexualaren arabera ( $\chi^2= 0,27, p > .05$ ).

- **Behatzaile larriak:** Ikasleen % 49,8k ( $n = 839$ ) bullying LGTB-fobikoaren jokaera erasokorrek maiztasun handiarekin ikusi zituela adierazi zuen. Orientazio sexualeko talde bakoitzaren laginaren gaineko behatzaile heterosexual eta ez-heterosexual larrien ehunekoak hauek izan ziren: % 63 ez-heterosexualak ( $n = 136$ ) eta % 47,9 heterosexualak ( $n = 703$ ). Ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak aurkitu ziren behatzaile larrietan orientazio sexualaren arabera ( $\chi^2= 17,19, p < .001$ ).

51. Grafikoa. Bullying LGTB-fobico Larria: Biktima, erasotzaile eta behatzaileen ehunekoak heterosexualetan eta ez-heterosexualatan



\* $p < .05$


#### 8.4 NERABEEN JARRERAK ANIZTASUN SEXUALAREN AURREAN

Atal honetan, ikerlan honen partaideek aniztasun sexualaren aurrean dituzten jarrerak aurkezten dira. Lehenik eta behin, Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleek LGTB pertsonen inguruan duten ezagutza azalduko da. Bigarrenik, jokaera LGTBfobiko erasokor desberdinen (ahozkoa, fisikoa eta soziala) biktima, erasotzaile eta behatzailearen prebalentzia erakusten da. Azkenik, jarrerak modu orokortuan aztertzen dira, nerabeen iritziak eta heteronormatibotik urruntzen diren egoeretan ikasleen inguru sozialek dituzten jarrerak aztertuz.

### 8.4.1 Nerabeek LGTB pertsonen inguruan duten ezagutza

Gaur egun, 13-17 urte bitarteko nerabeek zenbat LGTB pertsona ezagutzen dituzten jakiteko asmoz, partaideek ikerketa honetan adierazitako erantzunekin maiztasun eta ehunekoak kalkulatu dira. Azterketa hauek agerian utzi dute partaideen % 80,2k ( $n = 1.402$ ) pertsona gay bat behintzat ezagutzen duela, % 62,4k ( $n = 1090$ ) pertsona lesbiana bat, % 72,1ek ( $n = 1.261$ ) pertsona bisexual bat, eta azkenik, % 20,4k ( $n = 357$ ) pertsona transexual bat edo gehiago ezagutzen ditu (ikusi 52. Grafikoa).

52. Grafikoa. LGTB pertsonak ezagutzen dituzten partaideen ehunekoak



Eskuratutako datuak kontuan hartuz, gayen kolektiboak ikusgarritasun gehiena duen kolektiboa dela berretsi da, ondoren bisexualen kolektiboa egongo delarik eta jarraian, lesbianen kolektiboa. Pertsona transexualek, berriz, ikusgarritasun gutxien azaldu duten pertsonak izan dira, partaideen % 20,4k bakarrik pertsona transexual bat behintzat ezagutzen duela adierazi duelarik.

### 8.4.2 Nerabeen jokaera erasokorrek aniztasun sexualaren aurrean

Partaideen jokaera LGTB-fobikoen prebalentzia azaltzeko helburuarekin, eraso LGTB-fobiko mota desberdinetan erasotzaile, biktima edota behatzaile bezala inplikatuak egon ziren


galdetu zitzaien partaideei. Item honi lagin osoak erantzun zion, hau da, 1.748 partaideek. Aztertutako jokaera erasokorrek ahozkoak, sozialak, fisikoak eta psikologikoak izan ziren, guztiak LGTB diren edo LGTB bezala hautematen diren pertsonen egindakoak. Azterketa deskribatzaileak gauzatu dira aztertutako jokaera bakoitzaren maiztasun eta ehunekoak zehaztuz (ikusi 13. Taula eta 53. Grafikoa).

13. Taula. Partaideek aniztasun sexualaren aurrean dituzten jokaera erasokorren maiztasun eta ehunekoak

	Egin edo esan dizute <i>f</i> (%)	Egin edo esan duzu <i>f</i> (%)	Ikusi duzu <i>f</i> (%)
Irainak: "marikoi", "bollera", "sarasa", "tortillera", "travelo"...	152 (8,7)	181 (10,4)	1.267 (72,5)
Gaizki hitz egin, komentario negatiboak, zurrumurruak...	280 (16,0)	279 (16,0)	1.168 (66,8)
Burlak, imitaziok, keinuak...	205 (11,7)	251 (14,4)	1.071 (61,3)
Mehatxuak	75 (4,5)	38 (2,2)	468 (26,8)
Gauzak bota, kolpeak, bultzatu...	94 (5,4)	70 (4,0)	516 (29,5)
Jipoiak	36 (2,1)	19 (1,1)	331 (18,9)
Hitz egiteari utzi, baztertu, parte hartzen ez utzi, isolatu...	124 (7,1)	97 (5,5)	691 (39,5)

*f* = maiztasuna; % = ehunekoa

53. Grafikoa. Aniztasun sexualaren aurreko jarrerak: biktimen, erasotzaileen eta behatzaileen ehunekoak



11. Taulan eta 53. Grafikoan ikus daitekeenez, nahiz eta aztertutako jokaera LGTBfobikoen biktimen ehunekoak oso altuak ez izan, argi dago ez dela gutxiesteko modukoa. Izan ere, ikasleek emandako informazioaren arabera, aztertutako 7 jokaerak pairatuak izan dira. Emaitez % 16 eta % 2,1 bitarteko ehunekoak agerian utzi ditu 7 jokaerentzat. Jarraian, partaideek gehien sufritu dituzten jarrerak aurkezten dira:

- Gaizki hitz egin, komentario negatiboak, zurrumurruek... (% 16)
- Burlak, imitazioak, keinuak... (% 11,7)
- Irainak: “marikoi”, “bollera”, “sarasa”, “tortillera”, “travelo”... (% 8,7)
- Hitz egiteari utzi, baztertu, parte hartzen ez utzi, isolatu... (% 7,1)
- Gauzak bota, kolpeak, bultzatu... (% 5,4)



- Mehatxuak (% 4,5)
- Jipoiak (% 2,1)

Erasotzaileei dagokienez, emaitzek agerian utzi dute % 16 eta % 1,1 bitarteko ehunekoak aztertutako 7 jokaera LGTBfobiko. Gehien burutu dituen jokaeren erasotzaileen ehunekoak honako hauek dira:

- Gaizki hitz egin, komentario negatiboak, zurrumurruak... (% 16)
- Burlak, imitaziok, keinuak... (% 14,4)
- Irainak: “marikoi”, “bollera”, “sarasa”, “tortillera”, “travelo”... (% 10,4)
- Hitz egiteari utzi, baztertu, parte hartzen ez utzi, isolatu... (% 5,5)
- Gauzak bota, kolpeak, bultzatu... (% 4)
- Mehatxuak (% 2,2)
- Jipoiak (% 1,1)

Azkenik, aztertutako jokabideak behatu dituzten partaideen ehunekoak % 72,5 eta % 18,9 bitartekoak izan dira. Nerabeek aniztasun sexualaren aurrean gehien ikusi dituzten jarrerak honako hauek dira:

- Irainak: “marikoi”, “bollera”, “sarasa”, “tortillera”, “travelo”... (% 72,5)
- Gaizki hitz egin, komentario negatiboak, zurrumurruak... (% 66,8)
- Burlak, imitaziok, keinuak... (% 61,3)
- Hitz egiteari utzi, baztertu, parte hartzen ez utzi, isolatu... (% 39,5)
- Gauzak bota, kolpeak, bultzatu... (% 29,5)
- Mehatxuak (% 26,8)
- Jipoiak (% 18,9)

Laburbilduz, ikasleen ehuneko nabarmen batek bullying LGTBfobikoa islatzen duten jokaerak sufritu edota burutu dituela adierazi du. Hau berretsia izan da, jokaera LGTBfobikoak ikusi dituzten ikasleen ehuneko handiak erdietsi baitira.

### 8.4.2.1 Aniztasun sexualaren aurreko jarrera erasokorrak: Sexuaren arabera


Jokabide erasokor LGTBfobikoen sexuaren arabera aldeak aurkitzeko asmoz, kontingentzia analisiak gauzatu dira aztertutako jokabide bakoitzeko biktimaren eta erasotzailearen rola kontuan hartuz. Aurkitutako emaitzak 14. eta 15. Taulatan aurkezten dira eta 54. eta 55. Grafikoetan irudikatzen dira.

14. Taula. Aniztasun sexualaren aurreko jarrera erasokorrak: biktimen maiztasun eta ehunekoak sexuaren arabera

	Neska	Mutila	$\chi^2$	<i>p</i>
	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)		
Irainak: "marikoi", "bollera", "sarasa", "tortillera", "travelo"...	45 (4,9)	107 (12,9)	35,40	.000
Gaizki hitz egin, komentario negatiboak, zurrumurruak...	148 (16,1)	132 (15,9)	0,007	.934
Burlak, imitaziok, keinuak...	95 (10,3)	110 (13,3)	3,68	.055
Mehatuak	30 (3,3)	45 (5,4)	5,01	.025
Gauzak bota, kolpeak, bultzatu...	36 (3,9)	58 (7,0)	8,18	.004
Jipoiak	16 (1,7)	20 (2,4)	0,98	.320
Hitz egiteari utzi, baztertu, parte hartzen ez utzi, isolatu...	73 (7,9)	51 (6,2)	2,08	.149

*f* = maiztasuna, % = ehunekoak,  $\chi^2$  = khi karratua, *p* = esangura

## 54. Grafikoa. Aniztasun sexualaren aurreko jarrera erasokorrak: biktimen ehunekoak sexuaren arabera


\*  $p < .05$ .

## 15. Taula. Aniztasun sexualaren aurreko jarrera erasokorrak: erasotzaileen maiztasun eta ehunekoak sexuaren arabera

	Neska	Mutilla	$\chi^2$	$p$
	$f$ (%)	$f$ (%)		
Irainak: "marikoi", "bollera", "sarasa", "tortillera", "travelo"...	52 (5,7)	129 (15,6)	46,27	.000
Gaizki hitz egin, komentario negatiboak, zurrumurruak...	122 (13,3)	157 (19,0)	10,55	.001
Burlak, imitaziok, keinuak...	83 (9,0)	168 (20,3)	44,99	.000
Mehatxuak	14 (1,5)	24 (2,9)	3,88	.049
Gauzak bota, kolpeak, bultzatu...	21 (2,3)	49 (5,9)	14,98	.000
Jipoiak	6 (0,7)	13 (1,6)	3,41	.065
Hitz egiteari utzi, baztertu, parte hartzen ez utzi, isolatu...	39 (4,2)	58 (7,0)	6,36	.012

 $f$  = maiztasuna, % = ehunekoak,  $\chi^2$  = khi karratua,  $p$  = esangura

55. Grafikoa. Aniztasun sexualaren aurreko jarrera erasokorrek: erasotzaileek ehunekoak sexuaren arabera



\* $p < .05$

Emaitzek honako hau azaltzen dute: (1) Mutilek biktimen ehuneko esanguratsuki handiagoak azaldu dituzte 3 jokaera mota hauetan: irain LGTB-fobikoak, mehatxuak eta gauzak bota/bultzatu, eta (2) Mutilek erasotzaileem ehuneko esanguratsuki handiagoak azaldu dituzte LGTBfobikoak diren jokaera gehienetan, jipoiak kasuan ez beste, ez baitira ezberdintasun esanguratsuk aurkitu sexuaren arabera. Ondorioz, mutilek neskek baino jokaera erasokor LGTBfobiko gehiago sufritu eta burutzeko joera dute.


#### 8.4.3 Nerabeek aniztasun sexualaren aurrean dituzten jarrera orokorrak

Jarraian, eta nerabeek orientazio eta identitate sexual ez-normatiboa duten pertsonen inguruan dituzten iritzi eta jarreraren inguruan informazioa eskeintzeko asmoz, aniztasun sexualeko egoera desberdinak islatzen dituzten galderen bidez eskuratutako emaitzak azaltzen dira.

#### 8.4.3.1 LGB pertonek pairatzen duten tratua inguruko iritzia

Lehenik, ikasleen gehiengoek ( $n = 1.743$ ) desadostasuna adierazi zuten orientazio sexual ez-normatiboa duten pertsonak mespretxuz tratatzearekin. Soilik % 0,3 ( $n = 5$ ) adierazi zuten LGTB pertsonak mespretxuz tratatu behar direla (ikusi 56. Grafikoa)

56. Grafikoa. LGTB pertsonenganako mespretxuzko jarrera



#### 8.4.3.2 Nerabeen jarrera LGTB den irakaslearen aurrean

Ikerketa honetan aztertutako beste alderdietako bat orientazio eta identitate sexual ez-normatiboa duten irakasleek eskoletan bizitzen duten egoera izan da. Horretarako, partaideei beraien irakaslea LGTB izango balitz nola jokatu zuten galdetu zitzaizen (ikusi 57. Grafikoa).

57. Grafikoa. Nerabeen jarrera LGTB den irakaslearen aurrean



Erantzunak aztertu ondoren, partaideen % 98,8k ( $n = 1.727$ ) garrantzitsuena irakasle ona izatea dela adierazi zuen, orientazio eta identitate sexuala albo batera utziz. Hala ere, % 0,7k ( $n = 12$ ) kexa bat jartzeko senideei jakinaraziko liekeela adierazi zuen eta % 0,5ek ( $n = 9$ ) irakasleari burla egingo liokeela onartu zuen.

#### 8.4.3.2.1 Nerabeen jarrera LGTB den irakaslearen aurrean: sexuaren arabeko aldeak


Kontingentzia azterketak gauzatu dira nerabeek LGTB irakasleen aurrean dituzten jarrerak sexuaren arabera aztertzeko. Kasu honetan, emaitzek ez dituzte ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak erakusten sexuaren arabera (ikusi 16. Taula eta 58. Grafikoa).

16. Taula. Nerabeen jarrera LGTB den irakaslearen aurrean: maiztasun eta ehunekoak sexuaren arabera

	Neska	Mutila	$\chi^2$	$p$
	$f$ (%)	$f$ (%)		
Burla egingo nioke	2 (0,2)	7 (0,8)	3,39	.183
Ez litzateke irakasle izan behar	0 (0,0)	0 (0,0)		
Senideei esango nieke kexa bat jarri dezaten	6 (0,7)	6 (0,7)		
Garrantzitsuena irakasle ona izatea da, ez beste ezer	912 (99,1)	815 (98,4)		

$f$  = maiztasuna, % = ehunekoak,  $\chi^2$  = khi karratua,  $p$  = esangura

## 58. Grafikoa. Nerabeen jarrera LGTB den irakaslearen aurrean sexuaren arabera



$p > .05$


## 8.4.3.3 Nerabeek bikote homosexualaren aurrean duten jarrera

Ikerketa honetan, partaideek bi gizonek edo bi emakumeek osatutako bikote baten aurrean dituzten iritzi eta sentimenduak aztertu dira. Zehazki, bikote homosexual batek jendearen aurrean sentimenduak adierazten dituenean sortutako iritzi edo sentimenduak aztertu dira. Alde batetik, % 93,1ek ( $n = 1.627$ ) adierazi zuen ondo iruditzen zaiola bi gizonek osatutako bikote batek publikoan sentimenduak adieraztea, % 4,6k ( $n = 85$ ) pentsatzen du ez luketela publikoan egin behar, % 1,9k ( $n = 33$ ) adierazi zuen nazka sentitzen duela eta, azkenik, % 0,2k ( $n = 3$ ) adierazi zuen gaizki iruditzen zaiola. Bestalde, eta bi emakumeek osatutako bikoteari dagokionez, % 94,3k ( $n = 1.648$ ) adierazi zuen ondo iruditzen zaiola, % 4,6k ( $n = 80$ ) pentsatzen du ez luketela publikoan egin behar, % 1ek ( $n = 18$ ) nazka sentitzen duela adierazi zuen eta % 0,1ek ( $n = 2$ ) adierazi zuen gaizki iruditzen zaiola bi emakumeek publikoan sentimenduak adierazteak (ikusi 59. eta 60. Grafikoak.).

59. Grafikoa. Nerabeen jarrera bi gizonen osatzen duten bikoteak sentimenduak publikoan adieraztean



60. Grafikoa. Nerabeen jarrera bi emakumeek osatzen duten bikoteak sentimenduak publikoan adieraztean



#### 8.4.3.3.1 Nerabeek bikote homosexualen aurrean duten jarrera: sexuaren arabera aldeak

Ondoren, kontingentzia azterketak gauzatu dira nerabeek bikote homosexualen aurrean duten jarrera sexuaren arabera aztertzeko asmoz. Lehenik, bi gizonen osatutako bikoteak sentimenduak publikoan adierazteko orduan neskek eta mutilek dituzten jarrera desberdinen maiztasun eta ehunekoak azaltzen dira (ikusi 17. Taula eta 61. Grafikoa). Azkenik, jarrera berdinak aztertzen dira sexuaren arabera, baina oraino, bi emakumeek osatutako bikote homosexualen aurrean (Ikusi 18. Taula eta 62. Grafikoa).




17. Taula. Jarrerak bi gizonen osatutako bikote baten aurrean: maiztasun eta ehunekoak sexuaren arabera

	Neska	Mutila	$\chi^2$	<i>p</i>
	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)		
Gaizki iruditzen zait	0 (0,0)	3 (0,4)	66,91	.000
Nazka ematen dit ikusteak	9 (1,0)	24 (2,9)		
Berdin zait baina ez publikoan	12 (1,3)	73 (8,8)		
Ondo iruditzen zait	899 (97,7)	728 (87,9)		

*f* = maiztasuna, % = ehunekoa,  $\chi^2$  = khi karratua, *p* = esangura

61. Grafikoa. Sexuaren araberako jarrerak bi gizonen osatutako bikote baten aurrean




*p* < .05

18. Taula. Jarrerak bi emakumeek osatutako bikotearen aurrean: maiztasun eta ehunekoak sexuaren arabera

	Neska	Mutila	$\chi^2$	<i>p</i>
	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)		
Gaizki iruditzen zait	0 (0,0)	2 (0,2)	53,27	.000
Nazka ematen dit ikusteak	6 (0,7)	12 (1,4)		
Berdin zait baina ez publikoan	12 (1,3)	68 (8,2)		
Ondo iruditzen zait	902 (98,0)	746 (90,1)		

*f* = maiztasuna, % = ehunekoa,  $\chi^2$  = khi karratua, *p* = esangura

62. Grafikoa. Sexuaren araberako jarrerak bi emakumeek osatutako bikote baten aurrean



$p < .05$

Nahiz eta bi egoeratan laginaren gehiengoak, bai nesketan eta baita mutiletan ere, bikote homosexual batek sentimenduak publikoan adierazteak ondo iruditzen zaiela adierazi duen, emaitzak modu orokorrean hartuz, neskek heteronormatiboa ez den egoera baten aurrean jarrera positiboagoak dituztela berretsi da (mutilekin alderatuz). Gainera, mutilek gayen bikotearen aurrean gutxiespen handiagoa erakusten dute lesbianen bikote baten aurrean baino.

8.4.3.4 Nerabeen jarrera LGTB den kide baten aurrean


Nerabeek aniztasun sexualaren aurrean dituzten jarrerekin amaitzeko, partaideei eskatu zitzaien adierazteko zein nolako jarrera edukiko zuten kide batek LGTB dela onartzean. Jarraian, nerabeek kide gay, lesbiana, bisexual edo transexual baten aurrean edukitako jarrera desberdinak erakusten dira (ikusi 19. Taula eta 63. Grafikoa)

19. Taula. Jarrerak LGTB kide baten aurrean: maiztasun eta ehunekoak

	Lekuz aldatzen	Deseroso sentituko	Ez nuke jarrera	Berekin ligatzen
	saiatuko nintzateke	nintzateke	aldatuko	saiatuko nintzateke
	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)
Gay	13 (0,7)	223 (12,8)	1.516 (86,2)	6 (0,3)
Lesbiana	4 (0,2)	121 (6,9)	1.603 (91,7)	20 (1,1)
Bisexuala	10 (0,6)	141 (8,1)	1.563 (89,4)	34 (1,9)
Transexuala	24 (1,4)	235 (13,4)	1.482 (84,8)	7 (0,4)

*f* = maiztasuna; % = ehunekoa

63. Grafikoa. Nerabeen jarrerak LGTB kide baten aurrean



Datu hauek modu orokorrean kontuan hartuz, nerabeen gehiengoak ez luke jarrera aldatuko. Hala ere, jarrera negatiboagoak azaltzen dituzte pertsona gay eta transexualen aurrean. Zehazki, analisiek partaideen % 13,4ko portzentajea agerian utzi dute pertsona transexual baten aurrean deseroso sentituko liratekeen ikasleen artean eta partaideen % 12,9k kide gay baten aurrean modu berean sentituko litzatekeela adierazi zuen. Gainera, laginaren % 8,1ek onartu zuen kide bisexual baten aurrean deseroso sentituko litzatekeela eta % 6,9 kide lesbiana baten aurrean. Azkenik, honako hau azpimarratu beharra dago: nahiz eta laginaren gehiengoak jarrera positiboa azaldu duen LGTB den kide baten aurrean, partaideen ehuneko bat

existitzen da aztertutako egoera bakoitzean lekuz aldatu edo deseroso sentituko litzatekeena. Horregatik, emaitza hauek ezin dira gutxietsi.

#### 8.4.3.4.1 Nerabeen jarrera LGTB den kide baten aurrean: sexuaren arabera


Aniztasun sexualaren aurrean nerabeek dituzten jarrerekin amaitzeko, kontingentzia azterketak gauzatu dira LGTB den kidearen aurrean dituzten jarrerak sexuaren arabera aztertzeko (ikusi 20. Taula, eta 64, 65, 66 eta 67. Grafikoak).

20. Taula. Jarrera LGTB den kidearen aurrean: maiztasun eta ehunekoak sexuaren arabera


Kidea		Neska	Mutilla	$\chi^2$	<i>p</i>
		<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)		
Gay	Lekuz aldatzen saiatuko nintzateke	1 (0,1)	12 (1,4)	219,16	.000
	Deseroso sentituko nintzateke	18 (2,0)	205 (24,8)		
	Ez nuke jarrera aldatuko	899 (97,7)	607 (73,3)		
	Berekin ligatzen saiatuko nintzateke	2 (0,2)	4 (0,5)		
Lesbiana	Lekuz aldatzen saiatuko nintzateke	1 (0,1)	3 (0,4)	3,80	.283
	Deseroso sentituko nintzateke	65 (7,1)	56 (6,8)		
	Ez nuke jarrera aldatuko	847 (92,1)	756 (91,3)		
	Berekin ligatzen saiatuko nintzateke	7 (0,8)	13 (1,6)		
Bisexuala	Lekuz aldatzen saiatuko nintzateke	1 (0,1)	9 (1,1)	62,36	.000
	Deseroso sentituko nintzateke	34 (3,7)	107 (12,9)		
	Ez nuke jarrera aldatuko	872 (94,8)	691 (83,5)		
	Berekin ligatzen saiatuko nintzateke	13 (1,4)	21 (2,5)		
Transexuala	Lekuz aldatzen saiatuko nintzateke	3 (0,3)	21 (2,5)	118,16	.000
	Deseroso sentituko nintzateke	53 (5,8)	182 (22,0)		
	Ez nuke jarrera aldatuko	860 (93,5)	622 (75,1)		
	Berekin ligatzen saiatuko nintzateke	4 (0,4)	3 (0,4)		

*f* = maiztasuna, % = ehunekoak,  $\chi^2$  = khi karratua, *p* = esangura


64. Grafikoa. Sexuaren araberako jarrerak gaya den kidearen aurrean



65. Grafikoa. Sexuaren araberako jarrerak lesbiana den kidearen aurrean




66. Grafikoa. Sexuaren arabera jarrerak bisexuala den kidearen aurrean



$p < .001$

67. Grafikoa. Sexuaren arabera jarrerak transexuala den kidearen aurrean



$p < .001$

Nerabeek kide gay, bisexual eta transexual baten aurrean dituzten jarrerak aztertu direnean, ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak aurkitu dira neska eta mutilen artean. Ikus daitekeenez, kide batek gaya, bisexuala edo transexuala dela onartzen duen egoera batean mutilek jarrera negatiboagoak azaltzen dituzten bitartean, neskek jarrera positiboagoak azaltzen

dituzte. Ez dira ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak aurkitu sexuaren arabera lesbiana den kide baten aurrean dituzten jarrerak aztertu direnean.


#### 8.4.4 Nerabeen hautematea gizarteak aniztasun sexualaren aurrean dituen jarreraren inguruan

Atal honetan gizarteak aniztasun sexualaren aurrean dituen jarreraren inguruko emaitzak azaltzen dira. Datu hauek partaideen hautematea aztertuz lortu dira. Hau da, partaideek beraien iritzia adierazi zuten aniztasun sexualeko egoera desberdinetan inguru sozialen jokaeren inguruan.

##### 8.4.4.1 LGTB pertsonak pairatzen duten tratua familia, eskola eta gizarteak

Lehenik eta behin, partaideek adierazi behar zuten beraien usteetan LGTB pertsonak familia, eskola eta gizarteak pairatzen duten tratua zein nolakoa den (ver Gráfico 68).

68. Grafikoa. Nerabeen hautematea LGTB pertsonak pairatzen duten tratua inguruan



Emaitezke agerian utzi dute ikasleen ehuneko handi batek uste duela LGTB pertsonak eskoletan (% 60,6) eta gizartean (% 86,7) modu injustuan tratatzen direla. Partaideen arabera, orientazio eta identitate sexual ez-normatiboa duten pertsonak tratatu hoberena familia testuinguruan pairatzen dute. Hala ere, % 18,6k berretsi du familiek LGTB diren senideak modu injustuan tratatzen dituztela.

#### 8.4.4.2 Senideen, lagunak, irakasleen eta kideen erreakzioa partaideak LGTB izango balira

Ondoren, partaideak LGTB izango balira beraien senide, lagun, irakasle eta kideak izango luketen erreakzioaren inguruko emaitzak aztertu dira, partaideen hautematea kontuan hartuz. Horretarako, partaideek 5 emaitzetatik bat aukeratu behar zuten kasu bakoitzean: “jo egingo nindukete”, “ez nindukete onartuko”, “ni aldatzen saiatuko lirateke”, “ez liokete garrantzirik emango” eta “nire ondoan egongo lirateke, sostengua emanez”. Emaitzak 21. Taulan eta 69. Grafikoan azaltzen dira.


21. Taula. Inguru sozialen erreakzioak partaideak LGTB izango balira: nerabeen hatematearen maiztasun eta ehunekoak

	Senideak	Lagunak	Irakasleak	Kideak
	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)	<i>f</i> (%)
Jo egingo nindukete	3 (0,2)	4 (0,2)	3 (0,2)	6 (0,3)
Ez nindukete onartuko	25 (1,4)	70 (4,0)	11 (0,6)	223 (12,8)
Ni aldatzen saiatuko lirateke	100 (5,7)	99 (5,7)	14 (0,8)	118 (6,8)
Ez liokete garrantzirik emango	288 (16,5)	558 (31,9)	1.015 (58,1)	1.036 (59,3)
Nire ondoan egongo lirateke	1.332 (76,2)	1.017 (58,2)	705 (40,3)	365 (20,9)

*f* = maiztasuna; % = ehunekoa



69. Grafikoa. Inguru sozialen erreakzioak partaideak LGTB izango balira: nerabeen hautematea



21. Taulak eta 69. Grafikoak agerian utzi dute LGTB pertsonetiko arbuizate gehiago existitzen dela lagunak eta kideen artean, familiekin eta irakasleekin alderatuz. Zehazki, partaideen % 12,8k ( $n = 223$ ) uste du LGTB izango balitz gaitzespena sentituko lukeela kideen aldetik eta % 4k ( $n = 70$ ) adierazi zuen lagunak aldetik gaitzespena sentituko lukeela orientazio edo identitate sexuala ez-normatiboa izanez gero. Azkenik, ikus daiteke nerabeek, LGTB izango balira, sostengu gehiena hautematen duten ingurua familia testuingurua dela.

### 8.5 BULLYING/CYBERBULLYING LGTB-FOBIKOA ETA OSASUN MENTALA

Bullying/cyberbullying LGTB-fobikoa sufritu eta burutu duten pertsona heterosexualek eta ez-heterosexualek artean sintoma psikopatologikoetan ezberdintasunak identifikatzeko asmoz, bariantza analisiak gauzatu dira orientazio sexualaren arabera osasun mentaleko aldagai guztien puntuazioekin. Emaizak atal honetan ikus daitezke.

### **8.5.1 Bullying/Cyberbullying LGTB-fobikoa: sintoma psikopatologiko bereizgarriak biktima eta erasotzaile heterosexual eta ez-heterosexualetan**

Lehenik eta behin, bullying orokorra sufritu eta burutu duten heterosexualek eta ez-heterosexualek sintoma psikopatologikoetan erdietsitako batz besteko puntuazioak aurkezten dira. Ondoren, analisi berberak burutzen dira ziberbiktima eta zibererasotzaile heterosexual eta ez-heterosexualekin. Azkenik, orientazio sexualaren araberrako emaitzak aurkezten dira, baina, kasu honetan, bullying/cyberbullying LGTB-fobikoa sufritu edo burutu duten heterosexualek eta ez-heterosexualek kontuan hartuz.

#### **8.5.1.1 Bullying eta sintoma psikopatologikoak pertsona heterosexual eta ez-heterosexualetan**


Atal honetan, lehenengo, bizitzan zehar bullying jokaera erasokorrak sufritu eta burutu zituzten heterosexualen eta ez-heterosexualen lagina aukeratu da. Ondoren, osasun mentaleko aldagaiekin orientazio sexualaren araberrako bariantza analisiak gauzatu dira. Heterosexualetan eta ez-heterosexualetan osasun mentaleko aldagai desberdinekin egindako adagai anitzeko analisisiek (MANOVA) ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak azaltzen dituzte bullyingaren biktimentzat, Wilksen Lambda,  $\Lambda = 0,942$ ,  $F(13,708) = 3,36$ ,  $p < .001$  (eraginaren tamaina ertaina,  $\eta^2 = 0,058$ ,  $r = 0,24$ ) eta bullyingaren erasotzaileentzat, Wilksen Lambda,  $\Lambda = 0,923$ ,  $F(10,479) = 3,07$ ,  $p < .001$  (eraginaren tamaina txikia,  $\eta^2 = 0,07$ ,  $r = 0,27$ ). Honez gain, azterketa deskribatzaileak (batz bestekoak eta desbideratze tipikoak), aldagai bakarrek bariantza analisisiak eta eraginaren tamainaren azterketak (Cohenen  $d$ ) burutu dira. Informazio hau 22. Taulan eta 70. eta 71. Grafikoetan azaltzen da.

22. Taula. Bataz bestekoak, desbideratze tipikoak, bariantza analisiak eta eraginaren tamaina (Cohenen *d*) bullyingaren biktima eta erasotzaileen sintoma psikopatologikoetan orientazio sexualaren arabera

Osasun mentaleko aldagaiak	Bullyingaren Biktimak				Bullyingaren Erasotzaileak			
	Hetero ( <i>n</i> = 574)	Ez-hetero ( <i>n</i> = 149)	<i>F</i> ( <i>p</i> )	<i>d</i>	Hetero ( <i>n</i> = 413)	Ez-hetero ( <i>n</i> = 81)	<i>F</i> ( <i>p</i> )	<i>d</i>
	<i>M</i> ( <i>Dt</i> )	<i>M</i> ( <i>Dt</i> )			<i>M</i> ( <i>Dt</i> )	<i>M</i> ( <i>Dt</i> )		
BDI Totala	10,19 (8,23)	14,03 (9,55)	23,99 (.000)	.43	9,47 (7,91)	13,91 (9,16)	20,29 (.000)	.52
SAS E.N. Beldurra	20,45 (6,88)	21,56 (7,99)	2,85 (.092)	.15	19,71 (6,77)	21,02 (7,40)	2,47 (.117)	.18
SAS E. Ezezagunak	16,61 (4,98)	17,53 (5,62)	3,79 (.005)	.17	16,24 (5,03)	17,49 (5,54)	4,09 (.044)	.24
SAS E. Ezagunak	8,23 (3,26)	9,11 (3,78)	8,04 (.017)	.25	8,05 (3,19)	8,88 (3,19)	4,49 (.035)	.26
SAS Totala	45,30 (12,69)	48,20 (15,06)	5,70 (.000)	.21	44,00 (12,52)	47,40 (13,73)	4,81 (.029)	.26
SCL90 Somatizazioa	10,93 (7,99)	14,60 (9,19)	23,35 (.000)	.43	10,77 (7,91)	15,19 (9,76)	19,45 (.000)	.50
SCL90 Obs. Konp.	12,48 (7,94)	16,10 (8,52)	23,81 (.000)	.44	12,17 (8,16)	16,63 (7,49)	20,72 (.000)	.57
SCL90 Sent. Interp.	8,54 (7,15)	10,96 (7,42)	13,36 (.000)	.33	7,97 (6,86)	11,17 (7,63)	14,17 (.000)	.44
SCL90 Depresioa	11,35 (9,61)	16,74 (11,31)	34,49 (.000)	.51	10,50 (9,44)	16,64 (11,10)	26,95 (.000)	.60
SCL90 Estutasuna	7,15 (7,34)	9,88 (9,09)	14,75 (.000)	.33	6,67 (7,13)	10,14 (9,66)	14,13 (.000)	.41
SCL90 Etsaitasuna	5,36 (5,01)	6,85 (5,64)	9,83 (.002)	.28	5,60 (5,21)	7,27 (6,05)	6,62 (.010)	.30
SCL90 E. Fobikoa	2,86 (3,84)	4,07 (4,99)	10,23 (.001)	.27	2,59 (3,62)	4,42 (4,92)	15,09 (.000)	.42
SCL90 I. Paranoidea	5,54 (4,66)	7,26 (5,06)	15,43 (.000)	.35	5,39 (4,71)	7,41 (4,89)	12,29 (.000)	.42
SCL90 Psicotizismoa	4,73 (5,80)	7,30 (7,06)	21,19 (.000)	.40	4,54 (5,77)	8,30 (7,21)	26,30 (.000)	.58
SCL90 Totala	68,95 (47,28)	93,75 (53,87)	30,67 (.000)	.49	66,20 (47,03)	97,16 (53,06)	28,08 (.000)	.63


Oharra: E.N. Beldurra = Ebaluazio negatiboari beldurra, SAS E. Ezezagunak: ezezagunekin ekiditea, SAS E. Ezagunak = Ezagunekin ekiditea. Obs. Konp. = Obsesio-Konpultsioa, Sent. Interp = Sentikortasun interpersonal, E. Fobikoa = Estutasun fobikoa.

70. Grafikoa. Sintoma psikopatologikoen batzuetako puntuazioak bullyingaren biktimetan orientazio sexualaren arabera



Oharrak: \*  $p < .05$ , E.N. Beldurra = Ebaluazio negatiboari beldurra, SAS E. Ezezagunak = ezezagunekin ekiditea, SAS E. Ezagunak = Ezagunekin ekiditea. Obs. Komp. = Obsesio-Konpultsioa, Sent. Interp = Sentikortasun interpersonal, E. Fobikoa = Estutasun fobikoa.

71. Grafikoa. Sintoma psikopatologikoen batz besteko puntuazioak bullyingaren erasotzailetan orientazio sexualaren arabera



Oharrak: \*  $p < .05$ , E.N. Beldurra = Ebaluazio negatiboari beldurra, SAS E. Ezezagunak: ezezagunekin ekiditea, SAS E. Ezagunak = Ezagunekin ekiditea. Obs. Komp. = Obsesio-Konpultsioa, Sent. Interp = Sentikortasun interpersonal, E. Fobikoa = Estutasun fobikoa.

22. Taulan eta bere adierazpen grafikoan (70 eta 71. Grafikoak) ikus daitekeenez, bai biktimentzat eta baita erasotzaileentzat ere, bariantza analisiek agerian utzi dute pertsona ez-heterosexualek, heterosexualekin alderatuz, puntuazio esanguratsuki altuagoak azaltzen dituztela depresioan, ezagunekin eta egoera berrietan ezezagunekin ongjeza sozial eta ekiditean, estatusun sozial totallean, sintoma psikopatologiko totallean, eta bakarka aztertutako sintoma psikopatologiko guztietan: somatizazioa, obsesio-konpulsioa, sentikortasun interpretsonala, depresioa, estatusuna, etsaitasuna, estatusun fobikoa, ideia gintza paranoidea, psikotizismoa. Eraginaren tamainare dagokionez, biktimen laginarekin burututako azterketek tamaina ertaina erakutsi dute aldagai batentzat (SCL90 depresioa) eta tamaina txikia beste aldagai guztientzat. Gainera, eta erasotzaileen laginari dagokionez, Cohenen *d* frogak tamaina ertaina erakutsi du zenbait aldagaiantzat (depresioa, somatizazioa, obsesio-konpulsioa, psikotizismoa) eta txikia beste guztientzat.

#### **8.5.1.2 Cyberbullyinga eta sintoma psikopatologikoak pertsona heterosexual eta ez-heterosexualetan**


Cyberbullyingaren ziberbiktima eta zibererasotzaile heterosexualen eta ez-heterosexualen artean osasun mentaleko aldagaietan desberdintasunak identifikatzeko asmoz, lehenengo, aztertutako cyberbullying-jokaera erasokorrak sufritu zituztela adierazi zuten paitaideak aukeratu dira. Bigarrenik, bizitzan zehar cyberbullyinga burutu zuten partaideen lagina kontuan hartu da. Aldagai anitzeko bariantza analisiek (MANOVA) ezberdintasun estatistikoki esanguratsuk azaltzen ditu sintoma psikopatologikoetan orientazio sexualaren arabera ziberbiktimentzat, Wilksen Lambda,  $\Lambda = 0,953$ ,  $F(13,618) = 2,34$ ,  $p < .05$  (eraginaren tamaina ertaina,  $\eta^2 = 0,047$ ,  $r = 0,22$ ) eta zibererasotzaileentzat, Wilksen Lambda,  $\Lambda = 0,923$ ,  $F(13,300) = 1,92$ ,  $p < .05$  (eraginaren tamaina ertaina,  $\eta^2 = 0,077$ ,  $r = 0,28$ ). Gainera, azterketa deskribatzaileak (bataz bestekoak eta desbideratze tipikoak), aldagai bakarreko bariantza analisiak eta eraginaren tamainaren (Cohenen *d*) azterketak gauzatu dira. Emaitzak jarraian aurkezten dira 23. Taulan eta 72. eta 73. Grafikoetan.

23. Taula. Bataz bestekoak, desbideratze tipikoak, bariantza analisiak eta eraginaren tamaina (Cohenen *d*) cyberbullyingaren biktima eta erasotzaileen sintoma psikopatologikoetan orientazio sexualaren arabera

Osasun mentalaren aldagaiak	Ziberbiktimak				Zibererasotzaileak			
	Hetero ( <i>n</i> = 515)	Ez hetero ( <i>n</i> = 117)	<i>F</i> ( <i>p</i> )	<i>d</i>	Hetero ( <i>n</i> = 268)	Ez hetero ( <i>n</i> = 47)	<i>F</i> ( <i>p</i> )	<i>d</i>
	<i>M</i> ( <i>Dt</i> )	<i>M</i> ( <i>Dt</i> )			<i>M</i> ( <i>Dt</i> )	<i>M</i> ( <i>Dt</i> )		
BDI Totala	10,74 (8,34)	13,95 (9,19)	13,58 (.000)	.36	10,65 (8,57)	14,94 (9,88)	9,53 (.002)	.46
SAS E.N. Beldurra	20,37 (7,13)	21,04 (7,93)	0,81 (.370)	.09	19,81 (6,91)	21,53 (8,49)	2,31 (.129)	.22
SAS E. Ezezagunak	16,48 (5,13)	17,09 (5,53)	1,29 (.255)	.11	16,60 (4,98)	17,55 (5,96)	1,39 (.239)	.17
SAS E. Ezagunak	8,05 (3,28)	8,79 (3,80)	4,52 (.034)	.21	8,03 (3,08)	9,13 (3,98)	4,59 (.033)	.31
SAS Totala	44,90 (13,23)	46,91 (15,37)	2,08 (.255)	.14	44,44 (12,65)	48,21 (16,39)	3,24 (.073)	.26
SCL90 Somatizazioa	11,36 (7,96)	14,82 (9,41)	16,85 (.034)	.40	12,04 (7,99)	13,72 (7,59)	1,79 (.181)	.22
SCL90 Obs. Konp.	12,74 (8,17)	15,97 (8,65)	14,58 (.150)	.38	13,19 (8,31)	16,32 (8,61)	5,59 (.019)	.37
SCL90 Sent. Interp.	8,58 (6,90)	10,81 (7,72)	9,52 (.000)	.30	9,06 (7,32)	11,36 (8,39)	3,76 (.053)	.29
SCL90 Depresioa	11,63 (9,70)	16,14 (10,99)	19,55 (.000)	.44	11,82 (9,69)	16,17 (11,85)	7,51 (.007)	.40
SCL90 Estutasuna	7,28 (7,48)	9,74 (9,42)	9,31 (.002)	.29	7,46 (7,71)	10,68 (9,19)	6,56 (.011)	.38
SCL90 Etsaitasuna	5,65 (5,26)	6,94 (5,77)	5,49 (.019)	.23	6,28 (5,49)	8,96 (6,80)	8,79 (.003)	.43
SCL90 E. Fobikoa	3,03 (3,86)	4,42 (5,43)	10,42 (.001)	.30	2,99 (4,03)	5,19 (5,99)	10,17 (.002)	.43
SCL90 I. Paranoidea	5,58 (4,68)	7,25 (5,14)	11,67 (.001)	.34	5,66 (4,79)	7,38 (5,55)	4,90 (.028)	.33
SCL90 Psicotizismoa	4,80 (5,80)	7,28 (7,18)	15,94 (.000)	.38	4,76 (5,55)	8,51 (8,56)	15,14 (.000)	.52
SCL90 Totala	70,65 (47,50)	93,37 (55,48)	20,44 (.000)	.44	73,28 (48,71)	98,30 (60,53)	9,76 (.002)	.46

Oharra: E.N. Beldurra = Ebaluazio negatiboari beldurra, SAS E. Ezezagunak: ezezagunekin ekiditea, SAS E. Ezagunak = Ezagunekin ekiditea. Obs. Konp. = Obsesio-Konpultsioa, Sent. Interp = Sentikortasun interpersonal, E. Fobikoa = Estutasun fobikoa.


72. Grafikoa. Sintoma psikopatologikoen batzaz besteko puntuazioak cyberbullyingaren biktimetan orientazio sexualaren arabera



Oharrak: \*  $p < .05$ , E.N. Beldurra = Ebaluazio negatiboari beldurra, SAS E. Ezezagunak: ezezagunekin ekiditea, SAS E. Ezagunak = Ezagunekin ekiditea. Obs. Konp. = Obsesio-Konpultsioa, Sent. Interp = Sentikortasun interpersonal, E. Fobikoa = Estutasun fobikoa.



73. Grafikoa. Sintoma psikopatologikoen batz besteko puntuazioak cyberbullyingaren erasotzailetan orientazio sexualaren arabera



Oharrak: \*  $p < .05$ , E.N. Beldurra = Ebaluazio negatiboari beldurra, SAS E. Ezezagunak: ezezagunekin ekiditea, SAS E. Ezagunak = Ezagunekin ekiditea. Obs. Konp. = Obsesio-Konpultsioa, Sent. Interp = Sentikortasun interpersonal, E. Fobikoa = Estutasun fobikoa.

Ziberbiktimen laginari dagokionez, bariantza analisisiek agerian utzi dute pertsona ez-heterosexualek, pertsona heterosexualekin alderatuz, puntuazio esanguratsuki altuagoak adierazten dituztela depresioan, ezagunekin ekidite eta ongieza sozialan, sintoma psikopatologiko totallean, eta hurrengo sintoma psikopatologikoetan: somatizazioa, sentikortasun interpersonala, depresioa, estutasuna, etsaitasuna, estutasun fobikoa, ideia gintza paranoidea eta psikotizismoa.

Zibererasotzaileei dagokienez, emaitzek adierazten dute pertsona ez-heterosexualek, heterosexualekin alderatuz, puntuazio esanguratsuki altuagoak dituztela depresioan, ezagunekin ekidite eta ongieza sozialean, sintoma psikopatologiko totallean eta sintoma psikopatologiko hauetan: obsesio-konpulsioa, depresioa, estutasuna, etsaitasuna, estutasun fobikoa, ideia gintza paranoidea eta psikotizismoa. Cohenen *d*-ren frogak eraginaren tamaina txikia adierazi du ziberbiktimen aldagai guztietan, eta baita zibererasotzaileen aldagai guztietan ere, psikotizismoan ez beste, azken honen eraginaren tamaina ertaina izan delarik.

#### **8.5.1.2 Bullying/cyberbullying LGTB-fobikoa eta sintoma psikopatologikoak pertsona heterosexual eta ez-heterosuxaletan**


Bullying/cyberbullying LGTB-fobikoaren biktima eta erasotzaile heterosexualen eta ez-heterosexualen artean sintoma psikopatologikoetan alderik dagoen identifikatzeko asmoz, lehengo, bullying/cyberbullying LGTB-fobikoa sufritu/burutu zutela adierazi zuten partaideak aukeratu dira. Ondoren, aldagai anitzeko bariantza analisiak gauzatu dira (MANOVA) eta emaitzek ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak erakusten dituzte bullying/cyberbullying LGTB-fobikoaren biktimetan orientazio sexualaren arabera, Wilksen Lambda,  $\Lambda = 0,945$ ,  $F(13,1029) = 4,57$ ,  $p < .001$  (eraginaren tamaina ertaina,  $\eta^2 = 0,055$ ,  $r = 0,23$ ). Ez dira ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak aurkitu orientazio sexualaren arabera jokaera LGTB-fobikoak burutu zituzten pertsonetan, Wilksen Lambda,  $\Lambda = 0,852$ ,  $F(13,100) = 1,34$ ,  $p > .05$  (eraginaren tamaina txikia,  $\eta^2 = 0,04$ ,  $r = 0,2$ ). Azkenik, azterketa deskribatzaileak (bataz bestekoak eta desbideratze tipikoak), aldagai bakarreko bariantza analisiak eta eraginaren tamainaren (Cohenen *d*) azterketak gauzatu dira. Informazio hau 24. Taulan eta 74. eta 75. Grafikoetan aurkezten da.

24. Taula. Bataz bestekoak, desbideratze tipikoak, bariantza analisiak eta eraginaren tamaina (Cohenen *d*) bullying/cyberbullying LGTB-fobikoaren biktima eta erasotzaileen sintoma psikopatologikoetan orientazio sexualaren arabera

Osasun mentalaren aldagaiak	Bullying LGTB-fobikoaren biktimak				Bullying LGTB-fobikoaren erasotzaileak			
	Hetero ( <i>n</i> = 870)	Ez hetero ( <i>n</i> = 174)	<i>F</i> ( <i>p</i> )	<i>d</i>	Hetero ( <i>n</i> = 94)	Ez hetero ( <i>n</i> = 21)	<i>F</i> ( <i>p</i> )	<i>d</i>
	<i>M</i> ( <i>Dt</i> )	<i>M</i> ( <i>Dt</i> )			<i>M</i> ( <i>Dt</i> )	<i>M</i> ( <i>Dt</i> )		
BDI Totala	9,46 (7,65)	13,62 (9,17)	39,97 (.000)	.49	9,17 (7,50)	13,76 (7,61)	6,35 (.013)	.60
SAS E.N. Beldurra	19,85 (6,66)	21,02 (8,14)	4,13 (.042)	.16	19,68 (7,43)	21,14 (7,91)	0,65 (.421)	.19
SAS E. Ezezagunak	16,44 (4,89)	17,10 (5,44)	2,53 (.112)	.13	16,11 (5,16)	16,81 (5,32)	0,31 (.577)	.19
SAS E. Ezagunak	8,01 (3,11)	8,75 (3,67)	7,63 (.006)	.22	7,82 (2,90)	8,43 (3,34)	0,72 (.398)	.13
SAS Totala	44,30 (12,35)	46,87 (15,07)	5,78 (.016)	.19	43,60 (13,32)	46,38 (14,44)	0,72 (.397)	.20
SCL90 Somatizazioa	10,49 (7,58)	13,49 (8,57)	21,81 (.000)	.37	10,38 (7,88)	13,38 (9,72)	2,28 (.134)	.34
SCL90 Obs. Konp.	12,07 (7,87)	15,41 (8,69)	25,24 (.000)	.40	11,76 (8,57)	18,38 (8,80)	10,11 (.002)	.76
SCL90 Sent. Interp.	7,83 (6,79)	10,41 (7,51)	20,29 (.000)	.36	7,74 (7,14)	9,57 (6,38)	1,17 (.283)	.27
SCL90 Depresioa	10,41 (9,15)	15,38 (10,99)	39,88 (.000)	.49	9,76 (8,37)	15,19 (9,77)	6,77 (.011)	.60
	<p><b>Garrantzitsuena irakasle ona izatea da:</b> % 99,1 neskek (<math>n = 912</math>); % 98,4 mutilak (<math>n = 815</math>).</p> <p>Ez ziren estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu LGTB irakasle baten aurrean edukitako jarretan sexuaren arabera (<math>\chi^2 = 3,39, p &gt; .05</math>).</p>
<p><b>Nerabeen jarrera bi gizonek osatutako bikoteak sentimenduak publikoan adieraztean</b></p>	<p><b>Ondo iruditzen zaie:</b> % 93,1 (<math>n = 1.627</math>)  <b>Berdin zaie baina ez publikoan:</b> % 4,9 (<math>n = 85</math>)  <b>Nazka ematen die ikusteak:</b> % 1,9 (<math>n = 33</math>)  <b>Gaizki iruditzen zaie:</b> % 0,2 (<math>n = 3</math>)</p>
<p><b>Nerabeen jarrera bi emakumeek osatutako bikoteak sentimenduak publikoan adieraztean</b></p>	<p><b>Ondo iruditzen zaie:</b> % 94,3 (<math>n = 1.648</math>)  <b>Berdin zaie baina ez publikoan:</b> % 4,6 (<math>n = 80</math>)  <b>Nazka ematen die ikusteak:</b> % 1 (<math>n = 18</math>)  <b>Gaizki iruditzen zaie:</b> % 0,1 (<math>n = 2</math>)</p>
<p><b>Nerabeen jarrera bi gizonek osatutako bikoteak sentimenduak publikoan adieraztean: sexuaren araberako aldeak</b></p>	<p style="text-align: center;">% sexuaren barruan</p> <p><b>Gaizki iruditzen zaie:</b> neskarik ez (<math>n = 0</math>); % 0,4 mutilak (<math>n = 3</math>).  <b>Nazka ematen die ikusteak:</b> % 1 neskek (<math>n = 9</math>); % 2,9 mutilak (<math>n = 24</math>).  <b>Berdin zaie baina ez publikoan:</b> % 1,3 neskek (<math>n = 12</math>); % 8,8 mutilak (<math>n = 73</math>).  <b>Ondo iruditzen zaie:</b> % 97,7 neskek (<math>n = 899</math>); % 87,9 mutilak (<math>n = 728</math>).</p> <p>Alde esanguratsuak aurkitu ziren bi gizonek osatutako bikote batek sentimenduak publikoan adieraztean nerabeek dituzten jarretan sexuaren arabera, neskek jarrera positiboagoak adieraziz (<math>\chi^2 = 66,91, p &lt; .001</math>).</p>
<p><b>Nerabeen jarrera bi emakumeek osatutako bikoteak sentimenduak publikoan adieraztean:</b></p>	<p style="text-align: center;">% sexuaren barruan</p> <p><b>Gaizki iruditzen zaie:</b> neskarik ez (<math>n = 0</math>); % 0,2 mutilak (<math>n = 2</math>).  <b>Nazka ematen die ikusteak:</b> % 0,7 neskek (<math>n = 6</math>); % 1,4 mutilak (<math>n = 12</math>).  <b>Berdin zaie baina ez publikoan:</b> % 1,3 neskek (<math>n = 12</math>); % 8,2 mutilak (<math>n = 68</math>).</p>

Aldagaia		Emaizak			
<b>sexuaren araberako aldeak</b>		<b>Ondo iruditzen zaie:</b> % 98 neskek (n = 902); % 90,1 mutiliak (n = 746). Alde esanguratsuak aurkitu ziren bi emakumeek osatutako bikote batek sentimenduak publikoan adieraztean nerabeek dituzten jarretan sexuaren arabera, neskek jarrera positiboagoak adieraziz ( $\chi^2= 53,27, p < .001$ ).			
<b>Jarrera LGTB den kiden baten aurrean</b>	<b>Gay:</b>	<b>Lesbiana:</b>	<b>Bisexuala:</b>	<b>Transexuala:</b>	
	Ez luke jarrera aldatuko (% 86,2) Deseroso sentitu (% 12,8) Lekuz aldatzen saiatu (% 0,7) Berekin ligatzen saiatu (% 0,3)	Ez luke jarrera aldatuko (% 91,7) Deseroso sentitu (% 6,9) Berekin ligatzen saiatu (% 1,1) Lekuz aldatzen saiatu (% 0,2)	Ez luke jarrera aldatuko (% 89,4) Deseroso sentitu (% 8,1) Berekin ligatzen saiatu (% 1,9) Lekuz aldatzen saiatu (% 0,6)	Ez luke jarrera aldatuko (% 84,8) Deseroso sentitu (% 13,4) Lekuz aldatzen saiatu (% 1,4) Berekin ligatzen saiatu (% 0,4)	
<b>Jarrera LGTB den kiden baten aurrean: sexuaren araberako aldeak</b>	<b>Gay:</b>	<b>Lesbiana:</b>	<b>Bisexuala:</b>	<b>Transexuala:</b>	
	% sexuaren barruan  Lekuz aldatzen saiatu: % 0,1 neskak (n = 1); % 1,4 mutiliak (n = 12). Deseroso sentitu: % 2 neskek (n = 18); % 24,8 mutiliak (n = 205). Ez luke jarrera aldatuko: % 97,7 neskak (n = 899); % 73,3 mutiliak (n = 607) Berekin ligatzen saiatu: % 0,2 neskak (n = 2); % 0,5 mutiliak (n = 4).	% sexuaren barruan  Lekuz aldatzen saiatu: % 0,1 neskak (n = 1); % 0,4 mutiliak (n = 3). Deseroso sentitu: % 7,1 neskek (n = 65); % 6,2 mutiliak (n = 56). Ez luke jarrera aldatuko: % 92,1 neskak (n = 847); % 91,3 mutiliak (n = 756) Berekin ligatzen saiatu: % 0,8 neskak (n = 2); % 0,6 mutiliak (n = 4).	% sexuaren barruan  Lekuz aldatzen saiatu: % 0,1 neskak (n = 1); % 1,1 mutiliak (n = 9). Deseroso sentitu: % 3,7 neskek (n = 34); % 12,9 mutiliak (n = 107). Ez luke jarrera aldatuko: % 94,8 neskak (n = 872); % 83,5 mutiliak (n = 691) Berekin ligatzen saiatu: % 1,4 neskak (n = 13); % 2,5 mutiliak (n = 21).	% sexuaren barruan  Lekuz aldatzen saiatu: % 0,3 neskak (n = 3); % 2,5 mutiliak (n = 21). Deseroso sentitu: % 5,8 neskek (n = 53); % 22 mutiliak (n = 182). Ez luke jarrera aldatuko: % 93,5 neskak (n = 860); % 75,1 mutiliak (n = 622) Berekin ligatzen saiatu: % 0,4 neskak (n = 4); % 0,4 mutiliak (n = 3).	

Aldagaia	Emaizak	
	Neskek jarrera esanguratsuki positiboagoak azaltzen dituzte kide gay baten aurrean mutlekin alderatuz ( $\chi^2= 219,16, p < .001$ ).	Ez ziren sexuaren araberako alde esanguratsuak aurkitu nerabeek kide lesbiana baten aurrean dituzten jarretetan ( $\chi^2= 3,80, p > .05$ ).
Nerabeen hautematea inguru sozialek aniztasun sexualaren aurrean dituzten jarrearen inguruan	Neskek jarrera esanguratsuki positiboagoak azaltzen dituzte kide transexual baten aurrean mutlekin alderatuz ( $\chi^2= 219,16, p < .001$ ).	Neskek jarrera esanguratsuki positiboagoak azaltzen dituzte kide transexual baten aurrean mutlekin alderatuz ( $\chi^2= 219,16, p < .001$ ).
	<b>LGBTB pertsonak pairatzen duten tratua familia, eskola eta gizarte testuingurutan</b>	<b>Partaideak LGBTB izango balira senideen, lagunen, irakasleen eta kideen erreakzioak</b>
	<b>Familia:</b> % 18,6 modu injustuan; % 71,7 besteei bezala; % 9,7 modu onuragariagoan. <b>Eskola:</b> % 60,6 modu injustuan, % 36,6 besteei bezala; % 2,7 modu onuragariagoan. <b>Gizartea:</b> % 86,7 modu injustuan; % 11,1 besteei bezala; % 2,2 modu onuragariagoan.	<b>Senideak:</b> % 0,2 ( $n = 3$ ) jo egin; % 1,4 ( $n = 25$ ) baztertu; % 5,7 ( $n = 100$ ) aldatzen saiatu; % 16,5 ( $n = 288$ ) garrantzianik ez eman; % 76,2 ( $n = 1.332$ ) sostengua eman. <b>Lagunak:</b> % 0,2 ( $n = 4$ ) jo egin; 4 % ( $n = 70$ ) baztertu; % 5,7 ( $n = 99$ ) aldatzen saiatu; % 31,9 ( $n = 558$ ) garrantzianik ez eman; % 58,2 ( $n = 1.017$ ) sostengua eman. <b>Irakasleak:</b> % 0,2 ( $n = 3$ ) jo egin; % 0,6 ( $n = 11$ ) baztertu; % 0,8 ( $n = 14$ ) aldatzen saiatu; % 68,1 ( $n = 1.015$ ) garrantzianik ez eman; % 40,3 ( $n = 705$ ) sostengua eman. <b>Kideak:</b> % 0,3 ( $n = 6$ ) jo egin; % 12,8 ( $n = 223$ ) baztertu; % 6,8 ( $n = 118$ ) aldatzen saiatu; % 59,3 ( $n = 1036$ ) garrantzianik ez eman; % 20,9 ( $n = 3.652$ ) sostengua eman.
	Partaideen ikuspuntutik LGBTB pertsonak tratu onena familia testuinguruan pairatzen dute. Bestalde, gizartea izango itzateke non LGBTB pertsonak maiztasun handiagoarekin modu injustuan tratatuak izaten diren.	Partaideak LGBTB izango balira senideen artean aurkituko lukete sostengu gehiena. Azkenik, gaitzespen gehiena kide eta lagunengandik jasoko lukete.

4. Koadroa. Emaizten laburpena: Sintoma psikopatologikoetan eta nortasun ezaugarrietan desberdintasunak bullying/cyberbullying orokorra eta LGTB-fobikoa sufritu edota burutu duten pertsona heterosexualek eta ez-heterosexualek artean

	BULLYING Biktimak	CYBERBULLYING Ziberbiktimak	BULLYING/CYBERBULLYING LGTB-FOBIKOA Biktimak
<b>Sintoma psikopatologikoak eta bullying/cyberbullyinga ez-heterosexualetan</b>	Biktima ez-heterosexualek (heterosexualekin alderatuz) puntuazio esanguratsuki altuagoak azaltzen dituzte depresioan, ezagun eta egoera berrietan ezezagunekin ekidite eta ongieza sozialean, estutasun sozial globalean, sintoma psikopatologiko guztietan: somatizazioa, obsesio-konpulsioa, sentikortasun interpersonala, depresioa, estutasuna, etsaitasuna, estutasun fobikoa, ideia gintza paranoidea psikotizismoa.	Ziberbiktima ez-heterosexualek (heterosexualekin alderatuz) puntuazio esanguratsuki altuagoak azaltzen dituzte depresioan, ezagun eta egoera berrietan ezezagunekin ekidite eta ongieza sozialean, sintoma psikopatologiko globalean eta aztertutako sintoma psikopatologiko guztietan: somatizazioa, obsesio-konpulsioa, sentikortasun interpersonala, depresioa, estutasuna, etsaitasuna, estutasun fobikoa, ideia gintza paranoidea psikotizismoa.	Biktima ez-heterosexualek (heterosexualekin alderatuz) puntuazio esanguratsuki altuagoak azaltzen dituzte depresioan, ebaluazio negatiboari beldurrean, ezagunekin ekidite eta ongieza sozialean, estutasun sozial globalean, sintoma psikopatologiko guztietan: somatizazioa, obsesio-konpulsioa, sentikortasun interpersonala, depresioa, estutasuna, etsaitasuna, estutasun fobikoa, ideia gintza paranoidea psikotizismoa.
	Erasotzaileak	Zibererasotzaileak	Erasotzaileak

	<b>BULLYING</b> Biktimak	<b>CYBERBULLYING</b> Ziberiktimak	<b>BULLYING/CYBERBULLYING LGBT-FOBIKOA</b> Biktimak
<p><b>Nortasun ezaugarriak eta bullying/cyberbullyinga pertsona heterosexual eta ez-heterosexualetan</b></p>	<p>Biktima ez-heterosexualek (heterosexualekin alderatuz) puntuazio esanguratsuki altuagoak azaltzen dituzte ikuspegi-hartzean eta puntuazio baxuegoak ulermen emozionalean, erregulazio emozionalean, adimen zoriontasunean eta norberaren feminitate-irudian.</p>	<p>Ziberiktima ez-heterosexualek (heterosexualekin alderatuz) puntuazio esanguratsuki altuagoak azaltzen dituzte ikuspegi-hartzean, estres emozionalean eta enpatia globalean eta puntuazio baxuegoak ulermen emozionalean, erregulazio emozionalean, adimen emozional intrapertsonal globalean eta zoriontasunean.</p>	<p>Biktima ez-heterosexualek (heterosexualekin alderatuz) puntuazio esanguratsuki altuagoak azaltzen dituzte ikuspegi-hartzean eta enpatia globalean eta puntuazio baxuegoak ulermen emozionalean, erregulazio emozionalean, adimen emozional intrapertsonal globalean, zoriontasunean eta norberaren feminitate-irudian.</p>
	<p>Erasotzaileak ez-heterosexualek (heterosexualekin alderatuz) puntuazio esanguratsuki altuagoak azaltzen dituzte ikuspegi-hartzean eta enpatia globalean eta puntuazio baxuegoak ulermen emozionalean, erregulazio emozionalean, adimen zoriontasunean eta norberaren feminitate-irudian.</p>	<p>Zibererasotzaileak ez-heterosexualek (heterosexualekin alderatuz) puntuazio esanguratsuki altuagoak azaltzen dituzte ikuspegi-hartzean, ulermen emozional enpatikoan, aialtasun enpatikoan eta enpatia globalean eta puntuazio baxuegoak ulermen emozionalean, erregulazio emozionalean, adimen emozional intrapertsonal globalean eta zoriontasunean.</p>	<p>Erasotzaileak ez-heterosexualek (heterosexualekin alderatuz) puntuazio baxuegoak azaltzen dituzte zoriontasunean, baina ezberdintasun honek esanguratsua izateko joera azaltzen du bakarririk.</p>



---

**9. KAPITULUA**  
**ONDORIOAK ETA EZTABAIDA**

---





## 9. KAPITULUA. ONDORIOAK ETA EZTABAIDA

### 9.1 HELBURUAK ETA EZTABAIDA

**1. HELBURUA:** 13-17 urte bitarteko nerabeek bizitzan zehar, sufritu edota burututako bullying eta cyberbullying LGTB-fobikoaren prebalentzia aztertu, bullying eta cyberbullying orokorraren prebalentziaren testuinguruaren barruan, prebalentzia orokorraren datuak Euskal Herrian lehenago egindako ikerketa batean identifikatu direlarik (Garaigordobil, 2013). Era osagarrian, nerabeek eskoletan aniztasun sexualaren aurrean dituzten jarrerak ebaluatu dira. Burututako errebisioan aurkitutako datuak oinarritzat hartuz (ikus 2. Kapituluua), 13 hipotesi planteatzen dira:

**1. HIPOTESIA:** Aurrez aurre egindako bullying globalari (“batzuetan”, “sarritan”, “beti”) dagokionez, Bigarren Hezkuntzako azken zikloko ikasleen % 30ek jarrera erasokorrek (fisikoak, ahozkoak, sozialak edo psikologikoak) sufritu izan dituela espero da. Azken urteetan hezkuntza testuinguruan bullyingaren aurkako ekintza asko martxan jarri direnez, emaitzetan murrizketa bat espero da aurrez egindako ikerketa epidemiologikoan aurkitutako datuekin alderatuz (Garaigordobil, 2013). Erasotzaileen kasuan, partaideen % 30ek kideei zuzendutako jarrera erasokor bat edo gehiago burutu izan dituela espero da. Honetan ere, aurreko ikerketa epidemiologikoan aurkitutako erasotzaileen ehunekoekin alderatuz, murriztapen bat egongo delarik. Amaitzeko, biktima-erasotzaileei dagokienez, biktimen 2/3k jarrera erasokorrek burutu dituela espero da.

Ikerketa honetan, partaideen % 41,6k aurrez aurreko bullying globala (“batzuetan”, “sarritan” eta “beti”) sufritu zuen, % 28,5 erasotzaile izan zen eta % 22,8 biktima-erasotzaile. Horrela, 1. hipotesia erasotzailearen rolari dagokionez betetzen den bitartean, biktimen ehunekoa espero zena baino handiagoa izan da, eta biktima-erasotzaileena berriz, txikiagoa.

Emitza hauek aurretik burututako errebisio batean aurkitu ziren datuak baieztatzen ditu. Izan ere, ikerketa batzuetan, aurrez aurreko jokaera erasokorrek noizbehinka sufrizten dituzten ikasleen ehunekoak % 80ko portzentajera iristen dira (Bogolyubova, Skochilov eta Smykalo, 2015; Garaigordobil, 2017; Omoteso, 2010; Sbarbaro eta Enyeart, 2011). Horrez gain, kontuan hartu behar da ikerketa honetan azaltzen diren datu epidemiologikoak ikasleek betetako galdetegi bidez erdietsi direla, eta desiragarritasun sozialaren ondorioz, bizitzan zehar

jazarpena burutu duten ikasle askok ez zutela galdetegietan onartuko pentsa daiteke. Horregatik, erasotzaileen benetako ehunekoa ikasleek informatu dutena baino handiagoa izango dela iradokitzen da. Honek Garaigordobilek (2017) bere errebisioan aurkitu zuena berretsiko luke, izan ere, emaitza hauetan aurrez aurreko bullyinga behin edo gehiagotan burutu zuten erasotzaileen ehunekoa % 45era iristen zen.

Biktima-erasotzaileei dagokienez, azterlan honetan, aurrez aurreko bullyinga pairatu zuten partaideen ia erdiak adierazi zuten kideen aurka jokaera erasokor bat edo gehiago egin zituztela. Alderdi honetan, murrizketa bat aurkitu da Garaigordobilen (2013) ikerketarekin alderatuz. Gutxiagotze hau bullyinga sufritzen ari diren edo sufritu duten pertsonen fenomeno honen inguruan kontzientzia eta ezagutza gehiago dutelako izan daiteke. Ezagutza gehiago dutenez, ez dute adierazi jokaera hauek noizbait behintzat burutu dituztela, ez baitituzte bullyinga den ekintzat hartzen.

Nahiz eta azken urteetan eskola jazarpenak eragiten dituen kalteen inguruko sentsibilizazio kanpaina anitz gauzatu diren eta ikastetxe gehienetan bullyingarekin amaitzeko asmoz, prebentzio eta esku-hartze programak implementatu diren, ikerketa honen emaitzek agerian utzi dute bullyinga sufritu eta burutzen duten ikasleen ehunekoak azpimarratzekoak direla. Honenbestez, ikerketa lerro honetan ikertzen jarraitzeko beharra eta gaur egun, existitzen direnak baino eraginkorragoak izan daitezkeen prebentzio eta esku-hartze programak gauzatzeko beharra berresten da.

**2. HIPOTESIA:** Aurrez aurreko bullying larriari dagokionez (“sarritan” eta “beti”) edo bullyingari dagokionez zehazki esanda, gutxi gorabehera ikasleen % 6 biktima larria izan dela espero da eta % 3 inguruk bullyingaren jarrerak oso maiz burutu dituela.

Emaitzek biktima larrietan % 11eko portzentajea eta erasotzaile larrietan % 2,7eko portzentajea agerian utzi dituzte. Ondorioz, 2. hipotesia partzialki betetzen da biktimen ehunekoa espero zena baino handiagoa izan baita. Datu hauek beste ikerketetan aurkitutakoa berresten dute, non baieztatu den bullyinga oso maiz sufritzen duten pertsonen gutxi gorabeherako ehunekoak % 2 eta % 10 bitartekoak direla (Cerezo eta Méndez, 2013; Cerezo, 2014; Díaz-Aguado, Martínez eta Martín, 2013; Garaigordobil, 2017; Garaigordobil eta Oñederra, 2010).

Ikus daitekeenez, aurrez aurreko bullyinga oso maiz sufritu duten ikasleen ehuneko kontuan hartu beharreko datua da. Datu hauek lehenago 1. hipotesian aipatu dena baieztatzen dute, hau da, nahiz eta azken urteetan ahalegin handiak egin diren bullyingaren aurkako programak inprementatzeko, eta nahiz eta erakunde publiko desberdinek fenomeno hau gelditzeko lan egin duten, aurrez aurreko bullyinga gure gizartean agerian dagoen arazoa izaten jarraitzen du. Gainera, kontuan hartu beharra dago biktima izana onartzea errazagoa dela, jokaera erasokorrek oso maiz burutu izana onartzea baino, eta horregatik, datu hauek kontu handiz interpretatu behar dira. Izan ere, erasotzaile larrien prebalentzia ikerketa honetan aurkitu dena baino handiagoa dela suposatu daiteke.

**3. HIPOTESIA:** Aurrez aurre egindako bullyingaren jarrerei dagokienez, biktimek eta erasotzaileek informatutako jarrera sarrienak ahozkoak izango dira, ondoren, sozialak, fisikoak eta, azkenik, psikologikoak.

Bai biktimen eta baita erasotzaileen ikuspegitik ere, maizago gertatzen diren aurrez aurreko bullying-jokaera erasokorrek ahozkoak dira (% 35,2 biktima eta % 24,1 erasotzaile) eta ondoren, eraso sozialak egongo lirarteke (% 17,1 biktima eta % 8 erasotzaile). Gainera, biktimek nahiz erasotzaileek emandako informazioaren arabera, maizago gertatzen diren jarrera erasokor larriak ahozkoak dira (% 8,8 biktima eta % 2,2 erasotzaile), sozialek jarraitzen dietelarik (% 4,3 biktima eta % 0,7 erasotzaile).

Eraso psikologiko eta fisikoei dagokienez ordea, ordena aldatu egiten da maiztasunaren arabera. Alde batetik, bullying global eta larriaren biktimek eta bullying larriaren erasotzaileek emandako informazioaren arabera, eraso psikologikoak (% 12,9 biktima globalak; % 4 biktima larriak; % 0,4 erasotzaile larriak) fisikoak baino gehiagotan gertatzen dira (% 12 biktima globalak; % 1,6 biktima larriak; % 0,3 erasotzaile larriak). Bestalde, bullying globalaren erasotzaileek adierazitako informazioa kontuan hartuz, jokaera erasokor fisikoak (% 6,5 erasotzaile globalak) psikologikoak baino maizago gertatzen dira (% 3,7 erasotzaile globalak). Ondorioz, 3. hipotesia ia guztiz bete da.

Emitza hauek Garaigordobilek (2017) aurkitutako emaitzen norabide berdinean doaz. Izan ere, badirudi ikasleen adinak gora egiten duen heinean, jokaera erasokor fisikoek behera egiten dutela eta sozialak eta psikologikoak berriz, areagotu egiten dira. Bestalde, kontuan hartu

beharra dago bullying globalak behin edo gehiagotan sufritutako jokaeren inguruan informatzen duela eta ohikoa izaten dela bizitzan zehar ikasleen gehiengoak eraso fisikoren bat burutu izana. Horregatik, erasotzaile globalen eskutik lortutako datuak eta beste rolei esker lortutakoak bestelakoak dira.

Laburbilduz, emaitza hauek adierazgarriak dira aurrez aurreko bullyinga prebenitzeko eta fenomeno honi aurre egin ahal izateko. Alde batetik, kontuan hartu beharko litzateke jokaera psikologikoek garrantzi handia dutela adin hauetan, hortaz, oso garrantzitsua da jokaera erasokor hauek gelditzera zuzenduta dauden ekintzak nagusitzea. Bestalde, nahiz eta eraso fisikoen ondorioak deigarriagoak diren eta larriagoak direla iruditu, beharrezkoa da gizartea kontzientziatzea eraso psikologikoak eta irainak, izengoitiak, isolamendua, etab. eraso fisikoak baino kaltegarriagoak izan daitezkeela.

**4. HIPOTESIA:** Cyberbullying globalari ("batzuetan", "sarritan", "beti") dagokionez, % 25 ziberbiktima eta % 10 zibererasotzaile inguru aurkitzea espero da. Kasu honetan ere, azken urteetan, eskola testuinuguruan cyberbullyingaren aurkako ekintza ugari burutu direnez, Euskal Herrian aurretik egindako ikerketa epidemiologikoan baino ehuneko txikiagoak aurkitzea espero da (Garaigordobil, 2013). Azkenik, 1/3 ziberbiktima-erasotzaile aurkituko direla uste da.

Emaitzek % 36,3ko portzentajea agerian utzi du cyberbullying globalaren ziberbiktimetan, % 18,1ekoa zibererasotzaileetan eta % 14,5ekoa ziberbiktima-erasotzaileetan. Kontuan izanda hiru roletan aurkitutako ehunekoak espero zirenak baino handiagoak izan direla, 4. hipotesia ez da bete. Datu hauek Garaigordobilek (2017) egindako errebisioan aurkitu zuenarekin bat egiten dute. Izan ere, ikerketa batzuetan cyberbullying-jokaera erasokorrak noizbehinka behintzat sufritzen dituzten ikasleen ehunekoek % 60ko portzentajea gainditzen dute. Horrez gain, errebisio honetan adierazi zen ikasleen % 70ek cyberbullying-jokaera erasokorrak noizbehinka burutu zituela. Ondorioz, cyberbullyinga etengabe handitzen ari den fenomeno da, berriki gauzatutako ikerketek lehenagoko ikerketek baino ehuneko handiagoak azaldu baitituzte.

Gaur egun, ziber-eremuek indar handia hartzen ari dira generazio berrien sozializazio eta aisialdian. Ikasleek teknologia berriekin kontaktu gehiago dute eta erabilera hau geroz eta adin goiztiarragoetan hasten da. Kontuan eduki beharra dago pantaila baten atzean egoteak babes eta indar sententzioa eskaintzen duela pertsona horrek aurrez aurre egingo ez litzukeen ekintzak

aurrera eramateko. Aldi berean, erasotzailea biktimen aurrean ez dagoenez, egoerak fikziozko itxura hartzen du eta ondorioz, erasotzaile ez da hain errudun sentitzen. Zentzu honetan, Interneten gertatzen den jarrera erasokor bakar batek aurrez aurre gertatzen direnak baino inpaktu handiagoa eduki dezake, segundu bakar batzuetan dimentsio handietan zabaldu baitaiteke.

Ondorio gisa, emaitza hauek agerian utzi dute garrantzi handia duela cyberbullyingean arreta jartzen duten prebentzio eta esku-hartze programak garatu eta martxan jartzea. Horrez gain, ezinbestekoa da gizartea kontzientziaztea arazo honek duen garrantziaz, irakasleek, senideek eta erakunde publikoek partaidetza aktiboa hartu dezaten fenomeno hau errotik kentzeko.

**5. HIPOTESIA:** Cyberbullying larriari ("sarritan" eta "beti") dagokionez, gutxi gorabehera % 5 ziberbiktima larria izan dela espero da eta % 2 inguruk cyberbullyingaren jarrerak oso maiz burutu dituela.

Ziberbiktima larrietan % 7,2ko portzentajea aurkitu da eta % 1,6koa zibererasotzaile larrietan. Beraz, 5. hipotesia bete egiten da aztertutako bi roletan espero ziren ehunekoak antzekoak aurkitu baitira. Ehuneko hauek cyberbullying larriaren ikerketen errebisioan aurkitu zena berresten dute, non ikasleen %1 eta % 10 bitartek cyberbullyinga oso maiz sufritzen duela ikusi den. Zibererasotzaileei dagokienez, cyberbullying larria azertu duten autoreek aurkitu dute zibererasotzaileen prebalentzia % 1 eta % 8 bitartekoa dela (Garaigordobil, 2017).

Ikerlan honen datuek baieztatu dute ziberbiktima eta zibererasotzaileen ehunekoak areagotu egiten direla denborak aurrera egin ahala. Izan ere, Machimbarrena eta Garaigordobil (2018) ikerketan aurkitu zen Lehen Hezkuntzako ikasleen % 2,9 ziberbiktima larriak izan zirela eta % 0,2 zibererasotzaile larriak. Modu honetan, emaitza hauek adierazten dute cyberbullyinga ez dela noizean behin gertatzen den arazoa, baizik eta errepikatzen den fenomeno dela, eta, gainera, adinarekina areagotu egiten dela. Ondorioz, emaitza hauek berriro ere lehenago aipatutakoa berresten dute, hau da, cyberbullyinga prebenitzeko eta murrizteko neurrietan lan egiten jarraitu behar dela frogatu da.

**6. HIPOTESIA:** Ziberbiktitek eta zibererasotzaileek informatutako cyberbullyingaren jarrera sarrienei dagokienez, honako hauek izango dira: pasahitzaren lapurketa, beldurtzeko dei anonimoak, mezu irangarriak eta mingarriak, difamatu omena kentzeko helburuarekin, identitatea ordezkatu eta dei mingarri eta iraingarriak.

Cyberbullying globalaren nahiz larriaren ziberbiktima eta zibererasotzaileen arabera nabarmentzen diren cyberbullyingeko 5 jokaera aurkitu dira: mezu mingarri edo iraingarriak, beldurtzeko dei anonimoak, ospea zikintzeko difamatu, xantaia edo mehatxuak eta dei mingarri eta iraingarriak. Modu honetan, 6. hipotesia partzialki betetzen da, ikerketa honetan aurkitutako 5 jokaeretatik 4k hipotisiarekin bat egiten dutelarik.

Azterlan honetan aurkitutako jokaera sarrienak maila nazionalen eta internazionalen gauzatutako ikerketa desberdinetan aurkitutakoarekin kointziditzen dute. Hauetan, cyberbullying-jokaera sarrienak honako hauek direla berretsi da: mezu iraingarri edo mehatxatzaileak, irudiak zabaltzea eta mugikor edo Internet bidez difamatu (Garaigordobil, 2017). Horrez gain, emaitza hauek 3. Hipotesian aipatutakoa baieztatzen dute, non biktima eta erasotzaileen ikuspegitik aurrez aurreko bullying-jokera sarrienak ahozkoak izan diren.

Bestalde, cyberbullying globala sufritu eta burutu zuten pertaideek adierazi zuten sarrien gertatzen den beste jokaera mota bat mugikor edo Internet bidez argazki edo bideo pribatuak zabaltzea dela. Azken urteetan, teknologia berriek datuen hedapena erraztu dute eta honek "sexting" bezalako jokaerak areagotu dituzte. Komunikabide desberdinek emandako informazioek gertaera hauek baieztatzen dituzte. Izan ere, gaur egun, bideo edo argazki lapurtuen hedapena gertatu den egoerak kontaezinak dira, egoera hauetan pertsonai famatuak ere inplikatuak egon direlarik.

Arlo honetan, nabarmentzekoa da, ziberbiktima eta zibererasotzaile larriek adierazitako informazioaren arabera, mugikorra edo internet bidezko jazarpen sexuala sarrien gertatzen diren jokaeren barruan sartuko litzatekeela. Emaitza honek beste ikerketa batzuetan aurkitutakoa berrestesten du, non agerian utzi den ahozko nahiz irudizko jazarpen sexuala areagotzen ari dela nerabeen artean. Ikerketa hauen arabera, jazarpen sexualaren biktimizazio prebalentzia % 20 eta % 84 bitartekoa da (Bucchianeri, Eisenberg eta Neumark-Sztainer, 2013; Charmaraman, Jones, Stein eta Espelage, 2013; Vega-Gea, Ortega-Ruiz eta Sánchez, 2016).

Ikerketek erabiltzen duten ebaluazio tresnen arabera, cyberbullying-jokaera mota desberdinak aztertzen dituzte, eta ondorioz, oso zaila egiten da ikerketa ezberdinen emaitzak alderatzea. Hala eta guztiz ere, nahiz eta cyberbullying-jokaerak era askotakoak eta anitzak izan, eta nahiz eta zibereraso modu desberdinak sortzen joango diren, ikerketa honek berretsi du ahozko erasoak (irainak, mezu mingarriak, izengoitiak, etab.) nerabeen artean gertatzen diren jokaera sarrienak direla.

**7. HIPOTESIA:** Orientazio eta identitate sexual ez-normatiboa duten nerabeek, hots, pertsona ez-heterosexualek eta ez-zisgeneroek, heterosexualek eta zisgeneroek baino bullying eta cyberbullying global eta larri gehiago sufrituko dute. Gainera, erasotzaile eta biktimas-erasotzaileen ehuneko handiagoak espero dira pertsona ez-heterosexualen eta ez-zisgeneroen artean, pertsona heterosexualekin eta zisgeneroekin alderatuz.

Bullying eta cyberbullying globalari dagokionez, ez-heterosexualen biktimen (% 68 ez-heterosexualak eta % 37,9 heterosexualak) eta ziberbiktimen (% 53,4 ez-heterosexualak eta % 33,9 heterosexualak) ehunekoak handiagoak izan dira pertsona heterosexualekin alderatuz. Bullying eta cyberbullying larriaren kasuan, hau da, cyberbullyingaren kasuan zehazki esanda, emaitzek huneko handiagoak azaltzen dituzte pertsona ez-heterosexualetan heterosexualekin alderatuz (% 13,7 biktima eta ziberbiktima ez-heterosexualak; % 6,2 biktima eta ziberbiktima heterosexualak).

Aurrez aurreko bullyingaren biktima globalen (% 74,1 ez-zisgenero eta % 41,1 zisgenero) eta larrien (% 48,1 ez-zisgenero eta % 10,5 zisgenero) ehunekoak handiagoak dira ez-zisgeneroetan pertsona zisgeneroekin alderatuz. Azkenik, nahiz eta ziberbiktima globalen ehunekoak antzekoak izan pertsona zisgeneroetan eta ez zisgeneroetan (48,1% ez-zisgenero eta % 36,1 zisgenero), cyberbullying larriaren ziberbiktimen ehunekoa handiagoa da ikasle ez-zisgeneroetan (% 18,5 ez-zisgenero eta % 7 zisgenero). Horrela, biktimizazioari dagokionez, 7. hipotesia bere osotasunean bete da. Izan ere, frogatu ahal izan da orientazio eta identitate sexual ez-normatiboa duten pertsonen bullyinga eta cyberbullyinga maiztasun handiagoarekin sufritzen dutela heteronormatibitatearen barnean aurkitzen diren pertsonen alderatuz gero.

Erasotzaileei dagokienez, nahiz eta bullying globalaren erasotzaileen ehunekoak handiagoak izan orientazio eta identitate sexual ez-normatiboa duten pertsonen artean (% 37 ez-

heterossexualak, % 27,4 heterossexualak; % 55,6 ez-zisgeneroak, % 28 zisgeneroak) bullying larria burutu duten ikasleen ehunekoak antzekoak dira LGTB pertsonen eta orientazio eta identitate sexual normatiboa duten pertsonen artean (% 0,9 ez-heterossexualak, % 1,7 heterossexualak; % 3,7 ez-zisgeneroak, % 2,7 zisgeneroak). Cyberbullying global eta larriaren erasotzaileen kasuan, ez dira ezberdintasunak aurkitu orientazio eta identitate sexualaren arabera. Ondorioz, erasotzaile eta zibererasotzaileen emaitzak kontuan hartuz gero, 7. hipotesia ez da betetzen. Datu hauek ez dute bat egiten beste azterlan batzuetako emaitzekin, izan ere, ikerketa hauetan berretsi zen jazarpen homofobia sufritu zuten pertsonen jokoera hauek burutzeko joera handiagoa azaltzen zutela (Birkett, 2010; Caminos eta Quentrequeo, 2015).

Azkenik, emaitzek adierazi dute bullyingaren biktima-erasotzaileen ehunekoak (% 32,4 ez-heterossexualak eta % 21,4 heterossexualak) nahiz cyberbullyingaren ziberbiktima-erasotzaileen ehunekoak (% 19,6 ez-heterossexualak eta % 13,8 heterossexualak) handiagoak direla pertsona ez-heterossexuala pertsona heterossexualekin alderatuz. Era berean, pertsona ez-zisgeneroek aurrez aurreko bullyingaren biktima-erasotzaileen ehuneko handiagoak azaltzen dituzte (zisgeneroekin alderatuz) (% 48,1 ez-zisgeneroak, % 22,4 zisgeneroak). Cyberbullyingean berriz, ehunekoak antzekoak izan dira identitate sexualaren arabera (% 11,1 ez-zisgeneroak, % 14,6 zisgeneroak). Kasu honetan, 7. hipotesia ia guztiz bete da.

Orientazio eta identitate sexualaren arabera eskuratutako bullying eta cyberbullyingaren biktimizazioaren emaitzek autore anitzek aurkitutakoa berretsi dute. Lan hauek agerian utzi zuten LGTB kolektiboak bullying eta cyberbullyinga pairatzeko kalteberatasun handiagoa duela (Abreu eta Kennym, 2017; Baiocco et al., 2018; Birkett et al., 2009; Bouris et al., 2016; Camodeca et al., 2018; Collier et al., 2013; COGAM, 2016; Elipe et al., 2017; Gegenfurtne eta Gebhardt, 2017; Pichardo et al., 2002; Shields et al., 2012, Toomey eta Russel, 2016).

Eskola jazarpena burutu duten pertsonen dagokienez, nahiz eta pertsona ez-heterossexualak eta ez-zisgeneroek bullying-jokoerak sarriago burutzeko joera duten, jokoera hauek ez dira oso maiz gertatzen, hots, modu larrian. Honen harira, emaitza hauek koherenteak izan litezke biktima-erasotzaileen rola orientazio eta identitate sexualaren arabera aztertzean eskuratu diren emaitzekin. Ikerketa honek agerian utzi du biktima-erasotzaileen ehunekoak handiagoak direla pertsona ez-heterossexual eta ez-zisgeneroetan, eta horregatik, pentsa daiteke kolektibo honek burututako jokoera erasokor gehienak defentsa erantzun gisa egiten direla.



Ondorioz, heteronormatibitatearen estereotipoetatik urruntzen diren pertsonen jokaera erasokorrek pairatzeko kalteberatasun handia sufritzen dutela berretsi da. Gainera, aniztasun sexualarekiko errespetu eta tolerantzian oinarritzen diren ekintza zehatzak garatzeko beharra agerian utzi da. Horrela, ekintza hauek gaur egun existitzen diren bullying eta cyberbullying prebentzio eta esku-hartze programetan inplementatu daitezke.

**8. HIPOTESIA:** Pertsona ez-heterosexualen artean, mutil gayek lesbianek baino bullying/cyberbullying biktimizazio prebalentzia handiagoa erakustea espero da. Gainera, pertsona bisexualek lesbianek baino biktimizazio gehiago azalduko dute.

Ikerketa honetan aurkitu da mutil gayek lesbianek baino biktimizazio gehiago azaltzen dutela bai bullyingean (% 76,9 gayak, % 33,3 lesbianak) eta baita cyberbullyingean ere (% 38,5 gayak, % 33,3 lesbianak). Pertsona bisexualei dagokienez, emaitzek berretsi dute bullyinga (% 75,8 bisexualak, % 33,3 lesbianak) eta cyberbullyinga (% 62,6 bisexualak, % 33,3 lesbianak) sufritzeko kalteberatasun handiagoa erakusten dutela lesbianekin alderatuz. Horrela, 8. hipotesia bere osotaunean betetzen da, beste bi ikerketetan aurkitutakoa baieztatuz (Abreu Kennyin, 2017; Orue et al., 2018).

Ikerketa honetan nabarmendu beharra dago, bullyinga eta cyberbullyinga orientazio sexualaren arabera aztertu direnean, pertsona bisexualek biktimizazio eta ziberbiktimizazio ehuneko altuak azaldu dituztela (% 75,8 biktima bisexualak; % 62,6 ziberbiktima bisexualak). Emaitza hauek ez dute bat egiten estatu mailan burututako beste ikerketa batean aurkitutakoarekin (Picardo et al., 2013). Izan ere, ikerlari hauek aurkitu zuten pertsona homosexualek bisexualek baino biktimizazio gehiago sufritzen dutela. Zentzu honetan, kontuan eduki behar da ez-normatiboa den orientazio sexuala duten pertsonen lagina lortzeko zailtasun handia duen erronka dela. Nahiz eta azken urteetan aniztasun sexualarekin lotutako aurrerapena egitea lortu den, estigmatizazio handia existitzen da eta gizarteak inposatutako estereotipoetatik urruntzeko beldur handia eragiten du pertsona gehienetan. Kasu hauetan, nerabe batentzat errazagoa da bisexuala dela onartzea homosexuala dela onartzea baino, pertsona bisexual batek pertsona heterosexualek dituzten "lehentasunak" edukitzean jarraitu baitezake. Horregatik, suposatuta daiteke ikerketa honetan bisexual bezala identifikatu ziren nerabeen artean homosexualak egongo direla.

Orientazio sexuala argi ez duten pertsonen dagokienez, gai honetan alde batera utzi ezin den taldea dela ikusi da. Alde batetik, eta bullyingaren kasuan, ikerketa honetan aurkitu da pertsona hauek jokaera erasokor gehiago sufritzen dituztela pertsona lesbianekin alderatuz (% 60,6 ziur ez daudenak, % 33,3 lesbianak). Bestalde, cyberbullyinga orientazio sexualaren arabera aztertu zenean, pertsona bisualek, gayekin eta lesbianekin alderatuz, cyberbullying-jokaeren ehuneko handiagoak sufritzen dituztela ikusi ahal izan zen (% 47,2 ziur ez daudenak, % 38,5 gayak, % 33,3 lesbianak). Datu hauek Birkett et al. (2009) egileek burututako ikerketarekin bat datoza, non ez-heterosexualak ziren baina orientazioa argi zuten pertsonen eta orientazio sexuala argi ez zuten pertsonen arteko biktimizazio aldeak aztertu ziren. Modu honetan berretsi zen orientazio sexualaz ziur ez dauden pertsonak LGB pertsonak bezain edo kalteberagoak direla. Nabarmendu beharra dago bizi garen gizartea sistema binario batean oinarritzen da eta denborak aurrera egiten duen ahala, orientazio bakar eta zehatz batekin identifikatzeko behartuak sentitzen gara, hots, pertsona heterosexual edo homosexual bezala. Egoera honetan, orientazio sexualaz ziur ez dauden pertsonak edota etiketekin identifikatzen ez diren pertsonak, inguratzen dituen gizartearengandik presio handia sentituko dute.

Emaitza hauek agerian utzi dute momenturarte behintzat heterosexual bezala identifikatzen ez diren pertsona guztiak kontuan eduki behar direla, orientazio sexuala argi ez duten pertsonak barne. Horrez gain, berriro ere berretsi da aniztasun sexualarekiko tolerantzia sustatzen duten ekintzak burutzea ezinbestekoa dela.

**9. HIPOTESIA:** Bullying eta cyberbullying LGTB-fobiko globalari ("behin", "batzuetan") dagokionez, % 60 biktima aurkitzea espero da eta ikasleen % 20k bullying/cyberbullying LGTB-fobikoaren jarrerak burutu izan dituela. Horrez gain, partaideen % 70 beste kideek egindako jarrera LGTB-fobikoen testigu izan dela estimatzen da.

Ikerketa honetan aurkitutako emaitzek adierazi dute bizitzan zehar, Bigarren Hezkuntzako ikasleen % 60k bullying/cyberbullying LGTB-fobikoa sufritu duela, % 6,6 erasotzaile izan dela eta nerabeen % 73,2 jokaera erasokor LGTB-fobikoen testigu izan dela. Ondorioz, 9. hipotesia bete egin da biktima eta behatzaileen kasuan baina ez da bete erasotzaileen kasuan.

Biktimen inguruko emaitzek beste autoreen ikerketetan aurkitutakoa berretsi dute. Ikerketa hauetan ikusi zuten LGTB pertsonen % 57,38k (Generelo et al., 2012; Martxueta eta

Etxeberria, 2014) eta pertsona heterosexualen % 58 inguruk bizitzan zehar bullying LGTB-fobikoa sufritu zutela (Pichardo et al., 2007). Cyberbullyingari dagokionez, ikerketa lerro honetan egindako azterlan anitzek azaldu dute gutxi gorabehera LGTB pertsonen % 71,34k (Abreu eta Kennym, 2017; COGAM 2016; Kosciw et al., 2016) eta orientazio/identitate sexual normatiboa duten pertsonen %57k cyberbullying LGTB-fobikoa pairatu zuela. Gainera, nerabeen artean, bullying/cyberbullying LGTB-fobikoaren testigu izan diren ehuneko handia berretsi da. Izan ere, lehenago aurkitu diren ehunekoak % 63 eta % 98,1 bitartekoak dira (Kosciw et al., 2016; Pichardo et al., 2013).

Ikusi daitekeenez, erasotzaile rolari dagokionez, 9. hipotesia ez da bete. Alde batetik, kontuan eduki beharra dago bullying/cyberbullying LGTB-fobikoaren erasotzaileen prebalentzia item bakar batekin erdietsi dela ("Beste kide baten genero identitate/adierazpen edo orientazio sexualaren inguruan zurrumurrua zabaldu nuen"). Dena den, aniztasun sexualaren aurrean jokaera erasokorren bat burutu duten nerabeen ehunekoak kontuan hartuz gero, ikerketa honetan aurkitutako ehunekoak handiagoak dira eta hipotesiarekin bat egingo lukete. Kasu honetan, partaideen % 16k gaizki hitz egin zuen, komentario negatiboak egin zituen edo zurrumurruek zabaldu zituen LGTB den edo LGTB bezala hautematen den kide baten aurrean. Horrez gain, aurretik egindako ikerketa gehienek ez dute bullying LGTB-fobikoaren erasotzaileen ehuneko orokorrik azaltzen. Hauetan, jokaera LGTB-fobiko zehatzak burutu dituzten ikasleen ehunekoak aztertzen dira.

Azkenik, bullying/cyberbullying LGTB-fobiko larria aztertu dugunean, agerian utzi da partaideen % 13,3k jokaera erasokor LGTBfobikoak larriki sufritu zituela eta % 49,8k bullying/cyberbullying LGTB-fobiko larriaren testigu izan zela. Ehuneko hauek oso deigarriak dira eta berriro ere baieztatzen dute beharrezkoa dela esku-hartze protokoloak nahiz jazarpen homofobia ekiditeko ekintza-planak burutzea. Hari honetera, ezinbestekoa da diskriminazioaren aurkako neurriak sustatzea eta aniztasun sexuala askatasun osoz adierazteko politikak gauzatzeko. Horrela, ikasleak orientazio zein identitate sexuala eskoletan inolako taburik gabe adierazteko aske eta babesturik sentituko lirateke. Horrez gain, nabarmentzeakoa da ikastetxeetako langileak eta ikasleen senideak hezi beharra daudela rol aktiboa hartu dezaten edozein jokaera diskriminatzaile errotik kentzeko.

**10. HIPOTESIA:** Pertsona ez-heterosexualen artean jarrera LGTB-fobikoen biktimen ehuneko handiagoak aurkitzea espero da pertsona heterosexualekin alderatuz.

10. hipotesian espero zen moduan, bullying/cyberbullying LGTB-fobikoen biktimen ehuneko handiagoak aurkitu da pertsona ez-heterosexualen artean, pertsona heterosexualekin alderatuz (% 79,5 ez-heterosexualak, % 57,2 heterosexualak). Datu hauek lehenago gauzatutako ikerketekin bat datozen, non baieztatu zen orientazio sexual ez-normatiboa duten pertsonen bullying/cyberbullying mota hau sufritzeko joera handiagoa dutela pertsona heterosexualekin alderatuz (Abreu eta Kennym, 2017; Baiocco et al., 2018; Birkett et al., 2009; Bouris et al., 2016; Camodeca et al., 2018; Collier et al., 2013; COGAM, 2016; Elipe et al., 2017; Gegenfurtne eta Gebhardt, 2017; Pichardo et al., 2002; Shields et al., 2012, Toomey eta Russel, 2016).

Emitza hauek berretsi dute orientazio sexuala bullying/cyberbullyinga sufritzeko arrisku faktorea dela. Gainera, ikerlari anitzek lehenago aipatu duten bezala, bullying/cyberbullying LGTB-fobikoa ez da LGTB kolektiboari soilik eragiten dion arazo bat, izan ere, gizartean nagusi diren femenino/maskulino estereotipoetatik urruntzen diren pertsonen jokoera hauek sufritzen dituzte, nahiz eta heterosexualak izan (Mayock et al., 2009; Pichardo et al., 2007; Poteat eta Espelage, 2005).

Ikerketa honek agerian utzi du eskola testuinguruan burutzen diren eraso asko desberdinaren aurrean egiten direla. Hau da, gizarte batean bizi gara non norbatibotzat hartzen denarengandik urruntzen den guztia epaitua izango den. Gu gara oso adin goiztierretatik ahaleginak egiten ditugunak inguratzen gaituen guztiak lerro bera jarraitu dadin. Norbatiboarekin bat egiten ez duen egoera batekin aurkitzen garenean, gu berak gara jokoera desberdinen bidez lortzen dugunak desberdina den pertsona errudun sentitzea, bera den bezalakoa azaltze hutsarengatik. Gizarte batean bizi gara non tolerantzia gutxi existitzen den aniztasunaren aurrean, non datuek berriro berretsi duten tolerantzia eta errespetua sustatzen duen hezkuntza beharrezkoa dela, hezkuntza honen helburua pertsona guztiak diren bezalakoak adierazteko aske eta babesturik sentituko liratekeen testuingurua lortzea izango zelarik.

**11. HIPOTESIA:** Biktimek, erasotzaileek eta behatzaileek informatutako jarrera erasokor LGTB-fobiko sarrienak hauek izango dira: gaizki hitz egin, komentario negatiboak eta zurrumurruek; burlak, imitazioak eta keinuak; irain LGTBfobikoak, eta azkenik, hitz egiteari utzi, baztertu, parte hartzen ez utzi eta isolatu.

Ikerketa honetan, biktimen, erasotzaile eta behatzaileen ikuspegitik, sarrien gertatzen diren jokaera LGTBfobiko sarrienak honako hauek izan dira: gaizki hitz egin, komentario negatiboak, zurrumurruek (% 16 biktima, % 16 erasotzaile, % 72,5 behatzaile); burlak, imitazioak, keinuak (% 11,7 biktima, % 14,4 erasotzaile, % 66,8 behatzaile); irain LGTBfobikoak (% 8,7 biktima, 10,4% erasotzaile, % 61,3 behatzaile) eta gaizki hitz egin, baztertu, parte hartzen ez utzi, isolatu (% 7,1 biktima, % 5,5 erasotzaile, % 39,5 behatzaile). Ondorioz, 11. hipotesia bere osotasunean betetzen da eta Pichardo et al. (2007) autoreek estatu mailan burututako ikerketan aurkitutakoa baieztatzen da. Horrez gain, emaitza hauek 3. eta 6. hipotesietan aipatutakoarekin bat egiten dute, non aurkitu den ikasleen artean gertatzen diren jarrera erasokor sarrienak ahozkoak diren.

Azpimarratzekoa da Pichardo et al. (2007) ikertzaileek aurkitutako emaitzek jokaera erasokor guztietan zein aztertutako rol guztietan ehuneko handiagoak azaldu zituztela ikerketa honetan berretsitako ehunekoekin alderatuz. Hala ere, eta nahiz eta ikusi ahal izan den azken urteetan aniztasun sexualaren aurreko jokaera erasokorren murrizketa egon dela, kezkarria da LGTB diren edo LGTB bezala hautemandako 10 ikasleetatik 2 komentario negatibo eta zurrumurruen biktima izan direla. Negatiboak diren emaitzak aipatzen diren bezala, nabarmendu beharra dago ikerketa honen lagina jasotzen ari ginen bitartean, ikusi ahal izan genuela parte hartu duten ikasle gehienek errespetua adierazi zutela aniztasun sexualaren inguruko gaien aurrean.

Berriro ere arazo honi aurre egiteko estrategia berriak planteatzeko erronkarekin aurkitu gara. Estrategia hauetan arreta berezia eman beharko litzateke aniztasun sexualaren aurrean gertatzen diren eskola jazarpen-jokaerei. Gai hau hezkuntza komunitatearentzat erronka handia izango da, ikasleek denbora gehiena ikastetxeetan ematen baitute eta testuinguru honetan da non egunero, ikasleek irakasleengandik zein beste kide edota ikus-entzunezko materialengandik eratorritako mezu heteronormatiboen bonbardaketa jasotzen duten. Mezu hauek ikasleetan

modu inkontzientean barneratzen dira, LGTB diren edo LGTB itxura duten pertsonak erasotzea eraginez, edota ikasleengan beldurra sorraraziz sexualitatea adierazteko orduan.

**12. HIPOTESIA:** Orokorrean, LGTB pertsonen inguruko ezagutzari dagokionez, pertsona transexualek ikusgarritasun gutxiena azalduko duten bitartean, mutil gayek ikusgarritasun gehiena azalduko dute nerabeen artean. Gainera, ikasleen gehiengoak pentsatuko du orientazio sexual ez-normatiboa duten pertsonak ez direla mespretxuz tratatu behar.

12. hipotesian aipatu zen bezala, mutil gayak izan dira 13-17 urte bitarteko nerabeen artean ikusgarritasun gehiena azaldu dutenak (% 80,2), ondoren neska lesbianak egongo direlarik (% 62,4), jarraian bisexualak (% 72,1) eta, azkenik, transexualak (% 20,4). Gainera, ikasleen % 99,7k orientazio sexual ez-normatiboa duten pertsonak ez direla mespretxuz tratatu behar uste duen bitartean, % 0,3k bakarrik adierazi du LGB pertsonak gutxiestea zuzena dela.

Nerabeek aniztasun sexualaren inguruan duten ezagutzarekin lotutako emaitzek Pichardo et al. (2007) autoreek aurkitutakoarekin bat egiten dute. Aspektu honetan, ehuneko oso antzekoak aurkitu dira, hau da, azken urteetan ez da aldaketarik nabarmendu. Gai honetan, azpimarratu beharra dago, Pichardo et al. (2007) ikerlarien lanean, partaideen % 55,6k ez zuela pertsona transexualik ezagutzen, eta ikerketa honetan berriz, ikasleen % 79,6k adierazi du ez duela identitate sexual ez normatiboa duen pertsonarik ezagutzen, ehuneko handiagoa aurkituz. Ondorioz, nahiz eta azken urteetan LGTB kolektiboaren ikusgarritasuna handitzen ari den (komunikabideei esker, adibidez) ez da nahikoa izan nerabeek aniztasun sexualaren inguruan duten ezagutza areagotzeko.

Datu enpiriko hauei gehitu behar zaie ikasleek ikastetxeetan galdetegiak betetzen ari ziren bitartean behatu genuena. Partaide askok transexual hitzaren aurrean larritasuna adierazi zuten, hitz horren definizioa galdetuz. Beste batzuetan, ez zekiten zein desberdintasun zegoen pertsona transexualen eta homosexualen artean, ez baitzuten ulertzen orientazio eta identitate sexualaren arteko aldea.

Orientazio eta identitate sexual ez-normatiboa duten pertsonak ezagutzeak ikasleek pertsona hauen inguruan dituzten aurreiritziak murriztu dezake, jokaera diskriminatzailak edo LGTBfobian oinarritzen den eskola jazarpena murriztuz. Hezkuntza sistemak berriro ere ahaleginak egin beharko lituzke pertsona hauen ikusgarritasuna areagotzeko, pertsonai

historikoen adibideekin, adibidez. Horrela, ikasleak konturatuko lirateke kolektibo honen existentzia benetakoa dela eta ezinbestekoa dela errealitate hau errespetatzea.

Pertsona homosexualek eta bisexualek izan beharko luketen tratua inguruan nerabeek duten iritzari dagokionez, ikerketa honek emaitza positiboak azaldu ditu eta Pichardo et al. (2007) autorreen ikerketan aurkitutakoarekin desberdintzen dira. Izan ere, azken ikerketa honetan elkarriketatutako % 13,4k uste zuen LGB pertsonak mesprexuz tratatzea zuzena dela. Kontuan eduki behar da, gaur egun, eta nahiz eta aniztasun sexuarean oinarritzen den hezkuntza lortu beharreko erronka den, nerabeek badakitela orientazio sexualarengatik pertsona bat gaizki tratatzea okerra dela. Hala ere, eta emaitza desberdinekin berretsi den bezala, ikasleek jokaera diskriminatzaileak burutzen jarraitzen dute eta, horregatik, aniztasun sexualaren errespetuan oinarritzen diren prebentzio eta esku-hartze programak beharrezkoak dira.

**13. HIPOTESIA:** Aniztasun sexualaren aurreko jarrerei dagokienez, mutilek LGTB pertsonen edota LGTB bezala hautematen diren pertsonen aurrean jarrera erasokorren kopuru handiagoa erakutsiko duten bitartean, neskek jarrera positiboak erakutsiko dituzte aniztasun sexualaren aurrean. Horrez gain, senideak izango dira LGTB pertsonak sarrien lagunduko dituzten pertsonak.

Alde batetik, emaitzek azaldu dute mutilek honako jokaera erasokorrak sarriago burutzen dituztela (neskekin alderatuz): irain LGTB-fobikoak (% 15,6 mutilak, % 5,7 neskek), gaizki hitz egin, komentario negatiboak, zurrumurrak (% 19 mutilak, % 13,3 neskek), burlak, imitazioak, keinuak (% 20,3 mutilak, % 9 neskek), mehatxuak (% 2,9 mutilak, % 1,5 neskek), gauzak bota, kolpeak, bultzatu (% 5,9 mutilak, % 2,3 neskek) eta hitz egiteari utzi, baztertu, parte hartzen ez utzi, isolatu (% 7 mutilak, % 4,2 neskek). Bestalde, neskek jarrera positiboagoa erakusten dute bi mutilez edo bi neskez osatutako bikote batek sentimenduak publikoan adierazteko orduan, eta gaya, bisexuala edo transexuala dela onartzen duen kide baten aurrean. Kasu honetan, neskek eta mutilek jarrera antzekoa azaltzen dute lesbiana dela onartzen duen kide baten aurrean. Azkenik, eta espero zen bezala, partaideek pentsatzen dute familiak direla orientazio eta identitate sexual ez-normatiboa duten pertsonen hobekien tratatzen dieten pertsonak eta LGTB izango balira sostengu gehiena haiengandik jasoko zutela uste dute. Horrela, 13. hipotesia guztiz bete da.

